



Hirigintza barneratzailea


Kaleek badute generoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES



mintegiaren ondorioak

Hirigintza barneratzailea

Kaleek badute generoa



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daikete: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/webOpac>

Argitaraldia: 2012ko ekaina
Ale-kopurua: 1.000 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

“Hirigintza barneratzailea. Kaleek badute generoa” jardunaldien koordinatzailea: Alazne Mujika Munduate
Hirigenmap ikerlanaren egileak: Gentzane Goikuria Irigoien eta Aitor Jauregi Larrañaga

“Hirigintza barneratzailea. Kaleek badute generoa” liburuaren koordinatzailea: Marije Apodaka Ostakoetxea

Irudiak, diseinua eta maketazioa: Patricia Zotes Ferrero www.laneveragrafica.com


Argazkiak: 97 S&F, S.L. eta Hiria Kolektiboa

Itzulpena: Hori Hori S.A. www.hori-hori.com

(Aitor Jauregi Larrañagaren eta Koldo Telleria Anduezenaren ponentziak erdaratu dira; gainontzekoak, berriz, euskaratu. Jatorrizko testuak argitaratu dira, egileek idatzi bezala)

Inprimategia: SACAL S.L.
ISBN: 978-84-457-3248-9
Lege Gordailua: VI 458-2012

Oharra: liburu honek HIRIGENMAP ikerketarekin DVD bat dauka



mintegia

Hirigintza barneratzailea
Kaleek badute generoa

Europa Kongresu Jauregia VITORIA-GASTEIZ
2011ko azaroaren 9-11

Hirigintza Barneratzaileari buruzko Jardunaldien bilduma-liburua

Gizon gisa, ezkerreko politikari gisa eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburu gisa, uste dut eta defendatzen dut pertsonak berdinak direla gizarte-bizitzaren eremu guztietan eta gizonek eta emakumeek aukera, eskubide eta betebeharrak berberak dituztela, eta horren alde egiten dut lan ere.

Irudi lezake XXI. mende betean begien bistako zerbait dela lan eta gizarte aldetik parekatzeko, herritar oso izateko eta sexuaren zioz ez berezikeriarik ez egiteko aldarrikapena, baina Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak sustatutako Hirigintza Barneratzaileari buruzko Mintegian garbi geratu zen bide luzea dugula oraindik egiteko.

Egia da urrats garrantzitsuak egin direla, botere publikoek eta erakunde publikoek sustaturik, gaur egungo gizartean emakumeak aintzatesteko, barneratzeko eta ikusarazteko politiketan. Baina oraindik ere sustatu beharrekoak ditugu politika aktiboak, neurri zehatzak, praktikak, jarduketa txiki eta handiak, eta sustatu ere, esparru guztietan sustatu behar ditugu, politikoan, ekonomikoan, sozialean, hirigintzakoan, kulturean, publikoan eta pribatuan, premia eta sentikortasun guztiak kontuan hartuko dituen benetako berdintasun-politika bat gauzatzeko.

Horri buruz hitz egin genuen, hain zuzen ere, mintegian: herritar guztientzako espazio publikoek; hiri ireki eta barneratzaileez; gaur egun gure herri eta hirietan bizi diren pertsonen pluraltasuna eta heterogeneotasuna jasoko dituzten eta aukera-berdintasunean bizitzeko eta sozialki garatzeko modua emango duten bizikidetzak-espazioak.

Eta, hain zuzen ere, espazio publikoan, hirigintzan, hiri-plangintzan eta arkitekturan lortu ahalko da, beharbada, gehiago gutxiagorekin.

Ez da inbertsio handirik egin behar errealitate bihur daitezen bereizkeriarik gabeko etxebizitzak, kaleak, plazak, lekuak, non emakumeak seguru, ageriko, eroso, protagonista eta partaide sentituko diren eguneroko bizimoduan eta beren hirietako aurrerapenean; aitzitik, kontzientzia eta ausardia behar dira hirigintza-politikak praktikara eramateko, batzuetan oso politika xumeak, hala nola espaloi zabalak diseinatzea, kaleak ondo argizatzea, espazio gardenak, seguruak eta irisgarriak diseinatzea, garraio publikoen ibilbideak eta ordutegiak emakumeen premien arabera moldatzea (emakumeek erabiltzen dituzte gehienik). Kontua da gunek biziak eta saltokiz, bulegoz, osasun-zentroz, liburutegiz, eskolaz, parkez eta bestelakoz beterikoak sortzea. Azken batean, hiri gizatiarragoak sortzea, biztanleen pluraltasunaren eguneroko premiei erantzuteko eta familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko.

Hirigintza barneratzailea bultzatzea emakumeek beren ikuspegia emango duten eta modu aktiboan parte hartuko duten espazio publiko bat bultzatzea da, eta, hala, modu positiboan uztartzea sexu, adin, kultura eta estatus sozioekonomiko guztietako pertsonak osatzen duten eta gaur egun munduko hiri guztiek partekatzen dugun multzo heterogeneo horren premiak.

Modu horretara, hauxe lortuko dugu: herritar bakoitzak areago sentitzea bere hiri-ingurunean partaide dela; bere hiriko eguneroko kudeaketarekin identifikatzea eta erantzukidetasunez jokatzeko.

Denok egiten dugu hiria, eta egiaz bertan gustura sentitzen bagara eta geure sentitzen badugu sentitu, gozatu, zaindu eta jasoko dugu eta eginaraziko diogu aurrera.

Mintegi horretan egiaztatu ahal izan dugu pertsona askok egiten dutela lan, gogotsu eta irmoki, gure hiriak hobetzeko. Horregatik, espero dut biltzar hau eta liburu hau baliagarri izango direla ildo horretan jarraitzeko. Egin dezagun gogoeta, har dezagun kontzientzia, eta, garrantzitsuena, ekin diezaiozun lanari. Egin dezagun lan, gure herriak eta hiriak desberdinen arteko bizikidetzaren, errespetu- eta elkartasun-gune izan daitezen.

Iñaki Arriola

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua



Hirigintza Barneratzaileari Buruzko Mintegia

Hiru egun bizi izan ziren, eta egun horietan aukera izan genuen Hirigintzako jardunbide onak ezagutzeko eta horietan sakontzeko, mintegiaren izenburuak adierazten zuen ikuspegi guztiz iradokitzaile hartatik: **“Hirigintza barneratzailea”**:

Entzundako hitzaldiak eta egindako lantegiak baliagarri gertatu dira esperientziak trukatzeko, ikasteko, eztabaidatzeko, eta, batez ere, gogoeta egiteko diseinu unibertsaleko hirigintzaz eta berori diseinatzen dutenek beren gain hartzen duten erantzukizunaz.

Hiri-diseinuaren arduradunek, izan teknikari edo politikari, beren erabakitzeko ahalmenarekin hiri-eredua baldintzatuko duten aldetik, konpromiso handia hartzen dute gizartearekin. Familia askok erabiliko dute haien plangintzaren emaitza. Hiri-diseinuak eginkizun garrantzitsua izango du, baldintzatu egingo baititu bertako bizilagunen erosotasuna, bizi-kalitatea, gizarte-ongizatea, denboraren banaketa eta kontsumoa, eta are ekonomia ere.

Gaur egun, hiri planifikatuaz hitz egin dezakegu, garai bateko hiri espontaneoak dei genezakeenari kontrajarririk, eta esan dezakegu egilerik gabeko hiritik egiletza-hirira igaro garela.

Ogibidez hirigileen taldekoa banaiz ere, orain hirigintzari erantzukizun politikotik begiratu behar diot, hirigintza-erabilera hori, batzuetan alderdi formal hutsak baloratuz diseinatua —orain gehiegizkoa iruditzen zait hori—, administratzeko eta kudeatzeko esparrutik. Hesiaren beste aldetik aztertzeak eta kudeatzeak irtenbide berari buruzko hainbat balorazio sortzen ditu maiz.

Aitortu behar dut poztu nintzela mintegi honetako hizlariari entzutea Euskadin sentikortasun handiagoa sumatzen dela diseinu unibertsal deitu dugun horren inguruan eta pozik etortzen direla era honetako jardunaldietara, “beren hazia ez dela alferrik galtzen” sentitzen dutelako. Baina, egia esanda, uste dut oraindik asko dagoela egiteko, Euskadin ere, hirigintza barneratzailearen barruan. BARNERATZAILEA letra larriz, ez soilik “generokoa deiturikoari dagokiona.

Ez dugu orokortu nahi, ez bailitzateke zilegi, baina gure hiribildu eta hirietan oraindik ere aurkitzen ditugu espazio ez-segurua dituzten eremuak, diseinu ez oso jasagarriak edo gure gizartearen ohituretarako eta bizimodurako desegokiak, izugarriko zabalgunek dituzten eskalatik kanpoko kale-hesiak, zona ia iritsiezinak... Zenbaitetan, inguruabar horiek topografia ezinezkoen ondorio dira, edo espontaneoki garatutako hiri handiak izan ohi dira, nahiz eta halako kasuak oso eremu txikiak eta kontrolatuak izaten diren, gaur egungo eskariaren arabera egokitzeko etorkizuneko esku-hartzeen xede.

Benetan kezkarria hauxe da: jadanik paperean bertan igartzea arazo horiek izango direla garapen berriko eremuetan, eta, erantzun funtzionalak baino gehiago beste era bateko alderdiak balioetsiz, ez bakarrik arazo horiek onartzea, baizik eta, gainera, bikainki saltzea. Uste dut garrantzitsua dela oreka lortzea formaren eta funtzioaren artean, diseinuaren eta benetako premien artean, estetikaren eta jasagarritasunaren artean.

Denok ados gaude gure hirian berdin bizi eta gozatu behar dutela hurrek eta zaharrek, desgaitasunen bat duten pertsonen, gizonen eta emakumeen, indartsuen eta ahulek. Baina, gero, errealitatea ez da hala. Eta ez da hala, hiria bestela portatzen delako, ez pertsonekin, baizik eta bete behar dituen funtzioekin.

“Genero”-bereizkeriaren sentimendua sortzen da emakumea tradizionalki eman zaizkion funtzioekin erlazionatzen denean. Emakumeak egiten dionean bultza orgatxoari edo zahar bati laguntzen dionean, emakumeak irten behar izaten duenean lanetik haurra medikutara eramateko, emakumea joaten denean supermerkatua eta poltsaz beterik itzuli behar duenean eta ez duenean igogailurik laugarren solairura igotzeko, osasun-zentrora adineko pertsona batekin joan behar duenean eta garraio publiko egokirik ez duenean... Arazoa ez da urte asko izatea, arazoa da norbaitek arkitektura-oztopo bat gainditu behar izatea desgaitasunen batek galarazten diola eta. Hau da, ezer badago funtzioari loturik, hiri-diseinua da hori.

Hala ere, onartu behar dugu asko aurreratu dela alde horretatik. Eta horretan asko lagundu du emakumeek urteetan egin duten etengabeko borrokak, haien ahalegina ez baita alferrikakoa izan.

Emakumeak lanean hasteaz bat, pixkanaka haien ondare bakar izateari utzi diote tradizionalki haiei lotu izan zaizkien funtzioek. Pixkanaka-pixkanaka, duela gutxi arte “pentsaezinak” ziren eginkizunak bere gain hartzen joan da gizona, eta, ondorioz, begiak zabaltzen egoera berrietara —ezezagun izateagatik berriak—; hala, emazteek bizitzaren aro guztietan zer oztopo aurkitu dituzten ohartu da. Arazoak pairatzen dituen subjektua gizartea bada —gizonak eta emakumeak—, saiatuko dira konpontzen.

Zinez uste dut lehenengo pausoak eman direla dagoeneko. Belaunaldien arteko desberdintasunak hor daude. Gaur egungo errealitateak ez du zerikusirik duela berrogei urtekoarekin, familia-erantzukizunen banaketari dagokionez. Gizonak aldatzen ari dira, baina baita emakumeak ere. Eta baikor naiz horregatik. Egin daiteke. Denbora kontua da.

Aspaldi ari da fruituak ematen hainbat eta hainbat emakumek hirian berdintasuna lortzeko egin duten borroka. Luze gabe, hiri-diseinuaren arduradunak emakumeak izango dira gehienak. Oraingoan, hala dira jadanik unibertsitatean. Orain, emakumeek hainbeste denboran desiratutako jakintza eta prestakuntza izango dituzte. Beren erabakigunea aurki dezaten besterik ez da falta. Itxaropena badugu alderantzizkatze-gertakari horretan, eta ezin digu hutsik egin.

Hain zuzen, gaurko gizartea duela 30 urtekoarekin alderatuz oso bestelakoa dela baieztatzeko, ikusi besterik ez dago mintegi honek, hain titulu nabarmena izanik ere, gizonezko ugariren interesa piztu duela, hala bertaratuen artean, nola hizlarien artean, antolatzailearengandik hasita (Rafael Farias, Lurzoru eta Hirigintza zuzendaria). Beraz, uste dut badela garaia topikoak alde batera uzteko, eta denok, emakume eta gizon, elkarrekin lan egiteko, hirigintza arduratsu eta jasangarri baten alde.

Bukatzeko, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet parte-hartzaile eta bertaratu guztiei, eta, bereziki, hitzaldia eman eta lantegiek arrakasta izan dezaten lagundu duten pertsoniei.

Honako hauei:

- **Isabela Velázquez:** azalpen bikaina egin zuen espazio publikoaren erabileraren historiari buruzko esparru-hitzaldian, eta, ondoren, Josefina Olzarekin batera aritu zen lanean, 1. tailerrean, hiri-plangintzan eta -diseinuan genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoan.
- **César San Juan:** “Kriminalitatearen mapak eta segurtasunik ezaren pertzepzioa” aurkeztu zuen, eta IVACek egindako azterlanak (Donostia edo Bilbo) agertu zituen.
- **Ana Oregiri** eta **Zuriñe Elordiri:** “Vitoria-Gasteizko segurtasunari buruzko diagnostikoa” azaldu zuten, eta hainbat jarduketa-proposamen agertu zituzten.
- **Ane Alonsori:** hiri-plangintzan emakumeak sartzea garrantzitsua dela nabarmendu zuen. Hitzaldia 3. tailerrarekin osatu zuen, Oihane Ruizekin eta Amaia Albenizekin batera; hain zuzen, hiri debekatuaren mapei buruzkoa izan zen tailerra (Basauri, Hernani, Uribe Kosta, Tolosa, Sestao, Eibar eta beste hainbat herriri buruzko etsenpluak.)
- **Gema Varonari:** 2. tailerra zuzendu zuen, “Segurtasunari buruzko tokiko auditoretzak” izenburupean. Segurtasunaren ikuspegia kriminologiaren ikuspuntutik eman zuen, funtsezko tresna prebentziorako tokiko politikak diseinatzeke orduan.

- **Aitor Jauregi:** ibilbide bat egin zuen Euskadiko herrietan barrena, eta hirigintza-plangintzaren gaur egungo egoera azaldu zuen, generoaren ikuspegitik (Etxebizitza Sailak agindutako azterlana, egoeraren diagnostiko bat izateko udalei laguntzak emateko hurrengo programari begira).
- **Koldo Telleriari:** zabaldu egin zuen udalen ikuspegia “Eskala txikiko erabakiak, aldaketa handiak – Udalen eginkizuna” hitzaldian, eta herritarren eskalan diseinatzearen alde egin.
- Halaber, **Maria Luisa Aguirrechek** EAEko administrazio publikoetan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea nola aplikatzen den azaldu zuen eta udal esparrura gerturatzen lagundu zuen .
- **Begoña Pecharrománi:** bestelako ikuspegi bat ekarri zuen, emakumeen mugikortasunean eragiten duten faktoreetan oinarritua.
- **Almudena Ruiz de Angulori:** trenbideko garraioaren munduari buruzko jakintza azaldu zigun, genero-ikuspegitik.
- **Marta Zamaconari** eta **Iera Azcarateri:** xeheki azaldu ziguten zer pauso eman behar diren generoaren araberako eragina alde aurretik ebaluatzeke eta administrazio publikoentzako tresna giltzarri gisa egituratzeko.
- **Sebastián Bayori:** landaguneko hiri-plangintza azaldu zigun, zehazki Arabako Mendialdeko Haranaren ingurukoa.
- **Javier Peñari** eta **Amaia Elorzari:** “Hemen denok jolasten dugu” proiektua azaldu zuten, futbol-zelaietan hiri-aukerak sustatzeko espazio gisa.
- **Cristina Cordeirori** eta **Amaia Herrerori:** beren ezagutza azaldu zuten, tokiko esperientziaz ateratako irakaspenen bidez.
- **Reina Ruizi:** laburpen bat egin zuen etorkizuneko joeren inguruan.
- **Oier Guillan** poetari eta **Iñigo Ortega** aktoreari; ukitu atsegina eman zioten ekitaldiari, eskakizun tradizional jakin batzuen inguruko emanaldi baten bidez.

Eta nire laguntzaile zuzenekoenei:

- **Rafael Farias** Lurzoru eta Hirigintza zuzendariari: udalentsako diru-laguntzen programa berria aurkeztu zuen.
- **Mario Yoldi** Plangintza eta Programa Eragileen zuzendariari: legegintzaldian parte hartzeko zer prozesu izan diren azaldu zuen.

Bestalde, berariaz eskertu nahi diet egindako lana ekitaldi hau posible egin duten Etxebizitza Sailburuordetzako eta batez ere Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzako pertsona guztiei, bereziki **Rafel Farias** zuzendariari eta **Alazne Mugikari** (zuzendaritza bereko arkitektoa), bai eta **Marije Apodakari** ere, denbora, pazientzia eta ilusioa jarri baititu liburu hau argitaratu ahal izan dadin.

M. Paz Larrumbide

Etxebizitza sailburuordea





19	1	Genero-ikuspegipeko hirigintza-plangintzari buruzko sarrera
21	1.1.	Espazio publikoaren erabileraren historia. Generoa eta Hirigintza gaur egun Isabela Velázquez
31	2	Segurtasuna
33	2.1.	“Kriminalitatearen mapak eta segurtasunik ezaren pertzepzioa” azterlana César San Juan <i>· Tokiko esperientziak</i>
41	2.2.	Vitoria-Gasteizko segurtasunaren diagnostikoa Ana Oregi eta Zuriñe Elordi
51	2.3.	Hiri debekatuaren mapak Ane Alonso
61	3	Hirigintza barneratzailea EAE-n
63	3.1.	Berdintasunerako Legearen aplikazioa EAeko administrazio publikoetan Maria Luisa Aguirreche <i>· Tokiko esperientziak</i>
75	3.2	EAeko udal hirigintza-plangintzan genero-berdintasunerako politikak zenbateraino garatzen diren aztertzen duen txostena Aitor Jauregi
87	3.3.	Eskala txikiko erabakiak, aldaketa handiak – Udalen eginkizuna Koldo Telleria Andueza

93	4	Garraioa eta mugikortasuna
95	4.1.	Mugikortasun jasangarria eta generoa Begoña Pecharromán · Tokiko esperientziak
105	4.2.	Trenbideko garraioaren hiri-integrazioa genero-ikuspuntutik Almudena Ruiz de Angulo
115	5	Hirigintza barneratzailearen etorkizunerako ildo giltzarriak
117	5.1.	Etorkizuneko joerak Reina Ruiz
129	5.2.	Eraginaren aurretiazko ebaluazioa generoaren arabera Marta Zamacona eta Iera Azkarate
139	5.3.	Herritarren parte-hartzea Mario Yoldi · Tokiko esperientziak
147	5.4.	Hirigintza generoaren ikuspegitik: zeharkako esperientzia bat Sebastián Bayo
155	5.5.	“Hemen denok jolasten dugu” proiektua Javier Peña eta Amaia Elorza
163	5.6.	Irakaspenak, tokiko esperientzia oinarri Cristina Cordeiro eta Amaia Herrero

171	6	Aldi bereko tailerrak: Metodologia eta jardunbide onak
173	1.	Tailerra Genero-ikuspegia hirigintza-plangintzan eta -diseinuan txertatzea Josefina Olza eta Isabela Velázquez
181	2.	Tailerra Hirigintza barneratzailea eta biktimologia: Emakumeen segurtasunari buruzko tokiko audiotoretzetan egindako ikerketa kriminologikoen emaitzen gaineko gogoeta Gema Varona
193	3.	Tailerra Hiri debekatuaren mapak eta parte hartzeko prozesuak, hirigintza barneratzaile baterako aukerak zabalduz Oihane Ruiz eta Amaia Albeniz
199		Arra. Arraroa. Oier Guilla



1

Genero-ikuspegipeko hirigintza-
plangintzari buruzko sarrera

1.1.

Espazio publikoaren erabileraren historia. Generoa eta Hirigintza gaur egun

Isabela Velázquez, arkitekto hirigilea eta Gea 21 aholkulari-sareko kidea. Gasteiz

***‘Mahaian eserita ez bazaude,
segur aski menuaren parte zara’***

(Enpresa-giroko ohiko esaera)

Hitzaldi honen oinarrian ideia hauxe dago: premiaz aldatu behar direla gaur egungo hirigintzaren irizpideak, alderdi guztietan gero eta konplexuagoa den gizarte eta egoera global bati erantzuteko. Aurreko hamarkadetan hirigintza gehiegi lerratu da higiezin-dinamikaren eta finantza-errentagarritasunaren zerbitzupeko tresna gisa duen eginkizunera, eta prozesu horrek, pixkanaka, kontzeptu inertzialak finkatu ditu, baliagarriak negozioa sortzeko, baina ezinago desegokiak ezaugarri sozial eta demokratikoetan oso bizkor aurrera egiten ari den gizarte honek espazio eta lurralde aldetik dituen premiei heltzeko. Egoki-egokia da, beraz, elkarrekin uztartzea hirigintza esaten diogun ezagutza-esparru zabal hori eta gizarte demokratikoei koherentzia ematen dien barneratzeak edo aukera-berdintasunak planteatzen dituen erronkak.

Hipotesi hori abiapuntutzat hartuta, beste hainbat gairen artean, sakonki birplanteatu behar da nola heldu behar zaien hiriaren kontzeptuari, diseinuari eta kudeaketari, generoarekin eta gizonen eta emakumeen arteko harremanekin eta estereotipoekin loturiko alderdi guztietan. Harreman horiek eta beroriei loturiko bizimoduak erabat aldatu dira azken hamarkadetan. Hirigintza inertzial hori, hiriari buruzko gure kontzeptuan oraindik ere sakonki errota, egitura patriarkalek boterea, lana, erantzukizunak eta gizarte-funtzioa pertsonen sexuaren arabera argiro banatzen zituzten garaietatik dator. Horixe zen egoera Industria Iraultzaren garaian, eta, hala, beharrezko bihurtu

zen prozesu urbanizatzailea arautzea, orduko gehiegikeriek gizarte alderdi askotan egoera bideraezin batera zeramatela ikusita: osasungarritasuna, ingurumena, bizi-kalitaterik eza. Testuinguru horretan sortu zen hirigintza jakintza-esparru gisa, lehenengo Industria Iraultzako hiri bidegabeak ekarritako arazo horiei eman zitzairen arrazoizko erantzun gisa. Mugimendu Modernoa, Atenasko Gutunean zehaztu zen adostasun-prozesuaren bidez, gizarte horren erronkei erantzuten saiatu zen, ez baitzuen lortzen espazioak arrazionalki antolatzea jasangarritasuna bermatzeko.

Atenasko Gutuneko hirigintza hori, XIX. mendearen bukaeran pentsatu eta XX. mendearen hasieran finkaturikoa, gaur egungoaz oso bestelako gizarte baten arazoen eta lehentasunen ondorio izan zen. Gizarte hierarkizatu eta patriarkala zen, eta biztanleen erdiak modu eskusiboan arduratzen ziren zaintza-lanez, hazieraz, etxeko mantentze-lanez, garbiketaz eta halakoez. Eta egitura ekonomiko hartan ekoizpen materiala zen oparotasun ekonomikoaren giltzarri bakarra. Mugimendu Modernoaren irtenbideak gizarteari eta ekonomiari buruzko kontzeptu zaharkitu horretan ainguratuta zeuden. Eta, gainera, hainbat akats ezagun jaso zituen, oraindik alde batera utzi ez ditugunak. Esate baterako, uste zuten autoa izan zitekeela hirian mugitzeko elementu nagusia; eta funtzioak errazki bereiztearen alde egin zuten, ehun klasikoan aniztasun oparoa alde batera utzita. Irteerarik gabeko bideak, gaur egun alderdi askotan porrot egin duen masen produkzio-konsumoaren eredu ekonomikoari lotuak.

Hirigintzaren helburuak aldatu egiten dira, edo aldatu egin beharko lukete, gizarte-lehentasunak aldatzeaz bat. Eta diziplina hau sortu zenean —higiezin merkatuak

konpontzea lortu ezzuen alderdiak kontrolatzeko—, bigarren industria iraultzaren garaia zen, gure gizartean egitura patriarkal sendoenak ezarri zituen garaia. Hirigintzaren printzipioak ekoizpena, logistika eta kontsumoa lehenetsiz zehaztu ziren. Izan ere, gizarteak jadanik ez zuen behar emakumeek eta haurrek lantegietan lan egin zezaten, eta bete-betean zegoen familia nuklearraren eredia zehazteko prozesua; hala, emakumea etxean geratu zen, eta eguneroko kontsumoaz arduratzen zen; senarrak, berriz, hornitu egiten zuen eta lanaz arduratzen zen, bai eta familia osoaren ordezkarienez eta harreman sozial eta politikoaz ere. Etxekoandreak eta familiaburuaren garaiak ziren, bizi-eredu horri loturiko albo-kalte guztiekin. Oinordetzan hartu dugun hirigintzak, asmo onez beterik, garai horren eta garai horretako arazoengatik inguruan zehaztu ditu bere helburuak. Bi analista handiren lana azter dezakegu, Françoise Choay eta Saskia Sassen-ena hain zuzen, planeta global honetan ere hiriaren kontzeptua zenbat aldatu den ulertzeko. Beste pentsalari batzuek, hala nola Jeremy Rifkin-ek, ohartarazi digute komunikazio-eredua aldatzea eta energia-eredua aldatzea dela zibilizazioa aldatzeko oinarria. François Ascher-ek, hirigintzaren eremuan, hirien hirugarren iraultzaren ideia proposatu zuen: hiri-eredua berritu beharra; hain zuzen, lehenengo hiri-iraultzak hiri klasikoak ekarri zuen, Errenazimenduan sorturiko hiriak, eta bigarrenak industria-hiriari eman zion bide.

Orain, bigarren sektoreko ekonomia, garrantzi izpirik ere galdu gabe, jadanik ez baita ekonomiaren motor bakarra eta Europako hiri gehienetako ekonomia hirugarren eta laugarren sektoreetako ekonomien artean baitabil, beharrezkoa da tresnak eta irizpideak berriro planteatzea. Orain, zenbait egileren ustez zibilizazio-aldaketako une den honetan, ezin ditugu oinarritzat hartu duela bi mende arazoak konpontzen zituzten ideiak. Hirigintza-berrikuntzak

barne hartu behar ditu informazioaren gizarte berriaren premiak eta esparru globala, bai, baina baita gizarte berdinzaleago eta barneratzaileago baten bizi-baldintzak ere, eta gure etorkizuna arriskuan jartzen duten ingurumen-erronkei eman beharreko erantzuna.

Gizarte berriarentzako hirigintza egoki bat sortzeko orduan garrantzitsua da zehaztea zein diren hiri-espazio berri horien eragileak eta zer eginkizun duten. Gizonak eta emakumeak, hain zuzen, parekatuta daude eskubideei dagokienez, eta bizimodu gero eta antzekoagoak egiten dituzte, etxetik kanpoko lana etxeko eta familiako erantzukizunekin konbinatuta, zaintza eta erantzukizun sozial eta pertsonalen esparruan. Horrez gain, haurrak hirirako eskubidea duten gizartearen partetzat hartzen dira. Adinekoak eta oso adinekoak, lehen ere lekurik aurkitzen ez zutenak hiri gero eta azkarrago eta oldarkorragoetan, gaur egun talde ugari-ugari eta eragin handiko bat izateko bidean dira, eta behin eta berriz eskatzen dituzte zerbitzuak, autonomia eta erraztasuna zahartzaroa duintasunez bizitzeko. Zenbatzen hasi gabe, taldeok lehen anekdotikoak ziren kopuruz eta orain biztanleriaren zati handi bat dira.

Beraz, gure hiriak jadanik ez daude soil-soilik ekoizpenaren zerbitzura, salgaiak azkar banatzeko bide handiak dituztela. Eta ez genuke diseinatu behar biztanleen lau herenek lekurik aurkituko ez duten espaziorik ere. Gauzak ikusteko modu hori azaltzen duen anekdota gisa, gogora ekar dezakegu nola deitu izan diegun kanpoaldeko bizitegi-auzoei: ‘lotarako hiri’; baina, egiaz, auzo horietan egunez joan eta lotarako orduan itzultzen ziren bakarrak gizonezko langileak ziren, familiako aita eusleak, eta emakumeek, ostera, kasu askotan egun osoa ematen zuten ‘lotarako hirietan’, etxeko zereginetara eta haiekin bizi ziren haurrei eta nagusiei emanak.



Larrialdi-une bat ingurumen-arloan

Esparru berria osatuz, begi bistakoa da une larri batean gaudela ingurumen-alderdiei dagokienez. Planetan uzten ari garen arrastoak funtsezko eran gutxitzeko beharraren ondorioz, nabarmen aldatu dira gure hirigintza- eta lurralde-ereduak. Energia-ekoizpenean, uraren bizi-zikloan, materialetan eta halako arloetan ingurumen-helburu zorrotzak ezartzeak aldatu egingo du datozen urteetan egiteko modua gure hirietan, baldin eta iragarritako kolapso hori saihestu nahi badugu. Ingurumen-egoera, abisu askoren ostean, larrialdi-fasean sartzen hasi da, ekoizpen-eta kontsumo-ereduaren ondorioz; izan ere, lehendik ere bagenekien, bidegabe ez ezik, oso zuhurtziagabea ere bada ingurumenean gure izatearen oinarrian dituen ondorioei dagokienez. Larrialdi-egoeran gaude: Richard Rogersek planeta txikiak hitz egin digu, baina zehatzagoa litzateke planeta mukuru bete eta higatu batez hitz egitea. Gehiegi, errespeturik eta zentzurik gabe erabilitako planeta batez.

Nola eragingo dio horrek XXI. mendeko hiri-gizarte honi, kontuan izanik petrolio-upela hiru digitutan dagoela, ikatzik ez dagoela, nuklearrak eta klima-aldaketa bateraezinak direla eta oinarritzko baliabide askotan eskasia dagoela? Azken hamarkadetan sortu ditugun hirigune asko bideraezin izan daitezke luze gabe izango dugun energia- eta ekonomia-krisizko agertokian. Hiri trinko eta jarraituak, Europako hiri-historiaren oinordekoak, elkertasunez aritzeko eta jarduera berriz planteatzeko espazio bat eskaintzen du. Baina zer egingo dugu hiri-ondokoarekin, haren sakabanaketarekin, zatiketarekin eta automobilarekiko mendekotasunarekin?

Beraz, bi faktorek, hots, gizarte berriak eta ingurumenaren egoerak eskatzen dute errotiko aldaketa bat hiria eta lurraldea antolatzeke eta kudeatzeko printzipio eta metodoetan.

Profesionalek eta akademikoek onartua dute gai hori, baina ez da oraindik txertatu proiektu pilotuez harago. Eta, aldaketa horretan, hirigintza tradizionalak ahaztu dituen talde horiek izan beharko lukete prozesua abiarazteko motorra; izan ere, helburua da emakumeen eremu zirela iritzita gizartearen bigarren mailakotzat jotzen ziren edo ikusezin ziren gai horiek denak gehitzea hirian esku hartzeko oinarri diren irizpideei. Hala nola seme-alabak haztea, pertsona ahulak edo zaugarriak zaintzea, osasuna, bizikidetzeta, emozioak eta gozatzea. Orobat, 'atetik barrurako' unibertso osoa, etxeko kontuen erreinua, elikadura, garbitasuna... Eta lehenetasuna ematea zerbitzuei, gertukoa erabiltzeari, taldean mugitzeko moduei edo oinez ibiltzeari. Gai horiek denak, hiri klasikoak konpondu ahal izan dituenak aniztasunaren, konplexutasunaren, erabilera-nahasketaren, garapen berrien eta halako printzipioen bidez, ez dira barneratzaileak, abiapuntuko kontzeptu-akatsetan oinarritzen baitira.

Azken urteetako ikerketak azaltzen digu sinergia argi batean daudela gizarte-irizpide berrien aplikazioa besteak beste generoaren edo belaunaldien arabera hirigintzak garatu ditu irizpideok eta Klima Aldaketaren aurka borroka dezagun eskatzen diguten erabakiak. Badira irtenbide bateratuak bi arazoetarako, baina horretarako aldaketa argiak sartu behar ditugu orain arte erabili ditugun egiteko moduetan.

Aldaketarako tresnak

Teresa del Valle irakaslea parafraseatuz, esango dut baditugula aldaketa eskatzen ari garen hirigintza berri hori berraztertzeke. Sakonki txertatu beharko lirateke gizarte-irizpideak eta ingurumen-irizpideak etorkizun hurbilean garatuko diren ereduetan. Eta, segur aski, telekomunikazioen iraultzak antolaketa, plangintza, kontrol eta gardentasun



aldetik eskaintzen dizkigun tresnak baliatu.

Nola txerta ditzakegu irizpide eta tresna berri horiek? Nabarmenena hauxe litzateke: hirigintza inertzialean ahaztu edo gutxietsi diren gaiak arrazionalizatzea eta ikustea zein den horiek zehazteko modua. Ondoko galdera hauek planteatzen dutena bezain erraza da: Erraza da haur askeak izatea auzo honetan? Erraza da zahartzea hiri honetan? Edo hiriaren egiturak eta diseinuaren lehentasunek hainbeste zailtzen dute bizimodua, non oso zaharren eta oso txikien autonomia faltak denbora bahitzen dien haietaz arduratzen diren pertsonen gaur egun, argiro, mendeetako tradizioa jasotzen duten emakumeak gehienak?

Modu positiboan erantzuteko, logikoena litzateke hiri-diseinuaren edo –garapenaren irizpideei zaintzarekin, hazierarekin, komunikazioarekin, osasunarekin eta segurtasunarekin loturiko gai guztiak gehitzea edo uste osoz erabiltzea hiri-proiektuetan. Gai horiek denak ia mundu guztiaren eguneroko bizitzaren parte dira, eta, inkestek diotenez, izugarri kezkatzen dituzte herritarrak. Modu horretara, bide-sareari jarraipena ematea, aparkalekutarako leku gehiago izatea eta autoen trafikoa arintzea baino askoz ere helburu handinahiagoekin diseinatuko litzateke ekipamendu eta espazio publikoen sarea. Hirian paseatu eta bizikletan ibili ahal izatea behar-beharrezkoa da adin jakin batzuetan; natura hurbila ezin utzizko ondasuna da planeta buxatu honetan; auzo guztietan enplegurako eta dinamismo ekonomikorako espazioak sortzeak abantaila handiak dakartza ekonomia zail batean lehian dabilten hirien artean dinamismo ekonomikoa bermatzeko. Medikuek jarduera fisikoa egitea gomendatzen dute, eta horretarako espazio atseginak behar dira, gozatuz egin ahal izateko.

Arazoa honetan datza: ez dela erraza ideia berriak barne

hartzea, eta, batez ere, egin nahi ziren aldaketak lortu direla egiaztatzea. Hirigintzak, nahiz eta argiro den planifikatu beharreko arlo bat, orain arte ez du argi barne hartu emaitzak kontrolatzeko eta ebaluatzeko mekanismorik. Planaren helburuak oro har ez dira oso zehatzak, ez dago adierazlerik kasurik gehienetan, eta asmo onak sakabanatu egiten dira itxuraz garrantzitsuena egitea bera den prozesuetan.

Europako proiektuek sustatzen duten ikerketaren bidez, azken urteetan aurrera egin da hirigintza-planteamendu berrien funtsa egiaztatzeko metodo arrazionalagoak ezartzeko bidean. Lehenengo ondorioa da ingurumen- eta gizarte-helburuak, hemen proposatu dugun zentzuan, bat datozela positiboki ebalua daitezkeen irizpide eta emaitza gehienetan.

Horrek ez du esan nahi premisetako bat ahantz dezakegunik, bestea beteta emaitza onak bermatuko ditugula eta. Guztiz bestela: bi ikuspegiak indartzea giltzarria da planteamendu berrien bikaintasuna bermatzeko.

Europako I+Gren 7. Esparru Programako ‘Biharko Hiria’ ikerketaren barruan, ekoauzoak planifikatzeko esperientzia bat garatu ahal izan genuen, paraleloan, oso ingurune desberdina zituzten sei hiritan.

Energia- edo ur-kontsumoa gutxitzeko helburu jakinez gain, eskuarki ekohiriaren kontzeptuari loturiko hiri-metabolismoko irizpideak baitira horiek, kasu honetan gizarte-irizpideak txertatu genituen, besteak beste bizikidetasuna, distantzia laburreko hiri (hirigintza ez-kronofagoa) eta pertsonen eta jardueren aniztasuna helburutzat hartuta, hiri-ehun onaren muin gisa. Ideia horiek denak adierazleei lotu genizkien, eta dezente zehaztu genituen, orobat, adierazleek zein baliotan mugitu behar zuten.

Begi-bistakoa dirudi pentsatzea funtsezkoa dela etxebizitza guztiek izatea eguneroko bizimodurako lagungarri izango diren azpiegiturak, hurbil izatea aisiarako eta erlaxatzeko espazioak, haurrei eta nagusiei ahalik eta autonomia handiena emango dien diseinu bat izatea, baina ez da hala inola ere. Helburu unibertsal izan beharko luke espazio publikoetan segurtasun naturala edo bizitasuna barneratzeak, baina aspertuta gaude ikusteaz eraikitzen ari garen espazio berrien bereizgarria atsekabea eta segurtasunik eza direla.

Hiria sorkuntza kolektibo gisa

Barneratu beharreko beste gai garrantzitsu bat hiri-eredua zehazteko prozesua da: teknokrazia politiko-teknikoa bada arazoak eta irtenbideak zehaztu ditzakeen bakarra, segur aski ez da ezer askorik aldatuko. Lehenago ahazturiko beste eragile batzuen ahotsa eta premiak kontuan hartuko dituzten metodoak barneratzen badira, errazagoa izango da hirigintza berriaren agenda aldatzea eta gai berriak gehitzea.

Parte-hartzea hirigintza berria zehazteko elementu giltzarritzat jotzen da, beste hainbaten artean. Ezinbestekoa da herritarrek kontuan hartzea eraldatze-prozesu betean dagoen gizarte batentzako hiri-ereduak diseinatzeko orduan. Ez badira kontuan hartzen herritarren premia guztiak, ez badira barneratzen hiriaren eraikuntzan era bateko zein besteko interesak dituzten taldeen ahotsa eta ikuspegia, ikuspegi partzial eta lerratu bat ezarriko da, eta horrek areago zailduko du kontuan hartu ez diren talde guztien bizimodua; eskuarki, gizarte-hierarkietan gutxien aintzatetsi diren edo zaugarrien diren gizarte-taldeak izaten dira, azken batean gizartean gehiengo osatzen duten taldeak: emakumeak, haurrak, zaharrak, gaixoak, gutxiengo kulturalak edo nazionalak, baliabide ekonomiko, kultural edo politiko gutxien duten pertsonak. Hori bereziki garrantzitsua da gizarte honetan;

izan ere, gure ingurunea erabat ari dira eraldatzen generoaren gizarte-kontratua, biztanleen zati handi baten zahardade berria edo globalizazioari edo kulturari loturiko harreman ekonomiko eta demografiko berriak eta ezagutzaren gizarteari loturiko produkzio-moduak.

Parte-hartzea, hala, garrantzi handiko elementu bihurtzen da hiria bidezkoagoa eta orekatuagoa izango dela ziurtatzeko. Gure gizartean aldaketa handia behar da bizimodu on bat ziurtatzeko. Aldatu egin behar dugu, eta aldatzen ari gara, mugitzeko, bizitzeko, lan egiteko, ondo pasatzeko, ikasteko edo elkarrekin bizitzeko dugun modua. Eta ezin dugu onartu talde gutxietsiek gainerakoek baino bizi-baldintza okerragoak izatearen bizkar egitea eraldaketa hori.

Hiriak ez ditu konpontzen gizarte- eta ingurumen-arazoak, baina hiri-planeta honetan hirien jasangarritasuna planteatzea elementu giltzarria da planetak eta bertako biztanleek bizirik iraungo badute. Hirigintzak ez ditu konpontzen arazo sozialak eta ekonomikoak edo ingurumenekoak, baina arazo horiek izugarri okertu ditzake, edo, alderantziz, erraztu egin dezake bizi-baldintza hobea izatea. Espazio publikoak, etxebizitza, ekipamenduak eta oro har hiri-eredua haurrei, emakumeei, zaharrei edo laguntza ekonomiko gutxiko pertsonen egokituago daudenean, posible izaten da familia eta lana bateragarri egitea eta pertsonen eta sistema produktiboaren beharrak gogobetetzea, eta erraztu egiten da diru askorik gabe edo familiaren laguntzarik gabe bizitzea. Eta, hain zuzen, hobetu egiten dira bizi-baldintzak biztanle gehientsuenentzat.

Gaur egungo hirigintza gaine-gokitua dago ekoizpen-prozesuak —erabakigarria Espainiako ekonomian— ekonomia eta errentagarritasun aldetik dituen baldintzatzaileetara. Eta hutsune bat dago eguneroko bizimoduarekin, osasunarekin,

ingurumenarekin edo norberaren eta komunitatearen bizitzarekin loturiko arlo askotan. Parte-hartzea egin beharreko aldaketak egiten laguntzeko bide bat da; horretarako, hasteko eta behin, jakin behar da zer interes eta premia dituzten herritarrek osaturiko taldeek, bereziki gizarte-hierarkian eragiteko ohiko beste bide batzuetara edo 'lobby'-etara sarbiderik ez dutenek edo zuzenean ideiak eta argudioak azaltzerik ez dutenek, interes ekonomiko edo kultural pertsonal zein kolektibo batzuen mesedetan.

Bestalde, gure ingurunean oso eskasa da parte-hartze esperientzia sakona. Urteetan, hirigintza-prozesuetan parte hartzeko modua lotuago egon da presioarekin eta konfrontazioarekin elkarrizketarekin eta adostasun-bilaketarekin baino. Hori ez da hala bai hirigintza gaietan eta bai bizitza publikoaren beste alderdi batzuetan elkarlanean aritzeko eta gizartea sakonki egituratzeko tradizioa duten beste herrialde batzuetan. Tradizio anglosaxoiak badu jadanik gizarte zibilari oso begirako esperientzia guztiz errotu bat (community architecture o community planning), eta aurreko hamarkadetan metodologia ugaria garatu du, Alemania, Italia eta halako herrialdeetara zabaldu dena. Iparraldeko herrialdeen lankidetzatradizioak, eta horrekin batera ekologiarekiko sentikortasuna beste inon baino zabalduago izateak, hiri-eredua kontrolatzeko esperientziak ekarri ditu, guri inbidia ematen diguten esperientziak ekarri ere. Japoniatik, Kanadatik, Taipeitik eta Australiatik lankidetzagarapen interesgarrien berriak iristen zaizkigu; hain zuzen, lankidetzok ez bakarrik dira merkatuaren eta erakunde eta kidego teknikoaren artekoak, baizik eta, horrez gainera, gizarteak ere sakonki hartzen du parte, bere ñabardura guztietan.

Hemen, prozesua hasten ari da; zenbait udalerrik oso prozesu interesgarriak garatu dituzte, esate baterako

Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan eta zenbait udalerritan, bai eta Katalunian ere, han nahitaezkoa baita hirigintza-proiektuak parte hartzeko prozesuekin lotzea. Parte-hartzea beharrezko zerbait da; legediak bermatzen du, eta hirigintzaren eta hiri-politika berritzaileen logika aztertzen duen edozein agiri publikotan barneratzen da. Baina mesfidantza sortzen du benetan abian jartzeak.


Ondo planifikatutako eta egindako parte-hartze prozesuak dira biderik egokienetako bat gizarteak bere egitura tekniko eta politikoaren bidez hirien eta lurraldeen bilakabidea kontrolatzeko duela ziurtatzeko.

Azken batean, erabakiak hartzeko orduan teknikariek, politikariek eta herritarrek duten egitekoa ulertzeko modu berri bat da.

Ondorioak

Alternatiba hau da: den eta beti izan den horretara itzularaztea hiria, hots, eraikuntza kolektibo bat, non plangintzaren bidez, parte-hartzearen bidez, adimen kolektiboarekin, ekitatearekin, orainaldiko eta etorkizuneko garaiekiko elkartasunez orekatu behar diren komunitatearen interesen aurretik beti bere interesetan pentsatzen duen merkatu suntsikor baten apeta legitimo eta logikoak. Hori da bide bakarra errealitate jasangarriago, eraginkorrago, zuzenago eta bidezkoago bat lortzeko, edo uste dut, soil-soilik, hori dela bideragarria eta zentzuzkoa garai zail hauetan.

Lehenengo pausoa esparrua ulertzea da, zer aldaketa pairatzen ari diren gizartea, hiriak... Bigarrena da hirian beste modu batera esku hartu ahal izateko politikak, irizpideak eta tresnak diseinatzea.



Bidegurutzeak beti dira zailak: norabidea aldatu behar da, inertziak baztertu behar dira, eta dena pentsatu behar da berriro. Baina itxaropenaren, argitasunaren, birplanteamenduaren garaia dira.

Bestalde, garestia da hirigintza zoroaren eta eraikuntza konpultsiboaren garai honen, higiezinaren tsunami honen oinordetzari eustea, izugarriak dira lurzoruaren eta oinarritzko hirigintza-sarearen, uraren eta energiaren kostuak. Bai eta gizarte-kostuak ere: garraio-denbora, gizarte-bereizketa, erbestea biztanleria ez-aktiboentzat edo langabeentzat, herritarren integrazio apala, askotariko psikopatologiak (beldurra, anomia, indibidualismoa eta abar). Hiriak urbanizazio-prozesu kaltegarriak hartu ditu oinordetzan; prozesu horiek, aldi berean, joera dute hiria, are bere zentralitate trinkoan, enklabe, negoziogune, zona turistiko, auzo espezializatu, baztergune eta abarren multzo bihurtzeko.

Hirigintza zoroa nagusi izan den urte hauen ostean, hiri-plangintzaren prozesuetan izandako protagonismo-aldaketaren ostean, etxebizitzan izandako kontzeptu-aldaketaren ostean (bizitzeko leku izatetik espekulazio-inbertsio ustez ziur bat izatera), hiriaren hedadurak modu konpultsiboan eraikitzen aritu ostean, orain errealitate setatiak ezartzen du zertaz gogoeta egin. Eraikuntzaren sektorea zimeltzen ari da, gure hirietako eskariari erantzuteko adina etxebizitza dauzkagu eraikiak (behar dutenek eskuratzerik balute), eta makineria martxan jartzeko aukera balego hamarkadetan gara genezakeen baino lurzoru sailkatu gehiago daukagu.

Orain egin behar ditugun lanak hauexek dira: ondare eraikia hobetzea eta eraldatzea, gizarteak eskatzen dizkigun irizpide berrien arabera. Mintegi honetan aurkeztu diren

proiektuak oso esperientzia interesgarriak dira, hirigintza berritzaileenean hiriari buruzko gai ahaztuak nola txerta daitezkeen erakusten dutenak.

Genero- eta belaunaldi-hirigintza eta plangintza-prozesuen ingurumen-koherentzia sakona, biak dira elementurik argienak sakonki aldatu beharreko jakintza-esparru hori birpentsatzeko.

Krisi ekonomikoaren beste garai batzuetan bezala, oraingo garai hau, higiezin-presioa txikiagoa baita, aukera-garai bat da bizimodu on baterako esparru izan behar duten hiri eta herri horiek etxekotzeko eta hobetzeko. Une honetan, zentzua behar da garai zailtako hirigintza honetarako, baina, horrez gain, azken urteetako hirigintza 'etxekotzeko' aukera izan daiteke; izan ere, oraindik ez dugu guztiz geure egin hirigintza hori.

Bibliografia eta erreferentziak:

ASCHER, François (2004) *Los nuevos principios del Urbanismo*. Alianza Ed.

CHOAY, Françoise (1965) *Urbanisme, Utopies et réalité* (Paris, Le Seuil).

DURÁN, M. A. (1990) *El uso del espacio urbano en la vida cotidiana. Espacio urbano y relaciones personales*. Valentziako Unibertsitatea.

(1986) *La jornada interminable*, Bartzelona. Icaria.

(1988) *De Puertas Adentro*.

FERNANDEZ DURÁN, Ramón (2006). *El Tsunami urbanizador español y mundial*. Editorial Virus.

GIRARDET, Herbert (1992) *Ciudades: alternativas para una vida urbana sostenible*, Celeste Ediciones, 1992.

HALL, Peter (1988, 1996) *Ciudades del mañana. Historia del Urbanismo en el siglo XX*, Ediciones del Serbal, Bartzelona.

JACOBS, Jane (1967) *Muerte y vida de las grandes ciudades*. Península, Bartzelona, 1973, gaztelaniaz. (2011n berrargitaratua) Zaida Muxíren hitzaurrea.

HERNÁNDEZ AJA, Agustín, VELÁZQUEZ VALORIA, Isabela; VERDAGUER, Carlos (2009) *Ecobarrios para ciudades mejores, Ciudad y Territorio nº 161-162, otoño-invierno 2009*, Etxebizitza Ministerioa.

ROMÁN, Marta y VELÁZQUEZ, Isabela (2008) *Guía de Urbanismo con perspectiva de género*. Emakumearen Institutua. Murtziako Autonomia Erkidegoa.

SASSEN, Saskia *La ciudad global*.

SPAIN, Daphne. (1992) *“Gendered Spaces”*, North Carolina, The University of North Carolina Press, 1992.

(2001) *“How women saved the City”*, University of Minnesota Press.

URBAN TASK FORCE (1999): *Towards an Urban Renaissance*, Department of the Environment, Transport and the Regions, London.

VALLE, Teresa del (1997) *Andamios para una nueva ciudad*. Cátedra Ediciones.

VELÁZQUEZ, Isabela (2000b) *El tiempo de las cerezas. Reflexiones sobre la ciudad desde el feminismo*, Boletín CF+S, 19: (EN)CLAVES INSOSTENIBLES: tráfico, género, gestión y toma de decisiones [http://habitat.aq.upm.es/boletin/n19/aivel.html] 2000

VELÁZQUEZ, Isabela (2003): *Criterios de sostenibilidad aplicables al planeamiento urbano*, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, S.A (IHOBE), Eusko Jaurlaritza [hemen dago eskuragarri: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-6172/es/contenidos/manual/guia_planeamiento_1/es_doc/indice.html].

VERDAGUER, Carlos/ VELÁZQUEZ, Isabela (espainierazko bertsioaren koordinatzaileak) (2008a) *Proyecto ECOCITY*

Manual para el diseño de ecociudades en Europa. Libro I: La ecociudad: un lugar mejor para vivir.

VERDAGUER, Carlos/ VELÁZQUEZ, Isabela (espainierazko bertsioaren koordinatzaileak) (2008b) ***Proyecto ECOCITY Manual para el diseño de ecociudades. Libro II: La ecociudad: cómo hacerla realidad***, Gea 21, SEPES, Bakeaz, 2008.

V.V.A.A. ***Urbanisme i Gènere: Una visió necessària per a tothom***. Bartzelonako Diputazioak 2005ean antolatutako nazioarteko konferentziaren aktak.

VELÁZQUEZ, Isabela (2006) ***Estrategias prácticas a favor del clima***. Klimaren Aldeko Hirien Sarea, MMA eta FEMP.



2

Segurtasuna

2.1.

“Kriminalitatearen mapak eta segurtasunik ezaren pertzepzioa” azterlana

César San Juan, Gizarte Psikologia irakaslea

Delituaren beldurrari buruzko azterlanaren garrantzi soziala

Delituaren beldurrak — oro har segurtasunik ezaren pertzepzio gisa — herritarren pertzepzio eta emozio subjektiboek egiten die erreferentzia, eta, beraz, beti ez dator bat segurtasunaren eta delituaren indize objektiboekin. Areago, maiz ikusi da elkarrengandik urrun daudela herritarren segurtasun falta objektiboa eta sumatutakoa, eta delituak beherantz egiten ari diren testuinguru objektibo batean handitu egin dela, hainbat arrazoirengatik, segurtasunik ezaren pertzepzioa. Esate baterako, Schweitzer, Kim eta Mackin-ek (1999) adibide batekin azaldu zuten egoera hori: AEBn delituaren beldurrari eutsi zitzaion 1990eko hamarkadan, eta, aldiz, delinkuentzia-tasa jaisten ari zen.

Gaur egun, gure testuinguruan antzeko fenomeno bat ikus liteke. Delituari eta segurtasunari buruzko Europako azken inkestan (EU ICS 2005), ikusten da hainbat herrialdetan handia dela delituaren beldurra, nahiz eta biktima izateko arrisku objektiboa txikia izan, kontuan hartutako gainerako estatuekin alderatuta. Hala, Espainia, azken lekuan badago ere biktimizazio-prebalentziari dagokionez, seigarren lekuan dago delituaren beldurrari dagokionez, 19 estaturen artean (Van Dijk et al., 2005). Gure testuinguru geografiko hurrenekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan, ikusten da delinkuentzia-tasak egonkorrak direla azken hamar urtean; alabaina, etengabeak dira “gorantz doan segurtasun faltari” buruzko eztabaidak eta albisteak. Grafikoki, lau errealitate sor daitezke delinkuentziaren eta delituaren beldurraren egoera objektiboa modu ortogonalean konbinatuta, eta errealitate horiek, espazio-denborazko testuinguru zehatz batean, bide eman diezaiekete era bateko zein besteko esku-hartze politikei (1. irudia).

Delitu-tasa handi bat izatea kezagarria da, zalantzarik gabe; izan ere, arriskuan egon daitezke herritarren osotasun fisiko eta psikikoa, bai eta haien jabetzak ere. Alabaina, segurtasun-tasa objektibo baxu samar bat eta delituaren beldur handia batera agertzen direnean ere kezkatu behar dute agintariek, eta esku hartu beharko da politikan — sozial eta komunitarioan —; izan ere, delituaren beldurraren ondorioek — banakoak eta taldekakoak — nabarmen murrizten dute hiriko bizi-kalitatea. Hale-k (1996) ondoko hauetan laburbiltzen ditu delituaren beldurraren ondorio nagusiak, ikerketak seinaturikoak: komunitate-zentzua haustea, espazio publikoak alde batera uztea, zigor-politika zorrotzagoen aldeko jarrerak agertzea, ondore psikologiko negatiboak izatea banakoengan eta ohiturak aldatzea (segurtasun-neurriak hartzea, zona jakin batzuetan ez ibiltzea...).

Beraz, delituei beldur izatearen esperientzia emozional negatiboak mugikortasuna muga dezake, komunitatetik aldentu, espazio publikoak alde batera utzi... azken batean, ondorio horiek oztopo izango dira hiri-espazio publikoa demokratizatzeko (San Juan & Vozmediano, 2007).

Gainera, jasangarritasun aldetik ere interpreta litezke delituaren beldurra gutxitzea eta hiri-segurtasuna sustatzea. Cozens-ek (2002) argudiatu duen bezala, Erresuma Batuko Ingurumen, Garraio eta Eskualde Sailak, garapen jasangarria bai oraingo eta bai etorkizuneko belaunaldietarako bizi-kalitate hobea dela zehaztuta, adierazi du delitua eta delituaren beldurra adierazle garrantzitsuak direla; izan ere, pertsona guztiek dute eskubidea komunitate ziur batean bizitzeko. Beraz, egile horren iritziz, hiri-diseinua erabili behar da bai delitua eta bai delituaren beldurra prebenitzeko; izan ere, elementu subjektiboak kontuan hartuta indartu egingo da hirien garapen jasangarria.



1. irudia. Delitu objektiboari eta delituaren beldurrari dagozkion mailak konbinatzearen ondoriozko egoerak. Iturria: Vozmediano, San Juan eta Vergara, (2008).

Informazio geografikoaren sistemez lagundutako azterketa prospektiboa.


Hemen aurkeztu ditugun emaitzak Bilbon egin den azterlan batek babesten ditu; azterlan horren oinarria hirian bizi diren 1.700 pertsona adindunek osaturiko lagin bat izan da. Laginketa probabilistiko eta geruzatu bat egin zen, barrutiaren, generoaren eta adinaren arabera. Bizileku-barrutiaren araberrako geruzari dagokionez (hiria banatzen duten zortzi barruti administratiboak kontuan hartuta), barruti bakoitzean bertako biztanleriarekiko proportzioan

egin ziren elkarrizketak. Generoari dagokionez, banaketa ekitatibo bat ezarri zen, eta azkenean, adinari dagokionez, kuota batzuk ezarri ziren, laginean adin-segmentu guztiak behar bezala ordezkaturik zeudela ziurtatzeko. Kontuan hartuta azterlanaren xedea Bilbon bizi diren herritar guztiak izan direla, 1.700 elkarrizketarekin osaturiko laginarekin, eta konfiantza-maila % 95ean ezarri, laginketa-errorea $\pm 2,4$ izan da. Gainera, lortutako datu batzuk georreferentziatu egin dira, azaldu asmo den errealitatea hobeto ulertzeko.

Egoitza-barrutia eta delituaren baten biktima izateko beldurrak sortzen dituen jokabideak

Delituen beldur izateak zer portaera eragin dituen kontuan hartzen badugu, oso interesgarria da egoitzaren kokalekuaren ikuspegitik egiten den analisia. Portaerarik muturrekoenetan —elkarrizketatuetatik gutxienez hartu dituzte halako portaerak, eta haien bizitzan eragin handiena izango lukete (ohiturak aldatzea eta aisialdia gutxitzea)—, ez dago alderik egoitza-barruti batetik bestera. Hau da, halako portaerak dituzten pertsonak modu homogeenan banatuta daude hirian barrena.

Aldiz, beldurraren ondoriozko erantzunik ohikoenetan (kale jakin batzuk saihestea, etxebizitzan segurtasun-neurri gehigarriak ezartzea) alde handiak daude barrutien artean. Lehenengo kasuan, kale jakin batzuk saihesteko joera gehiago agertzen da Ibaiondon bizi direnen artean (% 67k egiten dute). Uribarrin, Errekalden, Deustuan eta Abanton bizi direnen artean ehuneko txikiago batek egiten du hori (% 45 eta % 50 bitartean). Eta, azkenik, Begoñan, Otxarkoaga-Txurdinagan eta Basurtun bizi direnen artean, are ehuneko txikiago batek adierazi du halako portaeraren bat (% 36-40).



2. irudian. Kale jakin batzuk saihestea vs. etxebizitzan segurtasun-neurri gehigarriak ezartzea, barrutiaren arabera.

Bestalde, etxebizitzan segurtasun-neurriak ezartzeari dagokionez, Deustuan eta Begoñan bizi direnen ehuneko handi batek jokatzen du hala (% 70-78); Abanton, Uribarri eta Otxarkoaga-Txurdinagan bizi direnek neurri txikiagoan egiten dute hori (% 55-60); eta, azkenik, Errekalden, Basurtun eta Abanton bizi direnen artetik ehuneko txiki batek hartzen ditu halako neurriak (% 37-48).

2. irudian ageri dira delituen beldur izatearen ondoriozko bi jokabide horien arteko aldeak.

Eremu seguruak eta ez-seguruak

Atal honen xedea da azterlanak gai honetan zer emaitza izan duen azaltzea, hau da, hiriko lekuri seguruak eta ez-seguruak zein diren eta zer ezaugarri dituzten azaltzea, bertako biztanleen irizpidearen arabera. Eremu seguruak eta ez-seguruak buruzko iritzia ezagutzeko, elkarrizketakuei eskatu zitzaizkien adieraz zezatela, libreki, zein zen hiriko kale edo zona ziurrena, eta zein kale edo zonarik ez-seguruena. Ondoren, bi kasuetan, iritzi hori zeren ondorio zen azaldu zuten:

- Esperientzia pertsonalak


- Lagunen, bizilagunen, senitartekoen esanak
- Komunikabideetako informazioa

Elkarrizketatuek iturri horietako bat edo hainbat adieraz zezaketen aipaturiko kale/zonari buruzko iritzia justifikatzeko.

Kale edo zonarik seguruena

Elkarrizketatuen ia erdiek, %47,6k, erantzun geo-erreferenziagarri bat eman zuten, eta hori erabili da Bilboko zona seguruena mapa egiteko. Aipagarriak dira hiri osoari segurtasun-maila berbera egotzen dioten erantzunak, dena modu homogeneoan hartzen delako segurutzat, edo ez-segurutzat. Elkarrizketatuen %10,3ren iritziz, ezin da halako bereizketarik egin hiriko zona batzuen eta besteen artean. %20k uste dute “erdigunea” dela zonarik seguruena. Hori ez da erreferentzia geografiko aski argia mapen bidez irudikatzen eta aztertzen; izan ere, pertsona bakoitzak “hiriaren erdigunetzat” zer daukan alda daiteke. Nolanahi ere, segurutzat sumaturiko lekuen mapan kokatu ahal izan diren erantzunetan, oso argia da hiriaren erdialdeko lekuak seinalatzeko joera. Hainbestera, non laginaren zati batek agerian utzi duen “erdialdea-segurtasuna” eta “kanpoaldea-segurtasunik eza” asoziazioa.

Bilbotarrek segurutzat sumatzen dituzten lekuen mapan, elkarrizketatuek espontaneoki eta lehen-lehenik aipatu dituzten leku guztiak agertzen dira. Koloreekin bereizi dira gehienez 50 subjektuk aipatu dituzten lekuak eta 50ek baino gehiagok aipatu dituztenak. 3. irudiko mapan ikus daitekeenez, oso handia da, esate baterako, Kale Nagusiko segurtasunari buruzko irizpide-batasuna, 234 aldiz ere adierazi baitute, espontaneoki, hiriko lekurik seguruentzat. Irudian, segurutzat jotako kaleak eta zonak agertzen dira.



3. irudia. “Hiriko seguruentzat” jotako lekuak eta halakotzat jotuzten pertsonen kopurua.

Lekuen mapan, esan dugun bezala, argi ikusten da segurtasuna hiriaren erdialdearekiko eta merkataritza-zonarekiko gertutasunarekin eta profil sozioekonomiko altuarekin erlazionatzen dela; hori agerian geratu da, hain zuzen ere maiz aipatu direlako Abando eta Indautxu auzuneak eta auzune horietako kaleak. Elkarrizketatuetako askok segurutzat ematen dituzten beste zonak Deustua eta Santutxu dira; Zazpikaleak, Begoña, Urribarri eta Txurdinaga ere leku segurutzat ageri dira, baina pertsona gutxiagok aipatu dituzte.

“Seguruena ni bizi naizen lekua da”. Etxea erdigune segurtasunaren pertzepzioan?

Elkarrizketatuek segurutzat jotako lekuei dagokienez, deigarria da % 4,6ren arabera eurak bizi diren kalea dela seguruena. Bizilekuen kokapena azertu da, erantzun hori hiriko zona konkretu bateko bizilagunen berezko erantzuna ote den ikusteko edo bizileku-zona seguruaren pertzepzio hori geografikoki barreiatuago ote dagoen ikusteko.

Emaitza 1. taulan jaso da. Seguruentzat beren zona daukaten 79 elkarrizketatuak hiri osoan zehar bizi dira. Beraz, zenbait kasutan beste hiritar batzuek segurutzat aipatu dituzten lekuetan bizi dira, baina beste batzuetan, hala nola erantzun hori eman duten Ibaiondoko egoiliarren kasuan, gainerako hiritarrek uste dute zona arriskutsua dela, arriskuaren pertzepzioaren mapan ikusten dugun bezala.

egoitza-barrutia	maiztasuna	huneko baliozkoa
Deustua	10	12,7
Uribarri	35	44,3
Otxarkoaga/Txurdinaga	4	5,1
Begoña	4	5,1
Ibaiondo	10	12,7
Abanto	4	5,1
Errekalde	3	3,8
Basurtu/Zorrotza	9	11,4
GUZTIRA	79	100

1. taula. Seguruena beren zona dela erantzun dutenen egoitza-barrutia.

Nolanahi ere, deigarria da Uribarriko barrutia. Auzune hori jadanik agertzen zen oro har segurutzat jotako leku gisa; egoiliarren pertzepzioak, kasu honetan, indartu egiten du gainerako hiritarren iritzia. Ez-segurutzat jotako lekuei

buruzko erantzuna aztertzeke orduan, “bizi naizen lekua” kategoria ere agertzen ote den aztertuko dugu, eta zein den hori adierazi dutenen bizilekua.

Hala erantzun zuten pertsonen segurtasun-pertzepzioari dagokionez, batzuek beren zona aipatzeko arrazoiak eman zizkiguten: “Gehien ezagutzen dudana, ni bizi naizen lekua”, edo “ni bizi naizen lekua, suposatzen dut lekurik gehienak izango direla seguruak”. Erantzun horiek adierazten dute norbera bizi den espazioarekiko familiaritatea, hots, espazio horretako esperientzia dela segurtasun-judizioen iturria. Pertsona bakoitzak bere erantzuna justifikatzeko emandako arrazoiak azaltzean sakonduko dugu horretan.

Kale edo zonarik ez-seguruena

“Hirikoez-seguruentzat” jotako eremuei dagokienez, deigarri gertatzen den lehenengo datua da mapan koka ditzakegun erantzunen portzentajea, “geoerreferentziagarri” deitu ditugun horiena, handiagoa dela segurutzat jotako zonen kasuan baino (% 79,2).

Deigarria da, orobat, “bizi naizen lekua” kategoria ia desagertu egin dela. Soilik pertsona batek identifikatu du bere bizilekua “hiriko lekurik ez-seguruena” kalifikazio negatiboarekin. Horrek iradokitzen du hiriko eremuen ezaugarri buruzko judizioak egitean etxearen zentralitatea ezaugarri positiboetara mugatzen dela.

“Kanpoaldea” kategoriak, nahiz eta “erdialdea” kategoria baino gutxiago erabili den leku seguruak azaltzeko, agerian uzten du badela “hiria-segurtasuna” eta “kanpoaldea-segurtasunik eza” asoziazioa. Hori segurtasunik ezaren pertzepzioaren mapan ikus daiteke, 4. irudian.

Behin ere ez da aipatu “erdialdeko” auzuneetako zonarik ez-seguru gisa. Salbuespen bakarra Zabalburu plaza da, Abanto auzuneko hegoaldeko muga kokatua. Kasu horretan, badirudi ez-segurutzat jotzeko faktore erabakigarria San Frantzisko kalearekin konektatuta egotea dela; izan ere, izen horixe du lekurik ez-seguruentzat jo den auzunea. Guztira 793 pertsonak jo dute espontaneoki leku hori hiriko ez-seguruentzat, eta horren ondotik dago Gorteak kalea, hori ere auzune berean.


Bilbo Zaharra ere, San Frantziskoren ondoko auzunea, pertsona askok aipatu dute (140). Otxarkoaga eta Deustuko zonak ere ez-segurutzat jo dituzte, baina adostasun gutxiagorekin. 50 pertsonak baino gutxiagok adierazi dute leku ez-seguruena dela. 4. irudian, xehekiago ikus daitezke zona ez-seguruak; hain zuzen, kolore biziagoarekin edo apalagoarekin markatu dira, eta zenbat pertsonak aipatu dituzten ere adierazi da.

“Bizi naizen lekua” kategoria ez agertzea

Ez-segurutzat jo diren zonen kasuan, soilik pertsona batek jo du ez-seguruentzat bera bizi den zona. Beraz, ezin dugu identifikatu “leku ez-segurua” kategoriaren adierazle gorentzat beren egoitza-zona hartu duten pertsonen talde bat. Aurkikuntza hori zona seguruetan aurkitutakoaz bestelakoa da.

Horrek iradokitzen du segurtasunaren eta segurtasunik ezaren pertzepzioak hainbat parametroren arabera sor daitezkeela; familiaritateak hiri-eremuetako segurtasun-pertzepzioa lagundu dezake, eta, aldiz, segurtasunik ezaren pertzepzioa beste faktore batzuen mende egon liteke. Pertsonen zona segurutzat eta ez-segurutzat jotzeko arrazoiei buruz galdetuta, hainbat datu argigarri eman

dituzte. Horiei buruz dagokion atalean jardungo dugu, leku ez-seguruen bereizgarriak aipatu ondoren; hain zuzen, horri buruz jarraian hitz egingo dugu.



4. irudia. “Hiriko lekurik ez-seguruenen” ikuspegi xehatua.

Aipaturiko eremuetan segurtasuna eta segurtasunik eza sumatzeko arrazoiak

Aurrez zehaztu dugun bezala, elkarrizketatuek, hiriko espazio seguruena eta ez-seguruena zein diren adierazi ostean, judizio horiek egiteko zertan oinarritu ziren adierazi zuten; horretarako, informazio-iturri gisa alternatiba hauetako bat edo hainbat adierazi zituzten: (1) esperientzia pertsonalak, (2) lagunen, bizilagunen, familiakoen esanak eta (3) komunikabideetako informazioa. 2. taulan argi ikusten da elkarrizketatuek zer arrazoi eman zituzten leku seguruena eta ez-seguruen kasuan beren pertzepzioa justifikatzeko.

Pertsonek, kasu batean eta bestean, modu desberdinean justifikatu dituzte beren judizioak, eta horrek aditzera

Bide hauetatik jakin dute hiriko zonalari SEGURUENA zein den:	Informazio-iturri hau erabili duten subjektuen %	Bide hauetatik jakin dute hiriko zonalari EZ-SEURUENA zein den:	Informazio-iturri hau erabili duten subjektuen %
esperientzia pertsonala	79	esperientzia pertsonala	35
lagunen, bizilagunen, familiako esanak	22	lagunen, bizilagunen, familiako esanak	60
komunikabideetako informazioa	8	komunikabideetako informazioa	27

2. irudia. Zona seguruarenari vs. zona ez-seguruarenari buruzko judizioak egiteko arrazoiak

ematen du modu desberdinean sortzen dela hiri-eremuetako segurtasunaren eta segurtasunikezaren pertzepzioa. Bestela esanda, segurtasunik eza ez da zehazki segurtasunaren kontrakoa, edo ezin ditugu jo txanpon beraren bi aldetzat, segurtasunaren eta segurtasunik ezaren irudi horiek nola sortzen eta finkatzen diren ikusita. Segurtasuna, pertsonen ehuneko handi batean, esperientzia zuzen eta pertsonalean oinarritzen da; aldiz, iturri adierazgarrienak, behintzat toki-mailan, lagunen eta ezagunen esanak dituzte

Elkarrizketatutako pertsonen baieztapen horiek bat datoz eman dituzten gainerako erantzunekin; Bilboko geografian segurtasuna kokatzeko orduan, erdialdeko lekuak hautatu dituzte, merkataritza-jarduera dutenak, hiritar gehienak ibiltzen diren lekuak, gehienek maiz erabiltzen dituztenak, seguru sentitu diren lekuak. Gainera, batzuek beren bizilekua hautatu dute egunero-egunero seguruaren sentitzen diren leku gisa.

Bestalde, hiri-geografian segurtasuna kokatzeko orduan, besteen esanak (eta neurri txikiagoan komunikabideak) erabili dira informazio-iturri gisa. Hala, erraz jo da zonalari estigmatizatuentzat hiritarren esanen eta komunikabideetako berrien arabera delituak gertatzen diren hori. Judizio hori askoz ere urrunago dago elkarrizketatuen

esperientzia pertsonaletik.


Aurkikuntza horiek inplikazio praktikoko garrantzitsuak izan ditzakete; izan ere, emaitzek iradokitzen dute espazio jakin batzuen segurtasun-pertzepzioa sustatzeko baliagarria izango dela zuzeneko esperientzia izateko modua egitea; beste batzuen segurtasunik ezaren pertzepzioa gutxitzeko, berriz, kokalekuak hiritarren artean duen irudia litzateke giltzarria, eta hiri-zurrunak.

Seme-alabek delituak jasateko beldurra

Bestalde, amaitzeko, delitu altruistaren beldurra deiturikoaren analisisiek erakutsi dute % zokoa dela beren seme-alabek maiz-maiz (astero edo egunero) kezkatzen diren gurasoen ehunekoak. Norbera delitu baten biktima izateko beldurraren maiztasuna ez da kezkarria, baina seme-alabengatik beldurraren emaitzak badira nabarmentzekoak. Seme-alabek delituen bat jasateko beldurra ez da aztertu norberak jasateko beldurra bezain sakon, baina egile gehienek iradokitzen dute askoz ere handiagoa izan daitekeela, eta horren ondorioak beharbada are biziagoak direla nork bere buruarengatik izan dezakeen beldurra baino. Genero-ikuspegitik, azpimarratzekoa da soil-soilik alabak (bat edo gehiago) zituzten gurasoek

nabarmen beldur handiagoa agertu zutela beren alabak lapurreta, jazarpen, bahiketa edo sexu-erasoren baten biktima izateko, gainerako gurasoek baino.

Hiriko bizi-kalitateari dagokionez, azken batean, seme-alabengatiko beldurrak eguneroko bizitzako erabakietan eragin dezake, eta erabaki garrantzitsuak baldintzatu, hala nola bizilekua hautatzea. Eta, bestalde, dirudienez, emaitza horiek adierazten dute haurtzarotik barneratzen direla “emakumeentzako hiri debekatuen mapak”.



2.2.

*Tokiko esperientziak***Vitoria-Gasteizko segurtasunaren diagnostikoa**

Ana Oregi, Hirigintzako Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzuko arkitektoa, eta **Zuriñe Elordi**, Vitoria-Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuko burua

SARRERA

Azken urteetan, oro har herritarren segurtasunak eta bereziki Vitoria-Gasteizko emakumeenak interes gero eta handiagoa sortu du Vitoria-Gasteizko hiritarrengan eta elkartegintza-mugimenduan. Horren froga dira eremu honetan sortu diren ekimen eta eztabaida publikoak, hala nola: Azaroak 25 Plataformak Vitoria-Gasteizko emakumeentzako hiri debekatuaren hasierako mapa egin du; auzuneetako segurtasunaren eta segurtasunik ezaren sentipenari buruzko oharrak egin dira prentsa idatzian; eta Udal Gizarte Kontseiluaren eta lurralde-kontseiluen bidez hainbat ekarpen egin dira.

Interes gero eta handiago horren ondorioz, 2009ko abenduaren 19an udal osoko bilkurak mozio bat onartu zuen, eta honako hau adostu: “Vitoria-Gasteizko Udalaren Osoko Bilkurak udal gobernu-taldeari eskatzen dio jar dezala abian udal teknikariek osaturiko lan-talde bat, hiriko zona ez-seguruak eta horren ondoriozko arrisku-egoerak saihesteko irtenbide zehatzak eman ditzan”.

Ekintza hori bete behar duten sailletako arduradunek, zehazki Udaltzaingokoak, Herritarrekiko Harremanetarako Sailekoak eta Hirigintzakoak, beharrezkotzat eta estrategikotzat jo zuten azter-eremua zabaltzea eta segurtasunaren gaiari hiri-espazioan heltzea, hiriko segurtasunaren inguruan genero-ikuspegipeko analisi kuantitatibo eta kualitatibo bat eginda, bi esparru horietan diagnostiko bat izateko, eta hiri seguruago bat eraikitzeo hirigintza-gomendioen dekalogo bat eginda.

Esparru horretan kokatzen da Segurtasunaren Tokiko Diagnostikoa. Horren laburpena —ondoren aurkeztuko dugu— lau kapitulutan egituraturik dago:

- Datuen analisi kuantitatiboa. Horren barruan, Vitoria-Gasteizko delinkuentziari buruz egindako datu-bilketaren emaitzetan oinarritutako analisi bat dator —delituak, faltak, pertsonen aurkako erasoak eta gizalegezkoak ez diren ekintzak hartu dira kontuan—, bai eta arrisku-pertzepzioari buruzko datu kuantitatiboan gaineko gogoeta bat ere. Zehazki, poliziak ezagutzen dituen (segurtasunik ez objektiboa) biktimizazioari buruzko datuen analisiari dagokionez, hiru delitu zentinelaz aztertu ditugu: ondarearen aurkako delituak, sexu-askatasunaren aurkako delituak eta pertsonen aurkako delituak.
- Segurtasunik ezaren pertzepzioaren eta segurtasun-eskariaren ebaluazioa. Jasan, ikusi edo kontatutako segurtasunik ezaren egoerak aztertu dira; segurtasunik ezaren pertzepzioa; segurtasunik ezaren aurrean emandako erantzunen balorazioa; segurtasunik eza sortzen duten ekintzak, lekuak eta uneak; eta herritarren premiak eta itzaropenak.
- Segurtasun objektibo dokumentatuaren eta sumatutako segurtasunaren kointzidentzia-mailaren balorazioa.
- Gomendioak, jarduketa-ardatzen arabera antolatutak.

1. DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA

HELBURUAK ETA METODOLOGIA: DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOAREN IRISMENA

Segurtasuna oinarrizko eskubide bat da, estuki lotua askatasunarekin (adierazteko, erabakitzeko eta mugitzeko askatasunarekin) eta pertsonen indarkeriarik ez pairatzeko duten eskubidearekin. Emakumeek hiriko bizitzan zer esperientzia eta pertzepzio dituzten ikusita, beharrezkoa da ekuazio tradizionala gainditzea; izan ere, haren arabera, herritarren segurtasuna ez zen “kaleko kriminalitatearen” gabezia “objektibo” bat besterik, polizia-zifrek dokumentatua. Diagnostiko kuantitatiboan genero-ikuspegia txertatzeko, azter-eremua zabaldu behar da, eta polizia-instantziek dokumentatutako delituez gainera beste hiru elementu giltzarri aztertu behar dira:

- Egindako eta poliziak dokumentatu gabeko delituak. Emakumeei gizonei baino gehiago eragiten dieten indarkeria-kasuak espazio pribatuan edo erdi-pribatuan gertatzen dira maiz, eta horietatik gutxi batzuk baizik ez dira salatzen.
- Delitu ez diren baina iraingarriak diren portaerak, erasoren bat gertatzean zaurgarritasun-sentimenduari erasaten diotenak (begiradak, keinu lizunak, esamesak eta eraso txiki matxisten multzo bat, emakumeek espazio publikoa erabiltzeko duten askatasunari eragiten diotenak).
- Segurtasunik ezaren sentimendua, beldurra. Emakumeek segurtasunik ezaren inguruan zer esperientzia dituzten ikusita, onartu behar dugu garrantzi handia duela segurtasunaren osagai

subjektiboak (sentimendua, pertzepzioa), eta horrek lotura handiagoa du generoaren sozializazioarekin, esperientzia biktimizatzaile konkretuekin baino.

Hiri-segurtasunari buruzko diagnostikoak, genero-ikuspegitik osatua izateko, alderdi hauek jorratu beharko lituzke:

- delitu eta irain dokumentatuak
- delitu eta irain dokumentatu gabekak
- pertzepzioak eta beldurrak.

Atal honetan, pertsonen segurtasunari eragiten dioten delitu jakin batzuei buruzko datu erabilgarriak aztertu dira. Xedea da alderdi hauei buruzko ondorioak ateratzea:

- Indarkeria-portaerak gizonetan eta emakumeetan duten eragin desberdina.
- Gizonek eta emakumeek segurtasuna hautemateko duten modu desberdina.
- Vitoria-Gasteizko hirian diagnostiko-mota honetarako egindako datu-bilketa sistematikoak nagusiki zer informazio-hutsune eta ahulgune dituen.

Eta hainbat gomendio ematen da segurtasunari buruzko genero-ikuspegipeko udal diagnostikoaren kalitatea hobetzeko. Kataluniako Generalitatearen **Genero-ikuspegipeko segurtasuna txertatzeko gida** (1) izenekoan datozen gomendioei jarraituz, diagnostiko honen xedea datuak biltzea izan da, ondoko alderdi hauei erantzuteko:

Segurtasun objektiboa espazio publikoan eta pribatuan

Delitu- eta irain-portaeren intzidentzia eta prebalentzia:

- Jasandako eta salatutako delituak, delitu-tipologiaren arabera.
- Biktimak jasan eta salatu ez dituen delituak baina lortu direnak (hirugarren pertsona batzuen salaketak, atestatuak).
- Jasan diren eta instantzia polizial/judizialek ezagutzen ez dituzten delituak.

Segurtasunik ezaren pertzepzio (2):

- Egunez eta gauez auzunean ibiltzeko beldurra.
- Bakarrik ibiltzeko beldurra.
- Beldurraren ondorioak: autobabeserako estrategiak.
- Segurtasun-arazo esanguratsuenen inguruko pertzepzioak.

Eraitza orokor gisa, nahiz eta badiren zenbait hutsune Vitoria-Gasteizko pertzepzioari eta salatu gabeko biktimizazioari buruzko informazioan, diagnostikoak bide eman digu baieztatzeko badirela desberdintasunak emakumeen eta gizonen artean esperientzia biktimizatzaileei dagokienez (arrisku-tarteak) eta pertzepzioaren eta autobabeserako estrategiei dagokienez. Delitu batzuetan, gainera, “adina” faktoreari buruzko informazioa gehitzean, arrisku-profil batzuk zehaztu ahal izan ditugu; hori lagungarri gerta daiteke era guztietako herritarren benetako premietara egokituago egongo diren segurtasun-estrategiak lantzeko. Ondorio

orokor horretaz gain, jarraian beste ondorio zehatz batzuk azalduko ditugu:

POLIZIAK DOKUMENTATUTAKO DELITUAK

Ondarearen aurkako delitu gehienetan, datuek agertzen dute biktima gehienak gizonezkoak direla; alabaina, indarkeria eta larderia baliatuz egiten diren lapurreta-delituetan, Ertzaintzaren datuen arabera, zertxobait gehiago dira emakumeak.


Adinari dagokionez, baieztatu liteke Vitoria-Gasteizen indarkeria edo larderia baliatuz egindako lapurreten biktima gehienak 35 urtetik beherakoak direla. Eta delitu horrek gehiago eragiten diela gizon gazteei emakume gazteei baino. Alabaina, biktimen adinak gora egin ahala, emakume gehiago ageri da: biktimen % 57 dira 46 urtetik gorako biztanleen artean, 66 urtetik gorakoen adin-tartean % 63,4, eta 75 urtetik gorakoen artean, berriz, % 64,6.

Kaleen arabera bereizitako delituei buruzko datuak oinarritzat hartuta, baieztatu liteke oro har delinkuentziaren intzidentziak ez duela zuzeneko eraginik segurtasunik ezaren sentipenean. Lapurreta- eta ebasketa-delitu asko hiritarrek segurtasunik gabeko ingurunetatik jo dituzten kaleetan ez eta beste batzuetan gertatu dira.

Sexu-askatasunaren aurkako delitu gehienak emakumeen aurka egiten dira, eta, kopuruak kontuan hartuta, gizonezko

(1) Guía para la elaboración de diagnósticos sobre seguridad con enfoque de género tanto en el ámbito rural como urbano, María Naredo Molero y Praxagora S. Coop. Mad. Kataluniako Generalitatea, 2010.

(2) Hemen jaso eta aztertu dugun informazioa tailerrak eta elkarrizketak oinarritzat hartuz bildutakoaren osagarri da.



biktimen kasu bakanak eskuarki biktima adingabeen aurka egindakoak dira.

Hala era horretako delituak gertatzen diren hiri-inguruneei buruzko informazioak nola horien erantzuleei buruzkoak adierazten dute delitu gehienak espazio publikoan gertatzen direla eta biktimaren familiakoek ez eta beste pertsona batzuek egiten dituztela. Koherentzia-falta horrek adieraz dezake badela azpierreregistro bat, hain zuzen ere salatzen zailen diren sexu-indarkeriazko delituena, hots, familia-lotura duten pertsonen artean intimitatean gertatzen diren delituena.

Pertsonen aurkako delituetan, gizonak ageri dira gehienik hilketa-biktimen artean. Alabaina, lesioen eta tratu txarren delitu guztiak kontuan hartuta, emakumeak biktimen halako bi baino gehiago dira. Emakumeek familia-ingurunean jasaten dute indarkeria, eta gizonak dira gehienak, ostera, eremu horretatik kanpoko lesioen biktimen artean.

INKESTETAN AITORTUTAKO BIKTIMIZAZIOA

Herritarren segurtasunari buruzko iritziaren inkestak biktimizazio objektiboaren datuak ematen ditu, eta datu horiek agerian uzten dute Vitoria-Gasteizen delinkuentziaren eragina txikiagoa dela Bilbon eta Donostian baino. Iturri horren arabera, azken urtean delituekintzak pairatu dituzten biztanleen ehunekoa % 3,6koa da Vitoria-Gasteizen. Bai Bilbon eta bai Donostian, kopuru hori bikoitza da (% 7,8 eta % 7,1 hurrenez hurren).

SEGURTASUN-PERTZEPZIOA NORBERAREN AUZUNEAN

Vitoria-Gasteizko biztanleen %60k baino gehiagok baieztatu dute nahiko seguru edo oso seguru sentitzen

direla gauzez beren bizitegi-zonako kaleetan bakarrik oinez ibilita. Alabaina, nabarmentzekoa da biztanleen % 16k baino gehiagok baieztatu dutela ez direla “batere seguru” sentitzen; ehuneko hori Bilbokoa baino 2 puntu eta erdi gehiago da, eta Donostiakoa baino 4 puntu eta erdi gehiago.

Emakumeek baino bi aldiz gizon gehiagok baieztatu dute seguru sentitzen direla, eta emakumeen bostenak, % 20k, baieztatu dute ez direla batere seguru sentitzen. Gizonen % 3,8ok soilik egin dute baieztapen hori.

Gauzez ez direla bakarrik irteten adierazi duten pertsonen ehunekoa halako bi baino gehiago da emakumeen artean gizonen artean baino. Eta, orobat, emakumeak dira gehienak zona jakin batzuetan oinez ez ibiltzeko estrategia erabiltzen dutenen artean.

2. DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA: SUMATUTAKO SEGUR-TASUNIK EZA

HELBURUAK ETA METODOLOGIA: DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOAREN IRISMENA

Vitoria-Gasteizko Udalak planteatutako premiekin bat etorritz, analisi sakon bat egin da Gasteizen sumatutako segurtasunik ezaren sentipen hori zein elementuk sortzen duten eta zein lekutan agertzen den identifikatzeko eta herritarrek zer eskatzen duten detektatzeko, elkartegintza-mugimenduarekin lan egiteko dinamiken bitartez. Azken helburua ideiak bilatzea da, diagnostikoari eta ekintzei buruzko ideiak, pertsonak seguru egon eta sentituko diren hiri-espazio bat sustatzeko.

Ondoko jarduketa-printzipio hauek abiapuntutzat eta lan-erreferentetzat hartuta planteatu dira helburu horiek:

- Parte hartzeko bokazioa: Vitoria-Gasteizen jadanik arlo horretan planteatu diren eskariak eta premiak kontuan hartzea eta elkartegintza-mugimenduan egindako eskaera berriak bilatzea.
- Genero-ikuspegitik: Segurtasunaren eta segurtasunik ezaren pertzepzioa gizonentzat eta emakumeentzat desberdina dela kontuan hartuta egitea analisia, eta berariaz islatzea emakumeen pertzepzioa, tradizioan ikusezin bihurtarazia.
- Zeharkako eta diziplina anitzeko ikuspegia: aztergaia planteatzeko orduan hainbat ikuspegi hartu dira kontuan eta inplikatura egon daitezkeen sail eta zerbitzu guztiei zuzendutako balizko neurriak bildu dira; horretarako, sailen arteko batzorde tekniko batekin egin da lan, eta horrek egin du proiektuaren zati bat, bai proiektuaren hasieran eta bai proiektuak iraun duen bitartean.

Kontuan hartuta proiektuak parte hartzeko bokazioa duela, garatutako metodologia albait eta zabalena eta malguena izan da, eta, horretarako, hainbat teknika kualitatibo erabili dira: lantegiak, focus group-a, talde txikiak, elkarrizketa sakonak, aurrez aurrekoak eta telefono bidezkoak, eta galdeketa irekiak. Landa-lana egiteko prozesua lau fasetan planteatu da:

Dokumentu-berrikuspena

Lehenengo fasean, Vitoria-Gasteizko segurtasunaren eta segurtasun-pertzepzioaren inguruko intereseko dokumentuak berrikusi dira. Bi eratako dokumentuak landu dira.

- Lehenengoan, azterlanaren xedearekin zerikusia duten kontuei buruzko bibliografia bilatu da:

- Bigarrenengan, Arabako egunkari nagusietako biren hemerroteketan bilatu da: El Correo eta El Diario de Álava. Bietan, azken urtean segurtasunari buruz atera diren albiste nagusiak aztertu dira, eta aurrez toki-segurtasunaren inguruan egin diren mapei eta diagnostikoei buruzko albiste zehatzak gehitu zaizkie horiei. Zehazki, herritarren segurtasunarekin eta segurtasun-pertzepzioarekin zerikusia duten 45 albiste aztertu dira, delitu konkretuei buruzkoak zenbatu gabe. Elkarrizketak egin aurretik, elkarrizketatu behar ziren pertsona batzuek prentsan zer iritzi azaldu duten aztertu da, azterlanaren xedera errazago gerturatzeko.

Lan-tailerrak

Fase honen helburua zen proiektua elkartegintza-mugimenduari aurkeztea eta gogoeta eragitea Vitoria-Gasteizen segurtasunaren eta segurtasunik ezaren inguruan dagoen sentipenaren inguruan. Horretarako, 2011ko otsailaren 28an, dei egin genien era guztietako 40 entitateri: auzo-elkarteak, guraso-elkarteak, elkarte ekologistak, etorkinen sustapenerako elkarteak eta merkatarien elkarteak. 16 pertsona bildu ziren, eta horiei sarrera txiki bat egin zitzaion. Ondoren, bi taldetan banatu ziren, aldi berean hainbat helbururen gainean lan egin zezaten. Azkenik, emaitzak partekatu zituzten, eta ondorio bateratuak atera zituzten.

Emaitza: 12 entitate eta 16 pertsona (12 emakume eta 4 gizon)

Elkartegintza-mugimenduen pertzepzioak banaka biltzea

Tailerretan egindako gogoetak osatzeko eta gizarte-taldean ikuspegi bereizi bat lortzeko xedearekin, harremanetan jarri ginen profil guztietako herritarren ordezkari

diren entitateekin, oinarritzat hipotesi hau hartuta: segurtasunaren eta segurtasunik ezaren pertzepzioan eta berori sortzen duten faktoreetan eragina dutela adinak, sexuak, jatorrizko lekuak, maila sozioekonomikoak, norbera bizi den auzunearen ezaugarri bereziek eta bestelako aldagaiek. Hori dela eta, hainbat talderen ordezkari egiten diren erakundeekin jarri ginen harremanetan:

- Elkartu gabeko gazteen elkarteak
- Helduen elkarteak
- Etorkinak gizarteratzeko elkarteak
- Elkarte ekologistak
- Merkatarien elkarteak
- Auzo-elkarteak
- Guraso-elkarteak

Genero-ikuspegia txertatzeko asmoz, harreman guztietan saiatu ginen emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzen, eta, gainera, berariaz bilatu genuen emakume arkitektoen eta/edo aparejadoreen parte-hartzea, Arabako elkargo profesionalen bidez.

Zehaztutako talde horiek guztiak egon zitezten errazteko, hainbat aukera eman zitzaizkien entitateei:

- Elkarrizketa presentzial sakon bat egitea
- Elkarrizketa telefonoz egitea.

- Talde txikiak edo eztabaida-taldeak egitea.
- Ekarpenak idatziz jasotzea.

Bost entitatek bilerak edo biltzarrak egitea hautatu zuten, eta horietan kontu espezifikoek jardutea, ordezkariak bere ekarpenak agertu aurretik, taldearen sentikortasun guztiak egokiro jasotzeko helburuarekin.


Eraitza: 27 entitate eta 59 pertsona (behintzat 29 emakume eta 24 gizon – 6 ekarpen izenik gabeak).

Lan-tailerrak eta Vitoria-Gasteizko Udaleko talde teknikoaren ekarpen-bilketa

Batzorde Teknikoaren lana zeharkakoa izan da prozesu osoan. Hasieran, bilera bat egin zen, proiektua aurkezteko, eta ondoren ekarpenak jaso ziren metodologiaren eta lanaren helburuen inguruan. Fase kuantitatiboa amaitzean, emaitzak aurkeztu ziren, eta tailer bat antolatu zen, hobetzeko puntu nagusiak konpontzeko zer neurri har zitezkeen zehazteko. Era berean, diagnostiko kualitatiboaren fasea amaitzean, emaitza aurkeztu zen, eta epe bat ezarri zen ekarpenak egiteko. Ekarpen horiek azken emaitzari gehitu zitzaizkion.

Beraz, parte hartzeko prozesuaren emaitza orokorra hau izan da: herritarren ordezkari izan diren 37 entitate eta 73 pertsona eta Udaleko 12 lan-arlotako ordezkariak

Prozesu horren guztiaren emaitza orokor gisa, ikusten da Vitoria-Gasteiz hiri segurutzat jotzen dela, sumatutako segurtasunari buruzko diagnostiko kuantitatiboaren datuekin bat etorriz. Nolanahi ere, hautemate hori aldatu egiten da aldagai soziodemografikoen arabera, eta, gainera, beharantz egiten ari da; beraz, komeni da aldian-aldian



berrikustea. Gizonek eta emakumeek segurtasun aldetik dituzten bizipen desberdin horien ondorio nagusietako batzuk detektatu ahal izan ditugu, batez ere autobabeserako estrategiei dagokionez, eta segurtasunik ezaren sentipena nagusiki zer faktorek sortzen duten zehaztu dugu, hala hirigintzakoak nola gizarte-dinamikei dagozkienak; azken buruan, emandako adibideak bildu ditugu, auzuneen arabera multzokatuta. Horretarako, abiapuntu egoki bat behar da, hortik abiatuz modua izan dadin zeharkako udal ekintza-plan bat planteatzea segurtasunaren pertzepzioa hobetzeko, edo, behintzat, sailen artean eta diziplina anitzetan ekintza multzo bat lehenesteko prozesua behar da, bai eta oinarritzko materiala ere, herritarrekin eta batez ere Gasteizko emakumeekin segurtasunik ezaren sentipena sortzen duten gune nagusien mapa bat adosteko. Ondorio orokor horretaz gain, badira beste ondorio zehatz batzuk ere:

SEGURTASUNAREN BALORAZIOA VITORIA-GASTEIZEN

Norberak delituren bat pairatzeko beldurra oso txikia da. Pertsona gehienek diote ez dutela beldurrik. Nolanahi ere, salbuespen batzuk nagusiki merkatarien taldean aurki ditzakegu, neurri txikiagoan adineko pertsonen artean, batez ere emakume eta neska gazteen artean. Horri dagokionez, interesgarria litzateke, baldin eta pertzepzioari eta biktimizazioari buruzko inkesta bat egitea erabakiko balitz, analisiak sexuaren, adinaren, jarduera nagusiaren eta halako profilen arabera egitea; izan ere, badirudi desberdintasun handiak daudela.

Delituren bat pairatzeko probabilitatearen balorazioari dagokionez, hau da, inguruneko segurtasun-mailari buruzko pertzepzioari dagokionez, berriro ere balorazio orokorra da Vitoria-Gasteiz hiri lasaia dela oraindik ere, baina segurtasun-maila jaisten ari dela. Agerian geratu


da informazio-bideek, egindako delituak abiapuntutzat hartuta, nahi gabe areagotu egin dezaketela beldurraren kultura, paralizatzailea eta negatiboa erkidegoarentzat.

Hala ere, bada halako kezka bat etorkizunean izan dezakeen eboluzioari dagokionez, batez ere bizilagunen eta merkatarien elkarteen artean.

SEGURTASUNIK EZAREN ONDORIOAK GENERO-IKUSPEGITIK

Nahiz eta biztanle gehienak, alde batera utzita mugimendu feministetan aritzeagatik edo emakumeekin lan egiteagatik hausnarketa-ibilbide bat egina duten pertsonak, ez diren ohartzen, eta ez duten hala esplizitatzen, generoak eragina duela sumatutako segurtasunik ezaren kausetan eta ondorioetan, desberdintasun inplizitu handiak detektatu dira etsenpluen deskribapenetan eta eguneroko ohituretan.

Hala, neskaten eta emakume gazteen sozializazioa oraindik ere argiro dago bideratua arriskurik ez hartzerantz, ingurunearen babesa bilatzera eta espazio publikoa mehatxu-iturri nagusitzat hartzerantz. Ondorioz, emakumeek, batez ere neska gazteek, berrikuspen bibliografikoan detektatutako ondorioetako asko jasaten dituzte (eta hala azaldu dute parte-hartzaileek): beldurra izatea edozein ordutan libreki ibiltzeko, mugikortasuna gutxitzea, oztopoak izatea gizarte-bizitzan parte hartzeko, beste pertsona baten babesaren mende egotea, beren buruarenganako konfiantzarik ez izatea, erabakimena mugatzea, munduaren pertzepzio mesfidatiagoa izatea, joan-etorriak eta garapen pertsonal eta sozialerako jarduerak gutxitzea, gehiago bakartzea ez badakarte ere behintzat mugimendu-askatasuna llaburtzen duten babesteko estrategiak garatzea... Alderdi horiek denek, azken batean, Femmes et Villes taldearen arabera, berekin dakarte oztopo bat pertsona gisa eta gizarteko kide



gisa ahalmen osoa baliatzeko.

SEGURTASUNIK EZA SORTZEN DUTEN FAKTOREAK

Hirigintza-faktoreei dagokienez:

- Dirudienez, hirigintza berriaren emaitza dira segurtasun-gabeziarik handiena sortzen duten elementuak; izan ere, erabilera bakarrek auzuneak eta sektoreak ekarri ditu — eskuarki etxebizitzak soilik edo jarduera ekonomikorako eraikinak soilik—, bereizgarri, zerbitzu eta merkataritza gutxi espazio zabalak, oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide garbirik gabeak eta trafikorako neurritz gaineko hiribide handiak dituztenak. Dentsitate-faltaren arazoa hiri-diseinuaren arazoaren partetzat jotzen da, baina faktore nagusia lotarako auzuneak sortzea da, hau da, egunez erabilerarik ez izatea eta zerbitzurik, merkataritzarik eta gizarte-bizitzarik ez izatea. Hori okertu egiten da auzune berrien kasuan, fase edo sektore urbanizatu baina eraiki gabeak daudelako eta eraikin edo etxebizitza hutsak daudelako. Konpondu gabeko gaia da, orobat, tarteko eskala, auzo-komunitateko espazioaren eta espazio publikoaren arteko banaketa; izan ere, maiz, hesiak eta gaizki konpondutako hiri-espazioak ugarituz konpontzen da.
- Hiri hau oro har kalitatekoa bada ere, kanpoaldeko bizitegi-auzune batzuek funtzionaltasun gutxi espazio publiko bat dute. Karrerapeak, pasabideak eta desnibelak ugari dira, eta horiek bai planteatu beharko lirateke berriro, irisgarritasun- eta segurtasun-gaiak txertatuta. Oso baliagarriak lirateke auzuneak berriro urbanizatzeko planak, espazio publikoak alde horretatik kalitate urrikoak diren kasuetan.

- Argiztapena maiz aipatzen da segurtasunik eza sortzen duen elementu gisa. Gasteiz oro har ez da jotzen gaizki argiztatutako hiritzat, baina beharrezkoa da dauden argien kokapena zaintzea eta ondo mantentzea. Modu negatiboan baloratu da argiztapenari buruzko azterlan bat egin eta zer aldaketa egin diren ez jakinaraztea edo islatzea.
- Parkeak dira Gasteizko nortasunaren elementu nagusietako bat; hain zuzen, bizi-kalitate handiko hiri berdearen kontzeptuari loturik daude. Elkarrizketatutako pertsona gehienak harro daude parkeez, baina segurtasunik ezaren sentipena sortzen dute, batez ere gauez. Iritzi diote bereziki zaindu, argiztatu eta zaindu behar direla, errazago erabili eta gozatzeko. Arriagako parkea hiritarrek gozatzeko espazio gisa berreskura dadila aldarrikatu dute. Izan ere, parke horretan sortzen da segurtasun-gabeziarik handienetako bat.
- Azkenik, honako elementu hauek ere aipatu dituzte: karrerapeak, zubiak, lurpeko pasabideak, garajeak eta aparkalekuak eta etxeetako atari ez-gardenak, nahitaez zeharkatu beharreko pasabideak baitira eta ez baitago ikuspen-kontrolik, eta gaizki zaindutako edo hondatutako zonak.

Gizarte-dinamikekin zerikusia duten faktoreei dagokienez, gehienik honako hauek aipatu dira:

- Ez izatea hiri-bizitasunik, gizarte- eta merkataritza-dinamikaririk. Iritzi zaio hori dela faktorerik eraginkorrena, eta hirigintza-faktoreei lotzen zaio. Alde horretatik, saltoki txikiak gehiago dinamizatzea eskatu dute, jarduera ekonomikoa bizitegi-zonetan sartzea eta gehiago garatzea espazioaren erabilera

sozialerako estrategiak. Denen kezka da auzune berriek segurtasun aldetik dituzten gabeziak; izan ere, soil-soilik bizitegi-jarduera dute eta ez dute lortzen behar beste merkataritzarik edo jarduera ekonomikorik kaleek erdialdekoetan denaren antzeko bizitasuna izan dezaten. Auzune horiei dinamismoa falta zaie kaleetan, eta ordu jakin batzuetan hutsik egoten dira.

- Jardun gizalege-gabeak, edateko elkartutako pertsonen lotuak —batez ere gazteei—.Kaleko edana ere eskuarki aipatzen da zenbait ekarpenetan segurtasunik eza sortzen duen elementu gisa, baina gazteak elkartzeak baino gehiagokezka handiagoa sortzen du horiei loturiko jokabide gizalege-gabeak (pixa egitea, interfonoetara deitzea...). Oro har, jokabide gizalege-gabeak (oihuak, borrokak, haur-parkeak edo jolasguneak beste erabilera batzuetarako erabiltzea, hala nola alkohola eta drogak kontsumitzeko, eta txakurrak ez zaintzea) sortzen dute haserrea edo segurtasunik ezaren sentipena, zentzu zabalean, bizilagunen artean.

2.3.

*Tokiko esperientziak***Hiri debekatuaren mapak**

Ane Alonso, arkitektoa eta Hiria Kolektiboko kidea

Hiria Kolektiboa emakume arkitektoen talde bat da, eta hirigintza gizarte, kultura eta ingurumen aldetik lantzen du. Hiri-errealitatearen analisisan alderdi hauek aztertzea planteatzen dugu: mugikortasuna, segurtasuna, zaintzarako erraztasunak espazio publikoan, espazio kolektiboen sarea, haurren autonomia, emakumeen eta gizonen eguneroko bizimoduan eta bizikidetzaren ereduaren eragiten baitute.

Estrategiak sortzea proposatzen dugu, berriro pentsatu ahal izan dezagun pertsonentzako eta herritar gero eta askotarikoago eta konplexuagoentzako hirigintza bat. Horretarako, funtsezkoa da hiria osotasun gisa hartzea, eta ez soilik eraikitakoa kontuan hartzea, baizik eta baita bertan bizi diren pertsonak ere. Eta ez bakarrik herritar-eredu batengan pentsatzea (gizonezko osasuntsua, motorduna, familia-erantzukizunik gabea), baizik eta herritar gero eta pluralago eta konplexuagoetan, espazio publikoaren eguneroko eta ohiko erabilerari dagokionez era guztietako errealitate, beharrian eta gurariak dituzten taldeek osaturiko herritarrengan.

Hiriak eta herriak bertan bizi diren pertsonen bizitzaren agertokitzat hartzen baditugu, eguneroko bizimoduan jarriko dugu arreta, eta hori balioztatuko dugu lan produktiboaren aurretik; izan ere, azken hamarkadetan gehiegi balioztatu da lan produktiboa. Horrez gainera, ulertuko dugu zer garrantzi duen espazio publikoak leku bateko biztanleen bizitzak lotzeko gune gisa, elkartzeko eta etengabeko negoziatorako espazio gisa. Eta geure gain hartuko dugu bizitzaren aro guztietarako hiriak diseinatzearen erroka. Izan ere, lehenik, haur garelarik, mugak izaten ditugu ibilbide eta autonomia aldetik; ondoren, gaztetan, txoko ilunak bilatzen ditugu lagunekin biltzeko; gero, heldu garelara,

gure lantokiaren eta gure bizilekuaren artean komunikazio egokia izatea behar dugu, eta familia-erantzukizunak hartzen baditugu, eginkizun pila bat izango dugu egunean zehar eta gaur egungo hirien disfunczioak pairatuko ditugu. Eta, azkenik, zahartzarora iritsiko gara eta gero eta urte gehiago biziko gara (bizi-itzaropena EAEn 85,5 urtekoa da emakumeetan eta 78,7 urtekoa gizonetan, eta aurreikusten da datorren hamarkadan 64 urtetik gorako taldea % 20 handituko dela, Eustaten azken azterlanaren arabera); orduan, mugitzeko arazoak izaten hasiko gara, eta izugarri baloratuko dugu gure etxetik gertu plazatxo txiki bat izatea, haizea hartu ahal izateko parke edo plaza handiago baina urrunagoetara mugitzeko beharrik izan gabe.

Asmo horrekin lan egiteak berekin dakar hirigintzan genero-ikuspegia aplikatzea. Ulertzen badugu emakumeok, egunean zehar egiten ditugun lan ugariengatik espazio publikoaren erabiltzaile aditu izateaz gain, ez garela soilik geure buruaz mintzo, baizik eta mendeko taldeen bozeramaile ere bagarela (haurrak, adinekoak eta mendekoak, gaur egun oraindik ere gehienak gure ardurapean baitaude), ulertuko dugu genero-ikuspegia aplikatzeak biztanle gehienei egiten diela mesede, ez soilik emakumeei. Eta pertsona guztiak kontuan hartzen dituen hirigintza barneratzaile batez arituko gara mintzatzen.

Lau lan-ardatz garbi bereiz ditzakegu hirigintza barneratzailean: mugikortasuna eta mendekotasuna, zaintza-lanak erraztuko dituzten ekipamendu publikoaren sarea, segurtasunik eza eta segurtasun-pertzepzioa eta hirigunean emakumeek duten ordezkartza sinbolikoa.

Segurtasunaren eta segurtasunik ezaren pertzepzioaren gaia ardatz hartuta, jadanik 1996. urteko Hiriko Emakumeen Europako Gutunean txertatu zen segurtasunaren gaia, han

garatu ziren lehenetsuneko bost gaien barruan:

Hiriaren diseinua eta antolamendua zuzenean lotuta dago kaleetan dagoen indarkeriarekin. Emakumeak ez lirateke gehiago jo behar beren segurtasunaren erantzule bakar. Jomuga hori lortzeko, funtsezkoena da elkarren arteko errespetuan oinarritutako gizarte baten adierazpen izan beharko lukeela hiriko segurtasunak.

Segurtasunik eza traba da emakumeak herritar guztiz aktibo izateko; izan ere, galarazi egiten du bizitza publikoan parte har dezaten lekua eta ordua “egokiak” ez direnean. Hiria osoki erabiltzeko eskubidea ezin utzizkoa da. Leku seguruen alde lan egitea, espazio publikoaren berdintasuneko sarbidea eta erabilera bermatuko duten lekuen alde lan egitea, gizarte berdinizaleago baten alde lan egitea da.

Dokumentu honetan bertan adierazi da beharrezkoa dela erabakiguneetan ordezkariak parekidea izatea, eta parte hartzea animatzen dugu, berdintasuna lortzeko estrategia gisa. Segurtasuna, emakumeen jakintza eta parte-hartzea dira hiri debekatuaren mapa deiturikoetan lantzen diren hiru ardatz giltzarriak, eta horietan hartu ditugu oinarri azalpen honetan ere.


Emakumeen aurkako indarkeria zuzenean lotuta dago desberdintasunarekin. Emakumeen emantzipatzeko gaitasuna, autonomia pertsonala eta segurtasuna espazio publikoarekin lotuta daude, benetako espazioarekin eta sinbolikoarekin. Horregatik, emakumeen segurtasunak emakumeen kontu pribatu izateari utzi behar dio, eta kontu publiko eta sozial bihurtu.

Indarkeria horren jatorriak lotura zuzena du gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanen ereduarekin.

Gizarte patriarkalak onartzen du indarkeria erabiltzea gizonezkoen nagusitasunari eusteko, eta emakumea sozialki kontrolatzeko sistema argi gisa funtzionatzen du. Horregatik, emakumeen aurkako indarkeria kontu sozial bat da, eta erantzukizun kolektibotik heldu behar zaio.

Emakumeen aurkako zuzeneko indarkeriak, kasurik gehienetan, eremu pribatua du agertoki, batez ere etxea, eta gehienbat hurbileko senitartekoek baliatzen dute. Baina patriarkatuak sustatutako kontrol-sistema horrek badu isla eremu publikoan ere. Hiria bizitzaren agertoki da, eta, testuinguru horretan, garrantzitsua da onartzea espazioa ez dela neutroa. Beldurraren bidez, baldintzatu egiten da emakumeek espazio publikoan egiten duten bizimodua. Hainbat faktore tartean direla, horien artean emana zaigun generoaren rola, aldatu egingo dira espazio publiko hori erabiltzeko izango ditugun zailtasunak edo erraztasunak. Espazioen egitura eta diseinua izaten da arrazoia emakume askok beren mugitzeko askatasuna mugatzeko, gauetako irteerak automugatzeko, ibilbideak arrisku-sentipenaren arabera aldatzeko eta, beraz, hiriaren erabilera murrizteko.

Lekuaren arabera sentipen bat edo beste bat sortzen da, eta sentipen eta esperientzia horiek zuzenean eragiten dute leku horiek erabiltzeko moduan. Espazio bati zaion beldurraren eta espazio hori “ez erabiltzearen” arteko lotura isatsari hozka egiten dion arrainaren modukoa da; izan ere, bizi ez diren espazioak ezezagun eta etsaigirokotzat sumatzen dira. Espazio bat arrotz sentitzen bada, ez da erabiltzen eguneroko bizimoduko jarduerak egiteko, azken batean sozializatorako eta bizikidetzarako. Desiragarria litzateke espazio kolektibo horren diseinua lagungarri gertatzea sozializatorako, lana eta familia bateragarri egiteko eta erantzukidetasunez jokatzeko,



haurren autonomia errazteko, belaunaldiak eta kulturak elkartzeko, natura behatzeko eta gozatzeko...; azken batean, egoteko leku gisa eta ez soilik igarotzeko leku gisa erabil dadin sustatzeko.

Baina nola definituko dugu espazio segurua? Espazio segurua da beldurrik sentitzen ez dugun leku bat, lasai gauden leku bat. Eta nahiz eta beldurraren jatorria desberdintasuna bermatzen duen eta sistema patriarkalak eta sexuaren araberako eginkizunen esleipenak sustatzen duten gizarte-eraikuntza bat izan, beldur hori areagotzen edo deseraikitzen laguntzen duen agertoki batean gertatzen da, hirian alegia. Hiriaren antolamenduak eta diseinuak gutxitu edo areagotu egin dezakete erasoak pairatzeko arriskua, eta, beraz, segurtasun-sentipenean eragin. 1996tik 1999ra bitartean Montrealen (Kanada) “Bi geltokiren artean” proiektuaren barruan egindako lanetik atera ditugu lekuak segurutzat sumatzen laguntzeko faktoreetako zenbait: espazioaren ikuspen-kontrola, “ikustea eta ikusia izatea”, “entzutea eta entzuna izatea”, argiteria, garbiketa eta ingurunearen zaintza, beti izatea begi-bistan irteera bat edo laguntza eskatzeko leku bat; horiei beste kontzeptu batzuk gehi diezazkiokegu, hala nola erkidego bateko kide izateko sentimendua, erabileren nahasketa eta hiri jarraitua.

Parametro horien guztien analisitik ondoriozta dezakegu espazio baten diseinuak okertu edo hobetu egin dezakeela segurtasun (ez)aren pertzepzioa. Gure jarduera profesionalean segurtasunaren premisa barneratzea lagungarri da mugikortasun aske eta ziurra bermatzeko eta pertsona askok (emakumeak, haurrak, pertsona nagusiak) beren mugimenduak murriztu beharrik ez izateko, kalera irten gabe geratu beharrik ez izateko edo lekualdatze jakin batzuk saihestu behar ez izateko.

Horregatik guztiagatik, Hiria Kolektiboan uste dugu herritarren bizimodua eta esperientzia abiapuntutzat hartuta hiria eta bere elementuak genero-ikuspegi kritiko batetik aztertzea funtsezkoa dela espazio publikoa segurtasun aldetik hobetzeko.

Hiri segurua hiri partekatua eta bizia da, kale jardueraz eta jendez betea. Hirigintzan hiri biziak eta seguruak sortzeko egin daiteke lan, erabilera-nahasketen alde eginda, espazio monofuntzionalak baztertuta, ordu jakin batzuetan hutsik geratzen baitira eta batez ere horietara ibilgailu pribatuz joan behar izaten baita. Eguneroko bizitzaren beharrezanean erantzungo dien hiri bat, erabilera ugariakoa, oinarriko beharrezanek etxetik edo lanetik hurbil bete ahal izateko modua emango duena eta irisgarria izango dena. Kalera ateratzeko gogoia emango duen hiri bat, kalea adin guztietako pertsonaz eta era guztietako jarduerak egiten ari diren jendeaz beteriko leku bihurtuko duena. Hiri adeitsu eta seguru bat, bizitzeko atsegina.

Bestalde, kontuan hartu behar da, eta horretan eragin, indarkeria sinbolikoa indartu egiten dela, hiriaren barruan emakumeei erreferentziarik egiten ez zaielako: kaleen, plazen, parkeen, eraikin esanguratsuen edo ekipamendu publikoen izenak, bai eta bide publikoan ikonorik ez izatea ere. Espazioak gizatiartzen direnean bihurtzen dira leku, eta horretarako lehenengo gauza izena ematea da. Izenak aitortza-kuota bat dira, emakumeek herriaren historian egindako ekarriaren bidezko isla. Indartu egin behar da emakumeek hirian duten presentzia sinbolikoa, hiri-elementuak izendatuz, emakumeen jabeakuntzarako mekanismo lagungarri gisa; izan ere, modu horretara beren burua ezagutzeko erreferentziak aurkituko dituzte espazio publikoan.

EMAKUMEENTZAT DEBEKATURIKO HIRIAREN MAPA

Inguruabar horretan eta hirigintzan genero-ikuspegia ezartzeko estrategiak bilatzeko ahaleginaren barruan kokatzen dira Emakumeentzat Debekaturiko Hiriaren Maparen proiektuak. Espazio publikoak sortzen duen segurtasun edo segurtasunik ezaren sentipenari buruz eztabaidatzeko eta parte hartzeko tresna bat da, eta, aldi berean, emakumeak ahalduntzeko modu bat eta herritarren eta administrazioaren arteko komunikazio-bide bat.

Proiektu honen oinarria hiru eremu giltzarritan landutako informazio-trukea da. Batetik, herritarren ezagutza eta esperientzia daude, eta, batez ere, emakumeena, hiriaren erabiltzaile aditu eta beste talde batzuen bozeramaile diren aldetik. Bestetik, udal langile teknikoaren esperientzia eta ezagutza, udaletan egiten duten eguneroko lana oinarri dela. Eta, azkenik, arduradun politikoaren lana, gatazkatsutzat jotako guneak hobetzeko aukera baloratu eta konpromisoak sustatzeko eskumena baitute.

Proiektu horietan, parte hartzeko tailerren bitartez, herri edo gune jakin bateko segurtasunari eta segurtasunik ezaren pertzepzioari buruz eztabaidatu eta hausnartzen da. Parte-hartzaileek espazioaren erabileran duten esperientzia abiapuntutzat hartuta, espazio gatazkatsuak identifikatzen dira, “puntu beltzak” deiturikoak, emakumeak saihesten saiatzen diren lekuek, batez ere bakarrik badoaz eta gaua bada.

Lehenengo esperientzia Plazandreok Emakumeen Plataformak garatu zuen, Donostian, 1994an, eta ordutik aurrera hainbat herritan ezarri da, hainbat formatu eta ondorioekin.

Hiria Kolektiboak garatu dituen Hiri Debekatuaren Maparen proiektuek metodologia berri bat proposatzen dute, espazio publikoaren kalitatea modu bateratuan aztertzeko eta ebaluatzeko gizonen eta emakumeen artean, profesionalen eta herritarren artean. Proiektu horrek bide ematen die bide publikoan inplikaturako eragile guztiei hirigintzaren ikuspegitik elkarreraginean jarduteko. Proposamen horren xedea da herritar guztientzako hiri atsegina eta seguruago bat lortzeko oinarriak ezartzea.

Azken hamar urtean, Hiria Kolektiboak Euskal Herriko hainbat eta hainbat herritan landu du tresna hori, hala nola: Basauri, Ermua, Ondarroa, Hernani, Uribe Kosta, Getxo, Sestao, Eibar, Abadiño, Urretxu... Horretarako, kasuan kasuko errealiterara eta erabilgarri zeuden baliabideetara egokitu du.

Ondoren, proiektua bere oinarriko lau alderdietan aztertuko dugu: Oinarri kontzeptualak, helburu orokorrak, jendeak proiektuan parte hartzearen garrantzia eta egiteko metodologia.

Proiektuaren Oinarri Kontzeptualak. Hiri-ingurua generoaren eta segurtasunaren ikuspegitik aztertzeko abiapuntua jadanik aipatu ditugun premisak dira. Honela laburbil daitezke:

- Espazioa ez da neutroa.
- Espazio baten diseinuak okertu edo hobetu egin dezake segurtasunaren pertzepzioa, eta eragin handia du segurtasunik ezaren sentipenean eta emakumeen mugikortasunean, gutxiago ibiltzen baitira hirian gaez.
- Emakumeek segurtasun-gabezia handiagoa sentitzen dute espazio publikoan, sexu erasoren bat pairatzeko

beldurrarengatik.

- Emakumeek faktore horien inguruan duten sentikortasuna jakintza-ekarpen gisa erabil liteke, hiri-ingurunean zer hobekuntza ezar daitezkeen identifikatzeko.
- Seguritasunak zeharka eragiten die emakumeei, hurrei, pertsona nagusiei, jende gazteari... Genero-ikuspegitik aztertutako hiri segurua goak, emakumeen parte-hartzearekin egindakoak, herritar guztientzat dira segurua goak.
- Emakumeek gaueko beren ibilbideak mugatu egiten dituzte beldurraren ondorioz. Horregatik, gauez emakume gutxiago ibiltzen da kalean, eta bide publikoan gauez izaten diren erasoei buruzko datuek pentsaraz dezakete gizonek eraso gehiago pairatzen dituztela, ahazturik pertsona asko (emakumeak, haurrak, pertsona nagusiak) ez direla ibiltzen ordu horietan kalean.
- Mito batzuek sustatu egiten dute emakumeak hirian gauez duen babesgabatasunaren fikzioa. Gaur egungo gizarteak ez gaitu hezten geure burua defenda dezagun, baizik eta babesteko joera du, etxean gordeta.
- Emakumeen aurkako indarkeria-ekintza gehienak eremu pribatuan eta familian gertatzen dira.

Proiektuaren Helburu Orokorrak: Ondoren, proiektuekin zer helburu orokor sustatu asmo diren azalduko dugu:


- Emakumeak espazio publikoaren erabiltzaile aditutzat hartzea.

- Herritarrekin lan egiteko erronka hartzea, parte hartzeko espazio eragingarriak sortuta; espazio horiek ez dute izan behar soilik kontsulta egiteko, eta mesedegarri gertatu behar dute espazio publikoan eguneroko bizimodua egiteko, edozein ekintza egiteko oinarri ezinbesteko gisa.
- Herritarrek hirigintzarekin eta jardun publikoaren tresna eta mugekin loturiko kontuetan trebatzea.
- Hirigintzako profesionalen irudipenaren barruko “gizonezkoa-herritar unibertsa” eredu aizuna deseraikitzea. Herritarren hainbat profil ikusaraztea, beren beharrez eta gurariekin, eta, batez ere, zaintzalanak balioztatzea eta espazio publikoan gara daitezen erraztea.
- Komunikazio-bide bat sortzea herritarren eta udaletako hirigintza eta herrilaren arloko langile teknikoaren artean, hiri-proiektuen ikuspegia ulertzeko modua berritzeko.

Parte Hartzeko Proiektuaren Garrantzia. Hirigintzako eztabaida eta planteamendu berriak lotuta daude espazio publikoaren diseinuari, kudeaketari eta ikuskerari buruzko erabakiak hartzeko sistema berritzeko eta birdefinitzeko beharrezkin.

Paraleloki, mugimendu feministek eta emakumeak ahalduzko prozesuak lanean ari dira, bizitzaren alderdi guztiak berriro definitzeko eta botere-harremanak orekatzeko, orain artean emakumeak menpean egon baitira. Berrikuspen horiek hiriguneetan ere izan beharko lukete isla.

Eskari horiek denak gizarte gero eta konplexuagoen ondorio dira, espazio publikoetan babesik aurkitzen ez



du ten gizarteen ondorio; izan ere, espazio publikoek lotura gutxi dituzte eguneroko bizitzarekin, gaitasun eskasa dute bizitza kolektiboa sustatzeko, eta, gero eta gehiago, lekuaren errealitatekin kanpoko eragileek diseinatzen eta kudeatzen dituzte. Maiz egiten, ez dira bat etortzen hiri-proiektu handiak eta herritarren benetako beharrik. Ez dituzte beren gain hartzen gaur egungo gizarte-erronka handiak, hala nola: gizonen eta emakumeen arteko aukeraberberdintasuna, biztanleriaren zahartzea, ingurumenarekiko errespetua, teknologia berrien erabilera edo gure herrietako errealitate multikulturalak. Ez dago herritar-eredurik espazio publikoa diseinatzeko; aitzitik, herritarrak askotarikoak eta konplexuak dira, eta haiei egin behar zaie kontsulta eta haiekin adostu behar da espazio kolektiboa nola diseinatu.

Etxebizitza bat agintzen digutenean, lehen-lehenik bertan biziko diren pertsonekin elkartzen gara, eta zer premia dituzten eta nolakoa izatea nahiko luketen galdetzen diegu; bada, espazio publiko bat diseinatzea agintzen digutenean ere, galdetu behar genizkieke halako kontuak etorkizuneko erabiltzaileei.

Hiria aldatzeko prozesuek denoi eragiten digute; izan ere, gure bizitzaren agertokia da hiria. Diseinuan egiten diren aldaketek, baina baita kudeaketan egiten direnek ere, zuzenean eragiten dute herri eta/edo hiri bakoitzeko bizikidetzaren erduan. Horregatik, herritarrek ahots garrantzitsua izan behar dute, pisu jakin bat, hiri-erabakidetzaren sartu ahal izateko modukoa, tolerantziarako eta integrazioarako lagungarri izango den bizikidetzaren eredu bat proposatzeko eta eskatzeko.

Horregatik guztiatik, premiazkoa eta beharrezkoa da gure herrietan eraikuntza kolektiboari bide emango dioten parte-hartze prozesuak sustatzea, ekitatez gizonen eta

emakumeen artean, herritarren eta profesionalen artean; hala, gehiago sentituko dugu gure lekuko eta komunitateko kide izatea, eta indartu egingo dira administrazioaren eta herritarren arteko loturak.

Administrazioek zuzenean edo zeharka sustatzen dituzten parte-hartze prozesuak aukera onak dira profesionalak eta espazio publikoaren erabiltzaileak harremanetan jartzeko eta elkarrekin hitz egiteko. Horregatik, funtsezkoa da informazioa bi norabideetan emateko modua emango duten dinamikak txertatzea. Prozesu horretako lehenengo pausoa herritarrak hirigintzaren arloan prestatzea da, erabakiak hartzeko eta proposamenak egiteko irizpideak izan ditzaten.

Hiri Debekatuaren Maparen proiektuek planteatzen duten bezala tailerretan biztanleriaren hainbat sektoreekin (ikasleak, herritarrak oro har, elkarteetako ordezkariak, udal teknikariak eta politikariak) lan egiteko proposamenak bide ematen du herritarrak beren konplexutasun osoan barneratzeko, beren interes eta premia askotarikoekin, espazio publikoa, ondasun kolektibotzat hartua, nola hobetu aztertzeko, eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko orduan.

Parte hartzeko prozesuak erantzukizun handiagoa sortzen du herritarren artean espazio publikoa erabiltzeko eta zaintzeko orduan, eta kontzientzia kolektiboa sortzen laguntzen du. Horregatik, Hiri Kolektiboan uste dugu giltzarri izan daitekeela hirian edo herrian egiten den edozein esku-hartzek arrakasta izan dezan.

Hiri Debekatuaren Mapak Egiteko Metodologia. Hiri Debekatuaren Maparen proiektuak generoa zeharka lantzeko formula bat dira. Herritarrak hirigintzara eta hirigintza herritarrengana gerturatzeko tresna gisa planteatzen

dira, bai eta gure kaleetan gertatzen ari denari buruzko eztabaida aberats eta pausatu bat sortzeko ere; izan ere, gizon eta emakume, gero eta deserosoago eta ez-segurua sentitzen gara kalean, eta jarduera gutxiago egiten ditugu.

Horretarako metodologia honako hau da: herritarrek parte hartzea, tailerren bidez, eta jasotako informazioa udal teknikariei helaraztea; ondoren, teknikariekin lan bateratu bat egitea, sentsibilizatzeko, aztertzeke eta hobekuntza-proposamenak egiteko.

Tailerretan zuzenean egiten da lan emakumeekin, edo tailer mistoetan, askotariko profilak dituzten pertsonekin (adina, lanbidea, familia-erantzukizunak, jatorria, gaitasun ekonomikoa eta abar); pertsona horiek espazio publikoan duten eguneroko errealitatea aztertzen dute. Tailer horiek baliaigarriak dira espazio publikoa nola erabiltzen duten lehen eskutik jakiteko, eta arrastoak lortzeko leku batzuek arrakasta zergatik duten eta beste batzuek porrot zergatik egiten duten ulertzeko.

Tailerrak egin ondoren eta espazio kolektiboa aztertu ondoren, jadanik moduan egongo gara, gune sentikorrak eta gatazkatsuak identifikatzeaz gain, jendearen parte-hartzearekin egindako herriaren diagnostikoaren zirriborro bat egiteko, genero-ikuspegia oinarritzat hartuta. Horrez gainera, analisi orokorretik herri eskalako proposamenak eta gogoetak lortuko ditugu, eta aukera-espazioak ere identifikatuko ditugu, bai eta eguneroko bizitza eta herritar guztien segurtasuna hobetzeko alternatibak ere.

Geroago, bilera bat egiten da hirigintza eta herrilan sailletako udal teknikariekin, tailerretan lortutako informazioa eta egindako gogoetak azaltzeko. Zerrenda bat egiten da segurtasun-gabezia sortzen duten gune gisa

identifikatutako alderdi eta lekuekin, eta balizko irtenbideei buruz eztabaidatzen da teknikari horiekin. Funtsezkoa da udal teknikariekin bateratze-lana egitea, identifikatutako gune bakoitzerako irtenbideak bilatzeko. Kontua hauxe da: adierazitako lekuetan hobekuntzak egitea, epeak ezartzea eta espazio bakoitza zenbat aldatuko den zehaztea, bai leku aldetik eta bai teknikoki edo aurrekontu aldetik dituzten mugak kontuan hartuta.

Alde horretatik, Hiria Kolektiboko arkitekto hirigileok zubilana eta bitartekaritza-lana egiten dugu herritarren eta udal arlo teknikoetako arduradunen artean; horiekin, profesionaletik profesionalera eztabaidatzen ditugu erabiltzaileek parte hartzeko tailerretan leku jakin baten inguruan adierazitako premiak eta gurariak eta informazio hori oinarritzat hartuz egindako hobekuntza-proposamenak. Gure gizartean ez dago parte hartzeko kultura handirik, eta, beraz, funtsezkoa da inplikaturako alderdi guztien artean hitz egiteko eta bitartekaritzarako zubiak sortzea.

Hiri Debekatuaren Mapak, parte hartzeko erabateko prozesu gisa, lau fase giltzarritan dauden egituratuak: informazioa, prestakuntza, parte-hartzea eta itzultzea/gizarteratzea.

Informazio-faseak honako hauek barne hartzen ditu: prozesuaren garapenaren publizitatea, al bait jende gehienarengana iristeko eta parte hartzera animatzeko; prozesuaren deialdia, identifikatutako interes-talde guztiei zuzendua (gazteak, emakumeak, elkarrekin ordezkariek); eta informazio-bilera bat hirigintza eta herrilan arloetako teknikariekin, haien lankidetzat lortzeko, giltzarria baita proiektuak arrakasta izan dezan.

Prestakuntza-aldia funtsezkoa da herritarrek hirigintza-gaietan ahalduntzeko, orain arte beti izan baitira teknikarien

eta gizonetzkoen foro. Eta, era berean, funtsezkoa da teknikariak sensibilizatzea, askotan ez baitute ikuspegi honetatik hausnartu eta eztabaidatu hirigintzaren inguruan.

Parte hartzeko fasea herri bakoitzeko herritarrekin osaturiko parte-hartze tailerren bidez egituratzen da. Garrantzitsua da parte-hartzaileen heterogeneotasuna bilatzea eta herritarren sektore guztiak ordezkatu egotea, emango duten informazioa ahalik eta aberatsena eta oparoena izan dadin.

Parte hartzeko tailerretan, prestakuntza eta parte-hartze faseak elkartzen dira. Hasieran, oinarrizko prestakuntza bat ematen da herrian historian zehar izan den hirigintza-eboluzioari buruz, gaur egungo arazo askoren jatorria non dagoen ulertzeko. Besteak beste, kalea, espazio publikoa, ekipamendua, parkea, komunikazio-bideak eta halako hirigintza-kontzeptuak lantzen dira, eta ondo funtzionatzen duten eta gaizki funtzionatzen duten elementuak jartzen dira etsenplu gisa. Hainbat dinamikaren bidez, herritarren profil ugariak ikusarazten dira, bai eta pertsona bakoitzak espazio kolektiboa erabiltzeko duen modu berezia ere. Horrez gain, oinarrizko kontuak azaltzen dira generoen teoriari buruz eta gaur oraindik ere emakumeen aurka egiten diren indarkeria-moduei buruz. Lehenengo bileraren ostean, espazio gatazkatsuak identifikatzeko eta argazkiak ateratzeko edo aztertutako eremuekin loturiko arazoak azaltzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei: segurtasuna edo segurtasunik eza, mugikortasuna, ekipamenduak eta emakumeen presentzia sinbolikoa. Tailerreko bigarren bileran, aurkeztutako argazkiak lantzen dira, eta identifikatutako arazoen gainean eztabaidatzen eta hausnartzen da. Bigarren bilera horretan lortzen da herritarrek beren herriaren gainean duten pertzepzio orokorrari buruzko informazioa, eta puntu beltzak ere hor identifikatzen dira. Informazio horrekin guztiarekin, eta aipatu diren arazo guztiak egiaztatzeko landa-lan

handia eginda, Hiria Kolektiboko teknikariok hobekuntza-proposamenen dokumentua egiten dugu ondoren, eta hori gero udal teknikariek eztabaidatu eta adosten dugu.


Parte hartzeko prozesu orotan, ezinbestekoa da parte hartu duten herritarrei erantzuteko konpromisoa izatea eta egindako lana ikusaraztea; horri itzultzea deitzen zaio. Modu ugari daude horretarako: puntu beltzen mapa bat argitaratzea, jardunaldi bat antolatzea prozesu osoa azaltzeko, ondorioen txostena argitaratzea. Funtsezkoa da, halaber, udal teknikariek batean lan egitea, detektatutako arazoei irtenbideak bilatzeko, bai eta konpromiso politikoak bilatzea ere, udalerrian hurrena egingo diren esku-hartzeetan hirigintza barneratzaile bat gara dadin.

Baina garrantzitsua da erantzuna ez bakarrik prozesuan parte hartu duten herritarrei ematea, baizik eta jende gehiagorengana zabaltzea. Prozesuaren gizarteratzea deitzen diogu horri. Parte hartzeko prozesuan landutako gaiaren inguruan sensibilizatzeko eta kontzientziatzeko kanpaina bat da, eta hainbat formatu izan ditzake: tailerren emaitza diren panelen erakusketa bat, hitzaldi bat, tailerrak ikastetxeetan, azalpen-jardunaldiak edo guk Hiri Ekintza Sortzailea deitzen duguna. Funtsean, xedea da egindako lana eta herritarrek, teknikariek eta arduradun politikoek genero-ikuspegitik egindako analisia ikusaraztea, espazio publikoaren segurtasunari eta sarbide-berdintasunari buruzko eztabaida sor dadin herrian.

2010. urtean, Eusko Jaurlaritzak “Generoaren eta herritarren eguneroko bizitzaren ikuspegitik hirigintzaren analisi-mapak egiteko gidaliburu-metodologikoa. Hiri Debekatuaren Mapak EAEn” argitaratu zuen. Bertan, xeheki azaltzen da proiektu horiek garatzeko eta halako mapak egiteko prozesua. Horren xedea zen tresna bat jartzea herrietako

teknikarien eta hirigintzako gainerako profesionalen eskura, herritarren parte-hartzearen bidez herrietan hobekuntzak sustatzeko, eta, gizon eta emakume, profesional eta herritar, denek batera proiektatzeko; tresna horrek elkarreraginean jarduteko bidea ematen die inplikaturako eragile guztiei, eta espazio kolektibo seguruago eta demokratikoago bat diseinatzeko eta kudeatzeko oinarriak ezartzen ditu.

Eta, aldi berean, proposamen ireki bat da esperimintatzeko, askotariko formak ezartzeko, herri bakoitzaren errealitate eta premien arabera eraldatzeko. Pauso bat gehiago da hiriak taldean eraikitze bidean, eta Hiri Kolektiboak horretan lagundu nahi du.





3

Hirigintza barneratzailea EAE-n

3.1.

Berdintasunerako Legearen aplikazioa EAeko administrazio publikoetan

Maria Luisa Aguirreche, Arartekoko Berdintasunerako Arloko aholkulari arduraduna

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legediaren eragina Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde- eta hirigintza-antolamenduan.

I. Hirigintza barneratzailearen lege-ikuspegi hurbiltzea: emakumeen eta gizonen berdintasuna lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren legeko muga eta jomuga gisa


Emakume batzuk emateko gai izan diren genero-ikuspegi berri (1) horretan du jatorria ondoko egiaztapen honek: hiri-espazioaren antolamendua eta diseinua hiriaren adierazpena dela eta horren ondorioz agertzen dela nagusiki hirian gizarte-antolaketaren eredu jakin bat, giza harremanen sistema bat, lan produktibo eta erreproduktiboaren sexu-banaketan oinarritutako kosmoikuspegi baten zorduna. Hain zuzen, ikuspegi hori inflexio-puntu bat izan da hirigintzaren kontzeptu berri bat garatzeko. Industria Iraultzak, ekoizpena areagotu izanak eta horren ondorioz emakumeak lan-merkatuan masiboki sartu izanak zalantzan jarri dute lanaren sexu-banaketa tradizionala, hots lan produktiboaren eta erreproduktiboaren banaketa, eta hori faktore erabakigarria izan da gizarte eraldatzeko; izan ere, hortik abiatuta, harreman sozial eta ekonomikoen agertoki berri bat sortu da.

Testuinguru horretan, hirigintza barneratzailea izango da hiria diseinatzeko orduan ikuspegi hau kontuan hartzen duena: pertsonen eguneroko bizitzan sortzen diren eskariak espazio publikoan txertatzea, hiriaren diseinuan herritar guztiak parte hartuko dutela bermatzea (horrek batez ere esan nahi du emakumeen parte-hartzea sustatuko

dela erabakiak hartzeko orduan), espazio publikoaren eta pribatuaren artean fluxu bat sortzea eguneroko bizimodua errazteko, pertsona guztien autonomia sustatzeko eta biztanle-sektore ahulenen (haurrak, adinekoak, mendekoak...) premia sozialei erantzuna emateko, maiz isilarazi egin baitira. Hirigintza barneratzailea egiteak esan nahi du espazioa antolatzeko orduan ardatza eta muina gaur egun pertsonari eragiten dieten arazoak konpontzea izango dela: garraio publiko behar bestekoak eta egokiak izatea; etxebizitza-premiak betetzea; bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egitea erraztuko duten espazioak sortzea; gure eguneroko bizitza markatzen duten denbora-tarteetara egokitzea espazioak, aisialdiaren eta lanaren artean erlazio orekatu bat lortzeko; erantzukidetasuna indartzea zaintza-lanetan; oinarrizko zerbitzuez hornitzea pertsona guztientzat; espazio eta zerbitzuak modu unibertsalean eskuratu ahal izatea; emakumeentzako segurtasuna bermatzea... Azken batean, denontzako hiri bizigarriagoak sortzea da kontua, hitzaren zentzu betean.

Bidezkoa da eskerrak ematea beren konpromiso pertsonalarekin hirigintzari buruzko ikuspegi berri hori

(1) Emakume askok eta gizon batzuek garatu dute hiri-espazioari buruzko ikuspegi berri hori, bereziki XX. mendeko 70eko hamarkadatik, batez ere pentsamendu feministaren ekarpenak, eta baita pentsamendu ekologistarenak ere, oinarritzat hartuta. Gure ingurunean bereziki esanguratsua da ANA BOFILL, MARIA DUMENJO, ISABEL SEGURA, MONICA CEVEDIO eta beste batzuek egindako lana, edo, berrikiago, MARTA ROMAN ETA ISABELA VELAZQUEZEK egindakoa; hain zuzen, beren lanarekin beharrezko erreferentzia eman digute hirigintzaren arloan premisa kontzeptual berri horiekin lan egiteko. Azken horiek, Guía de urbanismo con perspectiva de género lanean (Ed. Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoko Gizarte Politika, Emakumea eta Immigrazioa Kontseilaritza, 2008), oinarrizko bibliografia bat ematen dute, zinez interesgarria gai honetara gerturatzeko. Haiek deitzen diote ikuspegi horri “begirada berria”, eta harrigarriro argi eta ezinago egoki garatzen dituzte genero-ikuspegipeko hirigintzak zer esan nahi duen ulertzeko giltzarri diren jarraibideak.



nolako izan daitekeen zehazten lagundu duten pertsona guztiei, batez ere emakumei, ezagun zein ezezagun (2). Ikuspegi horri esker, gaur aurrera egin dezakegu pertsona guztien premiak barne hartuko dituen hiriari buruzko planteamendu berrietarantz, eta, hala, harreman-modu berrietarako eta bizitzeko modu gizatiarragoetarako oinarriak ezar ditzakegu.

Zuzenbidearen eginkizuna giltzarria da hirigintzaren kontzeptua adierazitako zentzuan finkatzeko; izan ere, halabeharrez, —zenbait pertsona edo erakunderen boluntarismo goresgarriaz harago— arau juridikoek emango diete forma prozedura formalei eta muga materialei, eta horien arabera egingo da hirigintza-lana, hau da, espazioak diseinatu eta antolatu lehenik, eta diseinatutakoa egoki burutu eta gauzatu ondoren. Hemen, argitzen saiatuko gara zenbateraino sartu diren gure antolamendu juridikoan genero-ikuspegipeko hirigintzaren premisa kontzeptual berri horiek. Horretarako, beharrezkoa da aztertzea nola eragiten duen hirigintza-zuzenbidean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz azkena ateratako legeak.


Gure ordenamendu juridikoak bilakaera izan du, zalantzarik gabe, lehen aipaturiko gizarte-aldaketen isla gisa, eta lege-parametro berriak barneratu ditu, hori ere Europako Erkidegoko ordenamenduak sustatuta (3), berdintasunaren eta sexuaren ziozko bereizkeriarik ezaren printzipioa, Konstituzioko 14. artikuluan ezarritakoa, garatzearen ondorioz. Gaur egun, berdintasunari buruzko bi lege dira aplikagarriak Euskal Autonomia Erkidegoan: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako, eta Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. Lehenak alderdi organikoetan garatzen du Konstituzioko 14. artikulua, eta, horrez gainera, aldaketa

sakonak txertatzen ditu estatu-lege garrantzitsuetan, hala nola Langileen Estatutuaren Legean eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legean. Nolanahi ere, Estatuko Administrazio Orokorrari dagozkio eginkizun administratibo konkretu horretan eragiteko betebeharrak. Berdintasunerako Euskal Legeak, ordea, badakartza —legegintza-eskumen autonomikoa baita— betebeharrak euskal administrazio publikoentzat; hori dela eta, batez ere lege hori izango da gure azterketaren xedea, ikusiko dugun bezala euskal administrazioei bereziki baitagokie hemen hipside dugun gaia, hau da, hirigintza eskumen autonomiko gisa.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko lege horrek mugak ezartzen dizkie botere publikoen jarduketei; hain zuzen, debekatu egiten die, oro har, sexuaren ziozko bereizkeria ekar dezakeen jardun oro. Baina, aldi berean, legedi hori berdintasun-printzipioa gauzatzeko proposatu da, Konstituzioko 9.2 artikuluan adierazitako zentzuan gauzatzeko proposatu ere, eta, horretarako, botere publiko guztiak lotzen ditu emakumeen eta gizonen artean berdintasun benetakoa eta eragingarria lortzeko helburuan. Horrek esan nahi du berdintasunak,

(2) Gai honetaz arduratzen diren emakumeen sareak ugaritu izanak agerian jartzen du nazioarteko irismena duela hiri-espazioak diseinatzeko eta antolatzeko moduari buruzko hurbilketa berezi honek. Bereziki nabarmenak dira, besteak beste, Hiriko Emakumeen Europako Gutuna izenekoaren <http://habitat.aq.upm.es/boletin/n7/acarta.html> eta Hiriko Emakumeen Nazioarteko Sarearen inguruan <http://www.femmesetvilles.org/> sortutako sarea.

(3) Zehazki, Europako Erkidegoko bi zuzentarau gainjartzeko helburuarekin: 2002/73/EE Zuzentaraua, 76/207/EEE aldatzekoa, lanean sartzean, lan-heziketan eta promozioan eta lan-baldintzetan gizonen eta emakumeen tratu berdinen printzipioa aplikatzeari buruzkoa; eta 2004/113/EE Zuzentaraua, Gizon eta emakumeen tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatu duena ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean eta horietaz hornitzean.



legezko tasunaren funtsezko parametro gisa, bi norabidetan jarduten duela, hau da, murriztu edo mugatu egiten ditu pertsonen tratu-berdintasuna zalantzan jartzen duten administrazio-jarduketak jakin batzuk, eta lege-jomuga bat ere ezartzen du, Administrazio Publikoaren jarduerak guztiek ezinbestean xede izan behar dutena. Hala, berdintasunak, lege-jomuga gisa, berekin dakar ekintza positibo deiturikoak sustatzeko betebeharra (hots, neurri iragankorrak, gizarte-bazterketa egiaztatu den egoeretan, nahiz eta tratu bereiziaz sortu, berdintasuna lortzeko helburuan aurrera egitea xede dutenak, esate baterako sozialki eragin nahi zaion taldeari mesede eginda), baldin eta justifikazio objektibo eta arrazoizkorik bada, edo jarduketak guztietan genero-ikuspegia barneratzeko betebeharra, besteak beste.

Nola eragiten dute neurri horiek hirigintzan eta lurralde-antolaketan? Jarraian, ikusiko dugu bai lurzorua legeriak eta bai lurralde-antolaketari buruzko legeriak nola isiltzen duten, guztiz, emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaia. Aipaturiko legedian genero-ikuspegirik inola ere ez agertzea ez da ordenamendu juridikoak sektore honetan lortu nahi duen neutraltasunaren zantzu garbi bat besterik, hirigintzan ere —diziplina zientifiko gisa sortua eta eraikia— lortu nahi den neutraltasun ideologikoaren (4) adierazpidea edo isla. Horrez gain, ikusiko dugu hiri-espazioari begiratzeko modu berri hori esparru juridikoan azalduko dela, berdintasunari buruzko legediaren zeharkakotasunari esker; izan ere, ezartzen du nahitaez aplikatu behar direla legezko teknika eta printzipioak esparru material guztietan berdintasuna lortzeko, eta, bizikiago, botere publikoek jarduketak-gaitasun zehatza duten esparruetan, hala nola, Konstituzioan aintzatetsitako funtzio publiko diren aldetik (5), hirigintzan eta lurralde-antolamenduan.

II. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legea (BL) eta administrazio-jarduerari oro har aplikatzea

Berdintasunerako Euskal Legeak hainbat printzipio orokor ezartzen ditu 3. artikuluan; hain zuzen, artikulua horren birtualtasunaren xedea da botere publikoaren jarduketak guztien berri ematea. Hala, tratu-berdintasunaren printzipioa (zuzeneko eta zeharkako berezikeria debekatuta), aukera-berdintasunaren printzipioa, aniztasun eta desberdintasunarekiko errespetuaren printzipioa, genero-ikuspegia barneratzearen printzipioa, ekintza positiboaren printzipioa, sexuaren arabeko rola eta estereotipoak deuseztatzearen printzipioa, ordezkartza orekatuaren printzipioa eta administrazio arteko lankidetzaren eta koordinazioaren printzipioa. Nahiz eta legeak printzipio gisa aipatzen dituen horiek guztiak, kasu batzuetan teknika juridikoen enuntziatu ere badira, eta horiek, gero, modu zehatzagoan xedatuko dituen arauak, euskal administrazio publikoek beren jarduketak guztietan berdintasuna barneratzen dutela ziurtatzeko. Hala, berdintasunerako legediaren zeharkako predikatua oro har aplikatzekoak diren hainbat tresna juridikoren bidez gauzatzen da arlo bakoitzean.

(4) Ikus horri buruz M. ROMANEK eta I. VELAZQUEZEK nola azaltzen duten lortu nahi den hirigintzaren neutraltasun hori: Guía de urbanismo con perspectiva de género, op.cit, 9. or.

(5) Konstituzioko 47. artikulua hirigintzaren kontzeptu hori funtzio publiko gisa ezartzen du: “Espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dute. Botere publikoek beharrezkoak diren inguruabarrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituzte, eskubide hori eragingarria izan dadin; eta, espekulazioa desagerrarazteko, interes orokorraren arabera arautuko dute luraren erabilera”. Bestalde, oinarritzko arau horretako 33. artikulua berariaz jasotzen du honako hau: “Eskubideon gizarte-eginkizunak legeen arabera mugatuko du haien edukia”. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketari dagokionez, Konstituzioko 148.1.3 artikuluan ezarritakoa hartu behar da kontuan.

Hala, legeak hainbat tresna eskaintzen ditu sexuaren ziozko berdintasunaren printzipioa garatzeko eta horrekin oro har administrazio-jardueran berdintasunaren helburua sustatzeko. Garrantzitsuenak aipa ditzakegu:

- ekintza positiboak sustatzea eta diseinatzea,
- berdintasunerako plangintza,
- eragina generoaren arabera ebaluatzea,
- mintzaira ez-sexista erabiltzea,
- emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea organoetan,
- berdintasunerako erakundeak eta unitate administratiboak sortzea administrazio publiko guztietan eta horiei atxikitako erakunde eta enteetan,
- administrazio publikoen zerbitzuko langileak berdintasun-gaietan prestatzea,
- genero-ikuspegia hartzea administrazio publikoen zerbitzupeko langileak hautatzean,
- gizarte programak, baliabideak eta zerbitzuak sustatzea,
- datu eta estatistikak egokitzea,
- desberdintasun- edo bereizkeria-egoerak aztertzea eta detektatzea,
- berdintasun kontuetan sentsibilizatzea,

- berdintasunerako legedia betetzeko irizpideak ezartzea diru-laguntzak emateko eta ondasun eta zerbitzuen kontratazio administratiboak egiteko.

Teknika edo tresna horien artean, arreta berezia merezi dute, jarduketa publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko neurri gisa —hori bereziki garrantzitsua da hizpide dugun gaian—, berdintasunerako plangintzak eta generoaren araberrako eraginaren ebaluazioak; horiei buruz zehatzago arituko gara aurrerago.

Egia hauxe da: tresna horiek denek euskal botere publikoen betebeharrak gisa jarduten dutela, administrazio publiko hartzaileek duten mailaren arabera. Hala, Berdintasunerako Euskal Legeak, 5. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari (Eusko Jaurlaritza) dagozkion betebeharrak ezartzen ditu; 6. artikulua foru aldundiei dagozkien betebeharrak zehatzak ezartzen ditu; eta 7. artikulua, berriz, tokiko administrazioari, udalei eta mankomunitateei dagozkienak.

Guztiarekin, legeak esku-hartzearen hainbat arlo material arautzen ditu, eta arlo horietarako espezializazio handiagoarekin garatzen ditu administrazio publikoek esparru horietan egin beharreko jarduketak. Arlo horiek III. titulua osatzen duten legearen kapituluetan daude jasota. Honako hauek dira kapitulu horiek:

- Parte-hartze soziopolitikoak
- Kultura eta komunikabideak
- Hezkuntza
- Lana

- Oinarrizko gizarte-eskubideak (osasuna, gizarteratzea, ingurumena eta etxebizitza)
- Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egitea
- Emakumeen aurkako indarkeria

Arlo horietako batzuen arauketak hirigintza-arloari zuzeneko edo zeharkako eragina ekartzeaz harago — pentsa bedi, esate baterako, emakumeen parte-hartze soziopolitikoan eta hirigintza-planak egiteko prozeduretan emakumeek duten eraginean, edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen etxebizitzarako sarbidean—, hauxe da esanguratsuen esku hartzeko arloen enuntziatu horretan: hirigintza eta lurralde-antolamendua ez direla aipatzen arlo espezifiko gisa. Legeak hel ziezaiokeen arlo honi berdintasuna sustatzeko tekniken bidezko esku-hartzearen xede gisa, baina oinarrizko gizarte-eskubideei buruzko kapituluaren barruan kokatutako artikuluko batean besterik ez du aipatu, BLko 46. artikuluan hain zuzen; jarraian aztertuko dugu artikuluko hori.

III. Hirigintza-arloa Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean: 46. artikuluan egiten den hirigintzaren lege-aipamenaren esanahia

Badirudi, lehenengo hurbilketan, datu esanguratsutzat har daitekeela Berdintasunerako Euskal Legeak hirigintza ez hartzea berariaz esku hartzeko arlo gisa, eta horrek halako kontzientzia falta bat adierazten duela hirigintza barneratzailearen kontzeptua garatzeko genero-ikuspegiak izan dezakeen irismenari dagokionez. Nolanahi ere, bidegabea da legegileari ez aitortzea halako kontzientzia bat kontu horren garrantziari dagokionez, gai izan baita aipaturiko 46. artikuluko hori legean barneratzeko; hain

zuzen, artikuluko horren literalatasuna, nire iritziz, oinarrizko lege-esparru izan daiteke Euskadin genero-ikuspegipeko benetako hirigintza bat eratzeko. Manu hori legearen III. Tituluko V. Kapituluaren dago, oinarrizko gizarte eskubideei buruzkoan, eta lehenengo idatz-zatian honela dio:

“Euskal herri-aginteez beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioeko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere”.

Manu horretako edukitik ondoriozta dezakegu badela lege-betebehar zehatz bat, botere publikoek —bakoitza bere eskumenen esparruan— neurriak har ditzaten hirigintzan genero-ikuspegia txertatuko dela ziurtatzeko. Lege-betebehar hori ezartzeko, Berdintasunerako Legeak berak berdintasunaren helburua arlo guztietan gauzatzeko eskaintzen dituen teknikak baliatu beharko dira; teknika horiei buruz aritu gara lerro batzuk gorago, hala nola berdintasun-plangintzaz eta, bereziki, genero-eraginaren ebaluazioaz, eta ondoren xehekiago aztertuko ditugu.

Nolanahi ere, bidezkoa da nabarmentzea aipaturiko manu horrek zer gai jotzen dituen kontuan hartu beharrekotzat hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko orduan (orobat, xedapen horrek ingurumenari, garraioari eta etxebizitzari buruz dihardu). Zehazki, honako hauek dira gai horiek: pertsonen segurtasuna (pentsa dezagun hiri debekatuaren mapetan, tokiko auditoretzen edo emakumeentzako puntu



beltzen detekzioaren esperientzietan), zaintza-lanak eta etxeko lanak kontuan hartzea, bai eta bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egitea ere, gai giltzarriak denak ere, genero-ikuspegipeko hiri-espazioaren diseinui heltzeko orduan. Azkenik, manuak aipatzen ere du beharrezkoa dela politika eta programa horiek diseinatzean eta gauzatzean emakumeek parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzea. Hirigintza-plangintzako tresnak egiteko orduan herritarren parte-hartzeak planteatzen dituzkeen zailtasun teknikoek harago, uste dugu lege-aipamen horrek oinarriak ezartzen dituela hirigintza-planak egiteko prozeduretan parte-hartze eragingarria izan dadin.

IV. Lurzoruaren eta lurralde-antolamenduaren legediak ez aipatzea generoa gizarteratzeko funtsezko faktore gisa

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta lurralde-antolamenduari buruzko legedia aztertuta, baieztatu dezakegu gogoeta horiek ez direla barneratu gai hauek arautzen dituen multzo juridikoan. Hain zuzen, ez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak (LAL) eta ez Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Lege (LL) askoz ere berriagoak egiten dute aipamenik genero-ikuspegiaren edo hirigintza barneratzailearen inguruan. Nolanahi ere, gure gaiari dagokionez, aipagarria da azken lege-arau horrek zer aurreikuspen egiten dituen eraikigarritasunaren mugei eta hirigintza-estandarrei dagokienez —Lurzoruaren Legeko III. Tituluko III. Kapituluan arautuak—.

Hala, zuzkidura publikotarako lurrak gordetzeko hirigintza-estandarrek, LLko 79. artikuluan jasorikoez, ziurtatzen dute hirigintza-plangintzak hiri-kalitatea eskainiko duela, hirien bizigarritasuna hobetzeko xedearekin. Babes publikoko etxebizitzatarako lurzoru-erreserbei dagokienez —LLko

80. eta 82. artikuluetan ezartzen dira—, horien xedea da etxebizitza-parke bat ziurtatzea, garesti direla eta etxebizitza pribatuen merkatuan sartzerik ez dutenentzat; hain zuzen, erreserba-portzentaje handiak ezartzen ditu horretarako. Horrekin, zalantzarik gabe gizarteratzen laguntzen zaie bestela etxebizitzaren merkatutik kanpo geratuko liratekeen biztanleria-geruza handi batzuei. Halaber, LLko 81. artikulua lege-estaldura ematen die zuzkidura-ekipamenduei; hain zuzen, horien xedea da bizitzeko modu berriak sortzea premia bereziak dituzten biztanleria-talde jakin batzuentzat. Lege-arau horrek aukera ematen die udalerriei habitat-esperientzia berritzaileak gara ditzaten, hala diseinu aldetik nola kontzeptu aldetik. Azkenik, Lurzoruaren Euskal Legeak, 8. artikuluan, herritarren parte-hartzearen printzipioa (6) jasotzen du, eta xede horrekin, hamaikagarren xedapen gehigarrian, parte hartzeko organo bat aurreikusten du: Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea; hain zuzen, topagune hori aukera bat da hirigintza barneratzaileak parte-hartzearen inguruan dakartzen postulatutako garatzeko (7).

Gainera, nabarmendu behar da lurralde-antolamendua garrantzi handikoa dela, aurretiazko eta udalaz gaindiko antolamendu gisa, gerora hiri-espazio izango den hori eratzeke orduan. Lurralde-plangintzan hirigintza-plangintza txertatzea lege-agindu bat da, eta, gainera, etorkizunerako espazio-antolamendua arrazionalizatzen du. Horregatik, ez dugu arlo hori ahaztu nahi hirigintza barneratzaileaz aritzean. LAlean jasotako lurralde-antolamendurako tresnek, bereziki, Lurralde Antolamenduaren Zuzentzauek (LAZ) eta Lurralde Plan Partzialek (LPP) aukera ona eskaintzen dute lurrak inklusiorako prestatzeko eta ikuspegi berri hori hasieratik eskaintzeko espazioaren antolamenduan. Hurrengo lerroetan aztertuko dugu aplikatutako ote dakizkiekeen eta, hala bada, nola aplikatu beharko



litzaizkiekeen lurralde-plangintzako tresna horiei lehen aipaturiko teknika juridikoak, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua txertatzera bideratuak.

V. Hirigintzan eta lurralde-antolamenduan genero-ikuspegia txertatzeko lege-teknika esanguratsuenak

Jadanik adierazi dugu bi direla Euskadin genero-ikuspegioko hirigintza ziurtatuko duen sistema bat juridikoki bermatzeko eta eragingarri egiteko gehien eragin dezaketen lege-teknikak. Batetik, BLk euskal administrazio publikoei eta haiei atxikitako erakunde eta enteei berdintasun-plan bat izateko ezartzen dien betebeharra. Bestetik, generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazioa da teknikarik esanguratsuen ziurtatzeko, espazio-plangintzako tresna bat onartu aurretik, horko edukiak barneratzen duela genero-ikuspegi deritzogun beste ikusmolde hori, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua modu unibertsalean txertatzea xede duena.

Azter dezagun, bada, bi teknikek zer irismen duten hizpide dugun gaian:

1. Berdintasunaren arloko plangintza: lurralde- eta hirigintza-antolamendurako irismena

BLko 15. artikulua ezartzen du euskal administrazio publikoek planak edo, bestela, programak egin behar dituztela, eta beren eskumen-esparruetan emakumeen eta gizonen berdintasuna ziurtatzeko aurreikusi diren esku-hartze lerroak bildu behar dituztela. Hala, manu horretako lehenengo idatz-zatian esaten da Eusko Legebiltzarrak legegintzaldi bakoitzean plan nagusi bat onartu behar duela, eta horren bidez modu koordinatu eta orokorrean bilduko dituela emakumeen eta gizonen berdintasunaren

arloan euskal botere publikoen jarduna bideratu behar duten esku-hartze lerroak eta zuzentarauak. Bestalde, artikulua bereko hirugarren idatz-zatiak berdintasun-planak edo programak onartzera behartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiak eta udalak (banaka edo kide diren mankomunitateen bitartez), Eusko Legebiltzarrak aurrez adierazitako esku-hartze lerroen arabera.

Berdintasunerako plangintzak ezinbestean du zeharkako izaera, hainbat arlotan eragin behar duenez, baina plangintzaren zehaztapenak ezin dira xeheak izan; soilik estrategiak edo jarduteko zuzentaru nagusiak ezarri behar dituzte. Guztiarekin, tresna horiek aukera interesgarria ematen dute hirigintza- eta lurralde-planifikatzailearentzat. Espazioa antolatzeke planen zehaztapen materialek (izan lurralde-planak izan hirigintzakoak) ez bakarrik ezin dituzte

(6) LLko 8. artikulua. Herritarren parte-hartzearen printzipioa:

1. Hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzeko ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko da.

2. Parte-hartzearen printzipio horrek eskubide hauek dakartzala berarekin: a/ Plangintza izapidetzeko eta egikaritzeko prozeduretan eta hirigintzako diziplinari dagozkion prozeduretan interesatu gisa agertzeko eskubidea, horretarako legitimazio berezirik egiaztatuta beharrik gabe.

b/ Herri-administrazio eskudunen artxiboetan dauden agiriak ikusi eta haien kopia eskuratu ahal izateko eskubidea, kasuan kasuko herri-administrazioak erabakitako eran eta legeetan oro har ezarritako mugekin ez besterekin.

Legitimazio berezirik behar izan gabe, bidezko diren akzioak erabili ahal izatea, hala administrazio-bidean nola auzi-bidean, herri-administrazioei nahiz subjektu pribatuei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten exijitzeko.

(7) LLko Hamaikagarren Xedapen Gehigarria. Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea: “Euskal Autonomia Erkidegoko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea sortzen da. Topagunearen eginkizunak, osaera eta araubide juridikoa erregelamenduz garatuko dira”.

urratu berdintasun-plan edo programen orientabideak, baizik eta, horrez gainera, helburu berberak lortzera bideratu behar dira.

Nolanahi ere, garrantzitsua da segurtasun-planek, batez ere foru eta udal planek, espazioaren antolamenduari buruzko estrategiak eta gidalerroak proiektatzea. Hirigintza- eskumena udalerrien funtzio nagusietako bat da, esku-hartze administratiborako zer botere dituzten berariaz zehazten duena. Horregatik, berdintasunerako udal planifikatzaileak ezin du arlo hori begi-bistatik galdu, udalerrian emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburu zehatzak ezarriko dituen beharrezko ardatz gisa. Gauza bera esan daiteke foru aldundiek eta Eusko Legebiltzarrak lurraldea antolatzeke dituzten eskumenei dagokienez.

Azkenik, nabarmendu behar da berdintasun-planak garrantzitsuak direla hirigintza- eta lurralde-planifikatzailearentzat, konparatzeko beharrezko elementu gisa (konparazio hori generoaren eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioaren teknika baliatuz ezarri ahalko da). Edonola ere, bi plangintzak uztartzea beharrezko helburua da, eta komeni da horren gainean gogoeta egitea eta sakontzea; izan ere —abiapuntuko premisatzat hartuta hirigintza barneratzailearentzat espazioa antolatzeak gizartea antolatzeke moduetan eta, azken batean, bizitza pertsonalean eta espazio horretan bizi direnen gizarte-harremanetan behin betiko eragitea esan nahi duela—, berdintasunari buruzko plangintzan ezarritako lerroak espazioaren antolaketan bertan kontuan hartzeak aukera paregabea ematen du emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko behar den gizarte-kohesioa izan dadin. Alderantziz, helburuak betetzen lagundu dezakeen edo, areago, helburuen arrakasta baldintzatu dezakeen elementu gisa hartu behar du berdintasun-plangintzak

espazio- edo lurralde-elementua. Bestela esanda, bi plangintzak uztartzeak nabarmen lagundu diezaiokete sinergiari berdintasunaren helburua lortzeko orduan.

2. Generoaren arabeko eraginaren aurretiazko ebaluazioa (GEE)

Teknika horren xedea da araudian eta administrazio-jardueran genero-ikuspegia txerta dadin lortzea. Berdintasunerako Euskal Legeak III. Tituluko IV. Kapitulua eskaintzen dio, zehazki 18-22. artikulua; hain zuzen, artikulua horietan administrazio-arau eta -egintzen aurretiazko kontrola egituratzeko oinarriak ezartzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako zer intzidentzia (eragina) duen ebaluatzeke eta ondoren konparatzeko, eta, hala badagokio, ezberdintasunak ezabatzeko beharrezko diren neurriak txertatzeko. Garrantzitsua da adieraztea BLko 18.1 artikulua (8) ez dituela soilik administrazio-arau edo -egintzak aipatzen genero-eraginaren ebaluazioaren xedetzat, baizik eta baita berariaz plan, programa eta bestelako tresnak ere.

Generoaren arabeko eraginaren ebaluazioaren edukia hurrengo pauso hauek zehazten dute:

- Administrazio-arau edo -egintza sustatzen duen organoak generoaren arabeko eragina aurretiaz ebaluatzea (BLko 19. artikulua).
- Emakumeen eta gizonen ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzea, ebaluazio horren arabera. Hori ere organo berberak egin behar du (BLko 20. artikulua).
- Emakundek txostena egin behar du, aurreko bi izapideak

zuzenak direla egiaztatzeko (BLko 21. artikulua).

- Arauaren edo egintzaren organo sustatzaileak aurreko izapideak azaltzen dituen memoria egitea eta dokumentuan izapide horiek egin direla jasotzea (BLko 22. artikulua).

Generoaren eragina ebaluatzeak esan nahi du aztertu egin behar dela proiektatutako jarduketak ondorio positiboak edo negatiboak izango dituen berdintasunaren helburu orokorrean, are ondorio horiek nahitakoak ez direnean ere eta beren-beregi adierazten ez direnean ere edo aurreikusirik ez daudenean ere. Horregatik, ezinbestekoa da genero-ikuspegi horrekin analisi bat egitea, administrazio-jarduketan ondorioak, batzuetan ezkutukoak, argitu ahal izateko.

Araudi-garapena eta GEEaren aplikazioa Euskal Autonomia Erkidegoan

Lege-xedapen horiek Genero eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzekoa (9) izenekoan bidez garatu ditu Eusko Jaurlaritzak.

Jarraibide horiek, izaera juridiko anbiguokoak, une honetan hainbat gidalerro eta argibide ezartzen dituzte, eta horiei esker prozedura bat egitura daiteke, lehen aipaturiko neurrietan generoak zer eragin duen ebaluatzeke lege-betebeharra betetzeko. Hau da, aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, haren erakunde autonomoak eta hari atxikitako edo lotutako ente publikoak dira, eta, hor bertan adierazten denez, “tresna gisa hartu behar da (...) Legean aipatutako artikulua aplikatu behar dituztenei lana erraztuko dien tresna gisa (...)”.

Eusko Legebiltzarreko Kontseiluak onartutako jarraibideen izaera alde batera utzita (legeak ezarritakoaren arabera, lege-manu horiek araudi bidez edo jarraibide batzuen bidez garatu beharrekoak ziren, eta bigarren hori hautatu zen azkenean), kontua da jarraibide horien edukia agerrarazten duela zein neurri ebaluatu beharko diren generoaren eraginari dagokionez (10), eta, aldi berean, iter edo prozedura-bide bat ezartzen duela, legearen aurreikuspenetara doitia, ebaluazio hori egin ahal izateko.

Kontuan hartuta jarraibide horien aplikazio-eremua Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra dela, argitzeko dago oraindik zer gertatuko den beste euskal

(8) BLko 18. artikulua:

“1. Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-agintek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua.

2. Artikulu honetako lehen paragrafoan xedatutakoa betetzeko, euskal herri-administrazioen mende dauden sail, erakunde autonomo edo ente publikoek lege honetako 19. artikulutik 22.era bitartean ezarritakoari jarraitu behar diote. Nolanahi ere, foru- eta toki-erakundeek, beren eskumenez baliatuz eta beren arauetan dauden berezitasun formal eta materialak aplikatuz, artikulutik ezarritakoa erakundeok dauzkaten antolakuntza- eta eginkizun-beharretara egokitu ahal izango dute.

3. Generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzerakoan –legeko 19. artikulua– eta ezberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzerakoan –legeko 20. artikulua–, kontuan hartu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunetan 3. artikuluko 1. paragrafoko azken tartekian adierazitako faktoreek daukaten eragina.

4. Euskal herri-agintek ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.

(9) Eusko Legebiltzarreko Kontseiluak 2007ko otsailaren 13an hartutako akordioaren bidez onartuak. Gobernuaren Idazkaritza eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren otsailaren 14ko 5/2007 Ebazpenak xedatzen du 2007ko martxoaren 13ko EHAAn argitaratuko direla.

administrazio publikoetatik datozen jarduketekin (arauak, ekintzak, planak, programak eta bestelako tresnak). Nolanahi ere, baieztatu behar da badela betebeharrak bat Berdintasunerako Euskal Legeko 18-22. artikuluetan ezarria, saihestu ezin dena, eta, gure iritziz, hori ere zalantzarik gabe, lurralde- eta hirigintza-plangintzako tresnei dagokiena.

Gobernu-zuzentzarauak, gainera, erreferente gisa balio dezakete beste administrazio publiko batzuentzat. Nolanahi ere, zenbait euskal administrazio hasiak dira beren tresnak garatzen. Esate baterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak badu jadanik agiri bat, “Gipuzkoako Foru Aldundiaren organoen izaera orokorreko xedapenen generoaren araberrako eragina ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak” (11) izenekoa. Araberraren kasuan, prozesu bat abiarazi da arauak eta egintza juridikoak egiten dituzten langileak gaitzeko; horren xedea da, mailaz maila, jarraibide argiak lortzea generoaren eragina ebaluatzeko txostenak egiteko. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundia ere hasia da oinarri batzuk ezartzen, generoaren eragina ebaluatzeko lan-irizpide batzuk izateko.

Nolanahi ere, Berdintasunerako Euskal Legeak lege-esparru bat ezarri du, eta horrek, jadanik adierazi dugun bezala, behartu egiten ditu euskal administrazio guztiak beren jarduketa guztietan genero-ikuspegia txertatzera. Ondorioz, lege-betebeharrak horrek lurralde- eta hirigintza-plangintzako tresnetan ere ezarri behar du emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua.

Orain arte esandakoa laburbilduz, ondoriozta dezakegu horrek guztiak, plangintza-tresnak GEEaren pean jartzeari dagokionez, honako hau esan nahi duela:

Eusko Jaurlaritzak egindako GEEaren gidalerroek argi uzten dute dekretu-maila duten arauak betiere ez badira

Administrazioaren antolaketa-arauak edo etxe barrukoak GEEaren pean jarriko direla; horrek esan nahi du betebeharrak hori bete beharko dutela bai Lurraldea Antolatzeko Jarraibideek (LAI) eta bai Lurralde Plan Partzialek (LPP). Azken horien kasuan, kontuan hartu behar litzateke, orobat, foru aldundiek araupetu dezaketela generoaren eraginaren ebaluazioa, kontuan hartuta haiena dela lurralde-plan partzialak egiteko ardura nagusia.

Hirigintza antolatzeko tresnei dagokienez, bereziki hiri-antolamendurako plan nagusiei dagokienez, betiere ez

(10) GEEren xedea izango dira honako hauek, Eusko Jaurlaritzaren jarraibideekin bat etorritik:

“Administrazio arau eta egintza hauen proiektuek eduki behar dute generoaren araberrako eraginaren txostena:

a) Lege edo erregelamendu maila duten arau juridikoen proiektuak. Salbuetsita daude herritarren eskubide eta interesei eragiten ez dieten proiektuak eta antolaketa izaera bakarrik dutenak, bereziki, administrazioaren xedapen organikoak edo haren menpekoak diren edo hari atxikita dauden erakundeenak, ez badira herritarrek administrazio funtzioetan izan dezaketen parte hartzeari dagozkienak. b) b) Administrazio egintzen proposamenak. Administrazio egintzen proposamen guztiak salbuetsita daude, honako hau arautzen ez badute:

1– Enplegu publikoko lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko hautapen prozesuen deialdiak badira, bai eta deialdi horiek oro har arautzeko izan gabe hautatzeko epaimahaien osaketa zehazten dutenak.

2– Administrazioak sustatu edo diruz lagundutako edozein motatako sariak emateko sortutako epaimahaien osaketa.

3– Arte edo kultura fondoak eskuratzeko sortutako antzeko organoen osaketa.

Aurreko ataletan ebaluazioa behar duten aipatutako administrazio arau eta egintzen proiektuetan, ez da generoaren araberrako eraginari buruzko txostenik beharko, baldin eta arauaren edo egintzaren helburua indarrean dauden arau edo egintzak aldatzea bada, harik eta aldaketak oinarritzko alderdiei eragiten ez badie”.

(11) Barne-lanerako dokumentu bat da, 2011ko otsailean egina garai hartan Gipuzkoako Foru Aldundiko Lankidetzak, Giza Eskubide eta Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia zenak; dena dela, ez da formalki onartu ebazpen edo foru agindu gisa (ISBN: 978-84-7907-648-1)

badago generoaren eragina ebaluatzeko moduaren inguruan udalek egindako gidalerro propiorik, uste dugu BLko 46. eta 16-22. artikuluek ematen diotela lege-estaldura tresna horien edukietan genero-ikuspegia bermatzen dela nolabait ebaluatzeko eskakizunari; izan ere, plan horiek (izaera juridiko arauemailea) zuzenean eragiten diete herritarren eskubideei.

GEEak lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren esparruan ekar ditzakeen arazoak eta eragina ebaluatzeko prozedura bakar eta integratzaile baten komenigarritasuna

Nahiz eta tresna hori garrantzitsua izan daitekeen hirigintza- eta lurralde-antolamenduaren esparruan genero-ikuspegia txertatzeko, ezin dugu ahaztu administrazio-prozedura berriek zailtasunak ekartzen dituztela plangintza-tresnak egiteko orduan; izan ere, planak egiteko prozedura lehendik ere konplexu bati gehitzen zaizkio (12).


Bestalde, kontuan izan behar da, askotan, prozedurak formalki betetze hutsak ez diola inolako baliorik gehitzen azken emaitzari, baldin eta hirigintza-eragileek ez badute nolabaiteko borondatea genero-ikuspegiarekin konprometitu dagoen espazio-antolamendu bati heltzeko. Eraginaren ebaluazioa ezin da bihurtu eragozpen burokratiko; horregatik, beharbada beharrezkoa da berriz pentsatzea berezirik utzi behar ote diren eragina ebaluatzeko prozedura ugariak, batera agertzen direnean, edo horiek batu egin behar ote diren ebaluazio bateratu moduko batean hala gertatzen da ingurumenaren eta generoaren eraginarekin loturiko plangintza-tresnekin, eta horiei, noizbehinka, arloko beste legedietatik datozenak gehitzen zaizkie.

VI. Ondorioak

Hauxe saiatu gara aztertzen, modu azalekoan: Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den legediak babesten eta indartzen ote duen hiri-espazioaren gaineko begirada berri horren premia, hiria diseinatzeko plangintza berritzaile eta barneratzaileak garatu ahal izan daitezen. Hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren legeak ez diete heltzen, funtsean, alderdi horiei, eta berdintasunerako legediak ematen ditu bizi garen espazioak antolatzeke eta diseinatzeko orduan generoaren ikuspegia ziurta lezaketen bide eta tresna juridikoak.

Lege-esparrua badago, eta funtsezko oinarria da hiria egiteko eta lurraldea antolatzeke orduan botere publikoei berdintasunaren konpromisoan inplika daitezten exijitzeko. Nolanahi ere, beharrezkoa da dauden tresna konkretuen erabilgarritasunean sakontzea; hain zuzen, oraindik zehaztu egin behar dira eredu benetan eragingarri batean, eta eredu horrek hirigintza-egitekoaz arduratzen diren administrazio publiko guztietara orokortzeko modukoa izan behar du, gure lurraldeko bazter guztietara hel daitezten hirigintza benetan barneratzaile eta genero-ikuspegipeko baten postulatu berriak. Hori horrela, botere publikoek, eta baita eragile juridikoek ere, gogoeta egin beharra dute, eta planteatzen hasi premisa berri horiek beren gain hartzea.

(12) Pentsa dezagun, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen arabera, derrigorrean ebaluatu behar dela lurralde-plangintzako tresnek eta hirigintza-planek ingurumenean zer eragin izango duten, era horretako prozedura berriekin eta arloko beste legedia batzuek gero eta gehiago ezartzen dituzten antzeko beste batzuekin batera. Horiek guztiek lagundu dezakete, ez bakarrik prozedura orokorrak moteltzen, baizik eta baita lortu nahi diren helburuak ez betetzea ekar lezakeen burokratizazio gehiegizko eta garesti bat izaten ere.



3.2.

*Tokiko esperientziak***EAEko udaletako hiri-antolamenduaren baitan, genero berdintasunerako politikek duten garapen mailari buruzko txostena****Aitor Jauregi**, ikertzailea

2011ko udaran zehar, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak, Autonomia Erkidegoko udalerrri nagusietan genero ikuspegipeko hirigintzaren alorrean orain artean egindako lanak, eta gerora begira dituzten asmoak ezagutze aldera, azterlan bat egiteko eskatu zigun. Azterlan honen azken helburua, gaiaren garrantziaz ohartuta, Jaurlaritzaren aldetik udalerriei bideratutako diru-laguntza berri baten sorrera dela eta, diru-laguntza horren eraginkortasun maila ahalik eta altuena lortzea zen.

Nolabait ere, genero ikuspegipeko hirigintza gaitetan, EAEko udal nagusietan egindako lanen erradiografia bat sortu, eta horren ondorioz, gaiari bultzada eraginkor bat emateko modurik egokiena zein izan daitekeen argitara ateratzea zen azterlanaren egitekoa. Behin ondorio hauek aterata, Sailak diru-laguntzaren definizioa egin, eta datorren urtera begira deituko lituzke.

Hauxe da gaur hona aurkeztera etorri garena, alegia, azterlanaren ondorioz lortu den Erkidegoko udalerrrien erradiografia eta ondorioak.

Azterlanari jarri zaion izena “Euskal Autonomia Erkidegoko Udalerrri nagusiek, Hirigintza eta Generoaren gaiaren inguruan egindako lanak eta gerorako dituzten asmoak ezagutzeko azterlana” bada ere, akronimo eraginkor bat bilatu nahian, “HIRIGENMAP” gisa izendatu dugu, alegia, Hirigintza eta Generoaren EAEko Mapa. Uste dugu argi laburbiltzen duela lanaren asmoa zein den.

Lanarekin hasi aurretik, hiru aspektu ezinbesteko definitu dira: helburua, metodologia eta unibertsoa.

Helburua: Hasieran aipatu bezala, lanaren helburua da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailari jakitera ematea, EAEko Udalerrietan, hirigintza eta generoaren gaiaren inguruan orain arte egin diren lanak eta gerorako dituzten asmoak zeintzuk diren. Behin hala egin eta gero, Sailak deitu nahi dituen diru-laguntzak definitzerako garaian lagungarri izango zaizkio lanaren ondorioak.

Metodologia: Lana burutzeko denbora tartea nahiko mugatua izan da, eta ez zuen ahalbidetzen zuzeneko elkarrizketarik. Hori dela eta, lana osatzeko datuak biltzeko, telefono bidezko inkestak izan dira oinarri metodologikoa. Hala, dei bakoitzaren ondorioz lortutako datuekin fitxak sortu dira, eta aldi berean, baita datuen kudeaketa erraza eta eraginkorra ahalbidetuko duen datu-base bat ere. Datu-basea, lanarekin batera entregatu zaio Jaurlaritzari, baliagarria izan daitekeelakoan aurrera begira eguneratuta mantendu ezker, datozen urteetan gaiaren inguruan egon daitezkeen aldaketak jaso eta egoera berriaren arabera erabakiak hartzerako garaian.

Unibertsoa: Datuak nondik jaso definitzerako garaian bi irizpide erabili dira. Batetik, azterlana EAEko 3.000 biztanletik gorako udalerrietara mugatu da, haiek direlako hiri-errealitate egonkortuenak dituztenak, eta baita gaia jorratzeko baliabiderik handienak ere. Bestetik, eta jakina genuenez orain artean burututako lanak hein handi batetan udaletako Berdintasun sailetatik sustatuak izan direla, udal bakoitzeko bi dei (bi galdeketa) egitea, batetik Berdintasun sailtako arduradunei eta bestetik Hirigintza sailtako arduradunei, zuzenean hiriaren diseinuaren gaineko eskumenak dituztelako, eta azken batean gaiaren ezagutza izan ala ez, hiri-egituraren arduradunak direlako.

88 dira guztira EAEn 3.000 biztanletik gora dituzten udalerriak (INEn 2010eko datuak erabili dira, eskuragarri zeuden berrienak zirelako). Guztira 251 udalerririk direla kontutan izanda, eman dezake azterlana labur geratzen dela unibertsoa ezartzerako garaian, baina hurrengo datuek kontrakoa erakusten dute:

Arabaren 51 udaletatik 5ek baino ez dituzte 3.000 biztanle baino gehiago (%9,8): Vitoria-Gasteiz, Audio, Amurrio, Agurain eta Oyón-Oion. Baina bertan bizi da Arabako populazio osoaren %86,6.

Bizkaian diren 112 udaletatik 45ek du biztanle muga hori baino handiagoa (%40,2): Bilbao, Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Basauri, Leioa, Galdakao, Sestao, Durango, Erandio, Amorebieta-Etxano, Bermeo, Mungia, Gernika-Lumo, Ermua, Sopelana, Arrigorriaga, Trapagaran, Abanto Zierbena, Etxebarri, Ondarroa, Ortuella, Zalla, Lekeitio, Balmaseda, Muskiz, Abadiño, Elorrio, Berango, Güeñes, Gorniz, Derio, Markina-Xemein, Berriz, Sondika, Plentzia, Urduña, Igorre, Ugao-Miraballes, Iurreta, Urduliz, Zamudio, Lemoa eta Zaldibar. Udal hauetan guztietan bizi da Bizkaiko populazio osoaren %94,2.

Gipuzkoan aldiz, 88 udaletatik 38 baino ez dira 3.000 biztanletik gorakoak (%43,2): Donostia, Irun, Errearteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Tolosa, Lasarte-Oria, Hondarribia, Pasaia, Andoain, Bergara, Azpeitia, Beasain, Azkoitia, Elgoibar, Oñati, Zumarraga, Oiartzun, Ordizia, Zumaia, Legazpi, Urretxu, Aretxabaleta, Urnieta, Usurbil, Lezo, Villabona, Deba, Lazkao, Orrio, Mutriku, Astigarraga, Ibarra, Eskoriatza, Soraluze eta Zestoa. Gipuzkoarren %93,8 bizi da udal guztietan.

Beraz, esan genezake, EAEko udalerrien %35,1ek baino

ez duela 3.000 biztanletik gorako populazioa, bertan bizi direnek EAEko populazio osoaren %92,9 suposatzen dutela (eta zehazki, emakumeen %93,32). Argi dago beraz, azterlanaren unibertsoa 3.000 biztanletik gorako udaletara mugatuta ere, biztanleriari dagokionean, oso esanguratsuak direla bertan jasotako emaitzak.

Aipagarria da bestalde, azterlana osatzeko galdeketa egin zaien 88 udalen tamainaren araberrako banaketa. Izan ere, 88 udalerririk hauen erdia baino gehiagok (%53,4), 10.000 biztanletik beherako populazioa dute. Aldiz, %17 baino ez dira 25.000 biztanletik gorakoak. Ondoriozta genezake, hortaz, EAEko udalerririk nagusien artean gehiengoa direla tamaina ertain-txikikoak. Horrek gerorako ondorioak baldintzatu ditzake, azterlanari berari begira.

Behin lanaren helburua, metodologia eta unibertsoa definituta, jaso nahi diren datuak zehaztea izan da hurrengo pausua. Horretarako, galdetegi bat osatu dugu, telefono bidezko elkarrizketetarako gidoi gisa balioko duena, eta han jasotako datuekin gaiaren inguruko erradiografia egitea ahalbidetuko duena.

Galdetegiak hiru atal nagusi izan ditu. Batetik, kontakturako datu orokorrak, bai udalarenak, eta baita Berdintasun sailtako zein Hirigintza sailtako arduradunenak ere. kontaktu datu hauek izanda, gero deituko diren diru-laguntzen hedapen egokia bermatuko da.

Bigarren atal nagusia, Berdintasun sailtako arduraduneri egin beharreko galdeketa osatzen du. Funtsean, galdera bakarra da, eta haren erantzunaren arabera, azpi-galdera ezberdinak ditu. Udaletako Berdintasun gaietan ardurak dituzten pertsoneri galdetu zaie ea udalerririk egin duten hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat. Baiezkoa

erantzun dutenen artean, haren gaineko gatuak eskatu zaizkie: lanaren titulua, nork eta noiz egina den, zenbateko kostua izan zuen, parte-hartze prozesurik egin ote zen haiek burutzerako garaian, parte hartu zuen publikoaren profil orokorra, azterlanaren ondorioz interbentziorik egin ote den, zein kostu izan duten, adibideak ... Gainera, ahal izan ezker azterlanaren kopia digital bat bidaltzeko eskatu zaie, Jaurlearitzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak azterlan hauen ale bat izatea interesgarritzat jo zuelako.

Halako azterlanik egin ez dutela erantzun duten Berdintasun sailletako arduradunei berriz zera galdetu zaie: ea udalak ba duen programatua halako azterlanen bat egitea, diruz lagunduko balitz ea udala animatuko litzatekeen halako azterlanen bat egitera, eta ea Hirigintza sailarekin ohiko harremanik ba ote duten. Galdera hauekin, generoa eta hirigintza uztartzeko udalaren baitako egituren berri izan dezakegu zeharka bada ere, eta baita udalak gerora begira zein asmo izan ditzakeen eta gaia interesgarritzat duten ala ez ere.

Azkenik, galdera ireki bat planteatu zaie Berdintasun gaietako udal arduradunei, gaiaren inguruan duten iritzi/ asmo/komentario ezberdinak jaso ahal izateko. Azken galdera honetan lortu diren erantzunak oso lagungarri izan dira kasu askotan erradiografia egokia egiterako garaian.

Galdetegiaren hirugarren atal nagusia, Hirigintza sailletako arduradunengandik jaso nahi ziren datuen planteamenduak osatzen du. Berdintasun ardurak zituztenen kasuan bezala, Hirigintza arduradunei ere galdera bera egin zaie, alegia, ea beraien udalean hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat egina ote duten. Galdera bera egitearen arrazoia

da (ondorioetan argi geratuko da hala egitearen egokitasuna), kontrasterako datu bat izatea. Izan ere, eta gaia hirigintzaren egunerokotasunean txertatzen bada ere, jakin bagenekien halako lanen gehiengo Berdintasun sailek sustatuta egin dela, eta jakin nahi genuen ea azterlanek sailen arteko “jauzia” egina zuten ala ez, eta zein puntutaraino barneratua zegoen Hirigintza sailen baitan.

Hala, baiezkoa erantzuten zigutenean arean, bestelako azpi-galdera batzuek egin zaizkie, ez hainbeste azterlanari berari begira, baizik eta azterlanak sortu dituen ondorioak ezagutze aldera: azterlanen ondorioz udalak interbentziorik burutu al duen, zeintzuk izan diren interbentzio horiek, izan duten kostua, diru-laguntzak izatekotan inbertsio horiek areagotuko ote liratekeen, zertan erabiliko ote luketen dirua ...

Ezezkoa erantzun dutenen artean aldiz, diru-laguntzarik balitz halako azterlanen bat egitera animatuko ote liratekeen galdetu zitzaie, eta baita Berdintasun sailarekin ohiko harremanik duten ere. Aurreko kasuan bezala, hirigintza eta generoaren gaia uztartzeko udalaren baitako bi sailen artean zer nolako harremana dagoen jakiteko zeharkako modu bat da.

Baina gainera, udaletako Hirigintza arduradunei beste galdera sorta bat egin zaie, Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluen ingurukoa, hain zuzen ere. Hirigintza eta Lurzoruaren 2/2006 Legeak ezartzen zuen, gutxienik 7.000 biztanletik gorako udaletan (haiek direlako hiri-planeamenduaren behin-betiko onarpenerako eskumena dutenak), halako kontseilu bat eratu behar zela hiri-antolamenduaren inguruan herritarren parte-hartzea sustatzeko. Hala, udaletako hirigintza planak onartu aurretik, politikariez gain herritar mugimenduez osatutako

Kontseilu “instituzional” honi hitza eman eta iritzia jasotzeko derrigortasuna ezarri zuen legeak.

Azken batean, hirigintza barneratzailea (eta konkretuki genero ikuspegipekoa) sustatzeko herritarren parte-hartzea nahitaezkozat daukagunez, jakin nahi zen ea Kontseilu hauei Legeak eman nahi zien papera betetzen duten, eta foro egokia ote diren genero ikuspegiak hiri-planeamenduetan txertatzeko.

Hala, galdetu zaie ea beraien udaletan ba ote den halako Kontseilurik, eta baiezkoa erantzun ezker, ea noiztik dagoen osatuta, zenbat kide dituen, haietarik zenbat diren emakumeak, udalerriko emakume elkarteren batetako ordezkariarik ba ote den, eta kontseiluak genero ikuspegipeko hirigintzaren gaia tratatu duen ala ez galdetu zaie. Gaia aztertu dela erantzun duten kasuetan, gainera, ezer erabaki ote den galdetu zaie.

Azkenik, eta Berdintasun sailtako arduradunei egin zaien modura, galdera ireki bat planteatu zaie Hirigintza arduradunei ere, gaiaren inguruan beraien asmo/iritzi/komentarioak bota ditzaten.

Lan eskerga izan bada ere (ez da erraza 88 udaletako bina arduradun zehatzekin telefonoz hitz egitea hilabete eta erdiko epean), galdetegia erantzuteko arduradunen prestutasuna oso handia izan da. Horrek ahalbidetu du udal ia guztietako erantzunak lortu ahal izatea. Zehazki, Hirigintza sailtako 88 udaletako erantzunak jaso ditugu, eta udal bakar bat izan da, Berdintasun saileko arduradunak galdetegia erantzuteari uko egin diona.


Gure uste apalean, lortutako erantzun kopuruak, fidagarritasun handia ematen die azterlanaren emaitzei.

Emaitza hauek aurkezten hasi aurretik, aipamena egin nahi genuke sail bietan erantzuna eman duten pertsonen profilen inguruan. Izan ere, udal bakoitzak (batik bat tamainaren eta dituen baliabideen arabera), antolaketa ezberdina du. Kasu batzuetan berdintasun gaiak udalen mankomunitateek eraman ohi dituzte; beste batzuetan, eta teknikari propiorik ez dutelako, gainerako udal-langileen esku geratu ohi dira halako gaiak. Udal batzuetan kanpoan kontratatu ohi dituzte halako zerbitzuak (berdintasun zein hirigintza gaietan), beste batzuetan aldiz, noizbehinkako teknikariak baino ez dituzte.

Esan nahi da, udalen baitan berdintasun zein hirigintza gaietako ardurak dituztenen profilak ez direla berdinak, eta garrantzitsua deritzogu azterlanari berari begira, profil hauek definitzea.

Berdintasun ardurak dituzten pertsonen bideratutako galdetegia erantzun dutenen artean, %54,03 Berdintasun Teknikariak ziren (udaletakoak zein mankomunitateetakoak). %10,34 berriz, Berdintasun gaietako arduradun gisara izendatu ditugu (zinegotziak, udal handienetako sailburuak, idazkariak ...). Beste %31,03 izan dira “Bestelako teknikari” gisa izendatu ditugunak, eta funtsean, Berdintasun sail espezifikorik ez den udaletan, halako gaiak eramaten dituzten pertsonen osatzen dute (gizarte-langileak, gizarte-gaietako arduradunak ...). Azkenik, erantzun dutenen %4,60 “Bestelako arduradun” gisa izendatu ditugu. Orokorrean, udal txikienetan gertatu da, teknikari berezirik ez dagoenetan, eta haietan idazkariak edo administrariak erantzun dute galdetegia, gaiaren ezagutza handiena beraiek zutelako.

Hirigintza ardurak dituzten pertsonen bideratutako galdetegia erantzundutenean artean berriz, %45,45 izan dira arkitektoak, bai



udal-langileak, edo kanpora kontratatutako udal-aholkulariak. Kasuen beste %20,45etan, Hirigintza sailtako buruak izan dira erantzun dutenak (orokorrean, udal handienetan hirigintza sailari atxikita lan egiten duten abokatuak). Erantzun dutenen %21,60 izan dira udal aparejadoreak, eta %12,50 “Hirigintza sailtako bestelako arduradun” gisa izendatu ditugunak (orokorrean udal txikienetan, udal idazkari zein sailtako administrariak izan dira).

Noski, profil guzti hauen artean, gaiarekiko ezagutza maila ezberdinak aurkitu ditugu, baina ez beti legokiekeen postuen araberrakoak. Esan nahi da, kasu askotan gaiaren inguruko erantzun kalitate handiagoa izan dela hierarkian beherago daudenen eskutik. Edonola ere, uste dugu hirigintza eta generoaren inguruan EAEko udalerrien erradiografia egokia izateko erantzun baliagarriak lortu direla telefono bidezko inkestetan.

Azterlanaren aurretiazko zein prozedurazko gaiak aipatuta, has gaitezen behingoan lortu diren emaitzak azaltzen. Horretarako, lehenik eta behin, orain artean EAEko udal nagusietan genero ikuspegipeko hirigintza azterketak egin dituzten ala ez aztertuko dugu.

Lehentxeago aipatu da galdera hau bi sailtako arduradunei egin zaiela. Nahita egin ere, kontrasterako datu gisa baliagarria izango zenaren ustea geneukalako. Eta halaxe izan da: Berdintasun sailtan lortu diren 87 erantzunetatik 38k (%43,7) esan dute badutela halako azterlanen bat burututa. Aldiz, Hirigintza sailtan lortu diren 88 erantzunetatik 29k baino (%32,9) ez dute halakorik esan. Argi dago, edo Berdintasun sailtan azterlana egin gabe izanda ere badutela esan duela zenbaitek, edota eginda izan arren hirigintza sailtan ez dutela halako azterlanak direnaren berri beste hainbat udaletan.

Kontraesan hau argitze aldera, sail bakoitzean jasotako erantzunen konbinazio ezberdinak agertzen dituen honako taula hau baliatuko dugu:

Berdintasun sailak	Hirigintza Sailak	Erantzun kopurua
BAI	BAI	25
BAI	EZ	13
EZ	BAI	3
EZ	EZ	46
ez du erantzun	BAI	1

Erantzun kuantitatiboekin soilik, ezin jakin nork dion egia eta nork ez, edo nork benetan jakin gabe erantzuten duen. Baina galdera irekiak aukera ematen du kualitatiboki jakiteko erantzun kuantitatiboa zein den.

Hala, eta eskatzen ziren azterlanei buruzko datu osagarriei esker, jakin dezakegu berdintasun sailtan jasotako baiezkotza bakoitza benetakoa dela. Era berean, eta berdintasun sailekoek ezetz esan arren hirigintzakoek baietz diotenen artean, jakin dezakegu bik arrazoiz diotela. Guztira hortaz, 40 udalek edukiko lukete jadanik eginda (edo une honetan bertan egiten) hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat. Zalantza bakarra, kontrasterako daturik ez izanagatik, berdintasun sailetik erantzunik eman ez duen udalarena da. Dena dela, baiezkotzat jo dezakegu, erantzun duen sailak halaxe diolako.

Ondorioz, esan genezake, EAEko 3.000 biztanlez gorako 88 udalerrietatik 41ek (%46,6) badutela eginda (edo une honetan bertan egiten ari direla) genero ikuspegipeko hirigintzaren azterketaren bat.

Azterlan hauek hartzen duten izena desberdina izan daiteke,

batik bat aztertzen duten esparru zehatzaren eta emaitzaren formaren arabera, baina funtsean, herritarren (eta bereziki emakumeen) parte-hartze prozesuak baliatuta, udal bakoitzaren hirigintzaren genero ikuspegipeko azterketa bat dute ondorio gisa. Azterlanek hartzen dituzten izen ezberdinak honakoak dira:

- Hiri debekatuaren mapak
- Genero ikuspegipeko hiri-diagnostiko edo analisiak
- Segurtasun diagnostikoak
- Egunerokotasun azterketa edo mapak
- Berdintasun diagnostikoak
- Hiri-espazioari buruzko gogoetak
- e.a.

Azterlana eginga duten udalerriak biztanle kopuruaren arabera antolatzen baditugu, hurrengo ondorioak atera ditzakegu:

Funtsean, EAEko udalerririk handienek eginga duten lan bat dela (25.000 biztanletik gorako udalerririk guztiek badute eginda hirigintza eta generoaren gaiaren inguruko azterlan teknikoren bat). Dena dela, badira salbuespenak ere. 15.000-25.000 biztanle arteko udalerririk %57,1ek ere eginga du halako azterlanen bat. Aldiz, 10.000-15.000 biztanle arteko udalen heren batek baino ez dauka halako azterlanen bat eginda. Kuriosoki, portzentaje hau igo egiten da 5.000-10.000 biztanle artean duten udalerririk kasuan, haien arteko %42,9k eginga baitute. Azkenik, 3.000-5.000 biztanle arteko udaletan, ia anekdotikoa da halako azterlanek eginda dituzten kasua:

udalen %10,5ek baino ez du halako lanen bat egin, eta kasu guztietan mankomunitatean egindako lan baten emaitza izan da. Argi dago hortaz tamaina ertain-txikiko udalerrietan lan handia dagoela oraindik egiteko gai honen inguruan.

Interesgarria da baita ere lan guzti hauek denboran zehar izan duten garapena ikustea. Aipatu behar da hirigintza eta generoaren inguruan EAEn egin zen lehenengo lana 1997koa dela, Donostian, Plazandreak emakumeen plataforma politikoak sustatuta egin zena. Baina Donostian bezala badira beste kasu batzuek non udaldirik bigarrenez egin duten halako azterlanen berrikusketa edo eguneratzea.

Horrexegatik, azterlana eginda dutela erantzun duten udaldirik, noiz egin zen galdetu zaienean, azkenik egin duten berrikuspen edo eguneratzeari buruzko datuak jaso dira. Haiek denboraren lerroan jarri ezkerreko zera ondorioztatu dezakegu: 2008rarte, halako azterlanak egin badira ere, modu oso isolatuan egin direla (2006an 3 udaldirik egin zuten, adibidez, baina 2004, 2005 eta 2007an batek berak ere ez). Alegia, halako azterlanak burutzea ez da gauza berria EAEko udalerrietan, baina azterlan hauen orokortzea bai. 2008tik hona, esan dezakegu, goranzko joera dutela halako azterlanek, alegia, urte urte, udal gehiago direla halako lanak egiten dituztenak. 2009an, gainera, hazkunde nabarmena izan zuten halako lanek, nahiz eta hurrengo urtean goranzko joera arruntera itzuli ziren.

Aipatzekoa da baita ere, azterlana egin gabe dutenen artean, 7 direla datorren urtera begira (2012) halako azterlan bat egitea programatuta duten udaldirik, eta horrek azken urteetako goranzko joera berresten duela.

Orain artean aurkeztu ditugun emaitza eta datu guztiak, genero ikuspegipeko hirigintza azterketei beraiei buruzkoak izan dira. Ez dago zalantzarik, generorik gabeko hiria

izaterako bidean, lehen pausua dela hiriaren baitako espazio publikoetan zein gabezia edo hobekuntza behar dauden diagnostikatzea. Baina diagnostiko lanak bere horretan ez du hiria eraldatzen. Eraldaketa eta hobekuntza lan horiek aurrera eraman behar dira, eta interbentzio ezberdinen bidez, hiriaren egunerokotasuna hobetzen joan.

Azterlanen ondorio praktiko hauek noraino eraman ote diren jakite aldera, hiri-diagnostiko hauek eginda dituzten udalei galdetu zaie ea azterlanen ondorioz inolako interbentziorik egin ote den. Hala, Berdintasun sailetan jasotako erantzunen erdiak izan dira baiezkokoak (19 udaletan egin dira interbentzioak), eta Hirigintza sailetan jasotakoen arabera berriz 15 izan dira azterlanen ondorioz hobekuntza lanei ekin dietenak.

Berriro ere kontraesana daukagu sail bietako erantzunen artean. Baina irizpide gisa hartzen badugu sail bietakoren batek baiezkoa esan badu egiatzat har dezakegula, ondoriozta genezake azterlana burututa duten 41 udaletatik 25etan egin direla interbentzioak, alegia, udalen %60,9an. Datu hauen arabera, azterlana egin ostean, udal gehienek abiatu dituzte hobekuntza neurriak, baina bada oraindik azterlana egin eta bere horretan geratu den udalen kopuru esanguratsuegi bat ere, ia %40koa dena.

Hobekuntza lan hauek zertan egin diren jakin nahi izan da, eta horretarako eskatu zaizkie adibideak. Erantzun gisa errepikatuenetakoak izan dira:

- Argiztadura hobetzea
- Ibilbideak egokitzea
- Irisgarritasuna hobetzea

- Ispiluak jartzea
- Hornidura edota ekipamenduak hobetzea
- Kamerak jartzea
- Seinaleztapena hobetzea

Ikusten denez, kasurik gehienetan interbentzio txikiak eta puntualak dira, baina kasu batzuetan espazio publikoaren hobekuntza nabarmena dakartenak.

Lan guzti hauek zein kostu izan duten zen jakin nahi zen beste datu bat, baina hasieratik genekien datu hau lortzen zaila izango zela, bestelako ekimen handiagoen baitan egindakoak direlako askotan eta abar. Bi datu baizik ez dira lortu, baina horien gainean orokortasunak ateratzea ez da zilegi.

Interbentzioak egin dituzten udalek ekin dituzten interbentzioei buruz aritu gara orain artean, baina lanaren beste helburu bat asetze aldera, diru-laguntzak izan ezkeror zertan gastatuko ote lirartekeen galdetu zitzaien udalei. Hona jasotako erantzun esanguratsuenak:

- Hirigintza planetan genero inpaktuak derrigorrez sartzten
- Orokorrean azterlanen ondorioz eratortzen diren lanak egiten
- Gaiaren inguruko lan sakonagoak/egunerapenak egiten
- Plan estrategikoak idazten
- Tunelak eta/edo lurrazpiko pasabideak hobetzen

- Auzo degradatuetan hobekuntzak egiten
- Oinezko ibilbideak egokitzen
- Espazio publikoetan ikuspegia oztopatzen duten elementuak kentzen
- Eskailera urbanoak moldatzen
- Irisgarritasuna hobetzen
- Argiztadura hobetzen
- Haurrentzako jolastokiak egokitzen
- Trenbide ingurueta eremuak hobetzen
- Emakume-etxe hornidurak erosten

Gatozen orain genero ikuspegipeko hirigintza azterketarik egin ez dutela erantzun dutenen aretan jaso diren datuen emaitzak ikustera. Bi dira, nagusiki, kasu hauetan jasotako datuekin lortu ahal izan diren emaitzak, ondoren plazaratuko diren ondorioetarako oso esanguratsuak direnak, aldi berean.


Lehenik, diru-laguntzak izatekotan, hirigintza eta generoaren inguruko azterlan bat egiteko borondateari buruz galdetu zaienean, erabat nagusia izan da baiezkota erantzun dutenen kasua. Zehazki, Berdintasun sailetan jasotako erantzunen %90 eta Hirigintza sailetan jasotako %91,5 izan dira baiezkoak. Garbi erakusten du, baliabideak izan ezker, interesgarritzat jotzen den gai honi heltzeko udaletako arduradunek duten interesa. Baina aldi berean paradoxa bat ere adierazten du, izan ere, erantzun baikor horietatik batzuk, jadanik halako azterlanak eginda dituzten

udaletako arduradunen eskutik etorri baitira. Interesa bai, baina beraien udaletan aurrez eginda dagoen lanaren ezagutza falta adierazten du horrek.

Bigarrenik, Berdintasun eta Hirigintza sailen arteko ohiko elkarlanari buruz galdetu zaienean, datu kontrajarriak lortu dira. Galdera honen asmoa zen ezagutzea nolakoak diren udalen baitan dauden zeharkako lanerako oinarriak. Askotan sailen arteko lanaren ondorioz, diziplina ezberdinen ikuspegiak uztartu, eta lan berdin batetarako ikusmoldeak aldatu egin ohi dira, buru gehiagoren ekarpenak lortzen direlako. Baina datuak ez dira oso itxaropentsuak. Berdintasun sailetan lortutako emaitzen arabera, %64,6ak dio ez dutela hirigintzakoekin harreman ohikorik. Hirigintza sailetan lortutakoekin arabera ordea, %61ek gauza bera dio, alegia, ez dutela Berdintasun sailekin ohiko harremanik. Argi geratzen da bi sailen arteko elkarlanean lan asko dagoela oraindik egiteke.

Gainera, azpimarratzekoa da, bien arteko elkarlanari buruz ari garela, Berdintasun sailetakoekin elkarlanaren pertzepzio txikiagoa dutela Hirigintza sailetakoekin baino. Lehenengo kasuan erantzun ugari izan dira adierazi dutenak Hirigintza saila dela udalaren baitan daudenen artean "itxiena", eta ez dutela elkarlanerako aukera gehiegi eskaintzen. Dena dela, eta alde positibotik begiratuta, udal asko dira une honetan zeharkako lan hauek sustatze aldera, eta udaletako sail ezberdinen egunerokotasunean genero ikuspegia txertatzeko asmoarekin, formazio saioak egiten ari direnak. Suposa genezake lan honen ondorioz epe labur-ertainean, udalen baitako zeharkako lanak sustatuko direla, genero ikuspegipeko hirigintza bezalako gaietarako oso lagungarri izango dena.

Baina kasu honetan ere goian aipaturiko paradoxa bera



gertatzen zaigu. Izan ere, batik bat Hirigintza sailetan lortu diren erantzun hainbaten kasuan, esan digute Berdintasun sailarekin ohiko harremana ba dela udalaren baitan, baina Berdintasun sailetik sustatu eta jadanik burututako genero ikuspegipeko hirigintzaren azterlanak ez dituzte ezagutzen. Horrek harremanen ohikotasuna beraren maila zalantzan jartzea lekarke.

Orain artean, galdetutako udal ezberdinetan genero ikuspegipeko hirigintza azterketei buruz egin dituzten lanei eta aurrera begirako asmoei buruz aritu gara, baina hasieran esan dugun bezala, galdetegiak Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluei buruzko galderak ere bazituen. Segidan ikusiko ditugu hauen inguruan jaso ditugun emaitza nagusienak.

EAEko 3.000 biztanletik gorako 88 udalerrien artetik, 46k baino ez dute eratu 2/2006 Legearen arabera Hirigintzako Aholkularitza Kontseilurik. Kopuru honek txikia eman dezake (%52,27a da), baina gogoratu behar dugu Legeak Kontseiluen erakuntzaren derrigortasuna 7.000 biztanletik gorako udalerriei baino ez zela ezartzen, haiexek direlako Hirigintzako Planeamenduaren behin-betiko onarpenerako eskumena dutenak. Hortaz, eta 3.000-7.000 biztanle arteko 33 udalerririk ditugula kontutan izanda, eta horien artean inork ez duela Kontseilurik eratu, gainerako 55 udaletatik 46tan dago eratu Legearen arabera Kontseilua (%83,64).

Kopuru hau handiagoa izanik ere, legeak 5 urte badituela ikusita, arraro egin daiteke oraindik 9 udaletan Kontseilua eratzeke egotea. Baina legeak dio Kontseilua eratu behar dela Hirigintza Planeamenduko arauak edo beraien aldaketak burutu aurretik. 9 udal hauetan ez dute beraien Hirigintza Arauetan aldaketarik burutu, eta horrexegatik ez dituzte oraindik eratu Aholkularitza Kontseilu hauek.

Gainera, udalerririk handienetan (25.000 biztanletik gorakoetan), guztietan dago Kontseilua eratu. Bi dira 15.000-25.000 biztanle arteko populazio duten udalerrien artean Kontseilua eratzeke dutenak (%14,29), eta zazpi berriz 7.000-15.000 biztanle artekoetan (%26,92).

Lurzoruaren 2/2006 legeak ezarritakoaren arabera, hirigintza gaitan herritarren parte-hartzea sustatzeko erakundeak dira Kontseilu hauek. Bertako kide direnen izendapena eta Kontseilua beraren barne araudia definitzea udal bakoitzaren esku badago ere, Legeak dio Kontseiluetan politikarien ordezkari gisa, herriko gizarte mugimenduen ordezkari izango dela.

Azterlan honi begira, jakin nahi genuen ea zein osaera duten Kontseilu hauek, batik bat kideen genero arteko banaketa ezagutzeko, eta emakume mugimenduen ordezkari ba ote zen jakiteko. Hala izanda, agian genero ikuspegipeko hirigintza tratatzeko foro egokia izan zitekeelakoan. Kontseiluko kideen generokako osaera ezagutzea ez da erraza izan, faktore ezberdinak medio: batetik, Kontseilua eratu duten 46 udaletatik 29 erantzun bakarrik jaso ahal izan direlako (%63,04), eta bestetik kideen osaketa aldakorra delako kasurik gehienetan (herritar mugimenduetako ordezkariak ez dira jarraituak, eta talde bakoitzak pertsona ezberdinak bidali ohi ditu aldiko). Honi, gainera, hilabete gutxi dela izan ditugun udal-hauteskundeek eragin duten kargu aldaketak gehitu behar dizkiogu. Udara tarteko, udal askotan ez dute ordezkari politiko berrien izendapenik egin oraindik, eta ez zen erraza esatea zenbat gizon eta zenbat emakume izango ziren Kontseiluetan.

Kasu batzuetan galdera aldatu behar izan da, eta osaera orokorrari buruz galdetu beharrean, Kontseiluaren azken bilerara joan ziren gizon zein emakume kopuruari buruz

galdetu zaie, akta ikuste hutsarekin lortzen nahikoa erraza zen datu bihurtzeko asmoz, baina horrek nolabait eraldatu dezake datuaren errealtatearen isla. Edonola ere, eta lortu diren datuen adierazten dutenez, emakumeen partaidetza Kontseiluetan %34,29koa baino ez da. Alegia, parekidetasunetik nahikoa urrun dago oraindik.

Horri gehitu behar zaio, Kontseiluetako herritar mugimenduen ordezkariaren baitan, emakume elkarteena ez dela udalen erdietara ere iristen. Alegia, Kontseilua eratua duten udalen artean erdiak baino gutxiagok du udalerriko emakume elkarteren batetako ordezkariarik.

Kasu kurioso bat aipatzekotan, Gipuzkoako udalerrri baten jasotako erantzunak dio, Kontseiluaren barne araudian jasota dagoela herriko emakume elkarte bateko ordezkariak izango dela bere baitan, baina herrian ez dagoela halako elkarerik. Gabezia hau asetze aldera, ordezkariak hori udaleko Berdintasun Teknikariari eman zaio, ahotsarekin, baina botorik gabe.

Azkenik, eta Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluen eraketaz gaindi, jakin nahi genuen hirigintza eta generoaren gaiak zein leku izan duen legearen arabera hirigintza gaietan herritarren parte-hartzea sustatzera datozen erakunde edo foro hauetan. Honen harira, bi galdera egin zaizkie udaletako Hirigintza arduradunei:

Batetik, ea Kontseiluetan tratatu ote den genero ikuspegipeko hirigintzaren gaia. Eta galdera honen erantzunak nahiko etsigarriak izan direla onartu beharrean gaude. Izan ere, Kontseilua eratua duten 46 udaletatik 6tan baino ez dira aritu gai honen inguruan (%13,04tan baino ez).

Bestetik, jakin nahi zen ea gaia tratatu ostean Kontseiluak

gaia beraren inguruan inolako erabakirik hartu ote duen. Jadanik gutxi baziren gaia tratatu duten Udal Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluak, are gutxiago dira gaiaren inguruan erabaki zehatzik hartu dutenak: bi baino ez dira izan (eratuta dauden Kontseilu guztien %4,35ak baino ez du erabakirik hartu gaiaren inguruan).

Datu hauen atzetik bi ondorio nagusi atera daitezke: bata, Kontseiluek hirigintza eta generoaren inguruan lan asko dutela egiteke, eta bestea, are larriagoa, Kontseiluak Legearen eskakizunari erantzuteko asmo soilez eratu direla, eta beraien ekimena Hirigintza Planeamenduen tramitazio hutsari erantzutera mugatzen dela. Hortaz, kolokan jar daiteke Legearen asmoa betetzen duten ala ez, alegia, hirigintza gaietan orokorrean, eta gaurkoan aztertzen ari garen gaiaren inguruan partikulariki, herritarren parte-hartzea sustatzeko foro egokia ote diren ala ez gaur egunean duten egitura eta funtzionamenduari.

Edonola ere, ezin utz dezakegu aipatu gabe goian esan ditugun bi udaletako batetan, bertako Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluak hartutako erabakia. Bizkaiko udalerrri horretan badute jadanik eginda (berriki gainera), genero ikuspegipeko hirigintza azterketa. Kontseiluaren erabakiz (gero udalak berretsita, noski), azterketa hori, udalaren Hirigintza Planeamenduaren parte izatera pasa da. Alegia, hiri-antolaketa arautzen duen figurak jasota du bere baitan udalerrriaren genero ikuspegipeko hirigintzaren baldintzapen eta diagnostikoak. Azterketa arau bihurtuta, suposatu dezakegu aurrerantzean egingo den bideak kontutan izango duela genero ikuspegia.

Hauek izan dira Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraioa Sailak eskatuta egin dugun azterlanaren emaitza nagusiak. Lanak berak datu anitz gehiago jasotzen ditu,


noski, baina esanguratsuenak plazaratu ditugu hemen.

Emaitzak ikusita atera diren azken ondorioak laburbilduko ditugu gaurko solasa amaitzeko:

1. Gaia ez da berria EAEn. Sentsibilizazio eta kontzientziazioa badaude. Oraindik “hirigintzak ez du generorik” gisako erantzunik baden arren, ez da ohikoa. Alderantziz. Teknikarien eta baliabideen garaia da orain, hirigintzaren kerak aldatzeko garaia. Herritarren beharrei erantzungo diena, eta beraien partaidetza sustatuko duena.
2. Ez da neurtu orain arte egindako azterlan eta interbentzioek hiria berdintasunez erabiltzea ahalbidetu duten benetan. Ezin muga daiteke generoaren ikuspegia jadanik eraikitako hirigintzaren akatsak zuzentzera. Hiria beraren kontzepzioaren unetik egin behar da lan.
3. Egindako azterlanak ezin dira tiraderetan geratu. Jendearen parte-hartzeak eskatu dien lanaren gutxiespena da hori, eta baita azterlanen beraien eraginkortasunik eza dakarren egoera. Ezin uler daiteke hirigintza sailek, aurrez egindako lanen gainean duten ezagutze maila baxua. Zeharkako lana sustatu behar da, halako egoerak ekiditeko.
4. Tamaina ertain-txikiko udalek zailtasun handiagoak dituzte, baliabide ekonomiko eta pertsonal urriagoak dituztelako. Zenbaitek mankomunitateen ekimen falta salatu du gai honen inguruan.
5. Hirigintzako teknikariek faltan botatzen dituzte gaiaren inguruko irizpide tekniko zehatzak. Formazio lan handia dago egiteke. Halere, udal ugaritan ari dira berdintasun

sailetik metodologia ezberdinak lantzen, udaletako teknikariak gaiaren inguruan formatzeko.

6. Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluen zurruntasun handiegia nabari da.
7. Udal ugaritan ari dira une honetantxe Hiri-plangintzak berrikusten. Une egokia dirudi gaiari heltzeko, eta genero ikuspegipeko hirigintza analisiak, gainerako analisisekin batera Hirigintza Planen baitan txertatzeko.



3-3.

*Tokiko esperientziak***Eskala txikiko erabakiak, aldaketa handiak – Udalen egitekoa**

Koldo Telleria Andueza, Udal arkitekto ohia eta UPV-EHUko Hirigintza irakaslea

Egunon eta eskerrik asko hemen zaudeten guztioi, hitzaldia hasteko jardunaldi hauen leloaren zergatia adieraziko duten imajina batzuk aurkeztuko ditut, kaleetan generoa nola azaltzen den ikusteko.

Lehenik generoa zer den ere argitu beharko da. Generoa ez da sexua, ez da gizona edo emakumea izatea, generoa kulturalki sexu bakoitzari lotu zaizkion rolen betetzea da, hau da emakumeari eman zaizkion rolak, familiaren zaintza eta etxeko lanak, eta gizonari jarduera ekonomikoa, hau da lan erreproduktiboa (soldatarik gabea) eta lan produktiboa (soldataren truke egiten dena), edo lana eta enplegua.

Gure kulturaren rol hauek urteetan sexuari lotuak egon dira eta berdintasun garai hauetan azkenean elkarbanatzen hasi dira, gizonak haurrak zaintzen dituzte edo bazkariak prestatu eta emakumeek lan produktiboan parte dira (nahiz eta gehiago batean emakumeek bi rolak bete). Honela generoak hirigintzan, lan erreproduktiboa, zaintza lana eta batez ere eguneroko bizitza erosoago egiteko, egoki diren espazioak eta hiri antolaketak sortzea izango du helburu, eta noski espazio seguruago eta elkar topaketarako inguru atsegin eta erosoen sorrera.

Genero ikuspuntutik eginiko hirigintza ez da izango emakumeentzako hirigintza baizik eta emakumeari egotzi zaizkion rolak, egun gizonak ere betetzen dituenak, kontutan hartutako diseinu eta antolaketa bat proposatuko duen hirigintza da. Hirigintza modu honek gizakiaren bizitza garai guztiak kontuan izaten ditu, haurtzarotik zahartzarora, eta ez da lan produktibo garaian den gizarte zatiarentzat soilik pentsatzen egundaino gehienetan egin den bezala.

Hau hobeto ulertzeko Pakistanen, Baltistanen, konkretuki Talis herrian, Felix Baltistan Fundazioarekin egiten gabiltzan kooperazio lanetan sortutako irudi batzuk dakartzat.

Talisen uholde batzuen ondoren herriak izaniko deuseztatzearen ondorioz, herritarrekin bildu eta berreraikitze lanetarako, bilera bi egin genituen herrian lan taldeak sortzeko. Gizonekin bildu ginen alde batetik eta emakumeekin bestetik, berain kulturaren eta erlijioaren arabera talde bakar batean emakumeek ez dutelako hitza hartzen eta benetako informazio edukitzeko modu bakarra bilerak ezberdinduta egitea da. Lehen bilera honetan bai emakume taldeari eta gizon taldeari eskatu genien beraien herriaren marrazki bat egitea, beraien Taliseko ikuspuntua jasotzeko asmoarekin.

Ikusten den bezala gizonak eginiko marrazkian, ibaia, bideak etxe gutxi batzuk eta bi meskita azaltzen dira. Emakumeen marrazkiak askoz ere konplexutasun handiagoa azaltzen du, ibaia, bideak, auzoak beren etxeekin, eskola, dendak, baratzeak, ureztatze kanala, kirol gunek eta abar azaltzen dira. Bi marrazkien alderaketa egiten badugu, ondorioztatu dezakeguna zera da, emakumeek herri inguruaren erabilera askoz ere aberatsago bat egiten dutela, hau da gauza askoz ere gehiago egiten dituztela eta errealitate konplexuaren askoz jakitunago direla. Gizonak aldiz mugikortasun orokor handiagoa dute eta meskitara beraiek bakarrik joan daitezkeenez eraikin hauek direla garrantzitsuenak beraientzat. Gizonak ez dute marrazten ez baratzerik, ez auzorik, ez eskolarik beraien eguneroko bizitzan ez direlako garrantzitsuak. Kasu honetan sexua eta generoa era bat lotuak doaz, eta rolak sexuarekin bateratuak, honela batzuk zein besteak herringurua oso ezberdin erabiltzen dute eta beharrak ere oso ezberdinak dira.

Noski hau ez da gure kulturaren adierazgarri baina gure kulturaren ere garai hau pasa dugu eta nolabait hortik gatzoz, hau da sexua eta generoa era bat lotuak zeuden garaitik, egun Pakistanen dagoen bezala, eta honek kalek generoa badutela garbi erakusten du.



Abiapuntu honetatik eta azken hamar urteetan Hiria Kolektiboarekin, Unibertsitatean ikasleekin, kooperazio lanetan eta udal teknikari bezala gai honetan eginiko hausnarketa eta esperientziatutako ondorioetatik lan ildoak aurkeztuko ditut hirigintza barneratzaile baterako bidean. Hausnarketa hauek hiru lan ingurutan kokatuko ditut, lan esparru bakoitzean zenbait gomendio aurkeztuz ahalik eta adibide konkretuenekin.

1. ESPAZIO PUBLIKOAREN ERALDAKETA


Egun daukagun espazio publikoa gure kulturaren ondorio da eta urteetan hartu diren zentzu bakarreko erabakien isla, lan produktiborako nagusiki pentsatu diren hiri antolaketa eta espazio publikok sortu direlarik. Espazio hauetan, berdintasun erreal baterako, eraikirik ditugun espazio publiko eta dotazioak birpentsatu beharrean gaude perspektiba aberatsago batetik, non lan erreproduktiborako lantoki bezala ulertu behar ditugun eta erabilera anitzeko aukera emango duten geroz eta hiritargo ezberdin eta anitzago baten beharren asetzeari lagunduko duen espazioak sortuz.

Kolektibo ahulenen ingurua, Gertutasuneko Hiria/Herria

Esan bezala egin ditugun hausnarketen ondorioz gure hiri eta herri antolaketa bizitza produktibo baterako sortuak direla nabari da. Bizi modu hau gizartearen zati batek bakarrik ematen du beste zati handiago batek berriz



espazio publikoan beste behar batzuk ditu eta hauek ez dira kontutan izan. Pertsona adinduek zein haurrek beraien independentziarako eta zaintzaileen bizi egokiagarako etxetik berrehun metroko inguruan espazio publiko egokiak behar dituzte, non sozializazio aukera izango duten, esertzeko eta jolasteko tokia, udaran itzala eta neguan babesa emango dieten espazioak.



Azken urteetan sortu diren espazio publikoak makroak izan dira, hiri eta herrietan inbertsio handiak egin dira parke eta plaza edo pasealeku erraldoiak sortzen. Espazio makro hauek gizartearen zati handi batek ezin ditu gozatu, mugikortasun eta dependentsia arazoagatik hauetara iritsia ezinezkoa edo oso zaila bai zaie. Noiz behinkako espazio bezala egoki badira ere eguneroko bizitza maila on baterako ez dute espazio txiki eta gertukoek betetzen duten hutsunea asetzen. Horregatik gertutasuneko hiri eta herrien sorreran lan egitea proposatzen dugu. Espazio makro hauez gain, espazio publiko sare txikiago eta orokor bat eratuz (*adb. Donostiako Monpaseko pasarela*).

Oinezkoen lehenetsuna, Hiri/Herri geldoa

Produkzioaren hiri eta herrietan abiadura azkarrak hartu du garrantzia eta mugikortasun planetan autoen lehenetsunak oinezkoa bigarren mailara baztertu izan du. Ezinbestekoa da hiri inguruetan oinezkoagan pentsatzea eta autoenak izan diren espazioak oinezkoak pixkanaka hartzen joatea. Hiri inguruek ehuneko hogeitaz edo hogeitaz eta hamar guneak izan beharko lukete, non oinez ibiltzen denak lehenetsuna duen.

Autoentzako sare eskalaz zabalago bat sortu behar da, hauen mugikortasun orokorra bermatzeko, baina hiri inguru oinezkoak gailendu behar dira, non autoaren presentzia ez den galduko, batez ere gabeen segurtasun pertzepzioa areagotzen duelako, baina autoa oinezko inguru eta abiadara egokitu beharko da.

SAREAK: espazio publikoa, dotazioak, mugikortasuna...

Espazio publikoak bakarka pentsatu eta aztertu ordez ezin bestekoa da osotasun batean ulertzea, eta espazio


hauek dotazioekin duten harremana eta loturak ikustea. Espazio publikoek sare bat osatzen dute eta sare honek harremantzen ditu dotazioak, beraietara iristeko beraien inguruetan aktibitateak egiteko.

Sare hauen ulertzea ezinbestekoa da espazio publiko jarrai erabilgarri eta eroso bat osatzeko, sare hau izan behar du dotazioen parada. Edozein espazio publiko berri sortzean edo dotazio kokatzean edo eta hauek zahar berritzean sare osoarekiko erlazioak eta espazio berriek ase behar dituzten beharrak, sarearen barruan hartzen duten tokia ondo ulertu eta osotasunean zein tokian bertarako eman behar dira erantzunak.

Nola ez sare hauen ulermenean beste sare eta kapa batzuk gainjartzea ezinbestekoa da, etxebizitzak, komertzioa, garraio publikoa, ... eta noski klimatikoki espazioek duten izaera, eguzkia, haizea eta begetazioaren presentzia. Analisi konplexu eta kapa eta sare ezberdinen azterketa eta ulermenetik bakarrik sortu daitezke edo eraldatu espazio publiko egokiak (*adb. Urretxuko Arauen berrikusterako eginiko azterketa*).

Plangintzen harremanak: Mugikortasun plana, Irisgarritasun planak, hiri debekatua

Udal administrazioek beraien eguneroko lanerako zenbait plangintza ezberdin egiten dituzte herritarren eguneroko bizitza hobetu nahirik. Honela mugikortasun planak zein irisgarritasun planak eta egun hiri debekatuaren mapak ere egiten dira, baina orokorrean plangintza hauek jende ezberdinak egiten dituzte eta bakoitzak ente bakar bezala parte hartzen du gure hiri eta herrien egituraketan. Batzuetan batakoa dioena besteak dioenarekin kontraesanean etortzen da, erreminta bezala egokiak badira ere, ezinbestekoa dugu



plangintza hauek bateratzea eta ikuspuntu eta jarrera bakar eta argia izatea espazio publikoan lan egiterako orduan.

Bateragarritasun hau plan orokorrak osatu beharko luke baina askotan bere geldotasuna dela eta, edo eta eguneratzea egin gabe dagoelako, plan hauek bakarkako elementu bezala funtzionatzen dute udalen eguneroko lanean, beraz plan guztien bateratzea eta berriak egitean aurrekoak kontutan izatea oso garrantzitsua da (*adb. zehrabide igoak espaloi beheratuetan*).

2. HAZKUNDE BERRIAK, ETA HIRI LOTURAK

Atal honetan, gure hiri eta herrien garapenean eta hazkunde berriak egiterakoan etxebizitza eta eraikin pribatuen errentagarritasun ekonomikoak pisu gehiegi izan duen azken garai hauetatik sortutako jarraipenik gabeko hiri eta herri zati berriak bete beharko lituzketen oinarriak ezarri nahi dira.

Hiri/herri zaharretik ikasten

Aurrez aipatu bezala espazio berriak sortzean herri eta hirien sare publikoan oinarrituta egitea beharrezkoa da sareak adieraziko bai digu zein diren sortuko den espazio horrek herri edo hiri osoarekiko izan behar duen lotura eta bete beharko dituen beharrak. Hiri edo herri zaharra ulertzea guztiz beharrezkoa da eta berak emango digu hazkunde berriak behar duen eskala, erritmoa eta dotazio, zein etxebizitzek, nola inguruko naturarekin izan beharreko harreman mota. Analisi honek ere lagunduko digu hiri zaharrean dauden gabeziak antzematen eta sortuko den inguru berrian herriaren osotasunak dituen gabeziak osatu ahal izango ditugu.


Ezinbestekoa da lan egingo dugun hiri edo herriaren eskala ondo ulertzea eta inguru publikoaren izaera barneratzea gorputz oso baten zati bat osatu behar bai dugu eta tokian tokiko lana egin.

Erabilera nahasketa. Hiri/Herri bizia

Mugimendu modernoak proposatu zuen hiri zonifikatuaren ideia gailendu da gure herri eta hiri antolaketatan, baita lurralde antolamenduan ere, eta honek hirian funtzio bakarreko zatiak sortzera eraman gaitu. Hiri zaharretik ikasi ordeztu hiri mota era bat berriak sortu ditugu, eboluzionatu ordeztu aldaketa sakonak eragin ditugu gure antolaketa kolektiboetan.

Toki batean lan egiten dugu, erosketak eta aisia beste batean eta etxebizitzak beste alde batean ditugu. Honek autoarekiko lotura eta beharra izatea eragin digu eta hiri zati ezberdinak egun edo astean zehar zenbait ordutegitan era bat hutsik egotera. Mugikortasun behar handia digu eta puntualki inor ez dagoen hiri zatiak sortu ditugu. Hau hiri historikoarekin alderatuz, ez dago gure alde zaharrak edo lehen zabalgunek ikustea besterik, ulertu dezakegu betidanik izan diren erabilera anitzak uztartzen dituen hiri eta herriak galdu ditugula, industria gune, parke teknologiko eta gune komertzial edo kirol gune bakan eta aldenduak eraikiz, autoarekin iristeko pentsatuak izan direnak.

Hiringuru berdinean zerbitzu denak eman ditzake, ez dugu zertan lan tokiak edo komertzioa eta aktibitate ekonomikoak etxebizitzetatik aldendu behar. Hiriak erabilera anitzak jasotzeko aukera eman behar dute. Modu honetan, egun osoan eta aste guztian zehar bizia izango den hiringuruak lortuko ditugu, oinezko mugikortasuna bultzatuz eta eguneroko bizitzarako erosketak eta eginbeharrak erraz



egiteko aukera emango digu. Beraz zonifikazio ideia hau atzera utzi beharrean gara, betiko lan leku bizi toki eta aisi zein erosketak egiteko aukera emango digun hiriak osatuz.

Espazio publikoan oinarritutako hazkundeak, Hiri/Herri jarraia

Hiri jarraia kontzeptua, aurrez aipatutako espazio publikoaren sarean ulertzearekin bat egiten du. Hirigintza eta batez ere etxe bizitzak aktibitate ekonomiko garrantzitsu bihurtu direnetik hirigintza antolaketetan etxe bizitzaren sorrerak hartu du pisua, ekonomikoki errentagarritasun ahalik eta altuena izateko. Askotan honek espazio publikoaren sorrera bigarren mailan utzi du, eta hiri zati berriak etxebizitzaren sorrerarekin lotu dira eta ez espazio publiko egoki baten inguruan antolatutako etxebizitzak.

Hiri hazkunde berriak egun dagoen espazio publiko sareetan oinarritu eta sortutako espazio publiko egoki batzuen inguruan antolatu beha dira. Espazio publikoak izan behar du hazkunderen oinarri eta eraikinak eta erabilerak espazio hauen arabera antolatu behar dira.

3. ETXEBIZITZA TIPOLOGIEN ERAGINA SEGURTASUN PERTZEPZIOAN

Gertuen dugun espazio publikoa espazio pribatutik irtetea edo sartzen topatzen duguna da. Espazio erdi publiko erdi pribatu hauek derrigorrezkoak sortzen dira, nahi eta ez bizi behar ditugun espazioak ditugu, atariak eskailera etxe inguruak etxebizitza eraikin arteko espazioak.

Espazio hauetan gertatu oi dira eraso gehien, eskailera, atari, igogailu eta arkupeetan. Beraz espazio hauek sortzeko eta diseinatzeko orduan kontu eta sentsibilitate

berezia izan behar dugu. Bestalde eguneroko bizitza egoki baterako tarteko espazio hauetan erabilera komunalera tokiak behar dira, etxean izan ezin diren gauzak gordetzeko tokiak, bizikleta, ahur aulki, eta abarri tokia emateko, naiz komunitateko bizitza eta aktibitate ezberdinak egiteko erabilera anitzeko espazio komunalak.

Publiko eta pribatuaren tarteko espazioak

Tarteko espazio hauek gertutasuneko espazioak dira, etxetik gertu eta inguruko komunitate txiki bati zerbitzu ematen diotenak. Trastelekuak behe oinplanoetan, bilera tokiak, garbiketa guneak, euskal herrian horren erabiliak diren sukaldeen inguruan sortutako elkarteak, estal eta babestutako jolaserako gune edo gelak. Espazio komunal hauek arkitektura eta hirigintzan zenbait garai eta proiektuetan aurrera eraman izan dira, baina azkenaldiko ekonomian era bat oinarritutako etxebizitza eraikuntza merkatuak aukera hauek guztiz kanpo utzi ditu eta giza ikuspuntu batetik berreskuratu beharrean gara, eguneroko bizitza eta elkarren arteko hartu-emanen gehiago eta hobeak sortzeko.

Kalearen begiak eta belarriak

Aurrez esan bezala etxebizitzak ekoizpen produktibo papera hartu dute azken urteetan eta ahaztu egin zaigu hauek kaleekin izan behar duten lotura. Etxebizitzek norbanakoari babesa eta bizitokia emateaz gain, espazio publikoarekin duten hartu-emana estutzea oso da gomendagarria, etxeen leihoak, balkoiak eta miradoreak kaleen begi eta belarri bezala ere ulertu behar direlako.

Kalean doanari, leiho batean norbait ikusteak, segurtasuna ematen dio eta elkarren arteko harremanak areagotzen

ditu. Leiho eta balkoietan jendearen presentziak espazio publikoan dagoenarentzat ikusia eta entzuna izatearen segurtasuna ematen dio eta honek lasaitasuna areagotzen du espazio publikoan, eta baita espazio pribatuan ere. Honela azken urteetan egin diren eta kaleekin harremanik ez dituzten etxe tipologiak, adosatu lorategi hesituekin edo etxebizitza kolektiboak erdi sotoan garajeak kokatu eta lehen oin altuan lorategidun eta hesitutakoak. Tipologia hauek soilik barrura begiratzen duten etxebizitza tipologiak dira eta hiri zati itsuak eta gorrak sortu dituzte. Kale eta etxebizitza arteko lotura galduz eta oinezkoarentzat bakartasun sentsazioa areagotu dute (*adb. Frauen-Werk-Stadt-Viena-Austria- Franziska Ullmann*).

Atari, eskailera eta igogailu pribatuen egokitzea

Espazio hauetan ematen dira eraso gehien, beraz bereziki zaindu beharrekoa da hauen diseinua. Espazio ertain hauetan ahalik eta espazio garden eta irekienak sortzea komeni da, erabiltzaileak ikusia dela eta ihes egiteko nahikoa espazio duela sentitu dezan. Hau horrela izan dadin, Urretxuko udalean eraikuntza ordenantzak eratzean izandako begirunearen adibidea dakarkizuet. Ordenantza hauetan derrigorrezko bihurtzen da atariak diseinatzean hauen kalerako itxitura gardena izatea eta kaletik ikusgarri izatea igogailuko sarrera zein eskaileraren hasiera. Tarte ezkutu eta atari konplexuak galarazten dira eta modu honetan ikusia izatea bermatzen da honek segurtasun sentsazioa areagotzen duelarik.

Esandakoarekin gure hiri eta herri inguruetan hartzen diren erabakiekin sentsibilitate gehiago izatea eta denontzat egokiago izango den herri inguru bat eratzeko nahia besterik ez da azaldu. Lan hauetan denon ikuspuntu eta erabakiek dutelako eragina eta denon artean zoriontasuna eta eguneroko bizitza alai eta lasai baten sorreran lana egin behar dugulako.



4

Garraioa eta mugikortasuna

4.1.

Mugikortasun jasangarria eta generoa

Begoña Pecharromán, Gizarte Antropologiako aholkularia, FARAPI SLko zuzendaria

Hitzaldi hau egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Departamentuko Lurzoru eta Garraio Zuzendaritzarentzat egindako lau azterlanetatik hiru hartu ditugu oinarritzat. Lan horiek argitaratuta daude, *“Emakumeak garraioen sektorean”* izenburupean (1).

Mugikortasuna da autonomia-erkidegoek XXI. mendean aurre egin beharko dieten erronka handienetako bat. Biztanleen eguneroko joan-etorriak estuki lotuta daude giza jardueraren alderdi askorekin. Lurraldearen antolaketak, hirigintza-plangintzak eta ingurumen-politikak baldintzatzen dituzte joan-etorriok, baina eragina ere badute faktore horietan. Zuzeneko eragina dute ondasunen produkzioan eta zerbitzuzigintzan, eta, aldi berean, horiek ere eragiten diete. Eta, azkenik, askoz ere alderdi hurbilagoko batean eragiten dute: pertsonen eguneroko bizitzan, eta, bereziki, eguneroko zereginak egiteko daukagun denboran eta bitartekoetan.

Ikuspegi ekonomiko-feminista

Ikusten dugunez, mugikortasuna zeharkako elementu bat da, eta horregatik du interesa hori aztertzeak. Baina zein eratako analisiak egin izan dira orain arte? Duela hamarkada batzuk arte, beste gizarte-esparru batzuetan gertatu den bezala, ikerketek subjektu zehaztugabe eta estandarizatu bat izan dute ardatz, non eta ez diren zuzenean lan ordainuaren premiengatik mugitzen diren “gizonak”. Beste hitz batzuetan esanda, mugikortasun-plangintzaren ardatz nagusia lan produktibo eta ordaindua izan da, eta, gainera, generoaren aldagaia ez da agertu izan txostenetan. Etxeko lanez baizik arduratzen ez direnen premiak ahaztu direnez,

plangintzak egitean ez dira kontuan hartzen pertsona horiek, emakumeak gehienak, eta, hala, haien eguneroko joan-etorriak gizartean baztertzeko modu bat gehiago bihurtu dira. Beraz, baieztatu daitezke bizitzaren esparru funtsezko bat hirigintza- eta mugikortasun-plangintzatik kanpo geratu dela.

Mugikortasun-politikek edo –kudeaketek, jasangarri izango badira (gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arloan), nahitaez aztertu, aintzatsi eta baloratu behar dituzte etxeko lanak eta zaintza-lanak, giza bizitza, erkidegoa eta gizarte-kohesioa ongi garatzeko oinarritzatko lan gisa. Ekonomialeari feministek (2) adierazi dute horretarako ezinbestekoa dela paradigma aldatzea, etxean egiten den jarduera konplexu eta ezinbestekoak garrantzi handiagoa izan dezan gure bizitzetan; izan ere, horri esker hazten, garatzen eta eusten diogu pertsonok izaera horri.

Nahiz eta mendekotasuna eta zaintza unibertsalak diren, ikusezin bihurtu dira lan horren kudeaketa eta gauzatzea, eta etxeko negoziozko pribatuaren eremura eraman dira. Horren ondorioz, familietan gehienbat emakumeek hartu dute lan hori beren gain, eta haietako askorentzat horixe izan da desberdintasun- eta pobrezia-iturri nagusietako bat. Beraz, lan horiek errazago egin ahal izateko moduan

(1) Ondorioak —oso labor eta eskematikoki azaldu ditugu hitzaldi honetan— hainbat txosten argitaragabetan eta ondoko argitalpenetan zehaztu eta garatu dira: Gipuzkoako Foru Aldundia (2007). *“Emakumeak garraioen sektorean”*. Donostia: Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia (2007). *“Errepideko ezbeharrak, abiadura eta maskulinitasuna”*. Donostia: Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia (2007). *“Mugikortasuna eta Generoa”*, Donostia. Lurraldearen Antolaketa eta Sustapenerako Departamentua.

(2) C. Carrasco: *“Tiempos y trabajos desde la experiencia femenina”*, PAPELES de relaciones ecosociales y cambio global aldizkaria, 108. zenbakia, 2009, 45-54. or.

antolatu beharko genuke mugikortasuna gure kudeaketa-proposamenetan, merkatu-ekonomiaren mugak gaindituta eta bizitzaren jasangarritasuna ardatz hartuta. Horretarako, beharrezkoa da beste kontzeptu batzuk erabiltzea, hala nola merkatuko denbora gainditzea eta gehiago hartzea kontuan “bizi izandako, emandako eta sortutako denbora”, lan erreproduktibo guztiak egiteko modua emango duena edo lan hori barne hartuko duena (3).

Mugikortasuna eta generoa: ikuspegi bereizi bat

1970eko hamarkadan hasi zen mugikortasunari buruzko ikerketa emakumeetan arreta jartzen. Horretarako oso garrantzitsua izan zen ohartzea, gero eta modu orokorragoan, aurrera egin beharra zegoela gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean. Baina baita arrazoi praktikoagoak ere. Hain zuzen, marketina emakumei begira jarri zen, honetaz ohartzean:


- Kuantitatiboki, garraio publikoa erabiltzen zuen gizartetalde nagusia zen.
- Kualitatiboki, emakumeak garraio-mota horren erabiltzaile pribilegiatu bat ziren; izan ere, horietako gehienak zaintzaile zirenez, haien garraio-premiei familiako kide guztien premiak islatzen zituzten.

Adierazi dugun bezala, berria da emakumeen mugikortasuna aztertzeke interesa, eta, horregatik, konstante bat da sexuaren arabera bereizitako estatistika-datuen gabezia. Espero izatekoa da, beraz, estatistiketan sexuaren aldagaia kontuan hartu ahala plangintza gero eta gehiago doituko zaiela lehen adierazitako alderdiei.

Gaur arte hainbat herrialdetan egin diren ikerketak bat datoz

gauza batean: emakumeen eta gizonen mugikortasun-ereduak desberdinak dira, eta honela laburbil daitezke:

- Gizonak eta emakumeak antzeratsu mugitzen dira urtean zehar.
- Emakumeen joan-etorriak laburragoak dira.
- Emakumeak gutxiago mugitzen dira lanera joateko, eta gehiago erosketak egiteko eta zaintzarekin loturiko eginkizunetarako (familiako kideei mediku-kontsultara laguntzea, haurrak eskolara eramatea eta jasotzea).
- Gizonak eta emakumeak hainbat xederekin mugitzen dira (esate baterako, ogia erosteko lanetik itzultzean), antzeko proportzioan, baina desberdina da batzuek eta besteek bidaiak konbinatzeko duten modua.
- Emakumeek lantokitik gertu bizitzeko joera dute. Oinez egin ohi dute etxetik lanerako bidea.
- Emakumeek gizonen baino aukera gutxiago dute autoa erabiltzeko. Emakumeek baino askoz ere gizon gehiagok dute gidabaimena.
- Emakumeak gehiago mugitzen dira oinez eta bidaiari gisa autoan.
- Emakumeek gehiago erabiltzen dute garraio publikoa.
- Emakumeek, beren joan-etorrietan, hainbat garraiobide konbinatzen dituzte maiz (intermodalitatea), eta gizonen, berriz, autoa soilik erabiltzeko joera dute.
- Emakumeek joan-etorri gehiago egiten dituzte



haurrekin edo zamatuta.

- Emakumeek gehiago bidaiatzen dute puntako ordutegietatik kanpora (neurri batean, askok egun zatiz egiten dutelako lan).
- Aldakuntza garrantzitsuak daude emakume-taldean mugitzeko eran. Adinak, amatasunak, lan-egoerak, bizilekuak (hirigunea edo landagunea), desgaitasunen bat izateak eta gutxiengo etniko batekoa izateak mugitzeko eran eragiten dute.
- Emakumeen eta gizonen arteko mugikortasun-ereduak elkarri hurbiltzen ari zaizkio, baina astiro-astiro.
- Lanegun arruntetan, biztanleen %18 ez dira lekuz aldatzen. Ehuneko horretatik %60 emakumeak dira.
- Emakumeak, nagusiki, ibilgailu pribatuan (%32,1) eta oinez (%31,2) mugitzen dira; bi moduak ere antzeratsu erabiltzen dituzte. Gizonak, ostera, oinez (%20,2) halako hiru mugitzen dira ibilgailu pribatuan (%60,6).
- Garraio publikoa erabiltzen duten emakumeak gizonak halako bi dira (%36,3 eta %17,8 hurrenez hurren).
- Etxekoandre gehienak (%21) oinez mugitzen dira; atzetik, garraio publikoa erabiltzen dutenak daude (%11), eta, azkenik, autoa erabiltzen dutenak (%7).

Autoa erabiltzeko aukerari dagokionez, horrek gure mugitzeko era guztiz baldintzatzen baitu, honako hau esan dezakegu:

- Familien %26k ez dute autorik. Autoa duten familiak

hartzen baditugu, familiako batez bestekoa 1,4 autokoa da.

- Emakume gehienek (%54,2) ez dute gidatzeko baimenik edo lizentziarik. Aldiz, lau gizonetik hiruk (%8,5) dute baimen-motaren bat.
- Gidabaimena duten emakumeen artetik, soilik %60,1ek gidatzen dute, eta gidabaimena duten gizonen artetik, berriz, %76,8k.
- Emakumeek batez ere herri barruko bideetan gidatzen dute (%52,7), eta, batez beste, gizonek baino kilometro gutxiago egiten dituzte urtean.

Kopuru horiek oinarritzat hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakumeen mugitzeko eran giltzarri den ezaugarri bat ondoriozta dezakegu:


Emakumeek aukera gutxiago dute autoa erabiltzeko, eta, horregatik, gizonak baino gehiago daude garraio publikoaren mende. Maiz hura beste aukerarik ez dutenez, garraio publikoaren “erabiltzaile gatibutzat” har daitezke.

Gipuzkoako emakumeek garraio publikoaz egiten duten balorazioa

Gipuzkoan egindako etnografian, erabiltzaile askok, gehienak emakumeak, bi alderdi nabarmendu zituzten:

- Garraio publikoari buruzko informazioak arazoak sortzen ditu banaketa eta formatu aldetik.

(3) Halakoen barruan sartzen dira zaintza-lanak, afektua, etxea mantentzea, kudeatzea eta administratzea, harremanak, aisialdia, hezkuntza, osasuna...



- Ibilbideak, ordutegiak, konexioak eta intermodalitatea: hirigunearen eta aldirien arteko konexioa ona da, baina oso zaila da aldirietako zona batzuetatik besteetara bidaiatzea. Hori, Gipuzkoan, okertu egiten da hiriz kanpoko mugikortasunaren kasuan. Gainera, ez dago erraztasun handirik garraiatzeko bideak eta moduak konbinatzeko.
- Garraio publikoaren puntueltasuna eta fidagarritasuna ez dira behar bezain onak.
- Txartelen prezioa eta salmenta: garraio publikoari garesti irizten zaio, eta dauden deskontuei, gutxiegi. Adineko pertsonak arazoak izan ditzakete txartelen salmenta mekanizatuarekin.
- Itxaronlekuak: erabiltzaileek salatu dute zailtasunak izaten direla iristeko (eskailerak, hiri-altzariak), estalita dauden eserlekuetatik gutxi direla erosoak, markesinak ez direla aski eta dauden markesinak ez daudela babestuta eguraldi txarretik.
- Ibilgailuak: Renfeko trenbideetarako sarbidea oso eskasa da. Zoru baxuko autobusak ez dira iritsi linea askotara. Hiriko autobus batzuek eserleku altuak dituzte eta autobus guztietan falta izaten da lekua puntako ordutegietan. Ez dira errespetatzen eserleku erreserbatuak. Ibilgailuek ez dute komunik.
- Erabiltzaileentzako arreta: tratua hobetu egin da, baina oraindik jasotzen dira kexak horren inguruan. Bestalde, emakumeek laguntza gehiago eskatzen dute mugitzeko mugak dituzten pertsonentzat.
- Segurtasuna: erasoei dagokionez, ibilgailuak seguruak

dira, baina beti ez da gauza bera gertatzen geraleku eta geltokien inguruekin. Bide-segurtasunari dagokionez, geraleku batzuek ez dute segurtasunik. Azkenik, erabiltzaileak kezkatuta daude autobusak kontuz gidatzen ez dituztela eta.

- Gizabidea: gizabiderik eza sumatzen da garraio publikoan.

Mugikortasun berneratzaileagoa izateko proposamena

Identifikatu ditugun guztietatik, proposamen orokor bat nabarmendu nahi dugu: erabiltzaileek badutela ahala garraio publikoaren plangintza hobetzeko, eta ahal hori ez dela aprobetxatzen alderdi askotan. Azken batean, herritarren parte-hartzea sustatu behar da (batez ere emakumeena) garraio publikoaren kudeaketan, ibilbideei, ordutegiei eta halako alderdi giltzarrii buruzko organo aholku-emaile espezifikoak sortuta. Parte-hartze hori sustatzeko modu bat kexak eta iradokizunak aurkezteko modua erraztea da. Lehendik dauden bideak (emakidadunak eurak, kontsumo-bulegoak) sustatu eta hobetu daitezke, edo beste formula batzuk aztertu (bidaiarien defendatzailea). Horri lotuta, erabiltzaile askok eskatu zuten egin zitezela jarduerak bidaiarien eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko eta garraio publikoaren esparruan gizabidea sustatzeko.

Bideetako ezbehar-tasa, maskulinitasuna eta abiadura

Azterlan honen xedea zen ausarkeriaz gidatzeko zein faktore soziokulturalek eragiten duten argitzea: maskulinitasunaren eta arrisku-jokabideen arteko lotura. Alde horretatik, gure asmoa da gizon gazteek bide-ezbehar gehiago zergatik izaten dituzten ulertzea.

Azterlan hau egiteko, nagusiki bi alderdi hartu ditugu oinarritzat:

1. estatistika-datuak: argiro erakusten digute istripu-tasa handiagoa dagoela gizonen artean (batez ere gazteetan).
2. maskulinitasunaren azterlanak: arriskuaren eta maskulinitasunaren arteko lotura aztertzeke bidea ematen digute.

Ondoren, azterlan honetako ondorio nabarmenenak azalduko ditugu:

- Bide-ezbeharrek giza bizitzetan eta osasunean dakarten kostua, bai eta kostu ekonomikoa ere, neurrigabea ez ezik, justifikaezina ere bada.
- Gertaera horrek oso modu berezian eragiten die gizonen, batez ere gazteei.
- Oso gertaera larria bada ere, gizaratearen erreakzioa oso apala da. Gainera, neurri batean gizaratearen erreakzio falta horren ondorioz, ez erakundeek eta ez fabrikatzaileek ez dute erreakzionatzen halako tragedia handi batek merezi duen bezain irmo.
- Fabrikatzaileen interesek bide-segurtasunarekin ikusteko gutxi duten irizpideak dituzte gidari. Ezbehar-tasari heltzeko duten ikuspegiak ez du eragozten tasa hori areagotzea eta ez dakar berekin trafiko-istripuen kopurua eta larritasuna modu nabarmenean gutxitzea.
- Beharrezkoa da kontuan hartzea talde batzuek eta besteek modu desberdinean sumatzen dutela arriskua

eta modu desberdinean jokatzeko dutela (gizon gazteen kasuan ikusi den bezala).

- Abiadura gizarte-balio bat da, besteak beste dinamismoari, gaztetasunari eta halako balioei lotzen zaielako. Eta, gainera, gure gizartean berehalakotasuna, azkartasuna baloratzen delako. Abiadura prestigio-adierazle bihurtu da, batez ere gizonentzat.
- Abiaduraren gizarte-balorazio horren eta balio maskulinoekin duen loturaren ondorioz, korri egitea gizarte-mandatu bihurtzen da gizon gazte askorentzat.
- Gizonezko-ideala estuki lotuta dago arrisku-portaerekin; hori dela eta, gizon asko urrundu egiten dira bizitza zaintzearekin zerikusia duten era guztietako jokabideetatik.
- Mantsoegi gidatzen duten pertsonak gehiago kritikatzeko dira azkarregi gidatzen dutenak baino, nahiz eta haiek arrisku gutxiago sortzen duten. Gehiago kritikatzeko da “oztopo” izatea arriskutsu izatea baino. Hain zuzen, emakumeen gidatzeko era gehiago kritikatzeko da errepidean “traba” egiteagatik, benetako arrisku-egoerak sortzeagatik baino.
- Gizonek ondo gidatzeari buruz duten ideia segurtasunaren aurka doa eta arriskua sustatzen du.
- Emakumeek, beren arrazoibidean, gehiago lotzen dute “ondo gidatzea” zuzentzearekin eta behaketarekin, eta “gaizki gidatzea” gehiegizko abiadurarekin, zuzentze faltarekin eta, oro har, portaera oldarkorrekin.
- Hala eta guztiz ere, ez dago alde handirik emakumeek

eta gizonak gaizki gidatzeari buruz berriaz esan digutenaren artean, batez ere gehiegizko abiadurari dagokionez.

- Emakumeen gidatzeko erari buruzko kritikak zerikusit handia du emakumeak bolantean daudenean “beren lekuan ez” daudelako ideiarekin. Baita emakumezkoak gizonetzkoen eremu batean agertze hutsak balioa kentzen duelako egitatearekin ere.
- Baina kontuan hartzen badugu errepidean egokiena zehurtzia dela, gizonak kritikatu beharko lirateke gehiago, eta ez emakumeak.
- Errepidea emakumeentzako leku ez delako ideia argiro ikusten da gida ez dezaten egiten diren saioetan, bai balizko arriskuetatik babesteko, bai gizonentzat prestigio-iturri den eremu batetik urruntzeko saioetan.
- Alde batetik, ahalegina egiten da neskak errepideko arriskuetatik babesteko eta urruntzeko, eta, bestetik, mutilak ez bakarrik animatzen dira gidatzera, baizik eta baita arrisku-portaerak hartzera ere.
- Errepidea “gizonezkoena” den bitartean, erresistentzia handia aurkituko dugu abiaduraren eta arriskuaren aurka doazen balioak sartzeko orduan.

Horren ondorioetako bat da, ibilgailuaren erabilera zabaltzeaz eta mugikortasun-premiak ugaritzeaz gain, gidatzea arinkeriaz hartzen dela.

- Landagunean hirigunean baino handiagoak dira ibilgailua (batez ere autoa) izateko nahia eta premia.

- Ibilgailua ez da soilik erosten mugitzeko premiagatik, baizik eta baita estatus, irudi eta prestigioagatik ere, batez ere gizonetan. Horren zergatia da, zalantzarik gabe, potentziari, kontrolari, indibidualismoari, independentziari, askatasunari eta halako ideiei lotzen zaiela.
- Ibilgailuaren eta gizarte-estatusaren arteko loturak bide ematen digu ulertzeko zergatik dioten gizonak halako atxikimendua beren ibilgailuari eta zergatik dauden edozein muga (abiadura edo erabilera aldetik) ezartzearen aurka; izan ere, kontua ez da soilik ibilgailu jakin bat “izatea”, baizik eta baita modu espezifiko batean erabiltzea ere (esate baterako, autoa modu intentsiboan erabiltzea eta gidatzeko era arriskutsuak hartzea).
- Mutil askok ez dute inola ere uzten irakats diezaieten, badakitela uste baitute. Horren arrazoia da, besteak beste, mutil asko oso gazterik hasten direla bolantearen munduan.
- Gidatzearekiko erlazioa, gidatzeko era, maiz prestakuntza araututik kanpo sortzen da. Ikaskuntza “ez-formal” eta mutilen arteko hori arriskutsua izan daiteke; izan ere, maniobra arriskutsuegiak egiten ere ikasten dute.
- Bai berdinen artean eta bai familian bertan, errepidearen mundura bultzatzen dituzte gizon gazteak. Orobat, bi esparru horietan harrarazten dizkiete arrisku-portaerak.
- Berdinen taldeen arteko eragina oso bortitza da, eta indargabetzen zaila. Gainera, haien artean ezartzen

den harremanak maiz hasiberriaren eta kadetearen arteko harremanaren ezaugarriak ditu; izan ere, lehen ere du da bigarrenarentzat.

- Berdinen arteko harreman horrek eta giro horretan transmititzen diren ereduaren eraginaren indarrak azaltzen dituzte gizon gazteek bai beren prestakuntza-aldian eta bai ondoren errepidean agertzen dituzten portaeretak asko.
- Motorraren munduan, mutilak halako naturaltasunez eta konfiantzaz abiarazten diren mundu horretan, eskoletan irakasten diren ezagutzak eta estiloak beste edo gehiago dabilta.
- Eragin horren indarra kontuan hartuta, ahulegi gertatzen ari da gidatzen irakasteko prestakuntza formala. Jendea ez da joaten autoeskoletara ikasteko (batez ere jadanik bolantean hasiak diren gazteak), baizik eta azterketa bat gaingitzeke eta al bait denbora gutxienean gidabaimena lortzeko.
- Premia-premiazkoa da autoeskoletako irakaskuntza-eredua errotik aldatzea. Beharrezkoa da bide-hezkuntzaren kultura lantzea adin goiztiarretatik, nahiz eta esan daitekeen beharrezkoa dela gizabide gehiago eta oro har hurkoa aintzakotzago hartzea...
- Mutil gazteek beste batzuen aldamenean gidatzen dutenean, arrisku-portaerak indartzen dira.

Emakumeek eta gizonen errepideko portaerari dagokionez agertzen dituzten desberdintasunei buruzko azterlan bat denez, ohar batzuk egin nahi genituzke ondorio hauetan azaldu dugunaren inguruan, “gain-interpretaziorik” izan

ez dadin. Nabarmendu nahi dugu hemen aztertu dugun portaerak gizon batzuk identifikatzen dituela, eta ez denak. Nolanahi ere, identifikazio horren oinarria gizonen buruz dugun eredu nagusia da, eskuarki onartua eta geuretua; horrek berekin dakar errepideetan halako arrisku-portaerak hartzea eta ez sortzea duen larritasunaren heineko erreakzio bat; izan ere, gizonetan portaera “naturalizat” hartzen denez, ez digu hainbesteko atentziorik ematen. Hori da hemen aztertu dugun ereduaren. Gainera, nahiz eta gizon guztiek ez duten ausarkeriaz gidatzen, egia da ausarkeriaz gidatzen duten gehien-gehienak gizonak direla, eta hori aski arrazoi da geure buruari horri buruz hainbat galdera egiteko.

Emakumeen laneratzea eta garraio-sektorea

Txostenaren xedea zen Gipuzkoako garraio-sektorean emakumeen egoera zein den jakitea. Zalantzarik ez da azterlan hau egiteko akuilu gisa balio izan zuen lehenengo pizgarria sektorean dauden emakume apurren gaineko nolabaiteko kezka izan zela; bereziki-bereziki, kezka hori kategoria profesional batzuen gainekoa zen, sektorearen bereizgarri diren kategorien hain zuzen: gidatzearekin loturikoak. Analisi horren bidez, saiatu ginen identifikatzen zer oztopo dauden gaur egun emakumeak sektorean sartzeko, batez ere ibilgailu astunak eta trenak gidatzeko.

Zalantzarik ez da ertz ugari gai bati heltzen ari ginela, eta ahalik eta alderdi gehienei heltzen saiatu ginen. Alde horretatik, garrantzitsua iruditu zaigu sektorearen maskulinitasuna zein faktorek baldintzatzen duten aztertzea, hala nola aurreiritziak, sexu-identitateak eredu oso estereotipatuaren arabera eraikitzea, ingurunearen eraginak duen garrantzia (familia, parekoak eta abar), neskei eta mutilen ematen zaien lan-orientabidea, hezkuntza formalaren eginkizuna, familia eta lana bateragarri egitea, eta abar.

Garraio-sektorea izanik, adierazi behar dugu erabakigarriak direla maskulinitasunaren eta gidatzearen eta errepidearen munduaren artean dauden asoziazio sinbolikoak. Horrek oso modu esanguratsuan baldintzatzen du emakumeek eta gizonek sektore horretan duten portaera, eta hori maila guztietan gertatzen da: lana ematen dutenak, sektoreko langileak, lanpostuaren balizko eskatzaileak, beren lan-etorkizuna erabakitzen ari diren neska-mutilak, ikasleak orientatzen dituzten irakasleak eta ageriki edo ez hain ageriki seme-alaben lan-munduko urratsak bideratzen dituzten familiak.

Ikuspegi oso horretatik, Gipuzkoako garraio-sektorean eragiten duten datu sozial eta estatistikoak bildu eta aztertu genituen, emakumeek garraio-sektorean lanik zergatik ez duten eskatzen edo zergatik ez zaien eskaintzen azaltzen saiatzeko.

Errepide eta trenbide bidezko salgaien eta pertsonen garraioaren sektorea deskribatzeko, lan-merkatuko sektore maskulinizatuenetako bati egin behar zaio aurre, eta horrek berekin dakar emakumeek lan-merkatuan sartzeko dituzten arazo handienetako bat identifikatzea eta horretan sakontzea; izan ere, emakumeen aukerak sektore gutxi batzuetara mugatzen dira, emakumeen jardueretatik hurbilenekotzat jotzen diren horietara hain zuzen. Sektore horiek, oso modu orokorrean, eskari gehiegizkoa dute, eta, horren ondorioz, langabezia estrukturala dute, eta lan-baldintza ezegonkorrak.

Sektoreari buruzko datu kuantitatiboek erakutsi ziguten arlo horrek pisu handia duela Gipuzkoako ekonomian; hain zuzen, enpleguari dagokionez, % 4,5ekoa; alabaina, emakumeek presentzia ezinago txikia dute, kopuruok erakusten dutenez:

Emakume langabeek —langabezia dauden biztanleen %60— ez dute lanik eskatzen ere gidatzearekin zerikusia duten ogibideetan. Lan-eskatzaileetatik %86,66 gizonak ziren, eta %13,33 emakumeak.

EAEEn 2004. urtean egindako kontratuen %6,55 garraioaren sektorean egin ziren. Sektorean egindako kontratu horietatik guztietatik emakumei zegokien proportzioa %32 zen.

Emakumeek ez dute betetzen ez erantzukizun edo prestigio handieneko lanposturik (zuzendaritza eta kudeatzailetza), eta ezta gidatzearekin berarekin zerikusi gehien duen lanposturik ere.

2004an, taxiak edo furgonetak gidatzeko kontratuen %12,78 sinatu zituzten emakumeek. Autobusak eta tranbiak gidatzeko proportzioa zertxobait txikiagoa da oraindik: Emakumeek kontratuen %6 sinatu zituzten, eta %94, berriz, gizonek. Azkenik, kamioiak gidatzeko emakumeen parte-hartzea %2,8koa besterik ez da, eta gizonezkoena, berriz, %97,2koa. Halako portzentajerik ez dago gizonen artean ia sektoreko ezein lanpostutan, ezta gehienak emakumeak diren horietan ere, hala nola leihatilakoetan —kasu honetan, gizona zkoak langile guztien %30 dira ia—.


Etnografian bildu genituen alderdi kualitatiboek honako hau erakutsi ziguten: “garraio-sektorea ez da emakumeentzat”. Azken batean, sektore horrek oso irudi estereotipatua eta aurreiritziz betea du, eta horrek asko zailtzen du emakumeak sartzeko. Oro har erabiltzen diren estereotipoek, funtsean, ustez sektore horretan lan egiteko beharrezkoak diren trebetasunei egiten diete erreferentzia; hain zuzen, horiek pentsarazten dute garraioa emakumeekin zerikusirik batere ez duen zeregin bat dela. Pertsona askok aipatu dute beharrezkoa dela indarra izatea eta abila izatea mekanikan

eta gidatzen, gizonezkoei datxezkien eta emakumezkoekin bateraezin diren trebetasun gisa.

Adierazpen horiek emakumeak sartzearen ondorioz beren lana “hutsalduta” ikusi nahi ez duten zenbait gizonek (izan sektorekoak, izan sektoretik kanpokoak) horren aurka egiteko duten estrategiatzat jo dira.

Bestalde, emakume askok frogatu behar izaten dute gai direla lanbidearen eskakizun fisikoei aurre egiteko — gizonezko kideak beti saiatuko dira eskakizun horiek nabarmentzen eta agerian uzten—, nahiz eta gaindituak izan jakintzaz eta teknika instrumentalez bestelako oztopoak lanbidean sartzeko.

Hitzaldia amaitzeko, adierazi nahi nuke mugikortasunaren analisisian genero-ikuspegia txertatzea, ikusi ahal izan dugun bezala, gizarte osoarentzat aldaketa-erronkak dakartzan metodologia bat dela eta hobekuntza-ereduak eman ditzakeela desberdintasunaren aurka eta gizarte-justiziaren alde egiteko.



4.2.

*Tokiko esperientziak***Trenbideko garraioaren hiri-integrazioa generoaren ikuspuntutik**

Almudena Ruiz de Angulo, proiektuen kudeatzailea eta ETSko (Eusko Trenbide Sarea) Berdintasun arduraduna

Trenbideko garraioa sakonki ari da aldatzen Europar Batasunaren esparruan, erkidegoko garraioan berriro ere oreka modala lortzeko asmoz; izan ere, gaur egun errepidearen mendekoegia da.

XX. mendeko azken urteetan garraio-azpiegituretan egindako inbertsioak gehiegi polarizatu dira errepide bidezko garraiorantz; horren ondorioz, nolabait baztertu egin dira tren-azpiegiturek, eta, hala, garraio bide zaharkitutzat jo da denbora luzean.

Emakumeak lan-merkatuan sartzean eta, ondorioz, haien mugitzeko premiak areagotzean agerian geratu dira trenen gabeziak, eta, aldi berean, auto-ilarek, igorpenek, ingurumenarekiko kezak eta istripu-tasak tren-sistema balioztatu dute.

Ikus dezagun aipatu berri dugun horren etsenplu bat:

Egunero bezala, Noaren ama 07:30erako doa lanera. Horretarako, tren-geltokian dago zain, gazte-talde baten ondoan; gazte horiek bi sexuetako ikasleak dira, gehienak emakumeak. Ikasle-taldeko pertsona batzuek, batez ere gizonak, kreditu bat eskatuko dute beren lehen soldatarekin, ikasten amaitzean, eta garraio publikoa utziko dute. Beraz, beti geratzen dira emakumeak, garraio publikoaren gehiengo erabiltzaileak, eta haren gatibu ere bai askotan.

Trenera iristeko, Noaren amak trenbide-pasagune bat zeharkatu behar du egunero, eta nasaren desnibela gaintitu, gurpil-aulkian doan inork igotzerik izango ez

lukeen arrapala baten bidez. Azkenik, trenera igo behar du, beste bidaiari baten laguntzarekin. Eragiketa horiek denak egunero egin behar dira, azkar egin ere, trenak ezin baitu gehiago luzatu geldialdia.

Nolanahi ere, ikus dezakegu, oztopo horiek gaintituta, oso pozik ageri direla azken argazkian agertzen diren pertsona guztiak. Beharbada, ziur daudelako behin trenera sartuta



denbora errekorrean iritsi ahalko direla beren helmugara, hiriaren erdialdera, eta, aldiz, badaia hori bera autoz egingo balute denbora dezente beharko luketela, batez ere hiria igarotzeko eta aparkalekua bilatzeko.

Hain zuzen, errepide bidezko garraioak hirien artean oso azkar joatea bermatzen digu, baina, aldiz, ilara-arazoak sortzen ditu hiri barruan, eta, ondorioz, oso mantso igaroko gara hirian barrena. Denok dakigu zein azkar iristen den Gasteiztik Bilbora edo Donostiara autobidetik, baina badakigu gure helmugara iristeko hiriaren erdialdera sartzen saiatzean hasiko direla arazoak: pilaketak, istripuak eta ilarak. Abiaduraren hainbat definizio daude, baina gaur egungo hiri-ereduan nahasi egiten dira benetako abiadura eta teknologia. Nahasketa hori garraio pribatua eta hiri-eredua lehenesteko erabili da. Inguruabar horiek denek, mugitzeko autoaren mendekoegi izateak eta horrek hiri-plangintzan dakartzan ondorioek batez ere sozialki eta ekonomikoki ahulen diren pertsonak baztertzen dituzte, eta bereziki emakumeak; izan ere, gutxiago gidatzen dute eta proportzio txikiagoan dira auto baten jabe, gutxiagok dute gidabaimena eta garraio publikoaren erabiltzailetatik gehiengoa dira. Beraz, oinezkotzat hartzen dira, gizonetako gidarien aldean ibilgailu motordunak gutxiago erabiltzen dituzten bidaiaritzat.

ETS bereziki kezkatzen dute aipaturiko arazoek eta arazo horiek emakumeekin, garraio publikoaren erabiltzaile gatibu gisa, duten loturak.

ETS, Euskal Trenbide Sarea, zuzenbide pribatuko ente publiko bat da, trenen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia, gaur egun Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari, hain zuzen. 6/2004 Legearen bidez sortu zen, eta EAEn eskumeneko tren-azpiegiturak eraikitzea

eta administratzea du xede. ETSren eskuduntzak gaur egungo tren-azpiegitura guztiak dira, bai eta etorkizunean eraiki daitezkeenak ere, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak badira eta haren kargu uzten badira. Ondorioz, entearen jarduna heda daiteke etorkizunean Eusko Jaurlaritzak gaur egun indarrean diren konstituzio- eta estatutu-esparrua betez bere gain hartzen dituen bestelako azpiegiturretara.

Tren-sektoreko kudeaketa-eremuak banantzea da ezinbesteko baldintza, erkidegoko araudiarekin bat etorritik, botere publikoek beren gain har ditzaten azpiegitura-inbertsio garestiak, azken hamarkadetan tren-monopolio publikoen finantza-osasuna oztopatu duten inbertsioak, eta ondoren operadoreen arteko kostuak jasan ditzaten, pertsona bakoitzak egiten duen erabileraren arabera modu bidezkoan banatuta, ustiapen ekonomiko eraginkorraren eta, ondorioz, jasagarri eta berdinzalearen irizpideak oinarritzat hartuta.

Ondorioz, ETS, azpiegitura-kudeatzaile gisa, trenetan Adif edo aire-garraioan AENA direnen parekoa da; aldiz, garraio-zerbitzugintzaz ari bagara, Euskotren eta Euskotran Iberiarekin zein Renferekin parekatu behar ditugu.

Euskal Trenbide Sareak bi jarduketa-printzipio hauek ditu gidari:

- Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sistema garatzea, euskal garraio-sistemaren garapen iraunkorraren eskakizunekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko kohesio sozial eta ekonomikoarekin bat etorritik.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide-azpiegituren elkarreragingarritasuna sustatzea.



- Ingurumena babesteko eskakizunak txertatzea tren-azpiegituren proiektu berrietan eta lehendik dauden azpiegituren mantentze-lanetan eta administrazioan.
- Intermodalitatea sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko garraio-sisteman.
- Lankidetzan aritzea Europar Batasunaren esparruan jarduten duten antzeko enteekin.
- Tren-zerbitzuen prestazioa sustatzea, objektibotasunaren, gardentasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak errespetatuz.
- Erabiltzaileen interesak babestea, batez ere desgaitasunen bat edo mugikortasun urria duten pertsonen kasuan, trenbideko garraio-zerbitzuak behar bezalako kalitatearekin eta ekitatez erabiltzeko duten eskubidea bermatuz.

Gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-kohesioak, bai eta mugitzeko interes berezia duten pertsonen babesak ere, argiro agertzen dute garraio publikoa gehien zein taldek erabiltzen duen: emakumeak.

ETSk berdintasunaren arloan egiten dituen lanak Eusko Jaurlaritzak eskatuta egiten ditu, legegintzaldi bakoitzean diseinatzen eta onartzen diren ekintza positiboko planen bitartez. Gaur egun, Ekintza Positiboko V. Plana (2009-2013) ari gara garatzen.

V. plan horrekin bat etorritik, ekintzak ondo bereizitako bi eremutan diseinatu eta garatu behar ditugu.

Lehenengoa planaren eremu orokorra da, eta hiru helburu

espezifikoa eta lehentasunezko ditu:

1. Emakumeak ahaldundutzea: tren, garraiobide gisa, lagungarri izan daiteke emakumeak lan-merkatuan eta hezkuntzan sartzeko eta gizartean eskubide osoko herritar gisa parte hartzeko.
2. Genero-indarkeria deuseztatzea: tren-geltokiek, lurpeko pasabideek, gutxi argizatutako inguruneek bide ematen diete indarkeriazko jarrerari eta galarazi egiten diete emakumeei garraioa berdintasunez erabiltzea.
3. Gizarte-antolaketa erantzukide bat lortzea eta balioak aldatzea: ETSk, Berdintasunerako Legeak betez, badauka enpresaren arauzko berdintasun-plana

Bigarren esparrua garraio-zerbitzuentzako espezifikoa da. Atal honetan, neurriak hartu behar ditugu garraio publikoa bereizkeriarik gabe erabiliko dela bermatzeko, eta baita arkitektura-, zentzumen- eta komunikazio-oztopoak ezabatzeko eta sarbidean ekitatea bermatzeko ere.

Garraioaren erabilera ez-diskriminatzailea bermatuko duten neurriak zehazteko, emakume-taldeein egin zaie kontsulta, batez ere Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak sustatzen dituen topaketen bidez eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egiten dituen azterlanen bidez.

Horregatik guztiagatik dakigu emakumeek batez ere bi helburu lortu nahi dituztela garraio publikoaren erabileran:

SEGURTASUNA: tren-geltokiak, batez ere ordu jakin batzuetan, leku ez-segurak izan daitezke, edo segurtasunik eza transmititzen duten lekuak. Ondo dakigun bezala, zona batzuek sortzen duten

segurtasunik ezaren sentipena ez dator ezinbestean bat bertako kriminalitate-indizeekin. Nolanahi ere, aintzat har ditzakegu emakumeak mehatxatuta sentiarazten dituzten faktoreak. Emakumeek une oro ikusiak izatea eskatzen dute, jendez inguratuta egotearen sentipena izatea, hala babestuago sentitzeko. Geltoki bandalizatuak, graffitiak eta pintaketak dituztenak eta zikin daudenak ez dira seguruak; izan ere, agerian uzten dute azpiegituren aurkako erasoak onartu egiten direla, eta utzikeria eta axolagabetasuna adierazten dute; ondorioz, erakusten dute leku horietan gerta litekeen beste edozein indarkeria-mota zigorrik gabe utz daitekeela. Lurpeko pasabideak, ikuspen urriko lekuak, aparkalekuak eta tunelak denbora luzean diseinatu dira bezero zaugarrietan pentsatu gabe.

Horregatik guztiagatik, ETS, jakitun emakumeei trenbide-sisteman berme guztiekin barneratzen lagundu behar zaiela, eraso bandalikoek aurkako materialen katalogo bat egiten ari da bere geltokietarako; hala, mantentze-gastuak arrazoizkoak izango direla bermatzeaz bat, bermatuko ere da azpiegituren ohiko itxura egokia izango dela lortu nahi den xederako. Horregatik, beira erabiltzen da sarbideetan, gardentasuna eta kanpoaldearekiko erlazioa lortzeko, bai eta argiztapen egokia ere, zonarrik ilunantzean egon ez dadin. Eraso bandalikoek aurkako materialei dagokionez, katalogoan altzairu herdoilgaitza, altzairu beiraztatua eta gres portzelanikoa gomendatzen dira hormak estaltzeko. Horrez gain, pixkanaka-pixkanaka trenbide-pasaguneak kentzeko ahalegina egiten ari gara.

Bestalde, bezeroarentzako informazio-sistema erabilerraz bat zehaztu da; horrek bidaiatzeko ordutegiak eta noranzkoak zehazki eta egiaz ezagutzea

bermatuko du, emakumezko bidaiariei bide emango die egoera guztiz kontrolatzeko eta saihestu egingo ditu informazio-faltaren ondoriozko desorientazioa eta babesgabezia-sentipena.

IRISGARRITASUNA: lurralde-kudeaketari dagokionez, uste dugu irisgarritasuna distantziak gainditzeko erraztasuna edo zailtasuna dela, batez ere lekuz aldatzeko erabiltzen den denbora kontuan hartuta. Alde horretatik, mugikortasuna lortzeko zailtasuna desberdina da landagunean eta hirigunean. Landagunean, irisgarritasunaren oinarriak azpiegitura egokirik eza eta zerbitzu-eskaintzaren eskasia dira, eta hirigunean, berriz, esan dezakegu azpiegitura-diseinuak gabeziak dituela, hasiera batean bidaiari jakin batentzat pentsatuak daudelako; hain zuzen, bidaiari hori gizonezkoa da, gaztea edo adin ertainekoa, mugitzeko arazorik ez duena, zorrik ez duena eta auto propioa duena.

Beraz, hirigunean irisgarritasuna konpontzeak berekin dakar diseinua hobetzea, azpiegituren erabilera ekitatea berma dadin.

Trenbidearen kasua, irisgarritasun-arazo espezifikoena trenaren eta nasaren arteko fasea da; izan ere, faktore ugari baldintzatzen dute: bide-mota, ibilbidea, trenaren karga, material mugikorraren egoera, bai eta erabiltzailearen trebetasuna eta adina ere. Halaber, bezeroak nolako gurpil-aulkia darabilen, gurpilak gomazkoak edo altzairuzkoak diren, horrek guztiak baldintzatu dezake ibili beharreko distantzia.

Ibilbideari dagokionez, araudiak tren-irisgarritasunaren inguruan ezartzen dituen gutxieneakoak bermatu

beharrak baldintzatu egiten du diseinua, eta, ondorioz, ETSk bere nasetan gutxienez 500 metroko erradioa uzten du trenbidean eta 300 metrokoa tranbian, geltokietan material mugikorra behar bezala inskriba dadin.

Estatuko tren-enpresen foro batean eztabaidatzen da trenbideko garraioaren irisgarritasun-arazo espezifiko horien konponbideari buruz, eta topagune hori oso erabakigarria izaten ari da.

Berdintasuna benetakoa izan dadin, enpresaren eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren kudeaketa-ereduan txertatu behar da. ETS tren-kudeatzaile bat denez, haren helburua da mugikortasun-eskariari egokituriko garraio-eskaintza bat zehaztea, hau da, azpiegitura jasagarriak zehaztea.

Gaur egungo garraio- eta lurzoru-merkatuak desitxuratuak daude eta automobilaren erabilera lehenesteko joera dute, sozialki eta ekonomikoki onena zer den alde batera utzita. Bestalde, automobilaren kostua ez da kalkulatu modu bidezkoan; izan ere, gidatzen ez duten edo automobilik ez duten pertsonen ordainarazi egiten zaizkie gero eta sakabanatuagoak diren baina komunikazio-bide azkarren bidez konektaturik dauden aparkaleku edo auzuneen gastuak. Horri dagokionez, emakumeek hartzen dute beren gain kostu horren zatirik handiena; izan ere, emakume gutxiagok dute gidabaimena, eta neurri txikiagoan dira autoen erabiltzaile eta jabe.

Garraio-eskaintza eraginkorrago batean, pertsonen aukera izan beharko lukete mugikortasun-azpiegitura egokiak hautatzeko, eta zuzenean eta behar bezala ordaindu beharko lukete auto partikularra eta aparkalekuak erabiltzeagatik.

Egoera hori dela eta, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak mugikortasunerako sarbidea eta ekitatea hobetzea hartu ditu helburutzat; hala, apaldu egingo dira ilarak, igorpenak, komunitate-hausturak, istripuak eta erregai fosilen kontsumoa. Hau da, garraio jasagarria lortu nahi du, herrialde jasagarri batentzat; izan ere, uste du gaur egungo premiai asebeteko dituzten baliabideak modu egokian erabiltzea dela jasagarritasuna, baina irizten dio behar beste baliabide gorde behar ditugula, etorkizuneko belaunaldien premiei modu berean erantzuteko.

Helburu horiei guztiei erantzuteko, ETSk trenbide-plan bat zehaztu du, gaur egungo gizartearen garraio-eskariei erantzuteko. Horren bidez, jende-masa handien premiei erantzungo dieten azpiegiturak zehaztu dira; jende-masa horietatik % 50 baino gehiago emakumeak dira. Trenbide-planak ezin die erantzun dentsitate txikiko zonetako bidaiarien eskari zehatzei; izan ere, kostu handiko azpiegiturak dakartza, eta biztanleria-nukleo handiak erakartzeak berekin dakarren errentagarritasunak justifikatuta egon behar dute. Ondorioz, beharrezkotzat jotzen da hiri-plangintzarekin modu koordinatuan lan egitea, hiri trinko bat lortzeko, eta berriro zehaztea hiriaren eta landaren arteko hesiak, errepide bidezko garraioaren eredia lausotu nahi izan dituen hesiak. Trenbide-planak ez du mugikortasuna areagotu nahi, baizik eta dauden premiei erantzutea du xede, betiere eskariak inbertsioa justifikatzen badu; gainera, ingurumen-kalitatea, eraginkortasun ekonomikoa (eskaintza eta eskaria egokituz, ondare-, lurralde- eta ekonomia-baliabideak optimizatuz) eta gizarte-ekitatea bilatzen ditu, eta garraio publikoa sustatzen du, mugikortasuna eta irisgarritasuna berdintasun-baldintzetan lortzeko. Laburbilduz, helburua da eskaintzan ingurumenarekiko, ekonomiarekiko eta gizartearekiko kezka txertatzea.

Horretarako, ETSk hainbat ibilbide-alternatiba sortu ditu, diziplina anitzeko hautaketa-irizpideak oinarritzat hartuta:

- Garraio-sistemaren funtzionaltasuna: bezero gehiago erakarrita, bidaien denbora laburtuta eta trenen okupazioa hobetuta, dauden ibilbideen hiriratzea hobetuta.
- Irisgarritasuna
- Lurralde-txertaketa: tren-ibilbideak batzuetan sortzen dituen hirigintza-oztopoak kenduz, hiri-espazio publikoa herritarrentzat berreskuratzeko.
- Errentagarritasun ekonomiko/soziala: ibilbidea hobetzeak denbora aurreztea dakarkie erabiltzaileei, bai eta sarbidean ekitatea izatea ere. Bestalde, garraioak dakartzan kanpo-kostuak, hala nola ingurumenaren gaineko eragina, nola murriztu ere aztertzen da.

Aukerak proiektuetan jasotzen dira, eta proiektu horiek jendaurrean jartzen dira ikusgai eta udalei bidaltzen zaizkie, herritarren parte-hartzea erakunde horien bidez kudeatzeko.

Mugikortasunean ekitatea izan dadin, irizten zaio Berdintasunak garraioan hiru aldagai izan ditzakeela: berdintasun horizontala edo inpartzialtasuna, diru-sarrerei dagokien berdintasuna eta mugitzeko premiari eta gaitasunari dagokien berdintasuna. Hiru aldagai horietan, emakumeak lehentasunezko bezero dira. Garraioan inpartzialtasuna lortu nahi badugu, emakumeak kalteturik atera daitezke garraio publikoaren eskaintza egokirik ez badago; izan ere, haren gatibu dira, eta autoaren gutxiengo erabiltzaileak. Diru-sarreraren arabera erantzunari


dagokionez, azken estatistikek erakusten dute pobrezia kasu askotan emakume-aurpegia duela, eta gaur egun oraindik lan-merkatuan emakume gutxiago sartzen dela, familia zaintzeko lan ordaindugabeaz arduratzen direlako. Azkenik, mugitzeko premia eta gaitasuna kontuan hartuta, emakumeak, askotan, mugikortasun urriko bidaiari dira, zaintzaile direlako, eta hala dira haurdun daudenean ere.

Ondorioz, tren-azpiegituren proiektuak ekintza-ildo horiei jarraiki kudeatzen dira, baina berdintasunaren gaineko kezka horiek era batera edo bestera aplikatzen dira, proiektuaren euskarri den hiri-bilbearen konplexutasunaren arabera.

Bilboren kasuan, 355.000 biztanleko hiria izanik ere gune metropolitarran ia milioi bat pertsona daudenez, hainbat tren-linea daude oraindik orain berrituak (Adif-Renferen Hegoaldeko Saihesbidea) edo duela gutxi eraikiak (Bilboko metroa), erabiltzaileen eskariei modu eraginkorrean erantzuten dietenak.

Nolanahi ere, gaur egungo trenbide-sareari dagokion Bilboko mapa metropolitarra berdintasun horizontalaren ikuspegitik aztertuz gero, ondorioztatzen da tren-zerbitzutik kanpo geratzen diren gune askotan dagoela eskaria. Biztanle gehien (71.000 biztanle) hiriko iparraldeko auzuneetan dago: Uribarri, Txurdinaga, Otxarkoaga eta Matiko. Eskari horri erantzuteko, gaur egun Bilboko metroko 3. linea eraikitzen ari dira.

Aipaturiko auzuneetatik, Otxarkoaga eta Txurdinaga dira hiriko barrutirik gazteenak. Otxarkoaga 1961ean sortu zen, 18 hilabeteen 3.700 etxebizitza eraikita, Bilbora etorkizun hobe baten bila etorri ziren beste hainbeste familia etorkinentzat. Txurdinaga hamarkada bat geroago sortu



zen, eta ikusten da hazkundera zertxobait mailakatuagoa eta antolatuagoa izan dela. 70eko hamarkadatik aurrera, auzunearen gabeziak agerian geratzen hasi ziren; izan ere, ekipamenduak falta zituen eta erosotasun- eta bizigarritasun-gabezia larriak zeuzkan; gabezia horietako bat zen ez zuela loturarik Bilborekin, eta, beraz, gizarte-masa hura ezin zen gizarteratu; hala, gatazka larriak sortzen hasi ziren. 2000. urtetik, Otxarkoaga bereziki murgilduta dago berroneratze sozialerako plan garrantzitsu batean. Plan hori auzo-taldeek eta erakundeek sustatu dute, horien artean Udalak berak, alde horretako marjinalitate-egoera apaltzeko. Gaur egun, biztanleriaren zahartzeak eta emakumeen egoerak sortzen dute kezka, ez baitoaz bat hain bazter-alde ez diren gunetan izaten ari diren gizarteraurrerapenekin.

Garraibide azkar eta eraginkor bat eraikita, emakumeek modua izango dute hiriak lan egiteko eta ikasteko eskaintzen dituen aukera guztiei heltzeko, horregatik familiak arduratzeari utzi gabe. Gure gizarteak XX. mendean lortu dituen aurrerapen handienetako bat osasuna eta hezkuntza denok lortu ahal izatea bada, sor dezagun garraibide eraginkor bat abantaila horiek errazago eskuratu ahal izateko.

3. lineak iparraldeko auzuneak hiriaren erdialdearekin hamar minutuan konektatzen ditu, eta, gainera, Bilboko Trenbide Metropolitarrako 1. eta 2. lineetara aldatzeko aukera ematen du. Berdintasun bertikalari dagokionez, zona horretako orografia konplexuan irisgarritasunaren arazoa konpontzeko, zehaztutako geltokietan sartzeko hainbat kanoi sortu dira, eta estrategikoki ipini dira, eskari-guneei erantzuteko (anbulatorioak, ikastetxeak eta abar); horrez gainera, igogailuak dituzte, mugikortasun urriko pertsonen iristeko modua bermatzeko. Gainera, igogailu makurtu bat ipini da, eta tarteko geraleku bat egin da, bizilagunek hala

eskatuta, Etxebarriko anbulatoriora errazago sartu ahal izan dadin.

Bestalde, Matikon trenbideak sortutako hirigintza-oztopoa kenduko da, trenbidea estalita; hala, espazio berde bat sortuko da, eta kalearen bi ertzak konektatuko dira.

Donostiari dagokionez, hiriak 200.000 biztanle ditu, eta gunen metropolitarrak, berriz, 450.000 ditu. Estatuko trenbide-lineak ditu, okupazio eta eskari handikoak, Gros auzuneari eta inguruneari zerbitzua modu egokian ematen dietenak.

ETSren lineei dagokienez, arazorik handiena da ibilbidearen % 80 bide bakarrekoa dela, eta, beraz, ezinezkoa dela eskaintzen den baino zerbitzu gehiago ematea. Horrek zaildu egiten du zerbitzua hobetzea. Donostiako Amara auzunean, Bilbo-Donostia linea eta Lasarte-Hendaia lineak elkartzen dira (“topo” sonatua). Bi lineak elkarrekin konektatuta daude, eta, horregatik, beharrezkoa da trenez aldatzea, baldin eta Lugaritzetik Irunera bidaiatu nahi bada, esate baterako. Bi arazo horiek konpontzeko, maiztasuna eta linearen segurtasuna hobetzeko jarduketak egiten ari gara, “Donostialdeko metroa” izeneko esparru-proiektuaren barruan. Jarduketarik berritzaileena hauxe da: kontuan hartuta trenbideko garraioaren eskaintzak bereizkeria eta ekitate horizontalik eza dakarzkuela Donostiako erdialdean bizi direnei, hiru geltoki berri diseinatu dira, Kontxa, Ondarreta eta Unibertsitatea izenekoak; geltoki horietan, bi bideko ibilbide berri bat egingo da, Bilbo-Donostia linea eta topoa lotuko duena.

Dena dela, Donostialdeko metroa jadanik errealitate bat da, Loiola-Herrera tartean zertua; gainera, lurpeko geltoki berri bat izango da Intxaurren auzunean. Topoa

gaur egun auzune horren azpitik pasatzen da, tunel baten bidez, bide bakarrean, baina ez dago geltokirik. Intxaurrendoko berdintasun horizontala hobetzeko, tren-ibilbide berri bat definitu da, bi bidekoa, bai eta geltoki berri bat ere, autobidearen azpian; hala, sartzeko kanoiek auzuneko iparraldeari eta hegoaldeari emango diete zerbitzu, gaur egun A-8ak alde horretan sortzen duen arrakala gaindituta. Herrera ingurunekeo ibilbidea berrituta, eta horrekin batera Aldundiak eta Udalak egingo dituzten beste jarduketa batzuei esker, N-1 bulebarizatu egin ahalko da Herrera parean, eta, hala, auzo-erabilerarako oso degradatua dagoen espazio bat berroneratu ahalko da. Bestalde, jadanik amaitu dira Fanderia-Oiartzun tarteko lanak; horien bidez, hobetu egin da tren-ibilbidearen bizitegi-ingurunea, eta ezabatu egin dira alde ez-segurua Oiartzungo geltoki zaharraren sarbideetan; esate baterako, batez ere argi gutxi zegoen eta jende gutxi zebilen orduetan arriskua benetan agerikoa zela-eta emakume gehienei trenbide-gunera sartzeari eragozten zieten aldeak.

Azkenik, Gasteizko eredia daukagu; 230.000 biztanleko hiria da, eta Arabako Lurralde Historikoko gunerik garrantzitsua da. Ez du inguru metropolitarrik, baina nahiko biztanleria-gune garrantzitsuak ditu Altsasu-Miranda korridorean zehar; korridore hori estatuaren eskumenekoa da.

Hiria nabarmen hazi da azken 30 urtean, eta 2008. urtean tranbia-linea bat ipini zen eskari handieneko autobus-linearen ordean. Horren bidez, zerbitzu ematen zaie biztanle gehien duten auzuneei, hots, hiriko iparraldeko (Lakua; 30.000 biztanle), hirigunearekin konektatuta. Tranbia ez dugu jo behar autobusaren lehia gisa; bi moduak dira elkarren osagarri, eta eskariaren arabera justifikatzen dira.

Zergatik erabaki zen tranbia jartzea Gasteizen? Ez da Gasteiz “green capital” bat delako, ezta tranbiak modan daudelako ere, edo merkeagoa delako metroa baino, nahiz eta egia den hala dela.

Jasangarritasunaren eta eraginkortasunaren irizpideak kontuan hartuta, tranbia hautatu zen tarteko gaitasuna duen sistema bat delako; izan ere, autobus-linea batek baino eskari handiagoari erantzun diezaioke, nahiz eta ez metroko linea batek adina, zerbitzu-maiztasuna bideko semaforoek baldintzatzen dutenez gero. Beraz, autobusekin koordinatu behar dugu, zona bakoitzaren eskariaren arabera. Gainera, sistema eraginkorra da, bai langileria aldetik eta bai energia aldetik, eta modu pasiboan gidaturiko sistema bat da; beraz, hiri-espazio gutxiago hartzen du, eta irisgarritasun handiagoa, segurtasun handiagoa eta, azken batean, berdintasun handiagoa bermatzen du.

Gasteizko tranbia abian jartzeak aldaketa bat ekarri zuen emakume gasteiztar gehienen mugikortasun-ohituretan; hain zuzen, oinezko zirenak hiritar bihurtu ziren, garraio-sistema irisgarri, seguru, azkar eta eraginkor bat ezartzearen ondorioz.

Bilbon eta Donostian garrantzitsua da berdintasun horizontala, eta geltokiak kanpoaldearekin elkarreraginean dauden gune zehatzetara mugatzen da hiri-integrazioa; bada, tranbian, aparteko garrantzia hartzen du plataforma osoa barneratzeak. Alderdi hori behar bezala definitzeko, garrantzitsua da udal inplikatuarekin lanean modu jarraituan aritzea. Gasteizko kasuan, ibilbidea kalez kale aztertu zen, eta kasu bakoitzerako hainbat alternatiba aztertu ziren. Alternatibak kalifikatzeko, zerbitzuei, bidegurutzei eta zuhaitzei nola eragiten zieten hartu zen kontuan. Eraginak baloratu ostean, behin betiko ibilbidea adostu zen

inplikaturako erakunde eta langile tekniko guztiekin.

Nabarmendu behar da tranbia eraiki ondoren kale jakin batzuetan egindako jarduketetan udal langile teknikoek egin zuten lana. Kasu argienetako bat Gasteizko Antso Jakitunaren kalean egindakoa da. Hasieran, bide horrek gutxienezko parterre zentral bat eta norabide bakoitzeko bi zirkulazio-bide zituen, parterrearen albo banatan. Horrez gain, ilaran aparkatzeko lau banda zeuden. Kale hori luzetarako erabileraren edo autobide-kalearen etsenplu argia zen. Kale-mota hori disgregazio-elementu bat da; izan ere, bereziki autoa duten pertsonentzat pentsatua dago eta konexio-funtzioa besterik ez du; hala, suntsitu egiten du kale tradizionala, hiri-jarduera ugari biltzen dituen lekua: jolasa, aisialdia, komunikazioa, besteak beste. Luzetarako kaleak lekuak konektatzen ditu, baina erabilerak urruntzen ditu. Joan den mendean Le Corbusier-ek aldarrikatu zuen kalea da: “kalea mugimendurako makina bat da, pertsoneri mugitu ahal izatea bermatu behar dien fabrika bat”...; orduan zentzua zuen hiri sektoretan, industria kutsatzaileak bizitegi-zonetatik bereizteko; nahiz eta Le Corbusierrek beste erabilerak gela-unitateetara eramaten zituen, nire iritziz ezin diogu soil-soilik Le Corbusierri egotzi gaur egungo hirigintzaren errua.

Antso Jakitunaren kalea berroneratzeak —tranbia-plataforma kalearen alboetako batean barneratuta— bide eman du kale hori gizarte-erabilerarako berreskuratzeko; horretarako, bidegurutzeko ugari ezarri dira, oinezkoen zeharkako erabilera errazteko, eta,aldi berean, bere hartan utzi da sarbide mugatuko bide bat, bide-trafikoarentzat. Hiri-berroneratzeak bide ematen du geltokien parean bizikletarako aparkalekuak eta haurrentzako jolasguneak ipintzeko.

Plataformaz gain —berdea edo bukaera gogorrekoa izan daiteke—, tranbia-sistemaren puntu nabarmenak geralekuak dira. Kasurik gehienetan alboko bi nasa zehazten dira, edo nasa zentral bat, geltokia lineen intermodo bat izan badaiteke. Gainera, geltokiek, beiraz eta altzairu herdoilgaitzez eginak, bezeroa informatzeko sistema bat dute, Minutran deiturikoa. Horri esker, tranbiarekin elkarerraginean ari liteke geltokitik urrun dauden guneeetatik eta, hala, erabiltzaileek une oro dakite zenbat denbora itxaron behar duten trenara iritsi arte.

Ondorioz, uste dugu trenbideko garraioa, bere forma guztietan, onarpen-ahalegin handia ari dela egiten emakumeen premiei erantzuteko eta horrek onura ekarriko diela pixkanaka-pixkanaka garraio-bide hori erabiltzen hasten diren bidaiari guztiei, gizon zein emakume; ez alferrik, eraginkorra, jasagarria, ekonomikoa eta berdintasunezkoa dela irizten diote.

Berdintasuna da bidea.



5

Hirigintza barneratzailearen
etorkizunerako ildo giltzarriak

5.1. Etorkizuneko joerak

Reina Ruiz, aholkularia, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea

I. BERDINTASUN-PRINTZIPIOA ESTATUKO ETA AUTONOMIAKO ORDENAMENDU JURIDIKOAN

Berdintasunaren printzipioa, bai eta sexuaren ziozko bereizkeria ororen esanbidezko debekua ere, estatuko eta autonomietako hainbat arau juridikotan daude jasota.

Estatuko lege-esparruari dagokionez, hasiko gara esanez 1978ko Espainiako Konstituzioak, lehenengo artikuluan, ordenamendu juridikoko lau balio gorenen artean sartzen duela berdintasuna, askatasunarekin, justiziarekin eta pluralismo politikoarekin batera.

Alde horretatik, 14. artikulua de iure berdintasuna aldarrikatzen du, hots, emakumeak eta gizonak berdinak direla legearen aurrean, eta xedatzen du ezin dela besteak beste sexuaren ziozko bereizkeriarik egin.

Bestetik, 9.2 artikulua xedatzen du botere publikoei dagokiela inguruabar zehatzak sustatzea gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoa eta eragingarriak izan daitezen; horretarako, eskumena ematen die oztopoak kentzeko, horiek eragotzi edo zaildu egiten badute berori lortzea, hau da, de facto berdintasuna lortzea; hots, emakumeen eta gizonen berdintasun benetakoa eta eragingarria lortzea.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak (1) (aurrerantzean, Berdintasunerako Lege Organikoa) berdintasunaren printzipioa garatzeko jarduketa-printzipioak ezartzen ditu botere publikoentzat, pertsona fisiko eta juridiko publiko

zein pribatuen eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu, eta neurriak aurreikusten ditu sektore publiko eta pribatuetan sexuaren ziozko bereizkeria-modu oro deuseztatzeko eta zuzentzeko. Lege horretaz gain, badira hainbat esku-hartze eremu, sektore-izaerakoak, zuzenean edo zeharka berdintasunaren printzipioaren garapenarekin zerikusia dutenak eta lege bidez ere arautu direnak, hala nola familia eta lana bateragarri egitea, emakumeen aurkako indarkeria eta mendeko pertsonentzako arreta; horrez gainera, generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazioa arautu da arau-xedapenetan (2).

Tokiko esparruan, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legeak (3) 28. artikuluan ezartzen du udalerriek berez beste administrazio publiko batzuei dagozkien jarduera osagarri batzuk egin ditzaketela, bereziki emakumearen sustapenari buruzkoak, beste batzuen artean.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak (4) 9.1 artikuluan, Espainiako Konstituzioan xedatutakora igorritz, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik ez pairatzeko eskubidea aldarrikatzen du; eta 9.2.d artikuluan euskal botere publikoei exijitzen die har ditzatela neurriak gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen

(1) 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerakoa (BOE, 71. zenbakia, 2007ko martxoaren 23koa).

(2) 30/2003 Legea, urriaren 13koa, Gobernuak egiten dituen arau-xedapenetan genero-eraginaren balioespina jasotzeko neurriei buruzkoa (BOE, 246. zenbakia, 2003ko urriaren 14koa).

(3) 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa (BOE, 1985eko apirilaren 3koa).

(4) 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena (BOE, 1979ko abenduaren 22koa).

askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezten sustatzeko eta oztupoak kentzeko. Bestalde, Gernikako Estatutuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusibokoak diren arloen artean, 10. artikuluko 39. idatz-zatian “emakume kondizioa” jasotzen da.

Eusko Legebiltzarrak, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea onartuta (5), zioen adierazpenean aurreikusten duen bezala, lehentasunezko zatitza jo zuen emakumeen aurkako bereizkeria-modu guztiak modu eragingarrian deuseztatzea eta beharrezko neurriak ezartzea berdintasunaren printzipioa lortzeko.

Azkenik, garrantzi handikoa da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (6) aipatzea (aurrerantzean, 4/2005 Legea). Lege hori VII. Legegintzaldian onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta, horren bidez, euskal botere publikoek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan zein printzipio orokorren arabera jardungo duten ezarri zuen; horretaz gain, neurri-multzo bat ezarri zuen emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna bizitzaren esparru guztietan sustatzeko eta bermatzeko, eta, batez ere, autonomia sustatzeko eta emakumeen egoera sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko.

Berdintasun-politikari buruzko erreferentziako legeria zuzenekoena ikusi ostean, arestian esandakotik bi ondorio handi ateratzen dira:

1. batetik, botere publikoek badutela lege-gaitasuna esku hartzeko
2. eta, bestetik, erantzukizun publikoa.


II. GENERO-IKUSPEGIA EUSKAL POLITIKETAN

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea (aurrerantzean, Emakunde) Lehendakaritzari atxikitako erakunde autonomo gisa sortu zen, berori sortzeko Legearen bidez (2/1988 Legea, otsailaren 5koa). Lege horretan ezartzen denez, haren funtsezko xedea da emakumeen eta gizonen berdintasun benetakoa eta eragingarria lortzea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren eremu guztietan. Lehen, lege horretan erakundearen eginkizunak ezartzen ziren, baina horiek gerora aldatu egin zituen 4/2005 Legeak, eta, dokumentu honen ondorioetarako, eginkizun horien artean aipatu beharrezkoa da arlo politiko guztietan genero-ikuspegia txertatzeko metodoen diseinua.

Politika publikoetan genero-ikuspegia barneratzeari dagokionez, 4/2005 Legeak xedatutakoaren arabera, euskal botere publikoek berdintasunaren arloan egiten duten jarduna nahiz euskal botere publikoekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak sinatzen dituzten edo haiek emandako laguntzen edo diru-laguntzen onuradun diren entitate pribatuaren jarduna gidatu eta bideratu behar duten zortzi printzipio nagusietako bat da hori. Eta, hala, 3.4 artikulua ezartzen du bai euskal botere publikoek eta bai aipaturiko entitateek genero-ikuspegia txertatu behar dutela beren politika eta ekintza guztietan, horietan guztietan ezarri ahal izan dadin emakumeen eta gizonen berdintasun oro deuseztatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.

(5) 2/1988 Legea, otsailaren 5koa, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko dena (EHAO, 1988ko martxoaren 4koa), 4/2005 Legearen bidez aldatua.

(6) 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako (EHAO, 42. zenbakia, 2005eko martxoaren 2koa).



Aipaturiko legearen eraginetarako, genero-ikuspegia txertatzeak esan nahi du sistematikoki hartuko direla kontuan emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta premia desberdinak, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan barneratuko direla desberdintasunak deuseztatzeke eta berdintasuna sustatzeko helburuak eta jardun espezifikoak, maila guztietan eta plangintzaren, gauzatzearen eta ebaluazioaren fase guztietan.

Eta, hala, 4/2005 Legeak bai Autonomia Erkidegoko Administrazioari (5.a artikulua) eta bai Foru Administrazioari (6.a artikulua) eta Tokikoari (7.a artikulua) esleitzen dizkien funtzioen artean sartzen da administrazio-jardueran genero-ikuspegia txertatzeko egiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea.

Generoaren zeharkakotasuna edo mainstreaminga Nazio Batuetako Emakumeen Izaera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak proposatu zuen lehen-lehenik, 1987an. Geroago, beren-beregi hartu zen estrategia orokor gisa, epe ertainera emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna lortzeko Europar Batasuneko III. Ekintza Programaren (1991-1995) esparruaren barruan. Alabaina, esan liteke mainstreaminga 1995ean sartu zela behin betiko nazioarteko politikaren agendan, Pekinen izandako Nazio Batuetako Emakumei buruzko IV. Mundu Konferentzian onartutako Ekintza Plataformaren bidez. Horren bidez, berariaz eskatu zitzaizen gobernuari sar zezatela genero-ikuspegia beren jarduketetan.

Mainstreaming kontzeptuak hainbat adiera ditu, definizioan zer elementu azpimarratzen diren. Hala, ikuspegizat jo liteke, oinarritzko printzipiotzat daukana emakumeen eta gizonen bizi-baldintzen eta egoera sozial, ekonomiko eta kulturalen arteko desberdintasunak aintzatestea eta


kontuan hartzea esku-hartze publikoaren fase guztietan, hau da, berdintasuna lortzeko politika publikoak erabakitzean, planifikatzean, gauzatzean eta ebaluatzean. Aldi berean, estrategiatzat har liteke, eremu guztietan eta botere publikoen jarduketa-aldi guztietan berdintasuna zeharka aplikatzea xede duena. Estrategia hori prozesu konplexu baten bidez lantzen da; prozesu horretan, beharrezkoa da erabakiak hartu behar dituzten erakunde- eta gizarte-eragile guztiak lankidetzan aritzea eta ados egotea, eta emakumeek ere erabateko parte-hartzea izan behar dute. Gogoeta horiek kontuan hartuta, mainstreaminga honela definitu da:

“Prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, halako moldez non genero-berdintasunaren ikuspegia politika guztietan txertatzeko duten, maila eta etapa guztietan, neurri politikoak hartzeko zeresana duten eragile guztiek” (Europako Kontseilua, 1998) (7)

Hala, mainstreaminga aldi berean da helburu bat, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea, eta erabakiak hartzeko era hobetzeko tresna bat, hau da, prozesu politiko gisa eta prozedura tekniko gisa ulertu behar da.

Oro har, mainstreaminga tresna gisa definitu eta jarri izan dute praktikan gobernuak. Ikuspegi horretatik, mainstreamingaren estrategia elementu hauek eratzen dute: sustapen-egitura espezifikoaren sorrera, egitura horiek ezartzeko koordinazio-mekanismoen garapena, ezagutza teknikoa, datu eta estatistiken produkzioa, lan-prozeduren

(7) EUROPAKO KONTSEILUA, Mainstreaming de género. Marco conceptual, metodología y presentación de “buenas prácticas”. Genero-mainstreamingeko aditu-taldearen jardueri buruzko azken txostena (EG-S-MS), Emakumearen Institutua, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, Dokumentuak Saila, 28. zenbakia, Madril, 1999.



eta gidaliburuen lanketa eta abar. Eredu horren indargune nagusia esperotako eraginkortasuna da; izan ere, ezagutza sakon eta zehatz bat sortzen du gizarte-testuinguru bakoitzaren inguruan, eta erakusten du berdintasuna bai emakumeentzat eta bai gizonentzat dela positiboa, gizarte bidezkoagoak sortzen laguntzen du, hobetu egiten ditu produktibitatea eta hazkunde ekonomikoa, pertsonen ahalmen osoa garatzea ahalbidetzen du eta baliagarria da erakundeen kudeaketa hobe bat sortzeko, azken batean, gai publikoen gobernu on bat lortzeko.

Programa edo politikak efizienteak eta eraginkorrak izan daitezten edo emaitzak lortzeko gai izan daitezten, ondo mugatu behar da xede-biztanleria, eta programa edo politika horiek diseinatzeko eta ezartzeko orduan emakumeen eta gizonen arteko ezaugarri bereizleak ezagutu behar dira. Gobernantzaraz eta hainbat kezka eta interes barneratzeaz hitz egiten denean, komeni da gogoraraztea emakumeek eta haien lehenetsunak ez dutela osatzen gutxiengo talde bat eta haren interesak, baizik eta gaur egungo garapen- eta hazkunde-eredu mugatzaileetatik bereizi nahi duen gehiengo legitimo eta isildu batenak.

Ikusmolde horretatik, mainstreamingak zuzenean konektatzen du gobernantzaren ideiarekin; hain zuzen, kontzeptu hori gero eta gehiago erabiltzen da, honako hau izendatzeko: botere publikoen esku-hartzearen eraginkortasuna, kalitatea eta orientazio ona, botere publikoei beren legitimitatearen oinarria ematen diena batzuetan “gobernatzeko modu berri” gisa definitzen den horretan. Gobernantzaren kontzeptuaren ardatza erabakiak hartzea eta erabakiak ezartzeko ondoko prozesua da, hau da, administrazioak berdintasun-politiken arloan gobernu ona ziurtatzeko abian jartzen dituen mekanismoak.

III. EUSKAL ADMINISTRAZIOETAKO BERDINTASUNERAKO EGITURAK ETA PLANGINTZAK, POLITIKETAN GENERO- IKUSPEGIA TXERTA DADIN SUSTATZEKO.

4/2005 Legeko 9. artikulua ezartzen du Emakunde dela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatzeko, aholkuak emateko, planifikatzeko eta ebaluatzeko erakunde arduraduna, eta haren eginkizunak lege horretako azken xedapenean (8) zehazten dira.

Horretaz gain, Legeak ezartzen du egokitu egin behar direla Foru Administrazioaren eta Toki Administrazioaren egiturak, beren autoantolaketa-eskumenen esparruan, bakoitzean gutxienez entitate, organo edo unitate administratibo bat izan dadin, emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak sustatzeko, programatzeko, aholkuak emateko eta ebaluatzeko, beren lurralde-esparruetan eta/edo jarduketan arloetan.

Bestalde, Autonomia Erkidegoaren Administrazioari dagokionez, 4/2005 Legeak ezartzen du Eusko Jaurlaritzak ere egokitu egin behar dituela bere egiturak, behintzat bere sailtako bakoitzean unitate administratibo bat (9)

(8) 4/2005 Legearen azken xedapenak aldatu egin zituen Emakunderen eginkizunak, Emakumearen Euskal Erakunde sortzeko otsailaren 5eko 1988/2 Legeko 3. artikuluan jasotzen zirenak.

(9) Eusko Jaurlaritzako sailtan, organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten unitate administratiboak arautzen dituen azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak (EHAO, 241. zenbakia, 2007ko abenduaren 17koa) ezartzen ditu haren eginkizunak. Hain zuzen, haren lanaren xedea 4/2005 Legea eta Eusko Jaurlaritzak onartutako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Plana bete dadin bultzatzea, koordinatzea eta laguntza ematea izango da.

izan dadin saileko zuzendaritzekin eta arloekin eta hari atxikitako erakunde autonomo, ente publiko eta organoekin halako politikak sustatzeaz, koordinatzeaz eta lankidetzan aritzeaz arduratuko dena.

Ikus dezakegunez, sustapenerako lan-egiturak dira, eta haiei dagozkie berdintasun-politikak planifikatzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko eginkizunak ere. Eta, hala, berdintasun-egitura horiek arduratuko dira administrazio publikoak berdintasunaren arloan onartzen ari diren plangintzak egin daitezten sustatzeaz. Plangintza horrek laneko helburuak eta neurriak ezartzen ditu, eta horiek betetzea antolaketako sail guztiei dagokie, esate baterako hirigintza sailari, helburuen eta neurrien arabera. Horregatik, berdintasunerako planak edo programak egitean parte hartzen dute langile politiko eta teknikoek ere.

Hala, 4/2005 Legeak ezartzen du Eusko Legebiltzarrak legegintzaldi bakoitzean plan nagusi bat onartu behar duela, eta horren bidez modu koordinatu eta orokorrean bilduko direla euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan jardutean kontuan hartu beharko dituzten ekintza-ildoak eta jarraibideak.

Horrez gainera, adierazten du ekintza-ildo eta jarraibide horiek garatzean Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak, bai eta aldundiek eta udalek ere, berdintasunerako planak edo programak egin eta onartu beharko dituztela, aurreko paragrafoan aipaturiko plangintzarekin bat etorritz; beraz, plan edo programak onartu aurretik, horiei buruzko txostena egin beharko du Emakundek, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi bakoitzean onartutako plan orokorrean aurreikusitako ekintza-ildoei eta jarraibideei egokitzen ote zaien ebazteko.

Eusko Jaurlaritzak, Emakunde sortuz geroztik, honako plangintza hau onartu du berdintasunaren arloan:

1. EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboen Plana (1991-1994). Eusko Jaurlaritzak 1991ko maiatzaren 17an onartua.
2. EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboen II. Plana. Eusko Jaurlaritzak 1995eko abenduaren 29an onartua.
3. EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboen III. Plana. Genero-ikuspegia politika publikoetan. Eusko Jaurlaritzak 1999ko abenduaren 21ean onartua.
4. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana – VIII. Legegintzaldiko Jarraibideak. Eusko Jaurlaritzak 2006ko irailaren 26an onartua.
5. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana – IX. Legegintzaldiko Jarraibideak. Eusko Jaurlaritzak 2010eko ekainaren 29an onartua.

Plangintza horretaz gain, adierazi behar da hiru foru aldundiek dituztela berdintasunerako planak.

1. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana (2010-2014).
2. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana (2009-2011).
3. Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana (2008-2011).

Bestalde, Tokiko Administrazioak esperientzia handia du emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko plangintzari dagokionez. Berdintasunaren arloan dauden udal plan guztiak xeheki azaltzea zaila denez, ondoko grafikoetan emango dugu informazioa; hain zuzen, berdintasunerako plana zenbat udalerririk duten eta udalerririk horiek zenbat biztanle dituzten zehazten da plan horietan.


Beharrezkoa da adieraztea dokumentu horien esparruan administrazioak hainbat helburu eta neurri ari direla onartzen hirigintza-sailetarako, haien jarduna berdintasun-printzipiora egokitzeko eta, era horretara, emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua garatzen laguntzeko. Helburu eta neurri espezifiko horietaz gain, berdintasunerako plan edo programek neurri horizontalak jaso ohi dituzte antolaketa osorako, hala nola “sexua” aldagaia barneratzea azterlan eta estatistiketan, genero-berdintasunean espezializatutako prestakuntza ematea, generoaren araberrako eragina ebaluatzea eta arloko planetan edo plan estrategikoetan genero-ikuspegia barneratzea, antolaketako sail guztiek —esate baterako hirigintzakoak— izan dezaten ezagutza eta behar besteko gaitasuna beren politika berdintasun-printzipiora egokitzeko.

Esan dugun bezala, ondoren hainbat grafiko erakutsiko ditugu Tokiko Administrazioan berdintasunerako planen errealitatea zein den azaltzeko. Horrez gainera, plangintza horrek zenbat biztanle hartzen dituen ere zehazten da.

Nahiz eta oso gutxi diren berdintasunerako planen bat duten Arabako udalerririk (51tik 9), grafikoan ikus daitekeenez, Arabako biztanleen %87 berdintasunerako plana baduten udalerrietan bizi dira. Horren arrazoia da Arabako udalerririk txikiak direla eta horrek zaildu egiten duela berdintasun-


politikak ezartzeko aukera, beren politikak garatzeko baliabide urriak dituztela eta.

Berdintasunerako plana baduten Arabako udalerririk



1. grafikoa. Berdintasunerako plana baduten Arabako udalerririk – 2011ko azaroa


Berdintasunerako plana baduten udalerrietan bizi diren arabarrak



2. grafikoa. Berdintasunerako plana baduten udalerrietan bizi diren Arabako biztanleak – 2011ko azaroa

Bizkaiari dagokionez, berdintasunerako plana baduten udalerriak 78 dira 112tik, eta biztanleen %95 hartzen dituzte.


Berdintasunerako plana baduten Bizkaiko udalerriak



3. grafikoa. Berdintasunerako plana baduten Bizkaiko udalerriak – 2011ko azaroa


Gipuzkoan, berdintasunerako plana baduten udalerriak 29 dira, 88tik. Berdintasunerako plana baduten udalerrietan 551.480 pertsona bizi dira, hau da, Gipuzkoako biztanleria osoaren %78.

Berdintasunerako plana baduten udalerrietan bizi diren gipuzkoarrak




5. grafikoa. Berdintasunerako plana baduten Gipuzkoako udalerriak – 2011ko azaroa

Berdintasunerako plana baduten udalerrietan bizi diren bizkaitarrak



4. grafikoa. Berdintasunerako plana baduten udalerrietan bizi diren Bizkaiko biztanleak – 2011ko azaroa


Berdintasunerako plana baduten udalerrietan bizi diren gipuzkoarrak



6. grafikoa. Berdintasunerako plana baduten udalerrietan bizi diren Gipuzkoako biztanleak – 2011ko azaroa


Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan 116 udalerri daukate berdintasunerako planen bat, 251 udalerritik. Biztanleriari dagokionez, horren baliokide da esatea udalerrietan bizi diren 1.920.569 pertsonak dutela berdintasunerako planen bat, hau da, biztanleriaren %88k.

Berdintasunerako plana baduten EAEko udalerriak



7. grafikoa. Berdintasunerako plana baduten EAEko udalerriak – 2011ko azaroa

Berdintasunerako plana baduten udalerrietan bizi diren EAEko biztanleak



8. grafikoa. Berdintasunerako plana baduten udalerrietan bizi diren EAEko biztanleak – 2011ko azaroa

IV. HIRIGINTZAREN ETORKIZUNEN ETORKIZUNENKAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN HELBURUARI DAGOKIONEZ, BERDINTASUNERAKO EUSKAL PLANGINTZAREN ESPARRUAN

Lehen-lehenik, adierazi behar dugu 4/2005 Legeko 46. artikulua hirigintzan genero-ikuspegia barneratzeko beharra jasotzen duela; izan ere, politika hori ez da neutroa, suposa litekeen bezala, emakumeentzako berdintasunari dagokionez. Horrekin lotuta, honako hau dio: “Euskal herrigintzaren beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere”.

Bestalde, Eusko Legebiltzarreko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Batzordeak, 2011ko martxoaren 9an, aho batez onartu zuen Ezker Batua Berdeak talde parlamentario mistoak aurkeztutako legez besteko proposamen bati egindako zuzenketa transakzional bat. Horren bidez, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion gara zezala Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, printzipio unibertsalarekin bat etorritik, eta, horren barruan, berariaz aurreikus zezala generoaren eraginari buruzko ebaluazioa barneratzea hirigintza-planetan eta obra-proiektuetan.

Alde horretatik, 4/2005 Legeak jadanik jasotzen du generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioak egiteko beharra, eta adierazten du hori sustatuko



duen administrazio- edo egintza-arau bat egin aurretik proposamenak emakumeen eta gizonen egoeran nola eragin dezakeen ebaluatu behar dela, sustatu den arauak edo egintzak berdintasunaren helburuan ondorio positiboa edo negatiboa izango duen ikusteko, eta, hala badagokio, ondorio negatiboaren aurka egingo duten neurriak ezartzeko, bai eta detektatutako desberdintasuna gutxitu eta ezabatuko duten eta berdintasuna sustatuko duten beste batzuk ezartzeko ere.

Bestalde, Berdintasunerako Lege Organikoak ere adierazten du administrazio publikoek kontuan hartuko dutela genero-ikuspegia hiriaren diseinuan, hiri-politikan, hirigintza-plangintzaren definizioan eta burutzapenean, horretarako bereziki herritarren parte-hartzea eta gardentasuna sustatu eta lagunduko duten mekanismoak eta tresnak erabiliz.

Horren emaitza gisa, honako hau dio ekainaren zoko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onesten duenak:

2. artikulua: Lurzorua arautu, antolatu, okupatu, eraldatu eta erabiltzeari buruzko (...) politikek baliabide naturalen arrazoizko erabileraren alde egin behar dute, ekonomia, enplegu, gizarte kohesio, gizon eta emakumeen arteko tratu- eta aukera-berdintasun, pertsonen osasun eta segurtasun, eta ingurumenaren babesaren eskakizunak harmonizatuz (...).

10. artikulua: Administrazio publikoek, eta bereziki lurralde- eta hirigintza-antolamenduan eskudun direnek, honako hauek egin beharko dituzte: (...) Lurzoruaren erabileren antolamendua egiten dutenean, honako printzipio hauei erantzutea: (...) emakume eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna.

Lege-esparrua hirigintza berdintasunaren printzipiora egokitzeko ematen ari den bultzadak leku argi bat du emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko plangintzan. Berdintasunerako foru eta toki plan guztietan jasotzen diren helburuak eta neurriak biltzea ezinezkoa denez, “EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legealdirako Jarraibideak” izeneko planean jasotako helburuak aipatuko ditugu soil-soilik. Ez dezagun ahantzi, jadanik adierazi dugun bezala, euskal botere publikoek IX. Legealdian berdintasunaren arloan izango duten jarduna bideratzeko ekintza-ildoek eta jarraibideek osatzen dutela plangintza hori, eta, beraz, etorkizun hurbilerako erronka direla.

Berdintasunerako V. Plana, jadanik ikusi dugun bezala, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasuna planifikatzen duen tradizio luzearen oinarria da, eta izaera orokorra du; hain zuzen, helburu estrategikoak eta operatiboak zehazten ditu; horiek betetzeko, botere publiko guztiek esku hartu behar dute IX. Legealdian zehar. Beraz, plan gidari izateko bokazioz sortu da. Hau da, xedea ez da adieraztea nola garatu behar diren berdintasun-politikak, baizik eta adieraztea zer gizarte-aldaketa lortu nahi diren IX. Legealdian; horri jarraituz, Eusko Jaurlaritzako, foru aldundietako eta udaletako berdintasunerako plan estrategikoetan zehaztuko dira esku hartzeko estrategiak, lan-prozesuak eta planteatutako erronkak lortzeko garatu beharreko jarduketak, haien esku-hartze esparruaren, eskumenean eta jarduketa-lurraldearen esparruan.

Lan-estrategia, Berdintasunerako V. Planaren egiturak zehaztutakoa, berdintasun-politika publikoek sustatutako estrategia duala da:

1. Berdintasunaren zeharkako politikak; hau da, euskal politika publikoetan genero-ikuspegia barneratzeari dagokion garapena. Eta, hala, Berdintasunerako V. Planak hasierako arlo bat ezartzen du: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza; bertan, berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko helburuak zehazten dira.

2. Berdintasun-politika espezifikoak, ekintza positibo edo neurri espezifiko bidez, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburuan aurrera egiteko. Idatz-zati horretan, Berdintasunerako V. Planak, berdintasunerako politika espezifikoaren garapenean, esku hartzeko hiru ardatz ezartzen ditu:

- emakumeen jabeak eta balio-aldaketa
- gizarte-antolaketa erantzukidea
- emakumeen aurkako indarkeria

Azken bi ardatz horietan ezartzen ditu Berdintasunerako V. Planak hirigintzarekin zuzenean loturiko helburu estrategikoak eta operatiboak.

Ondoren, Berdintasunerako V. Planak ezartzen dituen helburuak aipatzen dira:

1.II. ardatza: Gizarte-antolaketa erantzukidea

5.3 helburu estrategikoa: Hirigintza-plangintza eta herritarrei zuzendutako zerbitzuak aldatzea, lana eta familia modu erantzukidean bateragarri egitea errazteko.

a) 5.3.1 helburu operatiboa: Biztanleek eguneroko jarduerak

egiteko joan-etorrietan igarotzen duten denbora gutxitzea.

Inplikaturako erakundeak

- Eusko Jaurlaritza: Etxebizitza Saila; Industria Saila; eta Osasun eta Kontsumo Saila.
- Foru aldundiak eta udalak..

b) 5.3.2 helburu operatiboa: Hirigintza-plangintzarako eta garraio-diseinurako irizpideak identifikatzea eta aplikatzea; hain zuzen, irizpide horiek erraztu egin behar dute lana eta familia modu erantzukidean bateragarri egitea eta pertsonen autonomia sustatzea.

Inplikaturako erakundeak:

- Eusko Jaurlaritza: Etxebizitza Saila; eta Industria Saila.
- Foru aldundiak eta udalak.

2. III. ardatza: Emakumeen aurkako indarkeria

Helburu estrategikoa: 6.2: Indarkeria-portaeren prebentzioa hobetzea.

6.2.3 helburu operatiboa: Emakumeak seguru sentitzen ez diren lekuak dituzten eta horiek neutralizatzeko neurriak ezartzen dituzten udalerrien kopurua areagotzea, bai eta irizpideak ezartzea ere, emakumeak seguru sentituko ez diren leku gehiagorik sor ez dadin.

Inplikaturako erakundeak:

- Eusko Jaurlaritza: Etxebizitza Saila; eta Industria Saila.

- Foru aldundiak eta udalak

Baina, horretaz gain, Berdintasunerako V. Planak, berdintasunerako gobernantzaren esparruan, euskal administrazioetako politika guztiak inplikatzeko dituzten hainbat helburu ezartzen ditu.

Ondoren, interesgarriago izan daitezkeen edo hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko helburuan inplikazio zuzenagoa duten helburuak soilik aipatuko ditugu.

G.4: Genero-ikuspegia barne hartzen duten estatistika eta azterlanen portzentajea areagotzea.

G.5: Genero-ikuspegia barneratzen duten administrazioen prestakuntza-ekintzen portzentajea eta berdintasunaren arloko prestakuntza-ekintza espezifikoen kopurua eta intentsitatea areagotzea, prestatutako taldeak dibertsifikatuta.

G.8: Generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa barne hartzen duten arauen eta berdintasuna sustatzeko neurriak dakartzaten arauen kopurua areagotzea.

G.10: Diseinu-, ebaluazio- eta kudeaketa-prozesuetan genero-ikuspegia txertatzen duten arloko eta zeharkako planen portzentajea areagotzea, bereziki premia bereziak dituzten eta bereizkeria anizkoitza pairatzeko arriskuan dauden taldeak kontuan hartuta.

Euskal administrazioetako hirigintza sailek halakoak garatzen badituzte, eta, horrekin batera, sail horien eta Euskal Administrazioetako hiru mailetako berdintasunerako zerbitzu edo unitateen arteko lankidetzaren indartzen

bada, erraztu egingo da berdintasunerako plangintzetan ezarritako helburuak betetzeko modua emango duten jardunak ezartzea eta, beraz, IX. Legealdirako hirigintza-politiken esparruan proposatu diren erronkak betetzea.

Eta, hala, hirigintza berdintasun-printzipiora egokitzea lagungarri gertatuko da, ezinbestean, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua garatzeko.

5.2.

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa

Marta Zamacona, Ebaluazio arduraduna, S&F eta **Iera Azkarate**, Berdintasun Proiektuen koordinatzailea, S&F

Hitzaldi hau bi ataletan planteatu dugu, eta bereiz aurkeztuko ditugu nire lankideak eta biok. Lehenik eta behin, ebaluazioa kudeaketa publikoaren tresna giltzarri dela ikusaraziko dugu; eta, bigarrenik, hurbilketa zehatzagoa egingo dugu genero-ikuspegipeko ebaluaziora, eta berariaz generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluaziora, lege-eskakizun gisa.

Lehenengo zatiaren helburua da politika publikoen ebaluazioa testuinguruan kokatzea. Oso arlo zabala bada ere, gure helburua da ideia argi batzuk azaltzea haren garrantziaz, baliagarritasunaz, ebaluazioaren kontzeptuak denboran zehar izan duen bilakaeraz, ebaluatzeko tipologiaz eta irizpidez, tresna horren mugez edo arazoez, eta, amaitzeko, ohar praktikoa batzuk egingo ditugu ebaluazio bat egiteko orduan kontuan hartu behar diren alderdiei buruz.

POLITIKA PUBLIKOEN EBALUAZIOAREN KONTZEPTUA

Definizio asko daude, eta guk Europako Batzordearena hautatu dugu:

- Politika publikoen ebaluazioa honela defini daiteke: erakunde publikoen jarduketak baloratzea, horien bidez asebate nahi ziren premiei dagokienez zer emaitza eta eragin izan diren kontuan hartuta.
- Tresna sistematiko bat da, erabakiak hartzeko ebidentzietan oinarritutako informazio-oinarri zorrotz bat ematen duena.

(Europako Batzordea, 2007)

Azken batean, politika baten edo esku-hartze publiko jakin baten funtzionamendua ezagutzeko behaketa-, neurri-, analisi- eta interpretazio-prozesu bat da, haren gizarte-baliagarritasunari buruzko balorazio-judizio bat lortzea xede duena.

Ebaluazioa jarduera espezifiko bat da, identitate propioa duena, eta argiro bereizi behar da beste batzuetatik, hala nola barne-kontroletik, jarraipenetik edo finantza-auditoretzatik.

ZERTARAKO EBALUATU POLITIKA PUBLIKOAK?

Kontzeptu aldetik, politika publikoen ebaluazioa planteatu zenetik, ikuspegia aldatu egin da: lehen lege-betebehar bat zen (eskakizun bat, ezarria, bete beharra zegoena), baina ez zuen bestelako garrantzirik edo baliagarritasun errealik; orain, berriz, tresna politiko bat da, eta fase aurreratuago batean —gaur egun hala gaude eremu askotan—, ebaluazioa guztiz garrantzizkotzat jotzen da politika publikoen arduradun eta kudeatzaileentzat erabakiak hartzeko tresna gisa, eta, aldi berean, garden izateko eta herritarrek parte hartzeko tresna gisa.

ZER GARRANTZI DU GAUR EGUN POLITIKA PUBLIKOEN EBALUAZIOAK?

Gaur egun, administrazio publikoak modernizazio-prozesu batean murgilduta daude; prozesu hori funtsezkoa da kudeaketa publiko eraginkorra lortzeko bidean.

Gobernantza ona edo gobernu ona deitu dugun horren osagai bat gehiago da.

Alde horretatik, ebaluazioa tresna lagungarria da honetarako:

- Esku-hartze publikoak gardenago egiteko.
- Hain zuzen, hartutako erabakiei arrazionaltasuna eta koherentzia ematen die, eta, beraz, legitimatu egiten ditu;
- Bide ematen du baliabideak modu efiziente eta eraginkorragoan erabiltzeko,
- eta erraztu egiten du herritarrek erakundeetan parte har dezaten.

Jakina, krisi ekonomikoko garai hauetan, gizarteak neurri handiagoan eskatzen du bere dirua zertan gastatzen den eta gastu horrek zer eragin eta hobekuntza sozial ekarriko dituen jakiteko eskubidea.

Azkenik, berrikuntzarako akuilu da, helburuak diseinatu eta zehazteari dagokionez eta politika publikoak antolatu eta kudeatzeari dagokionez.

ZEIN DIRA EBALUAZIOAK EMATEN DITUEN ONURA ESANGURATSUENAK?

1. Lehenik eta behin, erabakiak hartzeko informazio baliagarrien oinarri zorrotz bat eskaintzen du, esate baterako zerbitzu baten benetako eskariari buruz, proiektu baten eta are erabaki bat hartzearen edo ez hartzearen bideragarritasunari buruz, besteak beste alternatiba eraginkorrena hautatzeko.
2. Ebaluazioa egiten den unearan arabera, gauzatutakoa eta planteatutako helburuak zenbateraino datozen bat azter daiteke, eta horrek bide emango du neurri zuzentzaileak hartzeko edo etorkizunari begira erabakiak hartzeko.

3. Baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzeko modua ematen du, eta, beraz, aurreztekoa.
4. Bide ematen du aurrera eramane beharreko edo jadanik ezarritako esku-hartze baten indarguneak eta ahulguneak ikusteko, eta, hala, neurri zuzentzaileak hartzeko, ezarpenak irauten duen bitartean, edo esku-hartze bat hasteko erabakia hartzeko.
5. Xede-biztanleriaren edo ingurunearen gaineko ondorio edo eraginak neur daitezke.
6. Proiektuaren arrakasta balora daiteke, hautatu den ikuspegitik.
7. Jarduketa baten jasangarritasuna epe labur, ertain eta luzera kalkulatu edo neur daiteke.

POLITIKA PUBLIKOEN EBALUAZIOAREN KONTZERTUAREN IBILBIDEA EDO EBOLUZIOA

Jakina, ez da ibilbide orokortu bat administrazio publikoetan, baina bai joera bat.

Hasieran, jarraipen-lan huts gisa hartzen zen: aldizkako barne-txostenak egiten ziren, eta horietan egindako lanak eta planteatutako helburu partzialen betetze-maila adierazle doitu samar batzuekin neurtzen ziren. Lehenengo pausoak ziren, oso mugatuak oraindik.

Europar Batasunak, laurogeiko hamarkadan, araudi bidez arautu zituen funts estrukturalen ebaluazioak, eta, haren eraginez, izugarri areagotu da ebaluazioaren garrantzia eta irismena:



Lehenengo etapan, izaera zertxobait kanpoaldekoagoa izan du, irizpide kualitatibo gehiago erabili da, ez bakarrik kuantitatiboak; bigarren etapan, neurri handi batean gaur egungo etapan, ebaluazioa erabakiak hartzen laguntzeko tresna da, modu sistematikoan ebaluatzen da, metodologia homogeenagoak sortzen dira, irizpide berriak sartzen dira, hala nola administratuaren gogobetetzea, kalitatea eta abar, emaitzak gehiago jendarteratzen dira.

Azkenik, gaur egun zenbait eremutan —baina, batez ere, hori da gaur egungo eta etorkizuneko joera— ebaluazioa gobernu onaren ezinbesteko tresnatzat hartzen da, eta guztiz barneraturik dago plangintzan eta esku-hartze publikoen bizitzan, garatzen ari diren politikak baloratu eta neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izan daitezen, bidezkoa bada, al bait eraginkortasun eta efizientzia handiena eta erabateko gardentasuna lortzeko

EBALUAZIO-MOTAK EDO SAILKAPENAK

Sailkapen asko ikuspegiaren arabera eta lortu nahi den helburuaren arabera daude deskribaturik, baina politika publikoak ebaluatzeko, sailkapen ohikoena da politika publiko jakin bat zein egoeratan dagoen baloratzea xede duena. Horri dagokionez:

- **Ex-ante ebaluazioa:** Programazio edo politika bat onartu aurretik egiten da. Horren xedea da jakitea zilegi ote den programatutako helburuei eta ekintzei dagokienez, bideragarria ote den eta zer eraginkortasun izan dezakeen, bai eta egindako diagnostikoa ona dela egiaztatzea ere. Ebaluazio-mota horretarako, beharrezko doikuntzak egin behar dira esku-hartzearen edo politikaren diseinuan, ebaluazioaren ondorioz. Ebaluazio-mota horri buruz arituko da nire lankidea

generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioaz hitz egitean.

- **In itinere edo prozesuko ebaluazioa:** Programazioan zehar egiten da, eta lotura estua du jarduketaren jarraipenarekin: Erakunde baten gaitasuna neurtzeko, proposatutako diseinua eta gauzatzea eta kudeatzaileen inplikazioa hartzen ditu kontuan. Bide ematen du helburuak zenbateraino ari diren lortzen jakiteko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak aplikatzeko. Jarduketaren edo programazioaren erdialdera egin ohi da.
- **Ex-post ebaluazioa, emaitzena:** Proiektua amaitzean egiten da. Xedea da planteatutako helburuak zenbateraino bete diren jakitea, izandako aldaketak egin diren jarduketaren ondorio direla frogatzea eta helburu horiek lortzeak denbora aldetik, giza baliabide aldetik, material eta diru aldetik zer kostu duen jakitea. Askotan, ebaluazio horiek egiteko, aurretiazko ebaluazio bat egin behar da haren ondoren etorriko den programarako.
- **Eraginaren ebaluazioa:** epe luzeagora, esku-hartzea amaitu eta aldi luze samar bat igaro ostean, xedea da jarduketek zer ondorio eta aldaketa iraunkor ekarri dituzten baloratzea.

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

- **Koherentzia:** Ezarri diren neurriak egokiak al diren jarritako helburuak lortzeko.
- **Estaldura:** Politiketatik onura lortzen duten pertsonen ehunekoa, politika horiek zuzentzen zaizkion talde

osoa kontuan hartuta.

- **Eraginkortasuna:** Garatutako jardueraren zenbaterainokoa eta helburuen lortze-maila.
- **Efizientzia:** Ezarritako neurrien kostu-etekinaren analisia.
- **Ekitatea:** Talde onuradunei emandako emaitzen oreka-maila, ezarritako helburuei dagokienez.
- **Gogobetetzea:** Erabiltzaileen balorazioa haiei zuzendutako edo emandako zerbitzuei buruzkoa
- **Informazioaren eta arretaren kalitatea:** Zerbitzua emateko moduaren balorazioa, hartzaileei ematen zaien zerbitzuaren kalitateari dagokionez.
- **Gardentasuna:** Politikak, programak eta horien aurrekontuak eta ebaluazioa zenbateraino zabaltzen eta komunikatzen diren.
- **Parte-hartzea:** Bideak izatea garatu beharreko politikari eta ezarri beharreko programei buruz herritarrek eta eragileek beren iritzia eman ahal izan dezaten.
- **Eragina:** Politikaren eragin ekonomiko eta sozialaren balioespena.
- **Jasangarritasuna:** Herritarrek eta/edo erakundeek zenbateraino eusten dieten indarrean lortutako aldaketei jarduketa bukatu ostean.

PROGRAMAK EDO POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEAN AURKITZEN DITUGUN ARAZOAK EDO MUGAK

1. Oro har, administrazio publikoan ez dago ebaluazioari buruzko kultura eta ezagutzarik edo ezagutza oso urria da.
2. Abiapuntuko beste arazo bat da ebaluazioa baliagarri izateko hasieratik planteatu behar dela oso ondo zein helburu lortu nahi den ebaluazioarekin; izan ere, esan dugun bezala, ebaluazioak xede asko izan ditzake.
3. Bada zailtasun bat ondorioak neurtzeko adierazle doituak hasieratik identifikatzeko eta kuantifikatzeko.
4. Bestalde, arazo barrukoagoak daude: ebaluazioa egiteko langile kualifikaturik ez izatea, informazio-iturri eguneratu ofizialik ez izatea, informazio-sistemak bat ez etortzea; oso ohikoa da ebaluazio-aldian programak aldatzea edo estaltzea, eta horrek ebaluazioak interesa galtzea dakar.
5. Era berean, helburuei dagokienez ondo zehaztu gabeko diseinurik ez duten programak izateak neurri handi batean zailtzen du ebaluazioa.
6. Bestalde, ikuspen-arrazoiengatik, askotan proiektua bukatutzat ematen denean aurkeztu ohi da ebaluazioa, edo are lehenago ere; beraz, oso mugatua izaten da emaitzen ebaluazioa, eta are eraginena; izan ere, ez da behar beste denbora igaro ebaluatzeke, eta azkenean ez da egiten epe luzeagoko ebaluazio hori.

EBALUAZIO BAT EGIN NAHI DENEAN HASIERATIK KONTUAN HARTU BEHAR DIREN ELEMENTU GILTZARRIEI BURUZKO OHARRAK

- **PARTE-HARTZEA:** planteatzen den ebaluazioa edozein motatakoa delarik ere, entzun egin behar da, eta ebaluazioa diseinatzeko edo gauzatzeko eragile guztiei parte hartzeko modua emango dieten tresna metodologiko guztiak aurreikusi.
- **HEDAPENA:** ezinbestekoa da kontuan hartzea ebaluazioak, barne-balioa izateaz harago, gardena izan behar duela. Izan ebaluazioaren argitalpen osoa edo laburpen bat.
- Hasieratik zehaztu behar da oso ondo zein den lortu nahi den azken helburua eta ebaluazioaren kostua baloratu, proiektuaren tamaina kontuan hartuta, proportzio bat izan dadin.
- Modu berean, oinarrizkoa da, ebaluazioaren eraginkortasunari begira, oso ondo hautatzea zein unetan planteatuko den ebaluazioa eta zein unetan egingo den.
- Azkenik, emaitza homogeen batzuk ziurtatzeko, inplikaturako eragile guztiak haren garrantziaz kontzientziatu eta informatu behar dira, tartean sar daitezten.

Ebaluazioari buruzko hurbilketa txiki hau egin ostean, nire lankideak azalduko du zer eginkizun duen ebaluazioak etxebizitza-politikan berdintasuna barneratzeari dagokionez.

Iera Azkarate

Lehenik eta behin, administrazio publikoek berdintasunarekin zer konpromiso duten azaldu nahiko nuke; izan ere, azkenean, aurretiazko ebaluazioa (generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa) testuingururen batean kokatu behar da, ez da ezerezetik ateratzen. Bada markatzen gaituen araudi bat, hala Estatukoa nola Eusko Jaurlaritzarena, administrazio publikoek bete behar dutena, eta, neurri batean, eremu batzuetako enpresa pribatu batzuek ere bete behar dutena. Araudi horretatik atera daitekeen alderdirik oinarrizkoena da generoa zeharka barneratu behar dela egin beharreko politika guztietan. Hau da, eta areago arlo honetan, hirigintzaz ari gara, eta horregatik ez da jo behar hirigintza berdintasunetik urrun dagoela; aitzitik, generoa zeharkako bihurtu behar da politika guztietan. Ezin da izan berdintasunari lotuko ez zaion arlo estankorik; izan ere, kontu funtsezkoa da, eta oraindik lan asko egin behar da arlo horretan.

Bestalde, logikoki, beharrezko informazioa lortu behar da. Aspalditxotik zeuden arazoak sexuaren arabera bereizitako datuak aurkitzeko; horrek, itxuraz, lortua behar zuen 2011rako, baina ez da hala; eta, azkenean, datu horiek funtsezkoak dira edozein ebaluazio egiteko edo, besterik ez bada ere, zure xede-publikoa eta lan-arloa ezagutzeko. Eta nire adiskideak esan duena baliatuz, eraginkortasuna handitzeko. Administrazio publikoek herritarren onuraren alde lan egin behar dute, baina ikusi beharra dago nola egiten diren esku-hartze horiek. Diru publikoa ezin da edozertarako erabili, edozein modutara.

Oinarrizko zortzi printzipioak lege autonomikoan islatuta daude, eta berdintasun-mugimendu oren oinarri dira, edo behintzat horiek dira garrantzitsuenak.



1. **Tratu-berdintasuna.** Kontua da bereizkeriarik ez izatea eta ez emakumeak eta ez gizonak inoiz baztertuta ez sentitzea, eta are gutxiago administrazio publikoek aurrera eramandako politiken ondorioz.
2. **Aukera-berdintasuna.** Emakume zein gizon, eskubide berbera izan behar dugu gizartean dauden baliabideak eskuratu eta erabiltzeko.
3. **Aniztasuna eta desberdintasuna.** Gizonak eta emakumeak desberdinak gara, baina, gainera, emakumeok gure artean ere desberdinak gara, eta gizonak beren artean ere desberdinak dira, eta hori kontuan izan behar da.
4. **Genero-ikuspegia barneratzea.** Generoa ez da aparteko izaki bat, edo berdintasuna ez da administrazioen politikatik kanpoko gauza bat, baizik eta barneratu egin behar da.
5. **Ekintza positiboa.** Kontua da ekintza zehatzak eta oso espezifikoak egitea bai emakumeak eta bai gizonak integratu edo ager daitezen sustatzeko.
6. **Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea.** Oraindik bide luzea dugu egiteko, eta oraindik baditugu hautsi beharreko rolak eta estereotipoak. Ezin da pentsatu bere hartan iraungo dutela beti.
7. **Ordezkaritza orekatua.** Suposatzen dut denok jakingo duzuela, gehiago edo gutxiago, batez ere estatuko legearen bidez, zer polemika sortu zen enpresetako zuzendaritza-kontseiluetan emakumeen portzentaje jakin bat izan behar dela eta. Azkenean, kontua da ez izatea % 40 baino emakume edo gizon gutxiago.

8. **Lankidetzeta eta koordinazioa.** Kontua da administrazio publikoek arlo hauetan lan egitea, baina ez bakoitzak modu independentean funtzionatzea, baizik eta azkenean, benetan aurrera egin dadin lortzeko, kontua da taldean funtzionatzea eta sinergiak sortzea, honek aurrera egin dezan.

Printzipio horietatik atera ditzakegun ondorioek errepikatu egingo dute lehen esan dudana, baina, azkenean, hauxe besterik ez da: aukera-berdintasuntzat ez dela soilik jo behar baliabideak eskuratzea, baizik eta horiek erabiltzea. Hau da, emakumeak zuzendaritza-kontseiluetan sartzea oso ondo dago, baina, ondoren emakume horiek ez badute gaitasunik baliabideak kudeatzeko, horrek ez dauka batere zentzurik.

Genero-ikuspegia. Azkenean, generoa politika guztietan eta ekintza guztietan barneratu behar da. Ezin da ezer geratu isolaturik.

Azkenean, eta zentzugabea badirudi ere, aurrez adierazitakoaren ildoan, generoa barneratu behar da, eta, gainera, fase guztietan. Aurretiazko ebaluazioa, logikoki, plangintzan kokatzen da; ondoren gauzatzea bera dago; baina, gero, ondoko ebaluazio bat egin behar da, zer eragin izan den ikusteko eta izan daitezkeen berdintasunak benetan gutxitu edo gehitu ahal izan ditugun ikusteko.

Eta horregatik, nahiz eta zentzugabe samarra dirudien, arlo hauek landu behar dira. Lehenik, berdintasun formalaren ilusioa. Gaur egun, uste izaten da araudi asko izateagatik bakarrik jadanik lortua dugula berdintasuna, eta eskuarki jende gaztearen artean ari da gertatzen hori. Bada, hori ez da hala. Azkenean, alderdi asko landu behar dira, rol eta estereotipo asko hautsi behar dira, eta horietan zuzenean



egin behar da lan. Ondoren, garrantzia du generoaren ikuspegi neutroak edo opakuak. Zenbait administrazioek uste dute politika bat abiarazi bada azkenean modu berean eragingo diela emakumeei eta gizonei. Bada, beharbada bai, baina beharbada aurrez aztertu beharko da, batzuen eta besteen artean benetan desberdintasunik ez dela sortu egiaztatzeko.

Ondoren, nazioarteko egintza baten emaitza. Bide hori landu beharra dugu; izan ere, araudi bat izateagatik berdintasuna ez da ezerezetik aterako. Horretan egin behar dugu lan, eta, gainera, ohartu behar dugu horretan ari garela lanean.

Ondoren, generoaren araberako egokitasuna dago. Europako Batzordeak sortutako gida batetik dator hori. Gida horretan, galdera batzuk zehaztu dira —gero azalduko ditugu—, eta horietan ikusten da oinarritzko arau edo egintza batzuk egokiak diren edo ez. Hau da, herritarrengan zuzenean edo zeharka eragiten duten; izan ere, hala bada, horietan jardun behar da.

Azkenean, botere publikoei geratzen zaien lana neurriak ezartzea da. Nik uste dut batez ere administrazioek esate baterako kontratu publikoetan eta lizitazioetan era guztietako neurriak sartzearen ondorioz lortzen ari diren aurrerapenak behartu egiten dituztela enpresak, zeharka, esate baterako datu bereiziak eta mintzaira ez-sexista kontuan hartuz; beharbada gutxi da oraingoz, baina, beno, ari gara aurrerapenak lortzen, eta ari gara zerbait lortzen.

Hemen, gaian pixka bat sartzeko, aurretiazko ebaluazioaren bi definizio emango dizkizuegu. Lehenengoa, lehen aipaturikoa, Europako Batzordearen gidakoa, eta bestea Berdintasunerako Euskal Legean datorrena. Biek aztertzen dute modu berean eragiten ote zaien emakumeei eta gizonei

eta modu desberdinean eragiten ote zaien. Kontuan izanik diru publikoaz ari garela eta kontuan hartu behar dela eraginkortasuna, lehen esan dugun bezala.

Onurak. Uste dugu garrantzitsua dela administrazio publikoentzat aurretiazko ebaluazioa lantzea. Lehendabizi, ezagutza areagotzen delako; jakina, aurretiazko ebaluazio bat egiten baduzu, askoz ere hobeto ezagutuko dituzu zure xede-publikoa eta lantzen ari zaren arloa; bestela, hainbat gauza egindakotzat joko dituzu, eta gero, beharbada, datuekin sartzen zarenean harritu egingo zaituzte; eta gainera, lagundu egingo dizute.

Gero, prozesuak sistematizatu eta hobetu egin beharko dira. Plangintza-, jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat sartzen baduzu, azkenean eguneroko lanean lagunduko dizu, eta uste dut horrek egiten ari zaren lan guztia babesten duela.

Eta, azkenean, eraginkortasuna areagotzea; horrek izan behar du arauetako bat administrazio publikoentzat. Eta hori dena zertarako? Bada, hain zuzen ere berdintasunean aurrera egiten jarraitzeko, lan gaitza baita eta hor baitago oraindik. Baina, beno, administrazio publiko bakoitzak izan dezakeen borondateaz gain, bada lege-betebehar bat ere. Kontua ez da nik lan egin nahi dudala eta egiten dudala. Ez, ez, lege-betebehar bat dago atzetik, artikulu bat, hor ikus dezakezen bezala, 18.a. Artikulu horretan ezartzen da egin beharra dagoela, eta egin ere, administrazio publikoek sortzen dituzten ahalik eta arau gehienetan egin behar dela.

18-2 artikulua jarri dizuegu interesgarria iruditzen zitzagulako nabarmentzea bai udalek eta bai foru erakundeek badutela halako malgutasun bat ebaluazio hau egiteko orduan; Emakundek eta Eusko Jaurlaritzak arautu dute jadanik, baina administrazioen batek uste badu beste

eredu bat ezarri behar duela, ez dago inolako arazorik horretarako.

Hemen 4/2005 Legea dugu, zehazki 9-22. artikulua. Lege horretan, prozesu osoa zehazten da pixka bat; esaten dizute diagnostiko moduko bat egin behar duzula, neurriak ezarri behar dituzula, eta gero egingo den txostenean neurri horiek Emakunderi pasatuko zaizkiola eta ondoren txosten bakar batean txertatu behar dela. Eta, bestalde, ebazpena dago —astiroago aztertuko dugu gero—, jarraitu beharreko prozesua ezartzen duena.

Beste administrazio batzuk. Gezurra badirudi ere, administrazio batzuk, bai autonomikoak eta bai estatukoak, lanean ari dira jadanik, arautzen ari dira jadanik; areago, batzuek gidak dituzte, protokoloak dituzte, eta badirudi pixkanaka-pixkanaka hainbat gida ari direla irtetzen, nahiz eta egia den azkenean gutxi gorabehera antzekoak direla. Batzuek gehiago azpimarratzen dute alderdi bat eta beste batzuek beste zenbait, baina garrantzitsuena da lanean ari garela, babesa dagoela atzetik, eta izan daitekeela babes-motaren bat eremu horretan lan egin nahi denean. Eta, gero, bistan denez, ez badago arau propiorik edo ezin badira sortu une jakin batean, bada, hor daude Eusko Jaurlearitzak 5/2007 Ebazpenaren bidez ezarritako gomendioak.


Jadanik ebazpenean sarturik, zein proiektutan lan egin behar den eta aurretiazko ebaluazioa zeintzuetan egin behar den zehazten du. Batetik, lege-maila edo araudi-maila duten arau juridikoen proiektuetan, eta, bestetik, administrazio-egintzen proposamenetan. Egia da, halaber, badirela salbuespenak aurretiazko ebaluazioa ez sartzeko orduan; hala nola arauren batek aurreko arau bat aldatzen duenean; halakoetan, irizten zaio ez litzatekeela aurretiazko ebaluaziorik sartu behar.

Nork parte hartzen du? Hau ez da Berdintasun Atalaren gauza bat, soil-soilik berak egin beharrekoa; izan ere, azkenean, organo sustatzaileak du ezagutza. Kasu honetan, hirigintzako jendeak jakingo du nola eragin, nola sortu izan ditzakeen arau espezifikoak eta nola lortu hori egitea. Eta, bestetik, Emakunde agertzen da; hari bidali behar zaio txostena, eta, azkenean, lagundu eta babestu zaitzake, hobekuntza-proposamenak eginda.

Nola jasotzen da? Aurretiazko ebaluazioaren prozesu guztia memoria batean jaso behar da. Memoria hori ez da memoria bereizi bat, jarraitu den prozesu guztian txertaturik ez dagoena, baizik eta denak ildo berean joan behar du, eta beharrezko alderdi guztiak jaso.

Adierazi nahiko nuke jarraibideen araudiaren barruan ere ezartzen dela prozedura bat, bai laburtua eta bai arrunta. Hemen orain azalduko duguna arrunta da; izan ere, berez hori jarraitu behar da arau guztietan eta administrazio-egintza guztietan. Laburtua badago soil-soilik bideratua epaimahaien, parte hartzeko organoen analisisietara; hor bai azpimarratzen da soil-soilik ordezkariak orekatua landu behar dela, badagoen edo ez dagoen ikusi behar dela, eta ez badago neurriak ezarri behar direla.

Prozedura arrunta ebazpen bidez eskatzen da. Lehenik, diagnostikoa egiten da; beste hitz batzuetan esanda, gizonen eta emakumeen gaur egungo egoera aztertzen da. Hor garrantzitsua da Europako Batzordeak ezarritako gidalerroei jarraitzea, hala nola baliabideak, parte-hartzea, erabakiak hartzea, gizarte-arauak eta balioak, eta eskubideak. Zaila da, ez da erraza, baina, azkenean, desberdintasunak ikusi behar dira; izan ere, beharbada emakumeek eta gizonen ez dituzte modu desberdinean eskuratzen baliabideak, ez dute modu berean parte hartzen,



eta alderdi horiek kontuan hartu behar dira.

Logikoki, arau hori aurreko beste baten bidez sortu bada, ikusi behar da kuantitatiboki eta kualitatiboki desberdintasunik izan ote den eta zer eragin izan den edo zer eragin ez den izan. Horrez gain, jakina, lantzen ari garen eremuan emakumeen eta gizonen zer proportzio dagoen. Eta, azkenik, detektatutako desberdintasunak azaldu behar dira. Ondoren, helburu orokorrak ere eskatzen dira: helburu orokorrak zehaztea eta berdintasunarekin loturaren bat baden ikustea; horrez gain, neurririk bat ote dagoen ikustea. Jakina, ez du zentzurik helburu bat ezartzeak gero hori lortzeko inolako neurririk ez badago. Eta gauza bera gertatzen da helburu espezifikoekin ere; horiek lotzea, beharbada, errazago izango da.

Jadanik adierazi dugun bezala, baliabide ekonomikoak garrantzitsuak dira; beraz, beharrezkoa da aztertzea zenbateraino eragiten den edo ez den eragiten horietan. Ebaluazio-prozesu bat denez, azkenean adierazleak ezarri behar dira. Prozesuaren amaieran, araua edo administrazio-egintza ezarri ostean, zer ondorio lortu den zehaztu behar da. Eta emaitza gisa, eragin positibo edo negatibo bat lortuko dugu. Nik neuk esango nuke eragin negatiboa hasieran izan daitekeela; hau da, prozesu osoa egiten bada eta emakumeetan eta gizonetan desberdin eragiten ari bada, beti sartuko dira neurriak, eta, hala, azkenean eragin positiboa izango da. Eta, azkenean, beharrezkoa da neurriak sartzea, non eta ez dagoen modu desberdinean eragiten ez den egoera ideal bat.

Kontuan hartu beharreko giltzarriak. Aurretiazko ebaluazioak bat etorri behar du araua egiteko prozesu guztiarekin. Ezin dira izan prozesu bereziak, batez ere aurretiazko ebaluazioak ezartzen duelako neurriak sartu

behar direla desberdintasunen bat detektatzen bada, azkenean neurri horiek txertatu ostean araua onar dadin.

Datuak. Jakina, koherenteak izan behar dute administrazio-arauaren edo -egintzaren xedearekin; ezin dira kontuan hartu inolako erlaziorik ez duten datuak eta arauan edo egintzan landu eta islatu nahi denari buruz inolako informaziorik emango ez dutenak.

Eta, azkenik, ez da beharrezkoa ezagutza zabal bat izatea generoaren eta berdintasun-politiken gainean, baina, azkenean, organo sustatzaileak egin behar duenez aurretiazko ebaluazioa, bada gomendatzekoa behintzat nolabaiteko prestakuntza bat izatea generoan eta berdintasun-politikan; izan ere, bestela, gerta liteke alderdi jakin batzuk lausoki jorratzea eta ez gauzatzera iristea, soil-soilik arlo horren gainean oinarritzko ezagutzarik ez izateagatik.

Hasieran, araua edo egintza identifikatu behar da. Identifikatzea erraza da; hirugarren puntua lotzea ere bai, hau da, araua edo egintza berdintasunari lotu ote zaion aztertzea, izan ere, batek badaki berdintasunez jarduten duen edo ez.

Beharbada punturik zailena, eta hortik arlo hau nolabait ezagutzeko beharra, hau da: ikustea ba ote den eragin dezakeen berdintasunerako legerik edo planik, eta, gainera, ba ote den gai honen inguruan oharren bat egiten duen arloko legerik edo planik. Euskal Autonomia Erkidegoan, lege autonomikoa dugu, eta, lehen ikusi dugun bezala, printzipioetako bat da generoaren ikuspegia barneratzea; beraz, jadanik bada behartzen duen zerbait, hau da, ez diogu ez ikusi egin arlo honi.

Egokitasunaren analisia aipatu dugu jadanik: azkenean,

Batzordeak bi galdera egiten zituen: 1.- ikustea proposamena xede-talde bati edo hainbati zuzentzen zaion, biztanleriaren zati baten edo hainbaten eguneroko bizimoduari eragingo dion; eta 2.- desberdintasunik ba ote den lehen aipatu ditudan alderdietan: eskubideak, baliabideak, parte-hartzea, arauak eta balioak. Azkenean, baietz erantzuten bada, logikoki jardun egin behar da, ezin zaio bizkarra eman gaiari.

Egoeraren analisia. Informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa izan behar da. Kuantitatiboa batzuetan zaila da; areago, zenbait administrazioak, irizten badiote ez dagoela sexuaren arabera bereizitako daturik, administrazio-arauaren edo -egintzaren barruan sartzeko neurri gisa barneratzen dute. Kualitatiboa ere bai, mintegi honetan zehar ikusi den bezala. Logikoki, datuak jadanik ikusi badira, aztertu egin behar dira eta ikusi desberdintasunik ba ote den edo ez, eta ikusi azkenean desberdintasunik sumatzen ote den administrazio-arauarekin edo -egintzarekin; baina jardun egingo da; izan ere, desberdintasunak ikusten badira eta hala ere neurririk ezartzen ez bada, beharbada berriro planteatu beharko litzateke egoera.

Gauza logiko bat, erredakzioan, mintzairaren erabilera ez-sexista da, eta irudirik bada, irudiena. Prozesu guztia behar bezala egiten bada, berebiziko hutsa litzateke ondoren mintzaira sexista erabiltzeagatik huts egitea. Eta, jakina, neurriak hartu beharko genituzke.

Eraginaren balorazioa. Berriro diot balorazio negatiboak, azkenean, barrukoa izan behar duela nolabait, baina positiboa izan beharko luke administrazio-araua edo –egintza irtetea.

Bukatzeko, hainbat ondorio partekatu nahi nituzke:

- Aurretiazko ebaluazioa administrazioek har dezaketen konpromisotik dator, baina bada lege-betebehar bat ere, hori ez da ahaztu behar.
- Organo sustatzaileek egin behar dute aurretiazko ebaluazioa: berdintasun-arloen eta -unitateen babesa izan daiteke, baina organo sustatzaileek egin behar dute.
- Udalek eta foru aldundiek badute halako eskumen bat ebaluazio hori egiteko orduan.
- Sexuaren arabera bereizitako datuak erabiltzea funtsezkoa da, eta, edozein ebaluazio-prozesutan bezala, ondoko ebaluazioa egin beharko litzateke, generoaren ikuspegiak nola eragin duen eta nola barneratu den ikusteko.

5.3. Herritarren parte-hartzea

Mario Yoldi, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendaria

Duela ez asko, administrazio publikoak bere egin zuen Despotismo Ilustratuaren “Herriarentzat gobernatu, baina herririk gabe” araua. Zorionez, aurrerapen historikoak izan ditugu: demokrazia dugu, eta herritarrok hautatzen ditugu gure ordezkariak. Alabaina, komunikazioen teknologiaren gaur egungo egoerak aukera ematen digu askoz ere gehiago aurreratzeko, modu eraginkor eta merkean.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren kasuan, egoera are zorrotzagoa da; izan ere, Euskadik eskumen eskusiboa du etxebizitzaren arloan, hau da, haren erabakiak eta ekintzak guztiz dira bete beharrekoak eta Estatutik apartekoak.

Gainera, proiektuaren garaian, Euskadin zegoen etxebizitza garestien, Espainiako beste autonomia-erkidegoen artetik, eta pixkanaka urruntzen ari ziren etxebizitza askearen prezioa eta euskal familiek beren diru-sarrera erabilgarrien arabera gehienez ordain zezaketena. (Etxebizitzaren batez besteko prezioaren eta soldataren arteko ratioa: 7,5 2008an).

Etxebizitza babestuen eskaintza handia bazen ere, soilik parte txiki bat bideratzen zen alokairutarako (% 19,2).

Horiek horrela, lehentasun osoa zuen arlo publikoaren kudeaketako gobernu onaren printzipioak etxebizitza-politikari aplikatzeak; izan ere, etxebizitza zen, eta da, euskal herritarren kezka nagusia, soil-soilik krisi ekonomikoaren eta indarkeriaren ondotik.

Alabaina, herritarrek parte hartzeko prozesuekin hastea erabaki genuenean, Eusko Jaurlaritzaren barruko esperientziak hutsaren hurrengoa edo anekdotikoak

ziren. Proiektua beste aldetik diseinatu genuen, hau da, herritarren aldetik, etorkizuneko parte-hartzailearen lekutik. Nola gustatuko litzaikekeen Administrazioak guri hitz egitea, eta, batez ere, gu entzutea eta gurekin mintzatzea. Orduan, gure arretaguneak JENDEAREKIN HITZ EGITEA izan behar zuen: kasu egitea, erantzutea eta frogatzea elkarrizketa horrek emaitzak ekarriko dituela eta konpromisoa hartzen dugula emaitza horiek martxan jartzeko, nahiz eta ez izan ildo politiko nagusia.

Beraz, horrek esan nahi zuen euskal administrazioaren barruan aitzindari izatea, beharbada, eta hori zen onena, etxebizitzaren estrategia tenka zezakeen proiektu batean, baina lan guztiz ilusionagarria eta ezezaguna zen guretzat.

Berrito sentitu genituen AENOR bezalako erakunde independenteen kalitate-ziurtagiriak lortzen lehenengo sailtakoak izan ginenean edo duela hamarkada bat baino gehiago gure politika publikoen ebaluazioari eta halako bide zorrotzei ekin genienean izan genituen sentipenak.

Etxebizitzak neurri berritzaileak, gardentasuna, pluraltasuna eta herritarren orientabidea behar zituen, ekonomia eta finantza aldetik kezka handia zegoen testuinguru batean eta prezioak neurrigabeak ziren autonomia-erkidego batean.

Nora ginderamatzen ez genekien bidaia bat hasi zen hala, baina, zorionez, Etxebizitza Sailaren eta Lehendakariatzako pertsonal politiko osoaren babesa zuen (hasieratik hautatu gintuzten Eusko Jaurlaritzako beste sailentzako proiektu aitzindari eta eredugarri gisa).

Gainditu beharreko arazoak

Herritarrek parte hartzeko prozedura bat abian jartzea



erabakitzen denean, beharrezkoa da bi arazo handiri aurre egitea:

1. PARTE-HARTZE KULTURAREN GABEZIA:

Klase politikoa:

- Batzuetan, klase politikoa, jarduteko eta erabakiak hartzeko orduan, ez da hurbil egon ohi ordezkatzeko dituen herritarren arazoetatik eta interesetatik.
- Bada joera orokor bat, bai alderdi politikoaren artean, bai herritarren artean, gobernu batek parte hartzeko prozesu bat abiarazten badu publikitate edo irudikapainaren hutsa dela pentsatzeko.
- Klase politikoak kritika gisa hartzen dituzten proposamenak, eta ez hobekuntza gisa.

Administrazioa:

- Administrazioak espezializazio- eta segmentazio-ohitura errotuak ditu, eta gauzatzen zailak diren parte-hartze prozesuak, hauxe irizten baitzaio: “zeregin berri bat da, eta ez dagokit niri”.
- Ez dira ezagutzen ez tratamendua eta ez ezarri beharrekotako metodologiak.
- Zailtasun teknikoak daude, eta trebetasun eskasa online lankidetzaren eta komunikazio-tresnen erabileran.

Herritarrak:

- Zailtasunak daude herritarrak nahasteko: ez dira

fidatzen Administrazioak beren ideiak kontuan hartuko dituela.

- Zailtasunak daude zerbait esan nahi diguten pertsona guztiengana iristeko.
- Etxebizitzarekin loturiko gaiak ez dira batere ezagutzen.

Konponbidea:

Herritarren parte-hartzea LEHENTASUNEZKOA da Eusko Jaurlaritzaren politikan, eta, zehazki Etxebizitza Sailaren kasuan, frogatu da, arlo politikoan izandako inplikazioaren bidez —jadanik bazen horren konbentzimendua 2. eta 3. azpiprozesuetan—, ezin ordainduzkoa dela parte-hartzearen balio erantsia.

Funtzionario-kidegoak prestatu egin behar dira komunikazio-tresna berritzaileetan eta ebaluazio eta herritarren parte-hartze prozesuetan.

Garrantzitsua da administrazioaren eta herritarren arteko errespetuari eta lankidetzaren eta akordio-borontateari buruzko oinarriko arauak ezartzea eta errespetatzea.

Parte-hartzaileen artean ikaskuntza-prozesuak sortu behar dira.

Herritar aktiboak eta gai publikoekiko konpromisoa dutenak sortzeko oinarriak lortu behar dira. Denbora eskaini behar da: herritarrekin hitz egiteak berekin dakar kasu egitea, erantzutea eta elkarrizketak emaitzak sortzen dituela frogatzea.

2. MESFIDANTZA: herritarrek betidanik izan dute mugatua beren jarduketaren eremua hauteskunde-egunera. Beste

guztia politikarien eta haien erabakien esku geratu da, alde bakarretik. Lau urtez behin, azterketa egiten da, eta botoa ematen dugu berriro, bai aukeraren bat gogoko dugulako, bai gainerakoek gogogabetu egiten gaituztelako.

Konponbidea:

Gaur badira desoreka eta atsekabe hori minimizatzeko tresnak, baina, batez ere, gurari politikoa dago, eta konpromiso politiko irmo hau: parte hartzeko prozesuak ez direla publizitatea, badela ikasitako irakaspenekiko errespetu bat, emaitzak jendarteratu egingo direla eta herritarren ekarpen gehienek osatuko dutela gune erabakigarria.

Etxebizitzaren arloan parte hartzeko prozesuari dagokionez, oraindik geure buruari sinetsarazteko fasean gaude, baina jasotako proposamen gehienak gure programa-dokumentuetan bildu ditugu eta gaur egun herritarrekin berdinetik berdineraz hitz egiten jarraitzen dugu (adierazi behar da pertsonen % 85ek garrantzitsu irizten diotela halako prozesuei aldizka edo modu iraunkorrean eusteari).

Garatutako parte-hartze estrategia

Egin genuen lehenengo gauza izan zen parte-hartze prozesu bat hiru azpiprozesutan egituratzea; kontua zen euskal gizarteari besteak beste honako hau planteatzea: “Nolakoak behar duten izan estrategiak, ildo politikoek eta are etxebizitzaren arloko legediak berak”.

1. Etxebizitzaren aldeko Gizarte Ituna.

Gaia: Etxebizitzaren euskal estrategia (2010-2025). Hartzaileak: Eragile instituzional, politiko eta sozialak

2. Etxebizitza gaitan, zure iritzia kontuan.

Gaia: Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailea (2010-2013). Hartzaileak: Herritarrak, aditu-taldeak

3. Etxebizitzaren Euskal Legea: Zurekin Etxebizitza egiten dugu.

Gaia: Etxebizitzaren Euskal Legea. Hartzaileak: Herritarrak

Lan-talde bat sortu zen, proiektua egunez egun kudeatzen zuten pertsonak osatua: Saileko funtzionarioak, aholkulari aditua eta aholku-emaileak; helburuak diseinatzeko edo berrinterpretatzeko orduan, taldea aberastu zitekeen Saileko zuzendaritza politikoarekin eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzakoarekin.

Hiru azpiprozesu zirenez, estrategiak, komunikazio-bideak eta proposamenen harrera ere diseinatu behar izan ziren.

Gainera, parte-hartzea sustatu behar zela sinesten genuen, alderdi hauetatik:

- instituzionala, edo nola ikusi politika egiteko modu berri honen balio erantsia
- soziala, edo nola egin benetako eta sinesgarri gizarte-adostasunean oinarrituriko proiektu handinahi hau.
- funtzionariala, edo nola ulertarazi zerbitzua herritarrari, herritarren ahotsa bera oinarritzat hartuta.

Lehenengo azpiprozesua, hori ere oso kritikatu bere garaian, Etxebizitzaren aldeko Gizarte Ituna izan zen. Itun horretan, arloko eragile instituzional, politiko, ekonomiko eta sozialek parte hartu zuten.

Herrialde honetan, gauzak eremu guztietan ari dira normalizatzen, baina hiru hamarkadan ez gara gauza izan etxebizitzaren arloko eragile ekonomikoekin negoziatzeko, akordioak lortzeko eta abarretarako prozesurik abiarazteko. Ez genuen planteatu ere egin kontu hau: komeni zela arloko eragile ekonomiko eta sozialekin hitz egitea politika egiten hasi aurretik. Denbora asko eman genuen prozesu horretan (2009ko abendutik 2010eko ekainera), eta “egin ezazue zerbait” esaten zuten alderdi politikoen kritika asko jasan. Egiten ari ginen, hitz egiten saiatzen ari ginen.

Prozesu hori izugarri onuragarria izan da guretzat: arloarekin mintzatu eta hitz egin ahal izan dugu; hain zuzen, arloak azken zortzi urtean baino gehiago hitz egin du Gobernuarekin. Egia da talde horrek askotariko interesak dituela, baina gai izan gara epe luzerako esparru bateratu egonkor bat aurkitzeko, eta, horri esker, 2010-2025 aldirako etxebizitza-estrategia zehaztu ahal izan dugu.

Hauxe da Euskadin halakorik egiten den lehen aldia. 80 eragile ekonomiko eta sozial, adierazgarriak arloan, gai izan gara epe luzerako politika batean adosten.

Bigarren azpiprosesan, Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailean (2010-2013), jarraitu beharreko ildoak herritarrekin zuzenean ezartzen saiatu ginen. Prozesu horrek 2010eko apiriletik 2010eko uztaileira iraun zuen, eta herritarrek eurek, aditu-taldeek eta zaugarri diren eta/edo IKTetatik urrun dauden taldeez osaturiko eztabaida-taldeek parte hartu zuten.

Gure beste konpromiso bat zen etxebizitzaren lege bat aurkeztea eta lege hori onar zedin saiatzea; 30 urte daramatzagu, eta ez gara gai izan etxebizitzaren legerik onartzeko. Horretarako, berriro ere ireki genuen parte

hartzeko prozesu espezifiko bat, Etxebizitzaren Euskal Legearena, 2011ko urtarriletik 2011ko maiatzera. Prozesu horretan, eragile politiko eta sozialek, elkarteek, elkargo profesionalek eta herritarrek hartu zuten parte.

Lortu nahi diren helburuak

Zer lortu nahi dugu herritarren parte-hartzearekin?


Helburu orokorra da euskal gizartearen parte-hartzea sustatzea, euskal herritarrei etxebizitza eskuratzen lagunduko dieten estrategia, ildo politikoak eta legedia aberasteko.

Helburu espezifikoak:

- Euskal gizarteak etxebizitzaren arloko estrategiari, ildo politikoei eta legediari zer irizten dien ezagutzea eta gizartearen proposamenak jasotzea.
- Epe luzerako lankidetzaren harremanak ezartzea etxebizitzaren merkatuan esku hartzen duten eragile instituzional, ekonomiko eta sozialekin.
- Parte-hartze eta gogobetetze maila handiak lortzea.
- Beste modu batera gobernatzea: hurbilagoa eta erantzukidea.

Azken batean, gizartearekin hitz egitea da kontua, etxebizitza-politikan partaide eta erantzukide egiteko.

Gobernuak proposatutako neurriei buruzko iritzia haztatzea, eta gizarteari aukera ematea gobernuaren proposamenak hobetzeko eta beste batzuk txertatzeko. Jarduketa-ildoak



eta legedia bera aberastuko dituzten proposamenak jasotzea eta Teknologia Berrien ahalmena aprobeztatzea, parte-hartze prozesuak ahalbidetzeko; parte-hartze handia lortzea prozesuan, eta gogobeteta geratzea prozesuarekin berarekin.

Lortutako emaitzak

Prozesu honek erakutsi digu egunero harritzen gaituztela pertsonak. Egunero ikasten dugu haiengandik.

Hala, parte hartzeko tresnen analisi xehatuago batek agerian jarri ditu ondoko emaitzak:

1. Etxebizitzaren aldeko Gizarte Ituna:

Bost jardunaldi espezifiko antolatu ziren Zamudioko Teknologia Parkean, world cafe teknikari jarraituz. Jardunaldi horien xedea zen eragileekin Eusko Jaurlaritzak planteatutako gaien inguruan eztabaidatzea eta adostea; esate baterako, nolakoa izan behar duen alokairuko etxebizitzaren politikak. Modu horretara, beste proposamen batzuk eztabaidatu eta mahaigaineratu ziren.

Jardunaldi bakoitzean, ezarritako mekanismoen bidez, barne-sareen bidez, dokumentazioa utzi zen, proposamenak sartu ziren, eta emaitzak zehaztu ziren, balorazio-prozesu baten ostean. Azken batean, alde anitzetik negoziatzera behartzen gintuen horrek, eta akordio bat ere lortu genuen. Akordio hori Lehendakariaren egoitzan formalizatu genuen, lehendakariarekin eta arloko 80 ordezkariarekin.

Guretzat, prozesu hori gogobetegarria izan da. Ezerk huts egitekotan, osagai politikoak huts egin du; ez dugu lortu alderdi politikoak sartzea, politika herrialde honetan

izugarri konplikatua baita, baina bai eragileak sartzea; arloko eragile garrantzitsu guztiek sinatu dute 4 erronka, 15 ildo eta 84 ekintza barne hartzen dituen esparru hori, 2025era arteko etxebizitza-politikaren aterkia.

2. Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailea:

Eusko Jaurlaritzak lau urtez behin egiten ditu etxebizitza-politikaren plan estrategikoak. Horrez gain, herritarrek parte hartzeko prozesu bat abiarazi genuen. Horretarako, Irekia erabili genuen, Eusko Jaurlaritzaren tresna ezin hobea parte-hartzeari dagokionez, eta baita Sailaren tresnak eta gizarte-sareak ere.

Etxebidaren webgunean 600.000 sarrera izaten ditugu urteko; Gobernuaren webgune ahaltsuena da. Tresna bat diseinatu genuen parte-hartzea sustatzeko, nahiz eta ohartzen garen badirela hainbat talde zaugarri, IKTetatik kanpo daudenak; beraz, haiekin elkarrizketak izan genituen.

Herritarrek parte hartzen dutenean, oso argi adierazi behar da herritarren inputa zein izango den. Gardena izan behar da zein zati txertatu den esateko orduan; gardentasuna funtsezkoa da, bai onerako eta bai txarrerako.

Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailean (2010-2013) ekarpen guztiak barneratu dira. Hauxe da laburpena, emaitza nagusiak zehaztuta:

- Jasotako proposamenen %85 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean jasota daude.
- 15.748 sarrera
 - 14.764 parte-hartzaile sareko plataforman.

- 333 jarraitzaile Facebook-en.
- 173 parte-hartzaile aditu-taldeei egindako inkestetan.
- 569 mezu foroetan.
- 120 proposamen egin dira.
- 5.230 inkesta erantzun dira.

Gainera, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak jardunaldi bat antolatu zuen etxebizitzaren politiken ebaluazioari eta gardentasunari buruz. Jardunaldi horren itxiera-ekitaldian, lehendakaria izan zen.

3. Parte-hartzea Etxebizitzaren Legearen aurreproiektuan

Etxebizitzaren Euskal Legearen kasuan ere, Etxebideren webgunean diseinaturiko tresna espezifiko bat eta gizarte-sareetan eta Irekian zabaldutako mekanismoak erabili ditugu. Parte hartzeko eredua irekia izan zen, eta ez genuen identifikaziorik eskatu. Hainbat atal genituen, hala nola: “Hobetzeko iradokizunak”, legearen aurreproiektuaren edukia hobetzeko; “Inkesta txikiak” egin genituen; “Galdeiozu atala” izenekoan, herritarrek galderak egin ziezakkioketen lehendakariari eta sailburuari; eta “Legearen aurreproiektuaren testu osoa” izeneko atalean, berriz, artikuluak modu errazean azalduz zetozen.

Emitza nagusiak:

- 17.187 bisita plataformara.
- 1.349 iritzi, 8 inkestaren bidez.

- 874 iritzi 10 forotan.
- 143 galdera lehendakariari eta sailburuari.
- 312 jarraitzaile gizarte-sareetan.
- 188 hobekuntza-proposamen Etxebizitzaren Legearen Aurreproiektuaren gainean (%44 proposamen onartu ziren).

Herritarrek gehien baloratu zituzten alderdiak honako hauek izan ziren: plataformaren gardentasuna, soiltasuna eta argitasuna, bai eta iritzia emateko askatasuna eta gai berrien gainean proposamenak egiteko aukera ere.

Non gaude gaur egun Etxebizitzaren Euskal Legearen Aurreproiektua onartzeko prozesu honetan? Legea izapidetzeko prozesuan.

Parte hartzeko prozesuei buruzko ondorioak

Parte hartzeko prozesuak egituratzen direnean, gauza ezinezkoak lortzen dira: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea gai izan da historian lehenengoz etxebizitzaren arloko txosten bat egiteko, bai eta Kooperatiben Kontseilu Gorena ere. Prozesu horiek bide ematen dute ezartzen diren harremanetatik nolabaiteko onurak lortzeko, eta talde-lanean aritzeko gaitasuna ere ematen dute.

Nabarmendu nahiko nuke gure sistemek parte hartzeko mekanismoak hartzen dituztela kontuan; mekanismo horiek ez dira garestiak, eta bai guztiz erabilgarriak. Hementxe duzue Etxebideren webgunea. Badakigu urtean 600.000

pertsona sartzen direla. Baditugu tresnak herritarren parte-hartzea laguntzeko eta sustatzeko: Twitter, Facebook, Irekia, eta Etxebizitzaren Euskal Behatokia ere badugu espero dut laster formatu berriak eta egitura berria izango dituela , parte hartzeko funtsezko tresna guretzat.

Zer esan nahi dut horrekin? Zer eskaintzen dut? Zorionez, gaur egun erraza da gobernuen eta herritarren artean hitz egitea, ez da garestia, eta izugarrizko abantailak ematen dizkio administrazioari. Horien bidez, herritarrak partaide eta erantzukide bihurtzen dira planen eta politiken zehaztapenean. Eta horrek lagundu egiten digu, asko lagundu ere, asmatzen.

Landu ditugun tresnak, berez Sailaren tresnak, eskuragarri daude Lurzoruaren Zuzendaritzarentzat eta interesa duten pertsona guztientzat.

5-4.

*Tokiko esperientziak***Hirigintza generoaren ikuspegitik: zeharkako esperientzia bat****Sebastián Bayo**, arkitektoa, Aranbarri

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu mintegi honen antolatzaileei genero-ikuspegipeko hirigintzaren arloan dugun esperientzia xumea zuekin partekatzeko gonbita egiteagatik, eta espero dugu, zinez, barkatuko dituzuela gure solasaldia amaitzean.

Eta hori diot, gonbita egin zigutenean ohartarazi genuen bezala, ez garelako adituak genero kontuetan, eta, gainera, oso denbora gutxi daramagulako sentikortasun horrekin, eta hori azkenean nabaritu egiten da. Ez luke zentzurik jadanik idatzi diren eta mintegi honetan jadanik azalduko ziren definizioak, kontzeptuak eta ideiak biltzeak.

Hori esanik, gogoetarako tarte bat egiten saiatuko gara landagunea bezalako espazio espezifiko batean arlo pertsonalean eta profesionalean genero-ikuspegiari dagokionez urratu dugun bidearen inguruan, eta azalduko dugu nola sartu ditugun alderdi horiek unibertsitate-prestakuntzaren esparruan, San Pablo CEU unibertsitate politeknikoko Arkitektura Eskolarekin elkarlanean lantzen ari garen Hiri Plangintzako Tailerraren bitartez.

Ezer baino lehen, Gizarte Sustapenerako Foru Zuzendaritzako langile teknikoaren tutoretza eskertu nahiko genuke, eta Teresa Franchini, Luis Perea eta Jose Carlos Marinen izenak aipatu, bide honetan lagun ditugun kideak.

1. Arabarriren aurkezpena, helburu soziala eta lan-esparrua

Aranbarri sozietate publiko bat da, Arabako Foru Aldundiak sortua, jatorriz herrigune historikoak kudeatzeko, baina, hirigintza-antolamenduaren ondoriozko mugak gainditu ostean, kultur ondare eraikia zentzu zabalean babestera

bideratzen dena.

Gaur egun, ARABARRIren bidez, Eusko Jaurlaritzak birgaitze integratuko eremutzat jotako 25 gune kudeatzen dira, 18 udaletan.

Hirigintza-sozietatearen kudeaketa justifikatzen duten azken bi xedeak hauexek dira: ondare urbanizatu eta eraikia zaintzea, eta Arabako landaguneak biziberritzea, jakina denez, gehientsuenak atzeranzko prozesu demografiko batean murgilduta baitaude.

ARABARRI, azken batean, Arabako ondare eraiki osorako Toki Administrazioaren tresna bat da, hirigintza-antolamenduak koordinatzeko eta kultur ondarea babesteko mekanismo bat, erdigune historikoak kultur ondare eraikiko pieza esanguratsu gisa kudeatzeko tresna oso bat.

Baina aztergai dugunari helduz, esan dezakegu Arabarriren jardun-esparrua eta xedea Arabako landagunea dela.

2. Gertakari akuilatzailea

Gidoilariak diotenez, kontakizun on batek lehenik gertaera handi bat izan behar du; gertaera horrek eragiten du ondoren etorriko den guztia eta gertaera horren ondorio da istorioak azken amaierara daraman behin betiko bidea hartzea. Eta horri Gertakari akuilatzailea edo eragilea deitzen diote.

Gure kasuan, Arabako Foru Aldundiak Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana abian jartzea izan zen generoaren inguruko gure istorioaren gertakari akuilatzailea. Horretarako, sail arteko batzorde bat sortu zuen, eta hartan parte hartzera gonbidatu gintuen.



Horren aurretik, ia ezertxo ere ez genekien foru esparruko legediari, araudiari eta genero ikuspegipeko ekintzen inguruan. Batzorde horretan parte hartzeak erraztu egin digu berdintasunaren arloan prestatzeko, sentsibilizatze eta kontzientziatzeko prozesu kolektibo eta banakako batean sartzea.

Arabarri Aldundiak Berdintasunerako III. Planaren bidez izendatu dizkion zehaztapenak ari da garatzen. Horretarako, Aldundiak aurrez azterketa bat egin du, 4/2005 Euskal Legea betez eta Emakunderen Berdintasunerako V. Planaren ondorioz zer ekintza egin behar diren jakiteko.

Garatzen ari garen ekintza orokorretako batzuk aipatzearren, honako hauek aipatuko ditugu: lana eta familia bateragarri egiteko neurriak ezartzeko enpresa-itunaren hurrengo aldaketa eta jazarpen moral eta sexualaren gaineko protokoloa egitea; Berdintasunerako Departamentu-unitatean parte hartzea; sortzen diren agiri administratibo guztietan mintzairaren erabilera berrikustea, egokitzea eta sistematizatzea; mintzaira ez-sexistaren gida bat egiten laguntzea, gure ingurune profesionaleko terminoak barneratuta; sexuaren araberako datuak bereizteko gure informazio-baseak prestatzea; ekintza espezifikoak prestatzea laguntzak emateko irizpideetan; eta Berdintasunaren arloko prestakuntzan parte hartzea.

3. Generoa landa-ingurunean. Berezitasunak

Hasieran esan dugun bezala, Arabarriren jardun-esparrua Arabako landa-ingurunea da. Eta landa-ingurunea bereizgarri hauek dituen espazioa edo lurraldea da:

a. Maila demografiko txikia eta biztanleria-dentsitate baxua; biztanleriaren atzerakada eta zahartze progresiboa,

eta gazte eta emakume gehienek exodoa.

b. Produkzio-jarduera tradizionalki lehen sektorekoa izan da, eta, beraz, lan-aukera gutxi dago eta ez dago aniztasun ekonomikorik.

c. Herrigune txikiak, hasieran bizimodu tradizionalei loturiko herri-arkitekturetan oinarrituak, eta zerbitzuen galera, biztanleak gutxitzearen ondorioz.

d. Administrazioaren ikuspegitik, ez dute ez gaitasunik, ez baliabiderik, ez hirigintza- eta lurralde-kultura egokirik egoera sozioekonomiko berrien ondoriozko kudeaketarako.

e. Produkzio-jardueraz gain, oinarritzko beste funtzio batzuk nabarmendu behar dira, hala nola: gizarte-funtzioa, iraupena bermatzen duena; kulturala, herri-tradizioak eta – kulturak zaintzen dituena; eta ingurumenekoa, paisaia eta biodibertsitatea zaintzeaz arduratzen dena.

Laburtuz esan da landagunea hiri ez den guztia dela, edo, bestela esanda, hiri-espazioari mugak jartzen dizkion hori dela.

Generoaren ikuspegitik, emakumeak eginkizun nagusia du giza-espazio horretan: azterlan ugaritan lotu izan da landa-bizimoduaren biziraupena emakumeak ingurune horretan jarraitzearekin. Areago, azken urteetan ingurune horretan izan den aldaketa zuzenean erlaziona daiteke emakumeak ekonomia-, lan- eta gizarte-bizitzan duen inplikazio gero eta handiagoarekin; hala, nagusiki emakumeei eta gazteei dagozkie elkartegintza-ekimen guztiak eta nekazaritza-jarduera osatzeko egiten direnak.

Beraz, arrazoizkoa iruditzen zaigu berdintasun-politikak

lehenasunezko helburu bihurtu izana, landa-ingurunea zaintzeko eta biziberritzeko prozesuan zer garrantzi duten kontuan hartuta.

Genero-ikuspegian egindako ibilbide, berriro diot, labur honetan, irudipena dugu azterlan, tratatu eta planetan hirigintzarekiko erlazioa aztertzen duten parametroak lotuago daudela hiriko emakumearekin landakoarekin baino. Genero-desberdintasunetik abiatzen gara; izan ere, oraindik ere agerikoa da eremu guztietan, baina are nabarmenagoa landa-ingurunean.

Ingurune horretako bizimoduaren berezitasunek baldintzatu egiten dituzte emakumeen zenbait eskubide, hala nola beren lana ikusia izateko, erabakietan parte hartzeko, hezkuntzarako, osasunerako, komunikabideetarako eta haien borondatezko eta beharturiko mugikortasunerako, teknologia berrietarako eta birziklapen pertsonalerako eskubideak.

Bestalde, ez da zehatza landa-inguruneaz espazio homogeen gisa hitz egitea. Zehazki, Arabakoan komunikazio-azpiegiturak nahiko onargarriak dira, ekipamenduak eta zerbitzuak onak dira, eta teknologia berrietarako sarbidea ere badago lurraldearen zatirik handienean; beraz, hiri-ingurunearen parekoa da.

Hori garbi geratu da IKTk eginiko “Emakumeak landa-eremuan” azterlaneko ondorioetan.

Arazo nagusiak, ostera, bai dituzte denek, eta familia-ingurunean dagoen erantzukidetasun-mailari dagozkie. Emakumeak lan produktiboaren munduan sartu dira, eta lan erreproduktiboaren kargu egiten ere jarraitzen dute; alabaina, gizonak ez dute egin bide simetrikoa etxeko lanen

parte proportzionala beren gain hartzeari dagokionez, ustategien titulartasunarekin, erabakiak hartzeko aukerarekin (Arabako, 51 udalerrri daude eta 6 alkate dira emakumeak) eta mugikortasuna eta garraio publikoa erabiltzeko aukerarekin.

Balio beza, etsenplu gisa, Guardiako Adierazpena deiturikoak. 2010eko urriaren 15ean, LANDAKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEAN, egin zen lan-jardunaldiaren emaitzako agiria da. Jardunaldi hartan, “Parte hartu, zeuk erabaki” lelopean, honako hau aldarrikatu zen: gizonekin alderatuz ez dagoela baldintza-berdintasunik landa-ingurunean erabaki-esparruetan; erantzukidetasunik ez dagoela familia-eremuan; zalantzan jarri zen erabakitze postuetan emakumeek duten egitekoa; amatasunagatik edo seme-alabak eta adinekoak zaintzeagatik uko egin behar izaten dietela aukera pertsonalei, sozialei eta lan arlokoiei; gizonen ereduak dituzten erabakitze guneetan dagoela antolatua parte-hartzea; emakumeak ahaldu behar direla arlo pertsonal eta kolektiboan; gizonak berdintasunean prestatu behar direla; horrez gainera, belaunaldi berrien gaineko kezka ere agertu zen, berdintasun aizunen pean besoak gurutzaturik gera ez daitezten.

4. Generoa arkitektoen eta hirigileen lanbidean

Arkitektura-ikasketak egiten ari direnen ehuneko berrogeita hamar emakumeak dira jadanik. Ez dago, beraz, inolako desberdintasunik gaitasun eta trebetasun aldetik, eta, hala ere, Ines Sanchez de Madariagak gehiagotan ere aipatuko dut gogorarazi digunez, “emakumezko arkitektoak neurrigabeki ordezkaturik ageri dira soldata txikiak kobratzen dituzten arkitektoen artean eta lanbidean gutxien desiratzen diren lanpostuak inoren konturako soldatapeko gisa betetzen dituzten artean. Orobat, erabateko

gehiengoa dira aukera profesionalik eta lan-sustapenik ez izateagatik lanbidea uzten dutenen artean. Emakume horiek neurrigabeki ari dira pairatzen krisiaren ondorioak”.

Arkitektura-prestakuntzan bereizkeria dago, batez ere arloak zenbat eta subjektiboagoak izan, eta beharrezkoa litzateke arkitekturaren historia berrikustea, prestakuntzan emakumearen irudia txertatu ahal izateko, erreferente eta eredu berriak bilatuta.

Bestalde, arkitekturako eta hirigintzako talde profesionala eragile protagonista da hirien, etxebizitzaren, garraioaren, ekipamendu eta zerbitzuen eta astialdi eta aisialdiko espazioen garapen eta erabilerari buruzko erabakiak hartzeko orduan. Beraz, desiragarria litzateke berandu baino lehen behar besteko sentikortasuna eta kontzientzia lortzea hirigintza erabiltzeko eta gozatzeko orduan bereizkeria-egoera gehiagorik izan ez dadin emakumeen eta gizonen artean.

Bidezkoa iruditzen zaigu antzekotasunak ezartzea hirigintzako berdintasunean sentsibilizatzeko prozesu honen eta, arkitekturako profesional gisa, duela ez hamarkada asko diziplina horretan irisgarritasuna bermatzeko neurriak txertatuta aurre egin behar izan genion prozesuaren artean. Lehen diseinatzeko orduan pertsona GUZTIAK gogoan izan behar izaten genituen bezala, ordura arte alde batera uzten baitziren desgaitasunen bat zuten pertsonak, orain DENAK (“todos”) esatean alde batera uzten dira EMAKUMEAK (“todas”).

Honela dio Ines Sanchez de Madariagak: “Kontrakoa da gehiago: lehenik eta behin gizonen ohiko premiei, ikuspegiei eta bizi-esperientziei erantzunez pentsatzen eta diseinatzen dira hiriak, arau unibertsaltzat hartzen baitira.

Hiria erabiltzeko orduan desberdinak dira errealitateak, premiak eta helburuak gizonen eta emakumeen artean. Desberdinak dira, lehenik eta behin, banakoen sexuari loturiko desberdintasun biologikoak daudelako: gorputz-neurri desberdinak eta indar fisiko desberdina; horiek zalantzan jartzen dute, esate baterako, Le Cobursierren “Modulor”-ko baliozkotasun unibertsal usteko hori.

Hirigintzak erronka bizkorgarri bat du aurrez aurre: modurik onena bilatzea, bai gizonentzat eta bai emakumeentzat errazagoa izan dadin lana eta etxeko bizimodua espazio eta denbora aldetik antolatzea.

5. Landa-inguruneke hiri-plangintzaren tailerra: unibertsitate-eremuko esperientzia bat

Arabarrientzat, Landa Inguruneke Hiri Plangintzaren Tailerra programatzea Arabako lurraldeke hiri- eta arkitektura-ondarea sustatzeko eta zabaltzeko ekintza bat gehiago da, eta, beraz, ondare hori zaintzeko estrategiaren parte da.

2006. urtean planteatu zen lehenengo ikastaro-tailerra antolatzea, Madrilgo San Pablo CEU Unibertsitate Politeknikeko Arkitektura Eskolarekin lankidetzan, unibertsitate-esparruan hausnartu eta ideiak eman ahal izan ditzaten lurralde horrek berezko duen problematikari buruz. Ingurune horren inguruabar soziourbanistiko espezifikoei buruz ohartarazteko modu bat da, etorkizuneko profesionalak arkitekturaren eta hirigintzaren garapen bereziari buruz sentsibilizatzeko tresna bat, parte hartzeko eta diziplina anitzeko prozesuetan partaide izanik gizarte-eragileengandik hurbil lan egiteko modu bat erakusten diena.

Horretarako, eskualdean jarduera bat sortu behar da, nahiz eta denbora aldetik mugatua, bi eremutako giza-taldeek

elkarrekin harremanetan jartzeko modua izan dezaten: batetik, Madrilgo unibertsitate-inguruneko ikasleak eta irakasleak, eta, bestetik, tokiko eragileak eta biztanleak.

Ikuspuntu akademikotik, ikastaroa bi ikuspegiren arabera antolatu da, bi lan-eskalarekin bat etorritz.

Lehena oso askea eta irekia da, eta helburua du bide ematea ikasleek gogoeta egin dezaten, diziplina anitzeko hurbilketetatik, espazio kritiko gisa hautatutako landa-ingurunearen inguruan. Tartean sartzen dira ingurumen-alderdiak, produktiboak, sozialak, fisikoak eta abar, eta ikasleek proposamenak egiten dituzte horiekin, alde aurretik baldintzatuko dituen ezer gabe eta helburu zehatzik gabe.

Bigarrena mugatuagoa da, eta ardatza da bizitegi-garapen batean esku hartzea, plangintzak eta irakasgaiak ezartzen dituzten lege- eta arau-betekizunak aplikatu ahal izateko.

Jatorrian tailerreko plangintzak berak kritikagai eta aztergai izan behar zuela erabaki genuela eta, TAER 2010-2011 deialdian, Arabako Mendialdeko Haranari buruzkoan, genero-ikuspegiaren edukiak barneratzea erabaki genuen, hiru arrazoirengatik:

- Lehenik eta behin, tailerra bat etorri da Arabako Foru Aldundiaren Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako III. Plana martxan jarri den unearekin.
- Bigarrenik, ezin dugu ahaztu tailerrean parte hartzen duten ikasleen % 50 baino gehiago emakumeak direla eta beren lanbidea emakume-izaerari loturik garatuko dutela, eta inguruabar horrek, erremediorik gabe, hiri-plangintza ulertzeko modu berriak ezarriko dituela, ez bakarrik emakumezko arkitektoentzat, baizik eta baita

gizonezko arkitektoentzat ere.

- Eta azkenik, eta esatea zilegi bazaigu garrantzitsuena, emakumeak eginkizun erabakigarria duelako landa-bizimodua iraunarazteko eta garatzeko, eta, beraz, beharrezkoa delako plangintzan haien ikuspegia eta premiak kontuan hartzea, biziraupena bermatzeko metodo gisa.

Ikastaro-tailer formatua planteatu da, Arkitekturako 4. mailako ikasleekin eta Hiri Plangintza irakasgai irakasleekin, eta argiro berezitateko lau fasetan antolatu da:

- Lurraldearekin, bertako eragileekin eta hirigintzaren, generoaren eta hirigintza barneratzailearen arloko adituekin harremanetan jartzeko jardunaldia. 100 bat ikasle joaten dira lurraldera, eta asteburu batean lehen eskutik jasotzen dute informazioa herriko arduradun politiko eta teknikoengandik, Gizarte Sustapenerako Foru Zuzendaritzako ordezkariengandik eta genero-gaietan inplikaturako elkarteetatik. Horrez gain, hitzaldi espezializatu bat ematen die Ines Sanchez de Madariagak. Bera arkitektoa da, Zientzia eta Berrikuntza Ministroaren Kabineteko Emakumeen eta Zientziaren Unitateko zuzendaria eta Madrilgo Arkitektura Eskolako Hirigintzako irakasle titularra.
- LANEN PRESTAKETA. Lehenengo ideien garapena eta lanen jarraipena. Fase hau Madrilen garatzen da, eta horren bidez aurrera egiten da TAILERRAREN fasean landutako ikuspegiarekin; hain zuzen, zirriborratutako informazioaren gainean hausnartzen da, eta informazio hori berriro landu eta aurrera egiten da, azken lana entregatu arte.

- ERAKUSKETA. Berrero ere, aztergai den lurraldean egiten da. Lanak ikusgai egon diren aldi honetan, lurraldearekin eta bertako eragileekin berrero ere harremanetan jartzen dira ikasleak, eta egindako gogoetak, ideiak eta proiektuak aurkezten dituzte. Bisita tematikoak egiten dira, tailerraren osagarri.
- ARGITALPENA. Ikastaroa amaitu ostean, lanak dokumentu batean argitaratzen dira, izandako esperientziaren eta egindako lanaren lekukotza gisa; horrez gain, tailerraren garapenari eta emaitzari buruzko ondorio orokorrak ere argitaratzen dira.

Generoa zeharka sartuta, asmoa zen generoari buruzko hausnarketa-gune bat sortzea arkitekto/hirigilearen lanbidearen inguruan, eta, zehazkiago, landa-ingurunekeo gizarte-dinamikan duen eraginaren inguruan.

Xedea zen gogoetari eta eztabaidari balio erantsi bat ematea, eta inoiz ez da jo izan lanei ezarritako inposizio gisa. Horretarako, Ines Sanchez de Madariagak ikasleei emandako eskolaren helburua zen oinarritzko kontzeptuak erakustea, hiriaren erabileran genero-desberdintasun horiek ulertu ahal izateko. Kontzeptu horietatik abiatuz, zer desberdintasun dauden aztertzea, bai hirigintzaren eremu garrantzikoetan —garraioa, etxebizitza, lantokiak, ekipamenduak, astialdiko eta aisialdiko espazioak—, bai prozesuari dagozkion alderdietan —estatistikak eta aurretiazko azterlanak, inbertsio-lehentasanak, herritarren parte-hartzea eta talde tekniko eta politikoetako parte-hartzea, lurzoruak sailkatzeko eta kalifikatzeko teknikak, ebaluazioa eta jarraipena, eta abar—.

Horrez gainera, jardunbide onei buruzko gomendioak egin ziren funtsezko eta prozesuko alderdi horien guztien gainean.

Azkenik, geratzen zen denboran xehekiago aztertu ziren zenbait etsenplu: Espainiako garraioaren gaur egungo estatistiketan dauden genero-joerak eta Vienan 1990eko hamarkadan eraikitako Frauenwekstadt etxebizitza-proiektua.


6. Ondorioak: Ibilbide pertsonal eta, beraz, politiko bat.

Generoaren gaiak izugarritzko eztabaida sortu du ikasleen eta irakasleen artean, eta hori oso positibotzat jo behar da.

Irudipena dugu ikasleek desberdintasuna ez dutela sumatzen emakumei bizitzaren eta gizartearen eremuetan kalte egiten dien faktore kritikiko gisa. Eztabaida politikotzat daukatela.

Ikasleek oro har sentitzen dute generoaren arazoak eta desberdintasunak beste klase sozial, beste garai edo beste latitude batzuei dagozkiela. Irudipen hori gizonezko ikasleek zein emakumezko ikasleek dute.

Ines Sanchez de Madariagak oso ondo azaldu zuen hori: “Espero izatekoa; izan ere, neska gazteak, ikasle diren bitartean, emakumei eta gizonei tratu berdina ematen zaien bizitzaren aroan daude. Oraindik ez dute pairatu lan-esparruko eta etxeko lan-karga bikoitza, ez lan-bereizkeriarik soldata eta sustapen aldetik, ez zahartzearekin sortzen den gizarte-estandar bikoitza, hots, emakumeentzat erakarpen fisikoa galtzea eta gizonentzat boterea eta baliabideak pilatzea. Emakume gazteei kosta egiten zaie beren burua halakotzat hartzea, ez dute beren burua ikusi nahi oro har gizarte-desabantailan dagoen talde bateko kide gisa. Psikologiak azaldutako ukapen, erresistentzia eta disonantzia kognitiboaren ohiko ondorioak agertzen dira haiengan; ulargarriak,



bestalde, neska gazteen kasuan. Ukapen, erresistentzia eta disonantzia kognitibo horiek partekatzen dituzte, jada ez hain modu ulergarrian, errealtatea ikusi nahi ez duten beste gizarte-talde batzuek ere, ez dadin gerta, kasu horretan, ebidentzia onartzeak berekin ekartzea erantzukizun banako eta kolektiboak hartzeko betebeharrak, portaerak eta ohiturak aldatu beharra, eta, ondorioz, aurreikus litekeen bezala, pribilegioak galtzea”.

Alabaina, eztabaidan aurrera egin ahala, areagotu egiten zen gaiarekiko interesa.

Esan behar da tailerreko irakasle arduradunak dinamika berean zeudela genero-hirigintzaren zehaztasunen inguruan hartu zuten jarrerari dagokionez. Eta horren eta irakasgaiaren egutegiaren eta edukien ondorioz, ez zen behar beste denbora izan proiektuan generoa barneratzeari buruz gogoeta egiteko.

Hori horrela, azken ondorea ez da ia zirriboratu ere egin lanetan, eta ez da sumatzen presentzia esanguratsurik izan duenik. Hala ere, talde askok kontuan izan zuten generoa, batez ere lurralde-proposamenen hasierako zatian, askeagoa zenez gero. Batzuetan, ikerketa-zentroak eta unibertsitateak sortzeko proposamenetan emakumeek presentzia handiagoa zutenak nabarmendu zituzten. Beste batzuetan, genero-indarkeria azpimarratu zuten; hain zuzen, datuak eman ziren eta ahalegina egin zen proposamenen fasean tratatu txarrak pairatutako emakumeek zer aukera dituzten barneratzeko. Oro har, analisi askotan generoarekin loturiko elementuak nabarmendu ziren (estatistiken bidez agerian utziz), nahiz eta horrek gero ez berekin ekarri gaiaren inguruko proposamen-ekimenik.

Amaitzeko, generoa hirigintzan gai berritzailea da gutako askorentzat, eta oso gutxi aztertua, eta tailerrean gogoeta

hori sartze hutsak bide ematen du ikasleengan beharbada etorkizunean ondorioak eta fruituak ekarriko dituen sentikortasun bat sortzeko.

Ez da erraza generoaren ikuspegiari heltzea hiri-proiektuak egitean. Aldiz, izugarri positiboa da barneratutako gogoeta; izan ere, ikasleak sentibilizatzen ditu, haien egoera pertsonala eta etorkizun profesionala oinarritzat hartuz. Zenbait ikaslerentzat beren gertakari akuilatzailea izan daiteke.

Ikasturte honetan, lurralde konplexuago batean planteatu dugu tailerra, hain zuzen ere Aguraingo udalerrian, eta ziur gaude tailer berri horretan esperientzia zehatzak planteatutako direla eta ikasleek argiro identifikatu ahalko dituztela hirigintza eta arkitektura berdintasuna aintzat hartuta egiteko moduak.

Amaitzeko, jakin badakigu gure belaunaldia berandu iritsi dela bai komunikazioaren teknologia berrietara eta bai generora, eta konturatu gara azken arlo horretan zer landurik badutela arkitekturako ikasle-belaunaldi berriek ere. Beraz, gai horietan goizago hasi behar dugu, eta, alde horretatik, prestakuntzarako ekintza-aukerak zabalduz, duela urte batzuetatik Arabarrin programa didaktiko bat ari gara garatzen, LHko eta DBHko ikasleek denon kultur ondarea ezagutu eta errespetatu dezaten; hain zuzen, azken urte honetan, hezkidetzeta-filosofiaren bidez sentibilizatu dira, rol sexista eta androzentristak eraitsiz, mintzaira zainduz eta lankidetzan arituz lanak eta erantzukizunak arlo guztietan banatzearen garrantziaz kontzientziatuta.

5.5.

Tokiko esperientziak

“Hemen denok jolasten dugu” proiektua

Javier Peña eta **Amaia Elorza**, arkitektoak, JAW estudioa

HEMEN DENOK JOLASTEN DUGU futbol-zelaietan hiri-aukerak sustatzeko espazio bat da; helburua da herritarren parte-hartzea eta espazio publikoarekiko konpromisoa sustatzea, futbol-zelaiak demokratizatuz; izan ere, irizten zaio lurzorua eta lurzoruko baliabideen kontsumoa ez dagoela orekatua gaur egungo gure testuinguruan egiten den gizarte-lan ezinago badaezpadaokarekin.

Hiri-hazkundearen azken urteotan, zelai horiek gure hiri eta herrietako leku pribilegiatueta kokatu dira, eta ahal handiko leku bihurtu dira espazio publiko gisa erabiltzeko eta, ondorioz, erabilera mistoak eta hiri-komplexutasuna sustatzen laguntzeko; horrek finkatutako ehunaren kalitatea leheneratzea dakar, gutxieneko esku-hartze batzuk eginda.

Gainera, HEMEN DENOK JOLASTEN DUGU proiektuaren iritziz, honako hau aukera paregabea da espazio horien joera eskusibista eta sexista itzultzeko, eta, horretarako, besteak beste bizikidetzaren positiboko, kultura anitzeko, genero anitzeko eta diziplina anitzeko leku gisa eta, azken batean, gure errealitate ugariatatik albat gertuen dauden leku gisa erabiltzen eta ikusarazten ditu.

Proiektuaren deskribapena

Orain arteko hitzaldietan azaldu denaz oso bestela heltzen diogu guk genero-ikuspegiari hirigintzan; izan ere, gure ardatza da emakumeok legez/benetan sarbiderik ba ote dugun edo ez espazio jakin batzuetara.

Ni joan ezin naitekeen hiriko zein lekutara joan zaitezke zu, ni emakume eta zu gizon izate hutsagatik?

Galdera horren berehalako erantzuna hau izaten da: ‘Inora ez, beharbada beste herrialde batzuetan bai, baina hori hemen jadanik legez kanpoko da’. Baina errealitatea arreta handiagoz aztertuta, ikusi genuen hori egia dela; beharbada ez du jarriko “emakumeak debekatuta” karteltxorik, baina genero-desberdintasunak, egin ditugun aurrerapenak gorabehera, estrukturalak dira gure gizartearen alderdi askotan, eta desberdintasun horiek gaur eta hemen isla dute oraindik gure gizartearen euskarri fisikoan, hau da, guri dagokigunez, hirietan. Eta, gainera, nolabait GIZARTE-BOTEREA baliatzen den espazioei lotuta egon ohi dira.


Identifikatutako kasuen artean, proiektu honetarako futboleko jarri dugu arreta, eta pauso hauek jarraitu ditugu:

1. Nolakoa da gaur egungo futbol profesionalak eraikitzen duen mundua?
2. Zein da futbolarik eraikitzen duen mundu horren isla gure hirietan?
3. Zer egingo genuke ahalik eta ahalegin txikienarekin futbolarik gure hirietan duen isla hori alderantzizatzeko eta guk eraiki nahi dugun munduaren isla bihurtzeko?

Futbola, behi sakratua

Aitzakiatzat hartuta talde-kirol bat dela, masen mugimendu bat, estatuko kirolgorena, gutxienez aberriaren harrotasuna... gure bizitzetan, hirietan eta kulturetan iragazi da futbola, jainkoaren graziaz izendatu denaren askatasunarekin. Gure espazioa, gure denbora, gure zorro publiko eta pribatuak eta gure subkontzientea ere atxiki ditu.

Edonori galdetzen diogula ere ‘Eta zu zein taldetakoa



zara?', beti aurkituko dugu erantzunen bat, argia eta zehatza, eskuarki pertsona hori bizi den hiriko taldearekin bat datorrena, Barça edo Madril kontuan hartu gabe, seriean etorri ohi baitira. Gauza bera gertatzen ote da giza eskubideez, globalizazioaz, lan egiten dugun enpresaren gizarte-erantzukizunaz galdetzen badugu? Ez, orduan 'niri politika ez zait interesatzen' erantzuten digute.

Zerk bihurtzen du futbola behi sakratu? Eta, garrantzitsuena, zergatik ez luke hala izan behar?

Futbolak eraikitzen duen mundua

Futbola testuingurutik kanpo, soil-soilik kirol gisa aztertzen badugu, baieztatu dezakegu, huts egiteko beldurrik gabe, oso itxura ona duela. Ez alferrik, ELKARLANAREN baldintza guztiak betetzen ditu: elkarrekiko mendekotasun positibo bat ezartzen da parte-hartzaileen artean, roletan bada heterogeneotasun eta osagarritasun bat, bai eta elkarrekiko mendekotasuna ere talde barruan, feedback garrantzitsu batekin... Baina, gaur egun, bertute horietako zenbat egotz diezazkiokegu futbolak eraikitzen duen munduari?

Lehenik eta behin, alferrik galtzen du, guztiz galdu ere, bere gaitasun integratzailea. 10 edo 12 urteetatik, taldeak sexuaren arabera bereizten dira; lehenagotik, joko-mailaren arabera bereizten dira, eta, gainera, ikastetxearen, hiriaren edo herrialdearen halako harrotasun bat defendatzeko eginkizuna egotzen zaie; hala, lehia eta leku bateko kide eskusibo izatea elikatzen dira. Hori, kontuan hartu gabe une jakin batetik aurrera klubek jabego-ahal bat eskuratzen dutela 15/16 urteko jokalariei gainean.

Bigarrenik, nahiz eta futbola gizonezkoen ente profesional gisa oso errespetatua den eta arauak zorrotzak diren

horri dagokionez, eraikitzen duen mundua, egiaz, oso begirunegabea da. Alabaina, futbolak elikatzen duen zaletasun-dinamikaz harago, arrazionaltasun orotik kanpo sustatzen baititu kontrako taldearen, epaileen, gain behera doazen norberaren taldeko jokalariei aurkako irainak eta halakoak ('nik nire seme-alabei futbol-zelaian soilik uzten diet biraoak esaten, barrua hustu dezaten' esaldi ezaguna), emakumezkoen kirol profesionala, gizonezkoen kirol profesionala guztiz imitatzen duela, egunkarrietan gizonezkoen futbol amateurraren ondoren oin-oharretara bazterturik egoteaz harago, futbolak berak ezartzen dituen arau hierarkikoak ere hausten dituzten jardura begirunegabe onartu eta normalizatu horiez guztiez harago, hedabideetako irudi publikoa dago.

Ez dugu tesi bat egingo komunikabideetan emakume kirolariak ezkutatzeko dagoen joerari buruz, ez eta batzuei eta besteei eskaintzen zaien denborari buruz ere, ezta partiden aurreko, ondoko eta bitarteko emanaldietan erabiltzen diren mintzaira eta adierazpideei buruz ere, soil-soilik Google hartuko dugu, eta zer irudi irteten zaizkigun ikusiko dugu:

- GIZONEZKOEN FUTBOLA (Bilatu): lehenengo hamar irudietatik hamarretan, gizonak edo haurrak agertzen dira futboleko jokatzeko.
- EMAKUMEZKOEN FUTBOLA (Bilatu): lehenengo hamar argazkietatik lautan baizik ez dira agertzen emakume futbolariak (batzuetan jokatzeko, beste batzuetan ate aurrean jarrita); hirutan, emakumeak azpiko arropan agertzen dira, halako eduki erotikoa duten irudietan; eta, gainerakoetan, infografiak edo txisteak agertzen dira; hain zuzen, horietako batean futboleko bota takoidun bat agertzen da, eta argazki-oinak honela dio:

‘honelakoak dira emakumezkoen futboleko botak, karkar-kar’.

- FUTBOLA (Bilatu): lehenengo hamar argazkietatik bost infografiak, marrazkiak edo txisteak dira; bitan baloi bat agertzen da; beste bitan emakumeak azpiko arropan agertzen dira; eta bestean, emakume-ilara bat agertzen da, denak futboleko botak, kuleroak eta elastiko zuri busti bat dituztela soinean. Oin-oharrak honela dio: ‘Futbola oraindik gehiago hobetu daiteke’.

Hori da futbolaren irudi publikoa.

Futbolean dugun parte-hartzea

Futbolaren gizarte-eginkizunaren defendatzaileek hauxe esango dute: ‘baina futbolean edonork joka dezake, antola ezazu zuk zure taldea’. Ikus dezagun, bada, benetan zer testuinguru aurkitzen dugun.

Hasteko, jadanik adierazi dugu zein diren gure erreferenteak; futbolaren kirol-irudi publikoa gizonezkoa da soil-soilik, eta, gainera, neskak umetatik dugun sozializazioa guztiz desberdina da, eta heldu garenean ere hala da oraindik. Norbaitek partida bat antolatu badu, aurrez jokatzeko dugula baldin badaki gonbidatuko gaitu soilik; bestela, gonbidatu ez eta geure burua eskaintzen badugu, galdera hau egingo du ezinbestean: ‘A! Baina ba al dakizu, bada, futbolean jokatzeko?’. Eta batek pentsatzen du bere artean: ‘A! Eta zuri zer axola dizu? Nik jarri al dut, bada, zalantzan zure gaitasuna? Eta zuk jarri al duzu zalantzan nire kide gizonezkoaren gaitasuna, jokatzeko eskaini diotuzuean?’

Gainera, guztiz datu esanguratsua da taldeek federatzeko klub baten barruan egon behar dutela edo klub bat osatu

behar dutela; izan ere, horrek, paper gogaikarriak egin behar izateaz gainera, barne-hierarkia batzuk dakartza. Premia hori, klub askok emakumezkoen kirolaren inguruan duten interesik eza eta gure parte-hartze eskasa zuzenean lotzera ausartu gabe, nahiko datu argigarriak emango ditugu:

BIZKAIKO FUTBOL FEDERAZIOA

- Emakumezkoen ordezkariak: Lau liga daude, horietako bakoitzean multzo bakar bat dago eta multzo bakoitzeko 16 talde. Guztira 64 talde eta 960 emakume futbolari dira.
- Gizonezkoen ordezkariak: 13 liga daude, guztira 28 multzo daude eta multzo bakoitzeko 16 talde. Guztira 448 talde eta 6.720 gizon futbolari.

Orduan, norke erabiltzen ditu futbol-zelaiak? Gutxi gorabehera 960 emakumek eta 6.720 gizonek Bizkaian. Beste probintzia batzuetan, desberdintasunak are eskandalagarriagoak dira: Madrilen 2.800 emakumek eta 76.640 gizonek; Cadizen 330 emakumek eta 17.550 gizonek.

Ondoriozta dezakegu, huts handirik egin gabe, horren ondorioz emakumeek eta gizonen oso modu desberdinean erabiltzen dituztela futbol-zelaiak eta halako espazio pribilegiatuak, eta gehienbat gizonen mesedetan izaten direla halako azpiegituretan egiten diren inbertsioak.

Berdintasun ez-benetakoa eta ez-legezkoa

Baina desberdintasun bakarra ez da parte-hartze kuantitatibo berezia dutela; izan ere, futbolarik, oro har kirolak bezala, baditu halako lege-lizentzia batzuk zorionez gure gizarteko beste eremu batzuetan gainditzen ari direnak.

Izan ere, nahiz eta benetakoa izan alderdi askotan, SEXUAREN ARABERAKO BEREIZKERIA ez da legezkoa ez gure eremu politikoan, ez eta, harrigarriro eta zorionez, gure eremu ekonomikoan ere (badira kupo batzuk lehenengo mailan eta tresna nahiko eraginkorrak bietan bereizkeria horren aurka egiteko), are gutxiago gure hezkuntza-eremuan (ikastetxe publiko guztiek edo laguntza publikoa jasotzen duten guztiak izan behar dute mistoak nahitaez), eta, hala ere, legezkoa, onartua eta defendatua da oraindik ere gure kirol-eremuan.

Gainera, ez bakarrik onartzen eta normalizatzen da bai talde profesionalak eta bai ikastetxeetakoak sexuaren arabera bereiztea, baizik eta zaildu eta are debekatu ere egiten da parte-hartze mistoa.

Gizonak eta emakumeak desberdin garatzen direla, gaitasun desberdinak dituztela eta halakoak aipatzen dira, baina Ronaldori gizona izateagatik, Pujoli txikia izateagatik edo Davisi miope izateagatik jokatzeko debekatu beharrean, Maribel Dominguezi debekatzen zaio, emakume izateagatik.

Futbolaren kreditua

Zenbat kostatzen da futbol-zelai bat mantentzea? Zenbat kostatzen da eta zenbat energia kontsumitzen du zelaia argizatzeak? Zenbat futbol-zelai daude erabiltzen ez direnak? Zenbat diru publiko gastatzen da taldeetan? Eta federazioetan? Eta porrot egin duten klubetan?...

Lortu ditugun datu urriak nahiko argigarriak dira: belar naturaleko futbol-zelai batean inbertitzea eta mantentzea (aurkitutako aurrekontu arrazoizkoena, soil-soilik zelaiari dagokiona) 25.416 euro kostatzen da urtean (12 urterako); Alavesek Gizarte Segurantzarekin pilatzen duen zorra

600.000 eurokoa da; futbol klub guztien zorren batura 632 milioi dira. Zenbat oinarrizko errenta eta Mendekotasunaren Legean ezarritako zenbat laguntza ordaindu ahalko genituzke dirutza horrekin guztiarekin?...

Futbol-zelaiak, eskubidea edo pribilegioa?

Herri, hiri edo preziatzen den ezerez ororen erdian aurkituko ditugu futbol-zelaiak. Duela ez hainbeste urte, plaza bat aurkitzen genuen, bere frontoi eta guzti, eta bertan biltzen zen jendea, bertan jolasten ziren haurrak, bertan egiten zen feria igandeetan, partidak beste batzuetan... Gaur futbol-zelaiak soil-soilik futboleko jokatzeko ditugu, eta gainerako jarduerak molda daitezela ahal dutenarekin.

Zein da zelai horien benetako erabilera? Eta nork erabiltzen ditu?

Has gaitezen hasieratik, ikastetxeetako jolastokietatik. Publiko, pribatu, itundu... berdin dio, arau orokorra da hainbat zelai izatea eta gainerako espazioa libre uztea. Aztertutako kasurik gehienetan, egiaztatu dugu hori dela araua. Jar dezagun adibide gisa horietako bat: hiru kirol-zelai, hondar-espazioa inguruan, eta espazio-erreserba bat, hondar-izaera nabarmenik gabea, baina non, era susmagarrian, ez den sartzen neurri onargarriko zelairik...

Kalkulu gutxi batzuk egin, eta honako hau lortzen dugu: jolastokien % 42 futbol- eta saskibaloizelaitarako dira, %45 hondar-espazioa da eta espazioaren % 13 beste erabilera batzuetarako da; eta hori halako espazioei eman dakiekeen erabilerarekin alderatzen badugu: eskolako neska-mutilen % 15ek erabili ahalko dituzte zelai horiek, eta gainerako % 85ek hondar-espazioa eta bestea partekatuko dituzte; gainera, kontuan hartzen badugu jolas-orduetan neskek

zenbat parte hartzen duten kirol-jardueretan (baztertuta egoteagatik edo interesik ez izateagatik), jolastokiko espazioaren ia erdia mutil gutxi batzuek okupatuko dute, eta neskaren batek, zorterik bada... eta pertsonen %15ek erabiliko dute jolastoki horretako espazioaren %42...

Gainera, erabileraz harago, lurzorua erabilera horren konnotazio jakin batzuetara estrapola dezakegu hori; izan ere, badirudi honako hau eman nahi dela aditzera: batetik, saskibaloia edo futbola ez den jarduera oro hondarrekoa dela; eta bestetik, edozein jarduera egin daitekeela futbol- edo saskibaloi-zelai batean, baina ez futbola eta ez saskibaloia ezin direla egin berariaz jarduera horietarako ez den leku batean.

Azterlan berezi hori alde batera utzita, begira diezaiegun gure hiriei. Zenbat ditugu? Zenbat espazio hartzen dute? Zenbat jende erabiltzen ditu benetan? Puerto Realen, gure proposamenetatik lehenengoa kokatu zen herrian, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, datu zirrargarriak lortu genituen, kontuan hartuta zelai batean 22 pertsona sar daitezkeela jokatzeko...

Zer gertatuko litzateke denok sartu ahalko bagina?

Futbol-zelaia 70x100m = 7.000m ²	Puerto Realeko espazio libreak 797.769m ²
Erabiltzaileak 22 jokalaria	Pertsona 40.677 pertsona
Pertsona bakoitzeko espazioa 318 m ² /jokalaria	Pertsona bakoitzeko espazioa 21 m ² /pertsona

Vitoria-Gasteizen, 45 m²/pertsona eta 11 m²/pertsona bitartean mugitu ohi gara, hiri-bilbearen dentsitatearen arabera.

Gainera, zelai jakin batzuek besteek baino erabilera murriztagoa dute; izan ere, talde batek edo bik baizik ez dituzte erabiltzen, soil-soilik gizonezko jokalariek, eta, gainera, gutxiegi erabiliak daude: gutxi gorabehera (eta oso kalkulu aldekoa eginda) erabil daitezkeen denboraren %38an erabiltzen dira; denboraren %62an hutsik daude, eta, hala ere, ahal handiko lekuak dira.

HEMEN DENOK JOLASTEN DUGU // JAWestudio

HELBURUAK

Gure proiektuaren xedea da helburu orokor batzuk lortzen laguntzea, ezin garrantzizkoagotzat baitaizkagu gaur egungo hiri-testuinguruan:

1. Herritarren parte-hartzea eta espazio publikoarekiko konpromisoa sustatzea.
2. Futbol-zelaiaren erabilera demokratizatzea.
3. Elkartzeko espazio berriak sortzea eta espazio horien aukerak aztertzea.
4. Hiri finkatuko hiri-espazioen kalitatea berritzea, gutxieneko esku-hartze batzuk eginda.
5. Konplexutasuna areagotzea, gure hirien barruan erabilera mistoak sustatuz.
6. Jakintzaren hiriei bide ematea, giza ahalaren bidez.
7. Kultura anitzeko, diziplina anitzeko, genero anitzeko topalekuak ikusaraztea aisialdiko lekuetan.

8. Bizikidetza positiboaren jarrerak futbol-zelaiaren erabilerrari lotzea, eta, hala, gaur egungo joera itzultzea.
9. Lehendik dauden espazio publiko eta pribatuaren aprobeitxamendua indartzea, sortu berrien aurrean.
10. Erabilera mugatuko espazioetarako irisgarritasun orokorra erraztea.

Horretarako, garatzen ari garen LAN-ILDOAK hiru norabide paralelo baina osagarritan kokatzen dira:

- Hiri-berrerabilera / Futbol-zelaiaren demokratizazioa
- Ikastetxeetako jolastokien diseinu parte-hartzailea
- Futbol-zelaietako hiri-aukeren mapa parte-hartzailea, parte hartzeko eta lortutako helburuak zabaltzeko tresna gisa.

1. Futbol-zelaiaren Hiri-berrerabilera / demokratizazioa eta jarduketa-gidaliburuaren idazketa.

1.1. "+URBANA+HUMANA" ESPERIENTZIA PILOTUA / LEHIAKETA-PROPOSAMENA _Sancho Davila zelaia_

Eta aurrez azaldutako horrekin guztiarekin, FUTBOL-ZELAIEN DEMOKRATIZATZEKO proposamena egin genuen, eta praktika hori normalizatzen hasteko hautatu genuen leku zehatz bati egokitu genion.

Proposamenaren oinarria futbol-zelai bati loturiko JARDUERA-KATALIZATZAILEA da. Katalizatzaile horrek hainbat elementu ditu, modu egokian erreplika daitezkeenak testuinguru bakoitzean, osaera malgu dutenez gero. Hauek

dira elementu horiek: 1. lurzorua kolonizatzaileak; 2. espazio alternatiboaren prestatzaileak / ikusarazleak; eta 3. estalkiak; gainera, erabakitzeko tailerrak eta espazioari berari lotutako jarduerak guztiak.

Proposamenaren asmo nagusia da zelaiak herritar guztiei zabaltzea eta espazio libreen sarean sartzea, horregatik kirol-erabilera deuseztatu gabe, baina bai horien sektarizazioa eta erabilera eskusibista saihestuz; horregatik, proposamenaren irakurketan ezin dira alde batera utzi ez haien erreplikagarritasuna, ez testuinguru guztietara egokitzeko gaitasuna, ez eta diseinu parte-hartzaile bat egiteko aukera ere, modulazioak ekarritako KATALIZATZAILE bakoitza dagoen ingurune bakoitzeko biztanleen eskutik.


a_ Lurzorua kolonizatzaileak

Egurrezko pieza pentagonal erabilgarriak dira, edozein lurzorutan erraz aurki daitezkeenak; izan ere, oso leku lokalizatuetan daude eta ez da beharrezkoa lurzoru alde aurretik tratatzea.

Horiek hedatzean sortzen duten sareari esker, okupatu gabe utzi daitezke lurzoruko hainbat espazio, eta hor koka daitezke landareak, lurzoru naturala eta sarearen kolonizazio suntsitzailea saihestuko duten beste elementuak, eta horien bidez eutsi aurrez dagoen ingurunearekiko erlazioari.

b_ Espazio alternatiboaren prestatzaileak / ikusarazleak (2.500-4.000 euro unitateko, tamainaren arabera)

Espazio berri bizigarriei forma ematen dieten piezak dira. Biltzeiratzeko eta/edo bertan eseri ahal izateko moduan daude eratuta, eta hainbat espazio sortzen dituzte bira



guztian, elkartzeko leku berriak itxiz edo irekiz.

Cadizko eta Andaluziako arkitektura tradizionalen oinarritzen dira; horretan funtsatzen dute sortutako espazioen klima-girotze pasiboa, alde batera utzi gabe oinarritzko eraikuntza soil bat, erraz gauzatzekoa eta mantentzekoa.

Sancho Davila zelaia kasuan, zelaira sartzeko atea dira; hain zuzen, inguruko horma iragazgaitz eta ez batera atsegina hausten dute, eta, hala, herritar guztiei irekitzen diete hiriaren espazio pribilegiatu hori.

Gainera, izaera berezia dutenez, objektu horiek nortasuna eta ikusgaitasuna ematen diete eremu horretan eta beste batzuetan egiten den edozein ekintzari; izan ere, nahiz eta tamaina edo forma aldatu, nortasun berezi hori izaten jarraitzen dute. Gure integrazio-ekintzen ikusarazleak dira.

c_Estalkiak

Fabrikatzen errazak diren oihalen bidez estaltzeko sistemetan oinarritzen dira, eta oso garrantzitsuak dira sortzen diren espazioak klima aldetik girotzeko; izan ere, kontuan hartuta Cadizko eskualdeko baldintza bereziak, bai eguzkiari eta bai tenperaturari dagozkionak, ezinbestekoa da itzala duten espazioak sortzea.

Tirante bidezko sistema erraz bati esker, erabiltzaileek erregula ditzakete, eta mantendu ere egin daitezke.

d_Erabakiak hartzeko / jardueretarako tailerrak

Proiektuek, erabili eta zain ditzaten bada xedea, ezin dute alde batera utzi herritarren parte-hartzea, sortzetik beretik;

horregatik, uste dugu DISEINU PARTE-HARTZAILEA dela HEMEN DENOK JOLASTEN DUGU proiektuaren zutabeetako bat, biztanleak espazio libre eta jarduerazko berri baten jabe egin nahi baititu.

Hala, diseinu modularrak bide ematen du beharrezko aldaketak egiteko, eta ERABAKITZEKO TAILERREN bidez, erabileren eta jardueren kudeaketa autonomo eta parte-hartzailea sustatzen da, eta, ondorioz, herritarrek zelaiaz JABETZEA.

1.2. FUTBOL-ZELAIEN HIRI-BERRERABILERARI BURUZKO GIDALIBURUA

Gure helburuak lortzeko jarraibideak biltzen ditu: Gidaliburua moldatzeko, dena delako futbol-zelaia demokratizatzekeo jarraitu beharreko pausoak ezartzen dituzten adierazleak aztertu eta zehaztuko dira, eta, horretarako, ekintzak, kontaktuak, harremanak eta egin beharreko jarduerak zehaztuko dira, zelaia erabiltzeko araberak.

Horien artean, honako hauek hartu behar ditugu kontuan: erabilera, espazioa, sarbideak, bizilagunak, herritarren premiak eta abar.

Hala, tailerren protokolo bat eta horien garapen didaktikoak ezartzen dira, bai jarraitu beharreko materialarekin eta bai prozesuekin.

2. Ikastetxeetako jolastokien diseinu parte-hartzailea

Ikasleen parte-hartze nagusiarekin eta zuzendaritza-taldearen eta irakasleen parte-hartze aktiboarekin, ikastetxeetako jolastokiak berriro diseinatuko dira; hala, futbol-zelaietan planteatu den bezala, bide emango zaio

eta ikusgai egingo da gure gizartearen errealitate konplexu eta aberatsa, eta erabiltzen dugun espazioaren zeregin hezitzailea baliatuko da.

Jarduera eta tailerren bidez, berdinen taldeen, adin-tarteen, gizarte-errealitateen eta abarren interesak eta premiak koordinatzen dira.

Material didaktikoa ikasleek arrunki erabiltzen duten formatu batean egin da; hain zuzen, formatu hori jolas-jarduera batekin identifikatzen da, KROMO BILDUMEKIN, alegia, eta horrek bide ematen digu mintzaira gerturatzeko, eta arreta eta interesa pizteaz gain ikasgelatik eta tailerretik ateratzeko ikasleak egiten ari diren proiektuaren gaineko eztabaida eta normalizazioa.

2.1. JOLASTOKIEN BERDISEINU PARTE-HARTZAILEAREN GIDALIBURUA

Eskola-umeekin lan egiteko unitate didaktiko batzuk dira, egokiak adin guztietarako, eta, horien bidez, ibilbide bat garatuko da eskola eta institutueta espazio horien (jolastokien) diseinu parte-hartzailean barrena.

Unitate horietan kontuan hartzen da hala ikasle bakoitzaren eta berdinen taldearen interesak balioztatzea eta koordinatzea nola beharrezko prestakuntza-jarduerak egitea. Eta katalogo bat ere badakar, espazio horiek gutxieneko baliabide ekonomiko batzuen bidez aldatzeko aukerei buruzkoa.

3. Futbol-zelaietako aukeren eta hiri-jardunbide onen mapa parte-hartzailea, parte hartzeko eta lortutako helburuak zabaltzeko tresna gisa.

<http://meipi.org/aquiahorajugamostods>

Parte hartzeko webgune bat abian jarritz, AMIA plano bat egin ahalko dugu, dauden futbol-zelaien sarea eta gure proposamenaren bidez aktibatzeke dituzten aukerak oinarritzat hartuta; hala, gure hirietako espazio publikoak hobetuko dira. Gainera, oso baliagarri izango zaigu ibilbide-orrria egiteko orduan; izan ere, bertan ez bakarrik jaso ahalko ditugu gure ikerketa eta azterlanak, baizik eta baita jende ezezagun askoren borondatea eta ideiak ere. Lan-tresna bat da, eta baita lortzen doazen emaitzak gizarteratzeko tresna bat ere.

Mapa horren barruan, eremuak lau kategoriatan sailka daitezke:

1. DENOK JOKATZEN DUGUN ZELAIK_Zelai edo proposamen horietan, egindako eta planteatutako eraldaketek aldaketa positibo bat edo gogoeta aberasgarri bat dakarte Hemen denok jolasten dugu programak lortu nahi duen espazioaren demokratizazioari dagokionez.
2. INORK JOKATZEN EZ DUEN ZELAIK_Zelai horiek oso erabilera mugatua edo ezdeusa dute.
3. GUTXI BATZUEK JOKATZEN DUTEN ZELAIK_Zelaiek eraldaketaren bat izan dute, baina ez Hemen denok jolasten dugu programak lortu nahi duen demokratizazioaren ildoan.
4. ZELAIK DENOK ORDAINTZEN DITUGU_Zelaiek, oso erabilera murriztua izateaz gainera, ekonomia- edo ingurumen-osagai bereziki garrantzitsua dute.

5.6.

*Tokiko esperientziak***Irakaspenak, tokiko esperientzia oinarri**

Cristina Cordeiro eta **Amaia Herrero**, Emari Berdintasunerako Aholkularitza

SARRERA

Emarin, 2006. urtetik ari gara proiektuak eta dinamikak egiten emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa hainbat gairekin lantzeko; horien artean, “Emakumeentzako Hiri Debekatuaren Mapa” deituriko proiektua dago. Proiektu hori munduko hainbat lekutan ari dira garatzen, eta azken urteotan gure herri eta hirietako askotan, emakumeen aurkako indarkeria eta haien segurtasuna hirien eta herrien esparruan lantzeko xedez, hirigintza-diseinuari dagokionez. Lehenengo etsenpluak Donostian, Iruñean, Basaurin eta Bilbon aurki ditzakegu, baina gaur egun EAEko udalerrien ia erdiek dituzte praktikan jarriak era horretako ekimenak.

Oro har elkartegintza-mugimendua eta zehazki emakumeen eta erakunde feministen mugimendua aspaldidanik ari dira aldarrikatzen kontuan har dadila herritarren iritzia izaera publikoko erabakiak hartzeko orduan. Gaur egun, erakundeetan kontuan hartzen hasi dira, ikusi baitute herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela beren politikak diseinatzeko orduan. Adibide argi bat da emakumeen parte-hartzea ezinbestekoa dela hirigintza-politikak diseinatzeko.

Emakumeok biztanleen erdiak baino gehiago gara, baina, gainera, historian zehar beste gizarte-talde batzuek arduratu gara, hala nola haurrez, adineko pertsonen eta desgaitasunen bat duten pertsonen.


Eremu pribatua eta publikoa, erreproduktiboa eta produktiboa, etxekoa eta lanekoa, edo nahi bezala izendatu, gure gizartean historikoki izan diren sexu-zatiketa eta rolanaketa islatzen dituzte. Emakumei eremu pribatua,

erreproduktiboa eta ez ordaindua, zaintza-lanak eta etxea egokitu izan zaizkie, eta gizonen, berriz, eremu publikoa, produktiboa eta ordaindua, lan-mundua eta kalea izendatu izan zaizkie.

Kontuan hartuta parte-hartze sozial eta politikorako lekua kalea edo etxea dela, emakumei beti galarazi zaie gai publikoetan parte hartzea; beraz, haien premiak ere ez dira kontuan hartu izan. Eta hirigintza ez da salbuespen izan. Emakumeek oso gutxi hartu dute parte hirien plangintzan. XIX. mendetik, hirietan ezin hobeki bereizi dira bizitza pribatuari eskainitako espazioak eta bizitza publikoari eskainitakoak; hain zuzen, azken horiek hartu dute garrantzi handiena eta horiei eman izan zaie lehentasuna. Zer lortu da horrekin? Bada, gaur egungo hiriak mugitzeko eta lan egiteko pentsatuak daudela, eta ez bizitzeko. Ahaztu edo bigarren mailara baztertu dira “produktibotzat” jotako jarduerak egiten ez dituzten pertsona horien guztien premiak.

Emakumeak arduratu badira beti etxeaz, familiaren zaintzaz (familiako haurrez, adineko pertsonen eta desgaitasunen bat duten pertsonen), haiek arduratzen dira erosketak egiteaz, haurrak eskolara eramateaz, adineko pertsonak mediku-kontsultetara eramateaz eta abarrez, argi dago haiek ezagutzen dutela hiria ondoen, haiek ibiltzen direla gehien. Haiek dira “adituak” espaloietan, oztopoetan, argietan... eta ez bakarrik haien bizipenengatik, baizik eta haien kargu dagoen biztanleria-sektore horren guztiaren premiak ezagutzen dituztelako. Horregatik esaten da emakumeak direla “ahotsik ez duten pertsonen ahotsa”.

Egia da gauzak aldatu direla, emakumeak pixkanaka-pixkanaka lan-merkatuan sartzen joan direla, eta, hala, pauso handi bat eman dutela bizitza publikorantz, horrek



berekin ekarri dituen aldaketa guztiekin, izan politiko, ekonomiko, sozial edo kultural.

Etzetik kanpo lan egiten duten emakumeentzat arazo larria da lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea, eta are gehiago larriagotzen da familia-kargak dituztenean. Alde horretatik, hiriak ez du askorik laguntzen, alderantziz baizik: emakume gehienek bizimodua izugarri zaildu dute kalean ibiltzeko dauden oztopoek, joan-etorriak garraio publikoaren ordutegietara egokitu beharrak, zerbitzuak eskuratzeko zailtasunek eta are saltoki txiki hurbilago eta erosoagoen kaltetan hiriguneetatik kanpo merkataritzagune handiak sortu izanak ere.

Hiriak etzetik kanpora lan egiten duten eta etxearen eta familiaren zaintzaz arduratu beharrik ez duten hiritar gizonezko, independente eta motordunen neurriera daude eginda. Profil hori betetzen ez dutenek oztopoak eta zailtasunak besterik ez dute aurkitzen hirian. Izan ere, hiriak gaizki funtzionatzen badu, eskuarki are okerrago funtzionatzen du emakumeentzat.

AZTERGAIA

Gu genero ikuspegipeko hirigintzaz interesatzen eta gaian trebatzen hasi ginenerako hasiak ziren jadanik zenbait proiektupartehartzekodinamikenbitartezemakumeenirritzia jasotzen; horien xedea zen emakumeek beren inguruneke zein lekutan ez ziren seguru sentitzen identifikatzea. Egiaz, halako proiektuak Berdintasunerako Ataletatik sustatzen ziren, hiru helbururekin: batetik, ingurunea hobetzea, emakumeen aurkako erasoak prebenitzeko; bestetik, hiri diseinuaz arduratzen ziren udal atalak sentsibilizatzea eta inplikatzeko, genero-ikuspegia txerta zezaten; eta, azkenik, emakumeen jabetasuna sustatzea, emakumeek beren

ingurunearen diseinuan benetan parte har zezaten.

Hala, egin genituen emakumeentzako hiri debekatuaren lehenengo mapek segurtasun faltarekin loturiko alderdiak jasotzen zituzten: Baina, pixkanaka-pixkanaka, analisi horri beste elementu batzuk gehitzen joan ginen, hala nola mugikortasuna, irisgarritasuna, zerbitzuak eta ordezkartza sinbolikoa, eta horietan oso garrantzitsua da emakumeen iritzia.

- Mugikortasuna: emakumeak ibiltzen dira gehienik oinez hirietako kaleetan, baina, horrez gain, garraio publikoan ere ibiltzen dira. Askotan, joan-etorri horiek korapilatsuak izaten dira, ez baitira haien premietara egokitzen.
- Irisgarritasuna: Kaleak gaizki diseinaturik daudenean, emakumeek pairatzen dituzten ondorioak. Oztopoak inguruabarren ondorio izan daitezke, edo kaleen diseinu txarraren ondorio. Azken horien barruan, oinezkoentzako oztopoak eta trabak daude. Emakumeak erosketa-poltsekin edo –orgekin mugitzen dira hirian barrena, baina, gainera, mugikortasun urriko pertsonak zaintzeaz arduratzen dira; beraz, maiz mugitzen dira haur-kotxeekin, gurgil-aulkiekin eta halakoekin. Emakumeek horren inguruan egin ditzaketen ekarpenek asko erraztuko lukete hiriko bizimodua mundu guztiarentzat.
- Segurtasuna: pertsona orok du arriskua hirian erasoren bat edo egoera arriskutsuren bat pairatzeko, baina emakumeek pairatzen dituzte eraso sexistak, emakume izate hutsagatik. Emakumeen aurkako indarkeria konpontzeke dauka gizarte honek oraindik, eta nahiz eta agerikoa den hirigintza-diseinua ez dela irtenbidea,

oso lagungarri gerta daiteke emakumeen segurtasun-sentipena handiagoa izan dadin. Argiztapen-faltak, hesiak, maiz gure kaleak betetzen dituzten zokoak oztopo handiak dira emakumeak hirian barrena seguru ibil daitezen.

- Ordezkaritza sinbolikoa: Emakumeek historian zehar egin izan duten lana, haien lorpenak eta ekarpenak ikusezin izan dira, ez baitira garrantzitsutzat jo. Arrazoi berberetatik, pertsona entzutetsuen izenak jarri izan zaizkie hiriei, kaleei, plazei eta eraikin publiko eta are pribatuei, baina oso bakanetan izan dira emakumeen izenak. Ezinbestekoa da emakumeen historia berreskuratzea, ez soilik dagokien lekua bete dezaten, baizik eta emakumeek orain arte izan ez dituzten erreferenteak izan daitezen.
- Zerbitzuak: Emakumeak dira hiriko zerbitzuen erabiltzaile nagusiak, dela mediku-zerbitzuenak (analisiak eta azterketak egitea, haurrak eramatea, adineko pertsonentzako errezetak hartzea eta abar) eta azokenak, dela garraio publikoenak, plazenak eta parkeenak. Emakumeek zerbitzu horien funtzionamenduari eta ordutegiari zer irizten dieten jakitea oso lagungarria izango da horietan hobekuntzak egiteko.

Hiri eta herri atseginagoak lortzeko, eta horietan bizitzea eta elkarrekin bizitzea posible izateko, hiru ikuspegi hartu beharko lirateke kontuan: politikak diseinatzeko eta planifikatzeko dutenena, politika horiek gauzatu eta jarduketara zehatzak egiten dituztenena eta espazioa erabiltzeko dutenena. Genero-ikuspegiak presente egon behar du horietako bakoitzean. Gaur hemen aipatuko ditugun proiektuak adibide garbia dira; izan ere, jadanik

eraikita dagoena aztertzen dute, gaizki zer dagoen identifikatzeko saiatzen dira: emakumei kalte egiten dien diseinua identifikatzeko dute eta haien parte-hartzea sustatzen dute. Politikek eta jarduketara zehatzak genero-ikuspegiak barnetatzen duten egunean, halako proiektuek ez dute zentzurik izango, orduan genero-ikuspegipeko hirigintza ziurtatzen ariko gara.

Proiektuetan erabilitako metodologia:

Nahi dugun auzoa. Zorrotza femeninoan 2008
Genero-ikuspegipeko hiri-diagnostikoa 2009

NAHI DUGUN AUZOA. ZORROTZA FEMENINOAN 2008

- Proiektu hori Bilboko Udalaren Berdintasun, Lankidetzara eta Herritarren Gaietarako Sailak agindu eta finantzatu zuen, 2008. urtean.
- Parte-hartzea: 20 eta 65-70 urte bitarteko 12 emakumez osaturiko taldea.
- Iraupena: 5 hilabete.

Helburua

Proiektu horren xedea zen emakumeen artean gizarte-kontzientzia sustatzea, denek senti zezaten eremu publikoan inplikatzeko premia, haien egoera hobetzeko eta haien eskaerak bideratzeko xedez. Emakumeek jabetu behar dute zer emaitza ekar dezakeen herritar gisa parte hartzeak.

Beren auzoa —ondoen ezagutzen duten ingurunea— hirigintza eta gizarte aldetik aztertuz, xedea zen eremu publikoan inplikazio hori sustatzea.

Parte-hartzaileen kontaktua eta profila

Albait lan-talde askotarikoena osatuko zuten emakumeek parte har zezaten nahi genuen; izan ere, garrantzizkoa iruditu zitzaigun ahalik eta ikuspuntu gehienak jasotzea, bizimodu desberdinak egiten dituzten, modu desberdinean ibiltzen diren eta zerbitzu desberdinak erabiltzen dituzten emakumeen ikuspegitik aztertzeke auzoa. Adin guztietako emakumeak bildu nahi genituen, lan ordaindua dutenak, etxeoandreak, ikasleak, erretiratuak, elkartekideak, elkarteetan sartu gabeak...

Parte-hartzaileengana iristeko metodorik eraginkorrena lan egingo den auzuneko elkarteetara jotzea izan ohi da. Zorrotzaren kasuan, elkartegintza-mugimendu indartsu bat daukagu, eta horrek erraztu egin zigun bilaketa. Komeni da ustez emakumeak aurkituko ditugun elkarten zerrenda bat egitea, hala nola emakumeen elkartenak, talde feministenak, guraso-elkartenak, kultur elkartenak, erretiratuen elkartenak, alargunenak eta auzo-elkartenak. Erabakigarria da auzoan erreferente izango den eta elkartegintza-mugimendua ondo ezagutzen duen pertsona bat izatea, proiektuan parte-hartzea ziurtatzeko giltzarri zer emakume izango diren adieraz diezagun.

Parte hartzeko prest dauden emakumeekin harremanetan jarri ostean, haiek animatuko dituzte beste emakume batzuk proiektuarekin bat egin dezaten. Ezagunen arteko ahaztutakoa da metodorik onena parte-hartzaileak lortzeko.

Zorrotzako proiektuaren kasuan, parte-hartze dinamika bat egin genuen, eta dinamika horretan, hiru lan-saioren bidez, emakume parte-hartzaileak eztabaidan aritu ziren auzoko hirigintza-diseinuaz eta horrek haien bizitzetan duen

eraginaz, eta ideia zehatzak agertu zituzten identifikatutako oztopo horiek kentzeko.

Lehenengo saioa: *Hirigintza eta generoari buruzko hitzaldi-eztabaida. Kale-izendegiari buruzko jarduera*

Proiektuari buruzko sarrera: Emakumeek beren burua gai ikus zezaten hirigintzari buruz eztabaidatzeko, gai arrotza eta oso zaila iruditzen baitzitzaien, eta interesa senti zezaten eztabaidatzeko eta auzunea hobetzeko proposamenak egiteko, denak analisi beretik abia zitezten behar genuen: hirigintza generoaren ikuspegitik. Horregatik, lehenengo saioa hirigintza eta generoari buruzko hitzaldi-eztabaida batekin hasi genuen.

Auzoko kale-izendegiari buruzko jarduera. Zorrotzako zenbat kalek dute emakume-izena?

Jarduera horren xedea zen parte-hartzaileek egiatzatzea haien auzoan bertan ere betetzen direla hitzaldian jorratutako alderdiak eta taldeko elkarreragina erraztea.

Bigarren saioa: “*Etorkizuneko agertokiak*”

Bigarren saio horretan, irudimena funtsezkoa zen ariketa bat egin genuen; hain zuzen, emakumeei eskatu zitzaientz gaitzatsa zitzatela beren auzorako etorkizuneko bi agertoki, bata positiboa eta bestea negatiboa, eta ondoren egin zitzatela proposamenak horiek oinarritzat hartuz.

Ibilbideak

Eztabaidez gain, hiru ibilbide egin ziren, hasiera-hasieratik parte-hartzaileekin adostuak. Bi ibilbide burutu ziren; batek protagonisten segurtasun-faltarekin zuen zerikusia, eta

bestea lotuago zegoen auzoan eguneroko erosketak egitera oinez joateko irisgarritasunarekin.

Ibilbideetan, argazkiak atera zitzaizkien emakumeek arazotsutzat jotako lekuei, eta, galde-sorta baten laguntzarekin, espazio horiek zergatik aldatu beharko lirakeen galdetu zitzairen, eta zein hobekuntza proposatzen zituzten.

Hirugarren saioa: “Hobetzeko proposamenak”

Saio horretan, emakumeek proposamenak egin behar zituzten, lortu nahi zen agertokia lortzeko. Haien ekarpenek ardatz hauen inguruak izan behar zuten: ekipamenduak eta bizi-kalitatea (merkataritza, zerbitzu publikoak, aisialdia, etxebizitza), espazio publikoa eta mugikortasuna (hirigintza-diseinua, garraio publikoa), gizarte parte-hartzea eta bizikidetzak (elkarteak, emakumeek elkarte horietan parte hartzeko bideak, kaleetako segurtasuna).

Bestalde, auzoko emakumeek etorkizunean bai Administrazio publikoarekin eta bai Zorrotzako elkarte eta gizarte-eragileekin parte hartzeko bideak eta mekanismoak identifikatu ziren; nola eta non adierazi ahalko zuten beren iritzia.

ERANDIO, GENERO IKUSPEGIPEKO HIRI-DIAGNOSTIKOA 2009

- Proiektu hori Erandioko Udaleko Berdintasun Sailak agindu eta finantzatu zuen, 2009. urtean.
- Parte-hartzea: 75 emakume, 15 eta 65 urte bitartekoak.
- Iraupena: 5 hilabete.

Helburua

Proiektu horren helburua zen emakumeen ikuspegitik ardatz hauek aztertzea: mugikortasuna, irisgarritasuna, segurtasuna eta zerbitzuak. Erandioko herria osotasunean aztertzea zen kontua, baina herria bost auzunetan banatuta; izan ere, parte-hartzaileek bizi ziren zonaren arabera egin behar zituzten ekarpenak; izan ere, hori zen ondoen ezagutzen zutena eta bertakoak izatearen sentimendua oso markatua zuten.

Parte-hartzaileen kontaktua eta profila

Emakumeengana iristeko modua aurreko proiektuan baliatutakoaren antzekoa izan zen, nahiz eta kasu honetan lana askoz ere handiagoa izan zen, herriko auzune bakoitzean egin behar izan genuelako lan hori eta auzuneak bost zirelako. Emakume gazteenen iritzia biltzeko asmoarekin, eztabaida-talde espezifikoa bat egin genuen herriko institutu batean.

Parte-hartzaileen profila aurreko proiektuan bezala ezarri zen.

Eztabaida-taldeak

Herriko emakumeen iritzia eta ekarpenak biltzeko, eztabaida-taldeak egin ziren, bi bat ordukoak, auzo bakoitzean. Saio horietan, aurrez dinamizatzaileok planteatu genizkien ardatzen inguruan eztabaidatu zuten parte-hartzaileek: mugikortasuna, irisgarritasuna, segurtasuna eta zerbitzuak.

Beren ekarpen guztiak azaldu ostean, eskatu zitzairen hauta zitzatela, ardatz bakoitzeko, haien ustez Udalaren aldetik lehenasunezko arreta behar zuten bost espazio edo egoera

problematiko. Hautatutako elementu horiei argazkia atera genien gero, eta ibilbideetan astiroago aztertu genituen.

Ibilbideak

Auzune bakoitzean ibilbide bat egin nuen, eta eztabaidetan adierazitako lekuetara joan ginen, argazkiak ateratzeko eta parte-hartzaileek bertan azal diezaguten arazoa zein zen eta nola konpon zitekeen.

Azken memoria idaztea eta emaitzak aurkeztea

Azken dokumentua idatzi genuen, eta, bertan, diagnostikoa egiteko prozesua, auzune bakoitzeko emaitzak eta proiektuaren ebaluazio orokorra jaso genituen. Bestalde, udal langileekin lehen barne-aurkezpena egin genuen. Aurkezpen horretan izan ziren Berdintasun teknikaria, Berdintasun zinegotzia, arkitekto bat Hirigintza Sailaren ordezkari bat, eta Udaltzaingoko ordezkari bat.

Aurrerago, Berdintasun Sailak aurkezpen publiko bat egin zuen, eta horra parte-hartzaile guztiak gonbidatu zituen. Geroago, Udalak berak dokumentu bat egin zuen, eta, bertan, detektatutako arazo bakoitzerako egingo zen jarduketa bideragarria ote zen eta sail arduraduna zein izango zen zehaztu zuen.

Halako proiektuetan kontuan hartu beharreko alderdiak


Emakumeek oro har erakundeekin aritzeko ohiturarik ez dutela eta, berez da helburu bat haiei sentiaraztea haien parte-hartzea eta ahalegin pertsonala lagungarri gertatuko dela haien ingurunea hobetzeko.

Askotan, proiektua aurkeztean, emakumeek baieztatzen dute ez direla gai izango ezer ekartzeko, uste baitute hirigintza oso konplexua dela eta oso urrun dagoela haiek dituzten ulertzeko aukeretatik. Xehekiago azaltzen zaienean zer eskatuko zaien, konturatzen dira gai direla ekarpenak egiteko eta kontua ez dela ekarpen teknikoak egitea, baizik eta auzuneko eguneroko bizimoduak ematen dien esperientzia pertsonala oinarritzat hartzea. Beraz, parte-hartzaileentzat jabeakuntza-prozesu bat da.

Kontuan izan behar da oso lan nekeza izan ohi dela, denbora aldetik, emakumeek parte har dezaten lortzea; izan ere, elkarte bakoitzarekin jarri behar izaten da harremanetan, haiei proiektua aurkeztu eta emakumeen inplikazioa eskatu. Askotan, lehenengo pertsona batekin hitz egiten duzu baina hori ez da izango gero parte hartuko duena, eta beharrezkoa da ondo ulertzea bai zer egin nahi den eta nork antolatu duen, izan daitezkeen parte-hartzaileei adieraz diezaien.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, emakumeek lana, familia eta aisialdia bateragarri egiteko dituzten zailtasunak; beraz, erraztu egin behar da era honetako proiektuetan parte hartzea, haien eskura haurtzaindegi-zerbitzua jarrita edo ordutegia haien aukeretara egokituta.

Beste arlo batean, ezin garrantzizkoagoa da proiektua agindu duen erakundeak konpromisoa hartzea proiektu hori gauzatu duten emakumeen ekarpena kontuan hartzeko. Kontua ez da bakarrik egindako proposamenak errealitate bihurtzea edo ez, baizik eta emakume horien lana baloratuko den aitortza publiko bat egitea. Horregatik, ezinbestekoa da ondorioak herriari aurkeztea eta kargu publiko edo politikoa duen pertsonaren bat erakundearen ordezkari bat jatea.





6

Metodologia eta jardunbide onak

1. Tailerra

Genero-ikuspegia hirigintza-plangintzan eta -diseinuan txertatzea

Josefina Olza eta Isabela Velázquez, Gea21

“Genero-ikuspegia hirigintza-plangintzan eta -diseinuan txertatzea” izeneko tailerrak, “Hirigintza barneratzailea. Kaleek badute generoa” mintegiaren esparruan egindakoak, hirigintzaren arloan lan egiten duten profesional ugari bildu zituen, hala administrazio publikokoak nola enpresa pribatuetakoak eta profesional autonomo gisa lan egiten dutenak.

Ondoz ondoko bi arratsaldetan, pertsona horiek hausnartzen eta sakontzen jardun zuten genero-ikuspegia hirigintza-plangintzan eta -kudeaketan txertatzearen inguruan, hirigintza-plangintzaren helburuak zabaltzeko premiari erantzuten saiatu nahian, eta, horretarako, gizarte- eta hiri-izaerako gaiak barneratu zituzten, gaur egungo gizartea hala eskatzen ari denez gero. Horretaz gain, genero-berdintasunaren alde egingo duen eta bizikidetzako kolektibo aberats eta harmoniatsu bati bide emango dion hirigintza barneratzailearen eredu berri bat zehazten saiatu ziren.

60 bat pertsonak, talde txikietan bildurik, herritarren bizikaltaterako pisua eta garrantzia duten hiri-errealitatearen gai nagusiak aztertu eta horien inguruko bateratze-lana egin zuten.

Ondozko ondoko bi lan-saiotan egituraturik, tailerraren xedea zen, batetik, profesional-taldearen hirigintzari eta generoari buruzko aberastasun eta jakintza teknikoak biltzea, eta, bestetik, jakitea zer proposamen eta iradokizun planteatu daitezkeen, profesional horien ikuspegi askotarikoak oinarritzat hartuta, ekintza publikoan eta tokiko eta lurraldeko testuinguruetan ikuspegi berri hori bideratzeko. Azken batean, beste pauso bat ematea eta teoriatik praktikara egitea aurrera, goizeko osoko bilkuretan jorratu ziren edukiak finkatuta.

Lehenengo saioa: 2011ko azaroaren 9a (15:30-18:00)

Lehenengo saioaren helburua zen parte-hartzaileek gogoeta egitea hiri diseinatzeke eta kudeatzeko prozesuetan generoaren ikuspegia aplikatzeko kontuan hartu behar diren ideia eta irizpideei buruz, lurraldearen plangintzaren eskala guztiak eta gizarte-, kultura- eta lurralde-komplexutasuna eta -aniztasuna kontuan hartuta.

Hasieran, hiruzpalau argazki hartu ziren, hiri-errealitate guztienak (hirigunea, aldiriak, barreiatua...) eta bizigune-eskalenak (hiri handiak eta hiri ertainak), eta taldeko kideek espazio horiek aztertu zituzten, biztanleen eguneroko premiei eta bizi-kalitateari zegokienez.


Ondoren, definizio bat adostuz hirigintza barneratzailearen ikuspegiaren aurrera egiteko lehentasunezko zatitzairen diren irizpideen inguruan.

Ariketa errazteko, aztergaiari buruzko galdera batzuk eta eztabaida bideratzeko gidalerro batzuk planteatu ziren. Dinamizatzaileak denbora eta gogoetak antolatzeaz arduratu ziren, bai eta taldeak txandaz txanda laguntzeaz eta animatzeaz ere.

Bigarren saioa: 2011ko azaroaren 10a (15:30-18:00)

Bigarren eguneko tailerraren helburua zen hirigintza-diseinuan genero-ikuspegia txertatzeko tresna praktikoak eta metodologikoak identifikatzea eta proposatzea.

Saioari hasiera emateko, Gea 21eko taldeak azalpen labur bat eman zuen eremu horretako proiektu bati buruz, zehazki hirigintzari eta bizitza pribatua eta profesionala bateragarri egiteari buruz, ondoko lanerako gida eta erreferentzia



gisa balio zezan. Aurkeztutako esperientziak Europako EQUAL ekimenaren “Kronos eta Zeres artean” proiektuaren barrukoak ziren.

Bertaratuei, bi taldetan banaturik, eskatu zitzaien defini zezatela generoaren eta hirigintzaren tokiko proiektu bat, edo kontu zitzatela esperientzia edo ekintza konkretuak genero-zeharkakotasunari buruzko jardunbide onen inguruan.

Bi aukeretan, proiektu edo esperientziek hautemateko moduan hobetu behar zituzten hiriko bizi-kalitaterako eta genero-berdintasunerako baldintza errealak, eta, aldi berean, erreferente baliagarri edo erabilgarri gisa balio behar zuten tokiko korporazioek eta administrazioko beste entitate eta erakunde batzuek hirigintzan genero-ikuspegia txertatzea errazteko xedearekin sustatu eta bultzatzen dituzketen jarduketak eta estrategietarako.

Asmoa zen arlo hori gehien ezagutzen duten edo arlo horretan lan gehien egin duten pertsonak eremu horretan egin den esperientzia bat dokumentatu ahal izatea, Nazio Batuen bizi-baldintzak hobetzeko Jardunbide Onen IX. Lehiaketan aurkezteko; lehiaketa hori martxan dago une hauetan. Fitxa eta erreferentziak banatu ziren, nazioarteko lehiaketa garrantzitsu horretan parte hartu ahal izateko.

Beste aukera zen halako esperientziarik ez zeukaten pertsonak denbora hori erabiltzea Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak udal hirigintzan genero-ikuspegia barneratzeko aginduan xedatutako diru-laguntzen eta laguntzen deialdian sar daitezkeen tokiko proiektuak planteatzeko.

Tokiko proiektuen formulazioa eta definizioa eta bertaratuek planteatu zituzten genero-ikuspegiako jardunbide onen

etsenpluak dira tailer horren emaitzarik interesgarriena, eta, aldi berean, proposamen horietan erabili dira mintegiko prestakuntza-baldintzei jarraiki egin beharreko ebaluazio pertsonala egiteko.

Lehenengo saioan aztertutako kontzeptua eta irizpideak ondoren zerrendatuko ditugu, azaletik:

HERRIAK

Positibotzat jotako gaiak:

- Irudi berdea, zaindua, trafikoa nagusi izan gabe
- Erkidego-bizitza erraza
- Etxebizitza, merkataritza, taberna, terraza eta abarren nahasketa aberatsa
- Haur-parke integratua
- Komunitatearentzako zerbitzuak
- Dentsitate handia
- Irisgarritasun ona: oinez ibiltzeko ibilbide erosoak
- Segurtasun-sentsazioa
- Espazio bizitzaduna eta bizitakoa; abegitsua eta eroso.
- Oso berdea, arboladuna, naturaren integrazioa.
- Jendea bizikletan

- Adineko pertsonak eta haurrak gustura espazio horretan
- Espazio osasungarria
- Erraza elkarrekin bizitzeko, komunikatzeko, trukatzeko.
- Pasoko trafikoa, abiadura txikian

Negatibotzat jotako gaiak:

- Neurritz gaineko bideak
- Auto pribatua lehenestea
- Ibilgailuak nagusi espazio publikoan
- Irisgarritasun txarra
- Espaloi inbadituak
- Zoladura gogorregiak
- Bizitarik gabeko kaleak
- Atsekabea, gaez itxitako zonak, isolamendua
- Hiri-diseinu txarra: kalitate estetiko gutxiko zoladurak
- Hiri-altzaririk gabe
- Kalitateko espazio publikorik gabe: bizikidetzaukerarik ez
- Argiztapen txarra

- Merkataritza osoa hartzen duen merkataritza-gune bat, nagusiki autoz irisgarria
- Parke ez-segurua

HiRIAK

Positibotzat jotako gaiak:

- Bizimodu erraza
- Erabilera-nahasketa, behintzat merkataritza eta etxebizitzak dituen, bulego eta despatxuen integrazioa, jarduera ekonomikorako zerga-pizgarriak.
- Espazio publiko orekatua, naturarekin harmonian.
- Landaredia
- Ikusmira eta ikuspegi zabalak
- Espaloi zabalak: kale erosoak
- Autoaren mendekotasun txikiagoa, ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzen saiatzea, banakako erabilera zehatuz, espazio publiko asko erlazioetarako aprobetxatzeko.
- Diseinu zaindua, zuhaitzak, argiak, zoladura...
- Irisgarritasuna: Zintarririk gabeko espaloiak
- Zoladura-aldaketa oinezkoentzako eta ibilgailuentzako guneen artean, zirkulaziorako ez ezik bestetarako ere erabil daitezkeen espaloi zabalak, espaloien arteko

distantzia kontrolatuak

- Argiztapen ona, argiztapen egokia
- Bizitza gehiago duten kaleak
- Kalearen etxe-erabilera
- Eskala egokiko parkeak eta plazak, ikusgarritasuna, kontrolatzeko aukera, belaunaldien arteko espazioak
- Fatxada ez-lauak: erlazio atsegina kaleekin
- Haurrak bakarrik kalean: haurren autonomia
- Landareen presentzia: adaburu garaiko zuhaitzak, hondo berdearen sentzazioa
- Mugakide naturarekin, landa-erabilera indartzea, baratzeak aldirietan
- Ibilgailuen presentziarik ez
- Garraio publikoa, erabilera segurukoa
- Araudian genero-ikuspegia, belaunaldiartekotasuna, jasangarritasuna, irisgarritasuna eta abar txertatzea

Negatibotzat jotako gaiak:

- Bizitzarik ez auzoan
- Kanpoaldeko bizitegi-blokeak
- Kalea errepide bat da, ez bide ugari

- Gehiegizko aparkalekua
- Kalitate txarreko espazio publikoa, soil-soilik zirkulaziorako diseinatua
- Dentsitate txikiko eredu anglosaxoiaren kopia txarra.
- Aparkalekuak espazio publikoa okupatzen du eta ez da erabili ere egiten
- Ageriko konponbiderik ez
- Seguruak ez diren galeriak
- Argiztapen falta, argiztapen eskasa, pentsatu gabeko argiztapena, automobilentzat pentsatutako argiztapena...
- Erabilera-nahasketarik ez, zoning-a...
- Errenta-barietaterik ez
- Gizarte-kohesiorik ez
- Erakarpelik ez bizitza soziala egiteko
- Oztopo diren aireztapen-elementuak
- A posteriori landaredia, apaingarritarako
- Autoaren mendekotasuna, autoa gauza guztietarako...
- Oztopoz beteriko ibilbideak
- Segurtasunik eza: banakako alarmak etxeetan

- Balizko hobekuntza: saltokiak etxabeetan eta gaueko erabilerak

Irizpideak:

1. Hiri-espazioaren etxe-eskala lortzea
2. Hiri-diseinua: etxe-espaziotik hiri-espaziora iragaitea
3. Ordutegi aldetik uztar daitezkeen erabileren nahasketa
4. Espazio publikoa eta eraikuntza agertoki gisa sortzea
5. Hiri malgu eta moldagarri bat sortzea
6. Ibilbide seguruak sortzea eta ikusgarri egitea (seinaleztapena, diseinu erraza...)
7. Jasangarritasuna erabakiak hartzean
8. Hurbileko espazioa, bizitzaren eta era guztietako zerbitzuen gune gisa
9. Plangintza eta programazioa zaintzea: erdigunetik kanpoaldera joateak zer dakar?, edo inbertsioak azpiegituretan eta sortzen diren tarteko espazio hutsetan
10. Espazio publikoa zaintzea, ondo argizatutako kale eta plazen sare integratu baten bidez

Ondoren, bigarren saioaren ondorioak azalduko ditugu, ekarpen pertsonal ebaluagarri gisa:

JARDUNBIDE ONAK (3)

I. G. E., arkitektoa: Lasarte-Oria_Usurbil eta Zubieta auzoaren arteko tartearen egokitzapena, autoen mugikortasun egokia, oinezkoentzako pasealekua, bidegorria, argiztapena, ikuspen- eta espazio-egokitzapena eta bizikidetz-espazio berriak lortzeko.

M^a A. I. de la F. S., Herri Lan eta Garraio Saileko administrari laguntzailea: Tranbia garraibide berri gisa sartzeari Vitoria-Gasteizen.

M. Z. I., arkitektoa: Tolosako (Gipuzkoa) Arramele auzoaren berreraikuntza.

TOKIKO PROIEKTUAK (26)

A. A. Z., hirigilea: OINEZ, Durangoko San Roke auzuneko hiru eskoletara joateko eskola-bideko proiektua.

A. A., arkitektoa, Hiri Kolektiboa: Beren kargura pertsonaren bat (seme-alabak, gurasoak...) dutenei (emakumeak) alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko bidea erraztea. Lana eta familia bateragarri egiteko modua erraztea, instalazio komun bitartez (garbitegia, txoko-jangela, jolas-aretoa, estudioa, liburutegia...).

P. A. Z., Ordiziako Udaleko arkitektoa: Denontzako hirigintza-proiektua eta parte-hartze publikoa Ordiziako Plan Nagusi berriaren sorkuntzan.

A. A. I., EASDko irakaslea: Hondartzak eta marearteko zabalgunek garbitzea eta algak biltzea. Hondartzetako

hiri-altzariak. Era guztietako taldeak inplikatzeko (emakumeak, erretiratuak, haurrak, desgaitasunen bat dutenak, herritarrak oro har) naturgunearen zainketan eta espazio naturalen erabilera publikoan, ingurumenarekin kontzientziatuta eta sentsibilizatuta.

A. C. de S.: Interes geologikoko eremuen irizpidearekin berrurbanizatzea Sestaoko iparraldeko hiri-parke bat, zehazki Maiatzaren Lehena langile-auzunearekin, Kale Nagusiarekin eta Txabarriko zeharkalearekin muga egiten duena.

M. D.-G. M., arkitektoa: Herritarrek parte hartzeko tailerrak sustatzea lehenera ekarri behar den auzune batean. Hiru tailer aurreikusi dira, bakoitza talde bati zuzendua (gazteak, helduak, familiak, zaharrak); tailer bakoitzak ikuspegi bat azalduko du, baina parte-hartzea indartzea eta akuilatzea dute denek helburu. Emaitzak jaso ostean, diziplina anitzeko talde batek aztertu eta laburtuko ditu eta hainbat ideia proposatuko ditu, hartu beharreko erabakietan parte hartuko duten taldeei aurkezteko.

A. E. M., arkitekto teknikoa, Etxebizitza Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza: Iturtzako espazio publikoa egokitzeko proiektua, aparkaleku batekin duen konexioa hobetzeko; gaur egun tunel batek konpontzen du konexio hori.

A. E. L., arkitektoa: Genero-ikuspegitik seguruak ez diren herriko puntuak detektatzea, hala nola zokoak, gaizki argiztatutako zonak, gehiegizko landaretza. Irisgarritasuna hobetzea eta herritarren parte-hartzea sustatzea.

G. G. A., Hondakin Arriskutsuen teknikaria, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila: Eibarko industria-aurri ospetsu bat egokitzeko, paseatzeko, aisialdirako eta merkataritzarako gune bat lortzeko; horren bidez,

agerian utzi da garai batean enpresa bat eraikita estali zen ibai-tartea.

M. I. I. G., Bilboko Udaleko atalburua: Bilborako sarbide berriak Olabeaga auzune inguruan (bide- eta trenbide-sarbideak). Sektorearen (garraioa) arazoak konpontzen ditu, baina, aldi berean, hesi fisiko eta funtzional bat sortzen du; horrek auzunea deskonektatzeko arriskua dakar; izan ere, gaur egun jadanik konexio zailak ditu erdialdearekin eta beste auzune batzuekin.


A. I. G., arkitektoa: Hirigune historikoko kalezulo bat berritzea eta argiztatzea; kalezulo horretara ematen dute kale paraleloetako eraikinen atzealdeak.

I. L. E., UPV-EHU: Elgoibarko San Rokeko noranzko bakarrekoko kalea eta hainbat zona elkartzeko. Xedea da oinezkoentzako kale bat sortzea (bidegorrirako sarbidea), herriaren bi muturrak batuko dituen bizkarrezurra osatuz.

I. L. J., Berdintasunerako teknikaria: Getxoko kale pribatu batean egindako esku-hartzea. Gaur egun kalea itxita dago jendearentzat, eta irekitzeko mekanismo elektriko bat dauka. Xedea da burdin hesia kentzea, kalea irekitzea, autoak kentzea, aparkalekutarako erabiltzen baitute, eta jolasteko gune bat eta bankuak jartzea. Herritarrei bidea irekitzea.

I. L. S., Berdintasunerako eragilea: Igorreko udalerrian (Bizkaia) espazioak eskaintzea zaintza behar duten taldeak zaintzeko.

I. L. S., Berdintasunerako eragilea: Barakaldoko Herriko Plazaren eta Araudi kalearen arteko konexioa (distantzia handia, 500 metro zeharkako konexiorik gabe). Erdialdetik



urrun dauden kaleak herriko plazarekin konektatzeko beharra. Beharrezkoa da beste neurriren bat konexioa egin ahal izateko eta gizarte-sakabanatzea saihesteko.

P. M. G., Etorlurreko arkitektoa (Gipuzkoako Foru Aldundiko sozietate publikoa): Gipuzkoako plangintza-tresnetan interes geologikoko eremuen irizpideak txertatzeko, aztertze eta ebazteko jarraibideen dokumentua, 1.000-7.000 biztanleko herrientzat, etorkizuneko plan orokorretan txertatzeari begira.

C. M. R., arkitekto hirigilea, Bizkaiko Foru Aldundia: Mugikortasun iraunkorren plan bat diseinatzea, landako biztanleek garraio publiko bidez Arratia ibarreko (Bizkaia) ekipamenduak eta zerbitzuak erabili ahal izango dituztela bermatzeko.

T. R. M. G., Bilboko Udaleko Berdintasun Politiken teknikari aholku-emailea: 'Aukeren mapa', Auzokide Planaren barruan, Bilbo Zaharrean (Bilbo).

A. I. M. E., Eusko Jaurlaritzako idazkaria: Eskola-bide segurua.

U. M. D., Eusko Jaurlaritzako arkitektoa: Genero-ikuspegia barneratzea Bilboko Errekalde kalea hirigintza aldetik berronertzeko egin den herritarren parte-hartze prozesu batean (jadanik hasia).

A. del R., UPV-EHUko ikaslea: Oinezkoentzako eta garraio publikoa erabiltzen dutenentzako irisgarritasuna, espazio komunaren argiztapen eta zaintza eta eguneroko bizitzako azpiegiturak hobetzea San Frantzisko auzoan (Bilbo), segurtasun-arazoak dauden lekuetan.

R. S. G.: Pasai Antxo, Erreterria eta Donostiako bi gaineratik

N-1en ardatzera sartzeko bideak, Molonso eta Uspitxirrosen bidez. Garraio publikoaren eta espazio publikoen sistema egoki baten arteko koordinazioa, garraibide horietara iristeko modua bermatzeko.

J. S. U., KB arkitektoak: Artazako (Leioa) lurpeko pasabidera sartzeko bidea urbanizatzeko proiektua.

B. S. S., KB arkitektoak: Artazako (Leioa) lurpeko pasabidera sartzeko bidea urbanizatzeko proiektua.


F. S. P., Orubide SA: Hirigintza barneratzailea azaltzea, eragile urbanizatzailearen bidez. Orubidek eragile urbanizatzaile gisa egindako jarduna aprobetxatzea generoaren gaineko gogoetak eta bestelakoak sartzeko, garapen-plangintza oinarritzat hartuta. Tamaina txikiko eremu urbanizagarrietan edo hiri-lurzoru finkatugabeetan egindako jarduketak erabiltzea irizpide horiek gainerako udalerrietara eramateko.

M. U. R. de A., Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Eusko Jaurlaritza: Berrizko udalerriko espazio publikoa hobetzea, adin guztietako jendearentzako agertoki bat lortzeko: haurrak, nerabeak eta zaharrak, batez ere.

M. V. U., arkitektoa: Mendaroko ibilbide eta espazio publikoen sarea berriro definitzea. Oinezkoentzako ibilbideak egokitzea eta optimizatzea (batez ere, haurrak, amak eta aitona-amonak izaten dira oinezkoak).

Proposamen guztietan ulertu dira ondo mintegian proposatutako gaiak, eta garatu ere, egoki garatu dira; beraz, tailerrean parte hartu duten pertsonen balorazio positiboa egin dute tailerreko bi saioetan banaka eta taldean egindako lanaren inguruan.

Bertaratutako batzuek ez zuten egin ariketa pertsonala, haien bizitza profesionalean behar ez zutenez gero; horregatik, tarte horretan, bideratzaileekin eztabaidan aritu ziren proposatutako gaiaren inguruan, eta ondoko eztabaidan parte hartu zuten, proiektuen proposatzaile bakoitzak egindako aurkezpenaren edo hautatutako jardunbide onen etsenpluen harira.



2. Tailerra

Hirigintza barneratzailea eta biktimologia: Emakumeen segurtasunari buruzko tokiko auditoretzetan egindako ikerketa kriminologikoen emaitzen gaineko gogoeta

Gema Varona. Zuzenbidean doktorea, Kriminologian diplomaduna eta Soziologia Juridikoan masterduna, KREI - Kriminologiaren Euskal Institutua

“Ez daramat ikuspegi osatu bat, baina bai zabala”

(Joan MacDonald) (1)

I. Sarrera

Kriminologia XIX. mendearen amaieran sortu zen, darwinismoaren eta natur zientzien garapenaren eraginez, eta orduan kriminologo gehienek —denak ziren gizonak orduan (2)— irmoki sinesten zuten enpirikoki baliozta zitekeela delinkuentziaren kausei buruzko hipotesi-sorta bat, errotik kentzeko xedearekin. Gaur egun, Kriminologian jarduten duten pertsona gehienak ez dira hain xaloak eta hobeki kontrolatzen dituzte beren aurreiritziak. Azterketa enpiriko eta esparru teoriko findu ugari ostean, delinkuentziaren eta haren arrisku- eta babes-faktoreei buruzko kontzeptua landuagoa eta konplexuagoa da, eta, hala, Kriminologiak ezagutza apala eta, paradoxikoki, osatuagoa eskaintzen du.

Zer ikusi du aurreko guztiak emakumeen ikuspegipeko hirigintzarekin, batez ere segurtasunari dagokionez?

Testu honetan, galdera horrek izan ditzakeen erantzunak aztertuko ditugu, diziplina nitzeko eta tokiko ikuspegi parte-hartzaile eta prebentibo batetik. Komeni da gogoraraztea galdera hori zein testuingurutan egin den: tailer bateko gidoia, 2011ko azaroan hirigintza barneratzaileari buruz egindako mintegi batean burututakoa (3).

Erabilitako iturriak, funtsean, 2010eko Segurtasunik ezaren pertzepzioari buruzko ikerketa-programak

eta kriminalitatearen mapak txostenean eta 2011n Barakaldoko udalerrian segurtasunari buruz garatutako tokiko auditoretzaren esperientzia dira (4). Ekimen horiek Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak finantzatu ditu, Kriminologiaren Euskal Institutuarekin (UPV/EHU) egindako lankidetzaz hitzarmenaren barruan.

Jakintza kriminologiko eta biktomologikoaren gaineko hainbat elementu ekartzen saiatuko gara hona, genero-ikuspegipeko hirigintzari buruzko gaur egungo eztabaida zabaltzeko (5). Kontua da ezagutza hori herritarrek emakumeei eta hiriarri dagokionez eta, bereziki, emakumeei eta hiriko segurtasunari dagokionez duten berdintasun-

(1) Arkitektoa, 2011ko maiatzaren 14ko El País Semanal-en elkarrizketa bat egin zioten. Hau azaltzen du elkarrizketa horretan: “Bizitzan ikasitakoak bide ematen dizu sektore guztiak ulertzeko. Haien arauak ulertzeko. Nahiz eta ados ez egon, badakit haiekin hitz egiten... Ez dut eskaintzen irteerarik gabeko biderik. Irteera bat eskaini behar duzu... Ez da egia gidari onena lokatzetara jaisten dena denik. Lokatzetan bakarrik ez da ondo ikusten. Istorioa angelu ugariatik ezagutu behar da... Ikerketak edo zenbakiek datu ziur baliagarriak eskaintzen dituzte arloan lan egiteko”.

(2) Paraleloki, oro har eta beste zientzia enpiriko batzuetan bezala, soilik gizonekin egindako laginetan oinarrituz balioztatzen zituzten beren teoriak. Horrek duela gutxi arte iraun du.

(3) Gasteizen izan zen, 2011ko azaroaren 9tik 11ra, Eusko Jaurlaritzako Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak antolatuta. Tailer horretan, modu teoriko eta praktikoan saiatu ziren sakonki aztertzen hirigintzak zer aukera dituen giza segurtasunaren kontzeptuaren osagai eta alderdietan eragiteko, bai eta zer lotura duen ere emakumeen biktimazio ezkutu, zeharkako, lauso eta bigarren mailakoaren kontzeptuekin.

(4) Lehenengoari buruz, ikus: Varona (2011). Bigarrena 2012. urtearen hasieran argitaratuko da.

(5) Horregatik hitz egiten dugu ikuspegiez, jo ez dezagun emakumeen interesak eta espektatibak beti gizonetzkoenen aurkakoak direla eta bloke monolitiko bat osatzen dutela, elkarren artean desadostasunik izateko aukerarik ematen ez duena.

ikuspegiarekin erlazionatzea (6). Ikuspegi zabalago bat izanda, beharbada saihestu ahalko dira emakume biktimen benetako interesen eta eskubide legitimoen gaineko kontzeptu populistak, erredukzionistak eta/edo maneia garriak gaur egungo zigor-politiken diseinuan. Kontua ez da soilik tresna metodologiko bat hobetzea, baizik eta emakumeen eta oro har herritarren eguneroko segurtasunik eza benetan murriztu dadin eragitea.

II. Segurtasunari buruzko tokiko auditoretzak (STA) eta emakumeen segurtasunari buruzko auditoretzak (ESA)

STAk, ESAen hedaduraz —laurogeiko hamarkadaren amaieran hasiak—, azken hamarkadan garatu dira, segurtasunari buruz lor daitezkeen datu ugariak aztertzeke tresna gisa. Nazioarteko erakundeek sustatzen dituzte, eta gaur egun, batez ere, indarkeria-indize altuak dituzten herrialdeetan egiten dira (7).

Bi auditoretza edo diagnostikoetan, segurtasunerako eskubidearen banaketa desberdinaren egitatea da abiapuntua. Biktimen eskubideen aldeko mugimenduek, batez ere feministak, ikusgai egin dute desberdintasun hori —hala eremu publikoan nola pribatuan—, eta hainbat politika publiko eta estrategia konketu proposatu dituzte berdintasun formala eta materiala lortzeko (8).

Segurtasunaren gaineko kezka ikusgarriki areagotu da azken urteetan. Alabaina, azterketa enpirikoek adierazten digute kezka hori ez datorrela bat delinkuentzia- eta biktimazio-indizeen (9) gehikuntza korrelatiboarekin; halaxe erakusten digute kopuru beltzari edo biktimazio ezkutuari buruzko azterketek ere (10). Hala, kezka horren alderdi subjektibo eta objektiboen arteko desadostasunak nabarmentzen dira, baina oraingo ezin da oro har gogobetetzeko moduko

azalpenik eman hainbat biztanle-talderen inguruan.

Horrekin lotuta, azterlan ugari agerian utzi dute, hainbat arlotatik —Hirigintza, Gizarte Psikologia, Kriminologia...—, hiriak (11) emakumeentzat zapaltzaileak baino gehiago emantzipatzaileak direla, nahiz eta horrek ez duen eragozten gizarte-desantolaketa eragiteko eta ghettoak sortzeko arriskua, jadanik Chicagoko Eskolak adierazi zuen bezala (12). Steven Pinker-ek emandako datuaren arabera, inuit-komunitateetan hilketa-indizea Detroitoko auzo arriskutsuenen parekoa da (2011). Horrez gain, azpimarratu du emakumeen enpatia eta emakumeek gizartean parte-

(6) Bereziki, Biktimologia kritiko eta feministaren barruan.

(7) Kontuan hartu behar da segurtasun-itxura huts baten eskaerari buruzko kritika, dute garapen ekonomikoari loturiko nazioarteko hainbat erakundeek hala agintzen duten aldetik —pentsa litekeenez, bereziki turismoari begira—. Giza segurtasun subjektiboaren eta objektiboaren indizearen bidez (GSOI), Garapenerako Nazio Batuen Programak erakutsi du Txile eta halako herrialdeetan ez datozela bat BPGd eta indize subjektiboa, eta iradokitzen du badirela beste aldagai batzuk, batez besteko diru-sarreraz bestelakoak, segurtasun-falta subjektiboa azaltzeko garrantzitsuak direnak (lan-sistemak eta lanaldiak, gizarte-desberdintasuna eta haren ondorioak, hezkuntza- eta gizarte-kapital ahula, ingurumenaren narriadura eta abar). Azken batean, herrialde baten hazkunde ekonomikoa, biztanleko diru-sarreretan neurtua, beste hainbat faktoreen artean, ez da ezinbestean gizarte-kohesio handiagoaren baliokidea. Gaur egun, Jasangarritasunaren Behatokia, Erromako Kluba eta Estatistika Institutu Nazionala lanean ari dira herritarren bizi-kalitatea neurtuko duten aldagaiak garatzeko. Proposamen bat egitea da asmoa, ELGAN eztabaidatzeko (El País, 2010-12-26, 22. or.)

(8) Uxorizidioa zenbat gutxitu den gogoratu besterik ez dago.

(9) Baina bai kartzelatze-indizearekin.

(10) Hala ere, horiek behin ere ez dira zehatzak izango, batez ere emakumeen aurka hala bide publikoan nola espazio pribatuetan egiten diren delitu batzuei dagokionez —horien barnean sartzen dira ez bakarrik etxeokak, baizik eta baita lantokiokak ere—, ez eta nazioz haraindi antolatutako delinkuentziari dagokionez ere —pentsa bedi, esate baterako, emakume-salerosketen delituan—. Azkenik, ez dira ahaztu behar Interneteko espazio birtualak.

hartze handiagoa izatea lagungarri direla indarkeria-indize txikiagoak izateko; izan ere, sentikortasun handiagoa dago eta indarkeria gehiago arbuiatzen da.

1. Segurtasunari buruzko auditoretzen jatorria, garapena eta esparru teorikoa

Hiri Segurtasunerako Europako Funtsak 2007an argitaratutako *Segurtasunari buruzko tokiko auditoretzei buruzko gida. Nazioarteko jardunbidearen laburpena* (13), giriko 10. orrian hauxe adierazten da:

“Segurtasunari buruzko auditoretza analisi sistematiko bat da, xedetzat honako hau duena: krimena eta hiriko biktimekin loturiko arazoak ulertzea, prebentziorako aktiboak eta baliabideak identifikatzea, lehenetsunak identifikatzeko modua ematea eta lehenetsun horiek aurrera eramateko bide emango duen estrategia bat zehazten laguntzea”.

Segurtasunaren alderdi objektibo eta subjektiboen azterketari dagokionez, auditoretzetan Eskola Kartografikoaren edo Estatistika Moralaren eta Chicagoko Eskolaren oinordekoaren ikuspegiak jasotzen dira, hots, Ingurumen Kriminologia deritzonaren ikuspegiak (Vozmediano eta San Juan, 2010). Horrez gain, ikerketa kriminologiko eta biktimologiko berriago batzuen emaitzak ere jasotzen dira.

Medinak 1938an kokatzen ditu gaur egungo hiri-soziologiaren eta ingurumenaren edo ekologiaren arloko pentsamendu kriminologikoaren oinarriak (2010), hain zuzen ere hirigintza bizitzeko modu gisa aztertzen duen Louis Wirth-en saiakeran. Hala, banakoen analisisa habitatara eta, zehazki, hiri-testuingurura aldatu zen, eta, horren arabera,


helburuen (biktimak) kokapena eta elkarreragina, arau-hausleak eta abaguneak hainbat ordutegi-tarte eta zonatan aztertzen hasi ziren. Eguneroko jardueraren teorietan lotuta dago; hain zuzen, kontuan hartzen da balizko arau-hausle bat biktima egokiarekin aldi berean gertatzea, espazioan eta denboran, eta kontrolik ez egotea (Cohen eta Felson, 1979). Teoria horrek zehaztasuna dakar abaguneari eta hautespen arrazionalari buruzko teoria orokorren aldean; izan ere, teoria horien arabera, arau-hausleak bere mesedetan hartzen du delitua egiteko erabakia, baina erabaki horren arrazoizkotasuna denbora konkretuaren, arau-hauslearen trebetasun kognitiboen eta informazio esanguratsua izatearen mende dago (Cornish eta Clarke, 1986).

Crime Prevention Through Environmental Design (CPTED) kontzeptua C. Ray Jefferyk (1971) sortu zuen, delitua prebenitzeko inguruneak abaguneak gutxitu behar zirela aldarrikatu nahi hartan, baina garai hartan ez zuen arrakasta handirik izan. Geroago, haren jarraitzaile batzuek, hala nola Tim Crowek (1991), eraikuntzari buruzko gidalerroak garatu zituzten, eta gidalerro horiek informazio-saioetan zabaldu zituzten, Estatu Batuetan. Bestalde, 1972an, O. Newman arkitektoak “defenda daitekeen espazioa” aipatu zuen, eta, geroago, gizarte-kohesioarekiko erlazioa nabarmendu zuen. Praktikan, horrek etxebizitza publikoen diseinua

(11) Beste metropoli batzuekin alderatuz, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan ez dugu hiri handirik. Hori kontuan hartu behar da kasuak aztertzen direnean edo beste hiri-ikerketa batzuen ondorioak estrapolatzen saiatzean. Bestalde, elkarrekin erlazionatuz aztertu behar dira urbanizazio-prozesuak, industrializazioa, migrazioa, Kriminologiaren sorkuntza eta prentsaren hedapena, delituaren beldurraren gizarte-arazoa osatzen duten faktore gisa.

(12) Frantziako errealtateari eta atzeritarrek osaturiko biztanle-talde jakin batzuetan sortutako pagaburuei buruz, ikus Mucchielli (2010).

(13) Gaztelaniaz hemen dago eskuragarri: http://www.ffsu.org/fileadmin/efus/secutopics/EFUS_Safety_Audit_es_WEB.pdf



berriro planteatzea ekarri zuen berekin.

Hiri-azterlanak abiapuntutzat hartuta, Ellul eta Calnan-ek GISen teknologia erabili dute mapa igarleak egiteko, herritar-talde batek hiri-diseinuari buruzko ezaugarri fisikoen inguruan emandako datuak (2010) (14) —ez makroinkestak— oinarritzat hartuta. Egile horiek, Londresko Unibertsitate Metropolitanarreko Hirien Institutuko ikertzaileak, elkarlanean aritu ziren 2004tik 2010era, Ingalaterrako garraio publikoak ardatz zituen ikerketa-proiektu batean. Proiektu horren aurrekari metodologikoa genero-ikuspegitik aztertutako segurtasunari buruzko auditoretzak izan ziren, eta proban jarri zituen parte hartzeko sistemak informazio geografikoko sistemekin (IGS) konbinatzeko zuten ahala eta zorroztasun zientifikoa (15).

Idea horiek ere araudi batean bildu dira, Europar Batasuneko Normalizazio Batzordearen barruan. Europako ENV143832 2003 “Prevention of crime-Urban planning and design Part 2: Urban planning” (16) araudi esperimentalak CEN/TC325 Batzorde Teknikoak egin zuen. Hain zuzen, batzorde horretako idazkaritza Danimarkako normalizazio-entean esku utzi da (DS) (17). Erreferentziako gida bat dakar delitu-arriskua eta/edo delituen bat gertatzeko beldurra baloratzeko metodoei buruz, bai eta delitua gutxitzeko neurriak baloratzeko metodoei buruz ere. Erreferentziako hainbat gidalerro ezartzen ditu, delituari loturiko arazoak prebenitzeko edo neutralizatzeko gai diren ingurune-mota espezifikoak planifikatzeko. Azkenik, 2007an, estandar-aurreko hori CEN/TR 14383-2:2007 dokumentuak ordezkatu zuen; txosten teknikoaren estatusa du dokumentu horrek (Ponce 2008, 2). Etorkizunean eraikin konkretuei buruzko gidalerroak garatzea aurreikusten da (saltokiak, bulegoak, garraio publikoa, eskolak...).

(14) Beldur-maila bi faktore hauen arabera dela adierazi dute: ikusia izateko eta babesteko dauden aukerak, arriskurik badago ere. Hiriko ingurumen-indize bat egin dute, hirigintza berria izenekoaren (kalean jendea bada ez da izaten delitu-ekintzarik) eta leiho hautsien teoriaren elementuak konbinatuta. Lau eztabaida-talde sortu zituzten Somestowngo bizilagunekin (talde bakoitza lau-sei pertsonak osatu zuten, eta horien artean zeuden guraso ezkongabeak, 27 urtetik beherako emakumeak, zaharrak eta Bangladesheko 27 urtetik beherako gizonak —nahiz eta azkeneko horiek ez zituzten kontuan hartu atariko analisirako—) Parte-hartzaile bakoitzari adierazi zitzaion seinala zezala mapa batean non sentitzen zen seguru, non ez zen seguru sentitzen edo non ez zen sentitzen ez batera eta ez bestera. Horrez gain, eskatu zitzaion, egokia bazen, parte har zezatela hiri-testuinguruari buruz hitz egiteko ingurunean barrena egingo zen esplorazio-erronda batean. Ellul-ek eta Calnan-ek “beldurraren azalera” bat marraztu zuten, eta bertan, galdetutako pertsonaren arabera, ez ezinbestean talde berekoak, era batera edo bestera —batzuetan elkarren kontrakoak— seinalatutako lekuak ikus zitezkeen. Azkenean, hiru mapa egin ziren —lehenengo hiru taldeei zegozkienak—, aurrez adierazitako beldurraren bi faktore iragarleekin konbinatu ziren birsailkatze-teknikak erabiliz. Hainbat desadostasun zeudela eta, nabarmendu zuten garrantzitsua zela bertakoek adierazi zituzten lekuei buruzko “tokiko ezagutza” (izan daitezkeen borrokei buruz, ordu jakin batzuetan izaten diren pertsonen joan-etorriei buruz, gazte gatazkatsuen presentziari buruz...), bai eta tokiarekiko konfiantza ere. Ondorioztatu zuten mapa konbinatu bat lortu beharko litzatekeela, erkidegoaren adostasun-ikuspegia islatzeko —era bateko zein besteko ikuspegiak gutxietsi gabe—. Horrez gain, ondorioztatu zuten herritarrek saihesten dituzten lekuak eta jarduerak beldurra neurtzeko indize gisa har daitezkeela kontuan.

(15) Egile horiek elkarlanean ari dira Ingalaterrako hainbat unibertsitate eta departamenturen proiektu batean, hiri-diseinuaren indizearen tresna bat egiteko (AUNT-SUE, Accessibility and User Needs in Transport for Sustainable Urban Environments). Xedea da hirigintza eta garraio eraginkor eta sozialki barneratzaile bat lortzeko politika jasangarriak garatzea eta egiaztatzea. Honela definitu da: profesionali pixkanaka zahartzen ari den gizarte askotariko baten betekizun konplexu eta zenbaitetan gatazkatsuekin errazago enpatizatzen lagunduko dien proiektua. Hemen ikus daiteke SDI (Street Design Index) proiektuaren txostena, bai eta erabilitako metodologia ere: <http://www.aunt-sue.info/news/13.01.2010.html> eta <http://www.aunt-sue.info/assets/files/VISIT/SDIUserGuideJune2009Final.pdf>.

(16) Estandar berriei ENV 14383-2 deritze.

(17) 1996an hasi ziren estandar horiek egiteko konplexutasunari buruz, ikus van Soomeren (2007).

Europako estandarrak herrialdeen, erakundeen eta pertsonen borondatezko akordioak dira (ez dira nahitaez bete beharrekoak), eta produktu edo prozesu batek nolakoa izan behar duen zehazten dute. Europako merkatu bateratuko osagai giltzarri gisa, estandarizazio-erakunde entzutetsu batek onartutako zehaztapen teknikoak dira, behin eta berriz edo modu jarraituan aplikatzekoak.

Europako araudian adierazten da oro har tokiko eta eskualdeko agintaritzek erreakzionatu egingo dutela segurtasun-arazorik bada, legeak eta horien aplikazioa gogortuta, nahiz eta diziplina anitzeko ikuspegi integratu baten premia sumatzen den. Kontua da modu espezifikoan erantzutea galdera hauei: non (segurtasuna zein hiri-eremutan hobetu behar den), zer (zona horietan dauden eta gorantz egiten ari diren delikuentzia-arazoak) eta nor (prebentzioan interesa duten subjektu guztien identifikazioa). Araudiak dio beharrezkoa dela profesional egokiek segurtasunari buruzko diagnostikoa egingo duten fase bat izatea.

Soomeren (2007), e-doca Europako Designing out Crime elkarteko lehendakaria, CPTEDaren bigarren belaunaldiaz mintzo da. Bertan analisi fisikoak (hirigintzakoak eta arkitekturakoak) gizarte- eta antolaketa-analisiekin uztartzen dira. SCRIPT planteamendua ere deitu du: Egoeraren araberako Delitua Gutxitzea Lankidetzaren Teorian, pentsatuz segurtasunik ezak lehentasunezkoa izan behar duela, ez hainbeste polizientzat, baizik eta hiri-planifikatzaile eta -diseinatzaileentzat eta komunikabideentzat.

Aurrekari konparatu gisa, Frantzia aipa daiteke; izan ere, 1995etik, bere ordenamendu juridikoan eraikuntza jakin batzuen eragin kriminalaren ebaluazioa barneratu du

(delinkuentziaren prebentzioari buruzko 2007ko martxoaren 5eko 2007-297 Legearen bidez aldatutako Hirigintza Kodeko L111-3-1 artikulua) (18).

Espainiak hirigintzaren esparruan egindako ekimenei dagokienez, honela dio Poncek (2008) (19): “Hirigintza-planak hirigintzari buruzko lege autonomikoek exijitzen dituzten ohiko dokumentu batzuek osatzen dituzte (informazio-planoak eta antolamendu-planoak; azalpen- eta justifikazio-memoria, beharrezkotzat jotzen diren azterlan osagarriak barne dituztela; hirigintza-arauak; ekonomia- eta finantza-azterlanak; jarduketa-programa plana, gauzatzeko ezarritako epeak zehaztuta). Dokumentu horiek ondokook jasotzen dituzte: dagoen egoeraren ebaluazioa, kontuan hartutako erregulazio-alternatiboen haztapena eta azkenean hartutako erabakien zergatikoa... Ezerk ez du eragozten udal batek arautu beharreko hiri-esparruetako delinkuentzia ebaluatu ahal izatea; hain zuzen, alderdi horri buruz ari zen Europako estandar-aurrekoa eta, orain, haren ordezkotxo teknikoak. Hau da, indarrean den hirigintzari buruzko legediak bide ematen du hirigintza-planen dokumentuen artean hot spot (20) mapak sartzeko; hain zuzen, jadanik eraikitako eremuren batek delitu-edo desordena-gertaeren portzentajea batez bestekotik

(18) Ikus Habiter Cohabiter. La sécurité dans le logement social txostena, 2001ekoa, Frantziako Gobernuak argitaratutakoa. Hemen kontsulta daiteke: <http://lesrapports.ladocumentationfrancaise.fr/BRP/024000101/0000.pdf>. Erresuma Batuan “Segurua Diseinuagatik” dago, eta Herbehereetan “Etxe Seguruen Polizia Ziurtagiria”, “Segurtasun Fisikoaren gaineko Eraginaren Balorazioa” eta “Segurtasuna Delitu Ekintzen Aurrean”. Danimarkan, ildo horretan, bandalismoa gutxitzeko arauak eman dira.

(19) EAEko berdintasunaren esparruan, ikus Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 46 eta 51.2 artikulua, bai eta ondoz ondoko berdintasun-planak ere.

(20) Ikus, Ingalaterrako adibide gisa, Barrow Borough-eko Kontseiluaren diseinua, nahiz eta ekimena poliziarena izan den.

gorakoa badu eta eremu horretan halako gertaeren biktima izateko arriskua batez bestekotik gorakoa bada, plano horietan identifikatzen da. Halaber, hiri-garapen berrietan delinkuentzia eta delinkuentziaren garapena saihesteko ebaluazioak ere sar litezke. Espainiako zenbait udal hasiak dira halako mapak egiten, oso interesgarriak izan baitaitezke zer estrategia-mota garatu erabakitzeko”.

Era berean, honela jarraitzen du Poncek (2008). “Horrez gain, Espainiako hirigintza-legediak ezartzen du hirigintza-planek hirigintza-erabakien justifikazioa, hau da, erabaki horien zergatikoa jaso behar dutela; horrek garrantzi berezia du iritzia araberako araudiak direnean. Espainiako Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak dokumentu horien garrantzia azpimarratu du; izan ere, loturik daude arbitrariotasuna debekatzen duen printzipio konstituzionalarekin (Konstituzioko 9.3 artikulua), hau da, hirigintza-erabaki irrazional edo arrazoitugabeak debekatzearekin. Epaigarik, batez ere joan den mendeko laurogeita hamarreko urteetatik aurrerakoek, kontrolatu eta ezeztatu dituzte hirigintza-planak memoriarik ez izateagatik; izan ere, legediak dokumentu hori exijitzen du, eta ezartzen du beharrezkoa dela dokumentu horren barruan planaren zergatikoa azaltzea”.

Azken batean, legegintza-joerak berekin dakar hala delinkuentzia prebenitzeko neurriak hazta daitezela exijitzea nola haztaper hori justifikatu eta arrazoitu dadila exijitzea. Kataluniaren kasuan, 2004. urtetik, memoria espezifiko eta independente bat arautu da, Gizarte Memoria izenekoa. Hain zuzen, dokumentu horretan, etxebizitza eskuragarriak egiteko helburuak zehaztu behar dira. Gainera, Kataluniako Hirigintzari buruzko Legearen araudiak ezartzen du beharrezkoa dela hiri-segurtasun publikoaren arloan ebaluazio espezifikoak egitea (21). Ekologia- edo

ingurumen-ikuspegiaren mugak, neurri batean, Biktimologia Kritikoaren ekarpenekin gutxitu dira. Horren helburua da zientifikoki aztertzea kriminalitatearen, biktimazioaren eta kriminalizazioaren prozesu konplexu, dinamiko eta askotarikoak (Walklate 1992), bai eta kulturalki nola eratzen diren aztertzea ere, gizarte-talde zaurgarriei dagokienez (22). Horren bidez, kriminalitateari buruzko azterlanaren mikro, meso eta makro inplikazioak uztar daitezke, eta ondoko galderak egitean sortzen zaizkigun oztopoak gaudituz: nola definitu segurtasunik eza eta beldurra; nola jakin beldurrak funtsik ba ote duen eta proportzionala eta arrazoizkoa ote den; zein den beldurraren eragin pertsonal eta soziala; hiri-arazo bat soilik ote den; edo delituaren beldurrari buruzko azterlanak benetan ekarriko ote duen hiri-espazioaren demokratizazioa (23). Horren ondorioz, zabaldu egin da delituaren beldurra kontzeptua, biktimazioaren kezka kontzeptuarekin; horren barruan sartzen da emakumeen biktimazio ezkutua, errepikatua, askotarikoa, zeharkakoa, lausoa eta bigarren mailakoa.

(21) Kontuan har bedi, orobat, arreta berezia behar duten auzo, hiri-esparru eta villei buruzko ekainaren 4ko 2/2004 Legea. Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordean, arau hori Europako jardunbide ontzat jo da. Espainian gara daitezkeen beste hainbat estrategiaren artean CPTEDak lurraldea antolatzekeo planen, hirigintza-planen, hiri-diseinuaren eta eraikuntzako kode teknikoaren bidez zer aukera dituen aztertzekeo, ikus Ponce (2008). Cfr. 2011n Eusko Legebiltzarrean hirigintza barneratzailearen inguruan aurkeztutako lege besteko proposamena.

(22) Horren barruan sartzen dira emakume behartsuak, desgaitasunen bat duten pertsonak, lesbianak, etorkinak, ijitoak, prostitutak, adingabeak, zaharrak...

(23) Kontuan hartu behar da, neurri handi batean, hirigileek nola erabiltzen duten kontzeptu hori, bai eta teoria politikoan eta Gizarte Psikologian nola hartu den ere. “Tokiko demokrazia” kontzeptuaren inguruan egindako ekintza praktikoei buruz, CGLUKO (Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak) Deszentralizazio eta Toki Autonomia Batzordearen jarduerak nabarmendu behar dira. Cfr. segurtasun-kameren erabilerak espazioa pribatizatzeko dakarren arriskua.

Azpimarratu behar da arriskua dagoela delinkuentziaren arazoa delitu-mota jakin batzuetan eta testuinguru jakin batzuetan kokatzeko eta alde batera uzteko boteredunen delituak, kriminalitate antolatua, ziberkriminalitatea eta etxeko indarkeria, hau da, bide publikoan gutxien ikusten diren delituak. Aldi berean, bereizi egin behar dira legez kontrako penalak eta zibilki eta/edo administratiboki zehaturiko beste jarduera-mota batzuk edo soilik gogaikarriak direnak.

Honela irudizta dezakegu segurtasunari buruzko audiotretzen oinarri den esparru teorikoak segurtasunaren kezkarri dagokionez izandako garapena (Varona, 2011):



Biktimizazioari buruzko inkestak (iritziak)

Tradizio teoriko horien berrikuspen bibliografikoa oinarritzat hartuta, audiotretzek zigor-arloko estatistikekin, biktimizazioari buruzko inkestekin, autotxostenen azterlanekin eta ikerketa kualitatiboekin kontrastaturiko sei hipotesi hartzen dituzte abiapuntu gisa (Varona, 2011):

1. Ez dagoela gizarterik deliturik edo delituaren beldurrik ez duenik, baina bai biktimizazioa, are aurreratua, gutxitu dezaketen eta baliabide eraginkorrek, banakakoak, harremanetakoak, ingurumenekoak eta estrukturalak ezar ditzaketen testuinguruak, desbiktimizazioa modu egokian egiteko, giza segurtasunerako eskubidea modu interdependentean hartuta.
2. Pertsonak, batez ere emakumeek begi-bistako arrazoiengatik, beldur handiagoa diote bide publikoan ezezagunek egindako indarkeria-delitu bat pairatzeari, ezagunek edo familiakoek egindako indarkeria-delitu bat pairatzeari baino. Alabaina, delitu-errealitateari buruzko azterlanek erakusten dute handiagoa dela ezagun edo familiako delituak pairatzeko arrisku objektiboa (24).
3. Delituaren beldurra, eta bereziki segurtasuna, ez dagokiola soilik eta nagusiki poliziarri; izan ere, haiek zerikusirik ez duten eta kontrolatzen zailak diren faktore erlazioatu askoren mende dago. Horregatik, segurtasunik ezaren pertzepzioa areagotzea ez da polizia-kudeaketaren prototaren zantzia.

(24) Nolanahi ere, emakumeek sexu-delituen bat pairatzeko duten arriskuari buruz egin diren elkarrizketa sakon batzuetan oinarritutako zenbait azterlanek, dirudenez, erakusten dute beldurra ez dela oso handia (McLaughlin eta Muncie 2001, 118-9).

4. Segurtasuna neur daitekeela biktimazio-arrisku objektibo gisa, errore-marjinekin, baldin eta era guztietako banako, testuinguru eta gizarte aldagaiak erlazionatzen dituzten eredu konplexuak hartzen badira oinarritzat.
5. Beti izango da konplexuagoa delituaren beldurraren kezka (edo, nahiago bada, “segurtasunik ezaren pertzepzioena”) edo biktimazioarena (25); izan ere, delituaren beldurra fenomeno subjektiboa da, argazkia ateratzeko askoz ere zailagoa, eta, beraz, ez da egokia haren eragileez hitz egitea. Guztiarekin, tresna metodologiko interesgarria da arrisku objektiboaren eta irudikapen kartografikoen (crime mapping) arteko aldea. Horren bidez, gizarte-aldagaiekin uztar daitezke denbora-aldagaia eta hainbat eta hainbat erlazio, bai eta gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatu ere.
6. Segurtasuna, hala bere alderdi subjektiboan nola objektiboan, modu desberdinean dagoela banatua gizartean eta eragina duela eguneroko portaeran. Arrisku-, babes-, suspertze- eta lehengoratzeko faktoreak testuinguruan kokatu behar dira biztanleria-talde eta harreman sozial guztietan.


2. Emakumeen segurtasunari buruzko auditoretzak segurtasunari buruzko tokiko auditoretzetan barneratzearen polemika: Zeharkakotasuna ikusezinetasunera itzultzea al da?

EASEk genero-ikuspegia nabarmentzen dute, eta baliabide gutxiago behar dute, horien aztergaia murriztu egiten delako, baina ez dute biderik ematen TSAetan lor daitezkeen datu orokorrekin konparatzeko. Bestalde, TSAek benetako genero-ikuspegia gal dezakete.

Anne Michauden (26) adierazi duen bezala, gutxienez zortzi pauso eman behar dira edozein politika publikotan berdintasunerako genero-ikuspegia ezartzeko:

1. Generoaren arabera xehatutako datuak lortzea, aztertutako problematikaren arabera.
2. Generoaren ziozko desberdintasunak ezartzea.
3. Desberdintasun horien kausak aztertzea (bereziki, kausa sistematikoak).
4. Desberdintasun horiek ezabatzeko helburu espezifikoak adieraztea.
5. Desberdintasunak zenbat gutxitu diren neurtzeko bide emango duten adierazleak lantzea (ebaluazioa).
6. Horretarako beharrezkoak diren baliabideak identifikatzea.
7. Desberdintasun horiek gutxitzeko estrategiak bideratzea.
8. Aldizkako ebaluazioak egitea eta estrategiak zuzentzea.

Beren eskaerak hainbat testutan islatuak ikusi dituzten nazioarteko elkartegintza-mugimenduak (Varona 2011). Hiriko Emakumeen Europako Gutunak, EBk 1995ean sustaturikoak (27), honako hau baieztatzen du (28): «Emakume guztiek, batez ere bakarrik eta egoerarik ahulenean dauden emakumeek, garraio-bideak erabiltzeko erraztasuna izan behar dute, aske eta segurtasun osoz mugitu ahal izateko. Hori ezinbestekoa da benetan hiriko bizitza ekonomiko, sozial eta kulturean sartzeko.



Emakumeek ere badute “hirirako eskubidea” (29). Horregatik da beharrezkoa berriro aztertzea hiri-segurtasunaren kontzeptua, egunekoa eta gauekoa, eta lehentasuna ematea emakumeen ikuspegiei, batez ere gizartean edo kultura aldetik baztertuta daudenen ikuspegiei. Seguru bizitzeko sentimendua gizarte-kohesioaren zatitza hartzen da eta indartu egiten du».

Anne Michauden azalpenari jarraituz, 1996an, Hirien Goi Bileraren ondorioz (II. Habitata, Istanbul), Nazio Batuetako estatu kideek erabaki zuten “erkidegoan emakumeen segurtasuna areagotzea, delinkuentzia prebenitzeko politiketan eta programetan sexu baten eta bestearen premiak kontuan hartuta; hori lortuko bada, ahalegina egin behar da halako politikak aplikatzeko ardura dutenek emakumeen aurkako indarkeriaren kausak, ondorioak eta mekanismoak ezagut eta uler ditzaten” (Habitataren Programa, 123. paragrafoa). Halaber, estatu kideek konpromisoa hartu zuten tokiko politika eta zerbitzuen kudeaketan generoa barneratzeko (Habitataren Programa, 46. paragrafoa). Gainera, ahalegina egin zen gizarte-eta osasun-politiken eta emakumeentzako programa espezifikoaren esparruan indarkeriak, etxeoak eta sexuzkoak, barne hartzeko.

2001ean, Nazio Batuen Batzar Orokorrak Habitataren Programaren gauzatze-maila ebaluatu zuen, eta ondorioztatu zuen garapen eskasa izan zuela gobernuetan, nahiz eta nabarmendu zuen hainbat erakundek aurrerapenak egin zituztela. Hala, nazioarteko trukeek, Nazio Batuen bitartez (UNDP, Unifem eta NBE-Habitata) eta Hiri Segurtasunerako Europako Foroa, Emakumeak eta Hiria (30), Hiri Seguruagoak, Huairou Batzordea eta halako erakunde bitartez, genero-ikuspegiak bultzatu dituzte hiri-segurtasunean (31).

2009an, Seulgo Adierazpena onartu zen, Metropolietako Emakumeen Nazioarteko Sarearen Nazioarteko Bigarren Foroan (32). Emakumeentzako hiri lagunkoien kontzeptua landu zen. Hirugarren puntuan, emakumeentzako hiri seguruagoak sortzeari buruzkoan, neurri egokiak eskatzen ziren emakumeen aurkako indarkeria-modu guztiei aurre egiteko espazio publiko, lantoki eta etxe guztietan; jendea etxeko indarkeriari aurre egiteko premiaz kontzientziatzeko eta erkidegoak eta gobernu kanpoko erakundeek arlo horretan egiten dituzten ahaleginak babesteko; eta emakumeen eta neskatilen segurtasuna eta segurtasunaren pertzepzioa bera sustatzeko, espazio publiko guztietan jazarpen-eta indarkeria-arriskua deuseztatuta. Horretarako, hiru ekintza proposatu ziren:

- Segurtasunari buruzko kontsulta-auditoretzak egitea generoaren arabera.

(25) Termino horren barruan sartzen dira, orobat, boteredunen delituak; hain zuzen, gutxiago ikusten dira delitu horiek beldurraz hitz egitean, ez baita indarkeriarik tartean, ez behintzat modu tradizionalen ulertzen den bezala.

(26) 1994tik 2004ra Montrealean garatutako Emakumeak eta hiria programaren koordinatzailea, ikus www.womenincities.org/seminar/...es/the_genre_es.htm.

(27) Kontuan hartu behar da, halaber, 1995ean Emakumeen Laugarren Mundu Konferentzia egin zela (Pekin, 1995).

(28) <http://www.cityshelter.org/03.charte/chartes/02charte-es.htm>

(29) Esaldi hori Lefebvre (1968) frantziar soziologoak esan zuen, hiri-espazioa gero eta gehiago pribatizatzen ari zirela eta. Eskubide gisa dator jaso Hirian Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutuneko 1. artikuluan. Gutun hori hainbat hiriren ekimenez egin zen, 2002an.

(30) Montrealgo hirian egindako jarduna nabarmendu behar da.

(31) Arlo honetan lanean ari diren zenbait taldek adierazi dute zeharkakotasunak ikusezintasunera itzultzeko arriskua ekar dezakeela.

(32) Lehenengo Foroa eta Adierazpena 2007an egin ziren, Bruselan.

- Espazio publikoen eta azpiegituren diseinua hobetzea.
- Zerbitzuak hobetzea, batez ere garraio publikoa.

Emakumeen segurtasunari buruzko auditoretzak Metropolitan Action Committee on Violence Against Women and Children erakundeak hasi zituen (METRAC) (Emakumeen eta Haurren aurkako Indarkeria Publikoari buruzko Ekintza Batzorde Metropolitarra), Toronton (33). Auditoretzen oinarria da emakumeak adituak direla beren buruaren segurtasunean, tokiko irtenbideak bilatzen, emakumeen eta beren tokiko gobernuen arteko lan koordinatua sustatzen.

Emakumeen segurtasunari buruzko auditoretzetan, arriskutsutzat jotzen ziren zonak identifikatu besterik ez zen egiten hasieran, baina, denborarekin, beste iturri batzuk gehitzen joan ziren.

Erabilitako metodologia, funtsean, esploratzeko egiten ziren errondak edo martxak ziren. Horietan ideiak garatzen ziren, eta, ondoren, auditoretza-taldeari helarazten zitzaizkion. Argazki-kamerak erabiltzeak lagundu egiten du taldeei beren iritziak eta kezkak entzule gehiagori adierazten.

Arriskutsutzat jotako lekuetatik une jakin batzuetan paseatzea eraginkorra da sentibilizatzeko, arazoak identifikatzeko, konpromisoa areagotzeko eta erantzunak lantzeko. Horien izaera praktikoak erakarri egiten ditu parte-hartzaileak irtenbide-estrategiak bilatzera (34).

Auditoretza landuenean, xedea da errondetako datuen analisia bateragarri egitea segurtasunari buruzko beste iturri batzuekin.

III. Mugak eta erronkak: Giza segurtasunaren kontzepturantz

Genero-ikuspegiak berrikuntzak ekarri dituzte hala gai aldetik nola metodologia aldetik. Mugimendu feministak bultzatu zuen genero-ikuspegia, laurogeiko hamarkadaren amaieran, eta berekin ekarri zuen herritarren bizitzan eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatu beharraren gaineko kezka; baina, horrez gainera, eguneroko bizitza ulertzeko modu berri baten gaineko kezka ere ekarri zuen — oharkabean pasatu ohi da hori—, bai eta haurren, gazteen, zaharren, desgaitasunen bat duten pertsonen eta abarren zaintzaren eta erantzukizunaren gaineko kezka ere. Beraz, bokazio unibertuala du; izan ere, ez da erreklamatzeko segurtasunerako eskubide erreal bat inoren aurka, eta asmoa ez da beldurra eta zigor-portaerak areagotzea, baizik eta giza segurtasun oso eta barneratzaile baten alde egitea, banako aniztasuna errespetatuta (Varona 2011).

Jane Jacobs idazle eta aktibistak *The Death and Life of Great American Cities* argitaratu zuen, 1961ean. Lan horretan, hiri-espazio isolatuen sorkuntza modernista kritikatu zuen. Eragin handia izan zuen laurogeiko hamarkadan sortu zen “hirigintza berria” deituriko mugimenduan. Liburu hori XX. mendeko hirigintza-plangintzaren klasiko bihurtu da, eta, beste hainbat konturen artean, hiri handietako erdigunearen degradazioaz eta funtzio anitzeko kaleen beharraz dihardu. Horkoa da segurtasunari loturiko *eyes on the street* adierazpena. Beharbada, Kitty Genoveseren kasua gogoratuz, erantzukizuna eta beldurra hedatzeari

(33) Ikus emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ezagutzaren zentro birtuala <http://www.endvawnow.org/?ciudades-seguras&menub=490&id=2528&haga-preguntas-sobre-la-seguridad-de-las-mujeres-en-la-ciudad>.

(34) Beldurraren mapa deiturikoei buruz —zenbaitetan hiri debekatuaren edo galduaren mapa ere deitzen zaie—, batez ere EAEn garatutakoez, ikus Albeniz et al (2010).

dagokionez, eyes with empathy on the street gaineratu behar da (35). Ezertarako ez du balioko ageriko egitea, gizarte-kohesiorik eta giza kapitalik gabe.

Aniztasunaren ikuspegia barneratzen duten segurtasunari buruzko auditoretzak giza eskubideen adierazle konplexu bihur daitezke arlo arau-emailean eta, bereziki, gizarte-errealitatean. Gainera, bide ematen dute luzetarako eta espaziozko konparazioa egiteko.

NBE-Emakumeak erakundeak, NBE-Habitat erakundearekin eta emakumeen tokiko sareekin elkarlanean, munduko programa (2010-2015) (36) bat egin du emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeriarik gabeko hiri seguruei buruz, eta, hain zuzen, programa horren ardatza honako hau da: “emakumeen aurkako genero-indarkeria identifikatzea eta prebenitzea hirietan, batez ere espazio publikoetan”. “Garrantzi berezia ematen zaio indarkeriaren prebentzioari, gobernuei kontuak emateari, erkidegoaren mobilizazioari eta parte-hartzeari, emakumearen jabekuntzari eta auzoak eta oro har hiri-ingurunea hobetzeari”. Azken xedea hau da: “eraginkortasun frogatua duen lehen ikuspegia sortzea (ebaluazio zorrotz baten bidez) espazio publikoetan emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria prebenitzeko eta murrizteko moduari buruz; ikuspegi hori eredu aplikagarri bihur liteke (edo litezke) hainbat testuingurutan, eta, hala, emakumeen jabekuntza eta genero-berdintasuna susta liteke eta denon hiri-bizitzaren kalitatea hobetu.

NBE-Emakumeak erakundeak programa horren barruan egindako dokumentuak aztertuz gero, ikus daiteke, ezagutza kriminologiko eta biktimologikoen ildoan, arriskuak murrizteko erkidegoa, egoera eta biktima kontuan hartzen dituen prebentzio-ikuspegia hautatzen dela, eta horrek, emakumeentzat espezifiko bada ere, bokazio

unibertsala duela eta ez antagonikoa. Hori lotuta dago giza segurtasunaren diziplinarteko kontzeptuari buruzko gaur egungo lanketa teorikoarekin.

Teoria horretan, zaugarritasunaren gaineko kezka giza kondizioaren esentzia gisa sumatzen da. Gizakiaren pluraltasuna, dinamismoa eta faktore askorekin eta hainbat mailatan duen interdependentzia ulertuz gero, hobeki babestuko dira giza eskubideak.

Mugimendu feministak, biktimazioen bat jasaten duten pertsonen aldeko beste mugimendu batzuekin batera, agerian utzi du, bai eta kontzientziatzea lortu ere, segurtasuna ez dagoela berdin banatuta ez espazio pribatuetan eta ez publikoetan, eta hor, zalantzarik gabe, hirigintza barneratzaileak modu positiboan eragin dezakeela. Gainera, mugimendu horren ekarpenik garrantzitsuenetako bat espazio horien ikuspegi interdependentea da, bai eta eskala orokorra eta tokikoa ere, botere-harremanak garatzen diren leku gisa. Nolanahi ere, beharrezkoa da azterlan empiriko eta diziplinartekoak sustatzea desberdintasun horri buruzko kontzeptu, tresna eta analisi-metodologia berriak sortu ahal izateko, bai eta erantzun konplexuagoak sustatzea ere, epe labur, ertain eta luzera politika publikoak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko.

(35) “Genoveseren sindromea” deritzo banako erantzukizunaren lausotze edo desagertze horri eta inguruabar jakin batzuetako beldurrari, Kitty Genovese-ren kasua gogora ekarriz. Hain zuzen, 1964ko martxoaren 13an hil zuten emakume hori, Queens-en (New York), sastakatuta. Hogeita hemezortzi pertsonak entzun zituzten haren oihuak ordu erdi baino gehiagoan, baina inork ez zion hots egin poliziarri eta inor ez zen jaitsi laguntzera ere. Horren ondorioz sortu zen poliziarri deitzeko 911 zenbakia. Ikus Decoin (2010).

(36) Genero Berdintasunerako eta Emakumeen Jabekuntzarako Nazio Batuetako Entitatea. Ikus hemen: <http://www.endvawnow.org/es/about>.

Alde horretatik, giza segurtasunaren kontzeptuak eta segurtasunari buruzko tokiko auditoretzen analisi-metodologiak, nabarmen barmenatzen baitute genero-ikuspegia, bide ematen dute hirigintza berriaren eta biktimologia kritikoaren ezagutzak modu parte-hartzaile eta zorrotz batean uztartzeko. Behin eta berriz azpimarratu dugun bezala, horriesker hobeto ulertuko ditugu emakumeen biktimizazioarekin loturiko zaugarritasun, erresistentzia, oneratze (37) eta lehengoritze (38) testuinguruek definitzen dituzten aldagaiak, eta hobeto lotuko ere ditugu giza segurtasunerako eskubideari dagokionez baztertuta dauden beste talde batzuen baldintzekin (39). Hori guztia, eztabaida publiko eta kritikoki informatu bat egiteko modua emango diguten neurketa-tresna hobeen zain.

(37) Pentsa bedi hirigintzaren aukeretan, diseinuan eta biktimen oneratzean biktimizazio-lekuei dagokienez, eta biktimetan eraikin polizialean, judizialean eta laguntza emateko eraikinetan.

(38) Har bedi kontuan emakumeen, oneratzearen eta justizia leheneratzailearen arteko harremana, NBE-Emakumeak erakundearen 2011ko txostenean proposatzen denaren arabera.

(39) Ikus egoitza Brasilen duen Segurtasunaren eta Gizarte Garapenaren Munduko Unibertsitate bat sortzeko Nazio Batuen proiektua; hain zuzen ere, giza segurtasunaren kontzeptu hori milurtekoko helburuen artean erabiltzen da.

- Esperientziak partekatzea eta gaiari buruzko beste ikuspegi batzuk ikustea.
- Herritarrek hirigintzako jardunbideetan izan dezaketen parte-hartzeari buruzko jakin-mina.
- Jakin-min intelektuala.
- Hirigintza egiteko beste modu batzuk ezagutzea.
- Hirigintzan parte hartzeko prozesuak ikastea.
- Parte hartzeko tekniketari sakontzea.
- Esperientziak ezagutzea.

Azkenik, Amaiak eta OihaneK Hiri Kolektiboko arkitekto gisa aurkeztu dugu geure burua; gure espektatiba da parte-hartzaile bakoitza ideia honekin irtetea: hirigintzan berdintasuna modu parte-hartzaile batean lantzea.

Beraz, tailer honen xedea ez da hainbeste mapak egiten “irakastea”, horretarako bai baitago jadanik gidaliburu bat, baizik eta espazio bat, foro bat sortzea gogoeta egiteko, ideiak elikatzeko, bakoitzak parte-hartzeari bide emanda hel diezaion hiri-diziplinetan generoa barneratzeko gaiari; errazagoa izan dadin etorkizunean proiektuak egituratzea, bakoitzaren lan-esparruko errealitatea oinarritzat hartuta.

2. ESPARRU TEORIKOA [30 minutu]

Espazio publikoan berdintasunez eta parte hartzeko metodologiekin lan egitea zer den azaldu dugu.

- Herritar pluralak. Subjektu berriak. Pertsonak hartzea

ardatz...

- Gogoeta txiki bat eguneroko bizimoduaren inguruan: erabilerak, denborak...
- Espazio publiko ez-neutroak. Subjektu berriak.
- Publikoa/Pribatua. Harremanak-iragazkortasuna.
- 4 ardatz hirigintzan gizarte- eta genero-ikuspegitik lan egiteko.
- Hiri-ehuna gizarte-ehunaren oinarri gisa.
- Ondorioak hiri- eta bizikidetzaren eremuan.

3. TALDE-LANA [30 minutu]

Tailerrean landuko dugun kontzeptu-esparrua aurkeztu ondoren, bertaratuak hiruzpalau pertsonako taldeetan banatu dira, gai honen inguruan lan egiteko:

Kontua da pentsatzea zure/zuen ustez zer proiektuk edo lanek egiten duten berdintasunaren eta/edo parte-hartzearen alde hirigintzaren arloan.

Postit bakoitzean proiektu bat ipintzea, eta bakoitzetik nabarmentzen duzun ideia edo gai bat ipintzea.

Lan horren emaitza ondoko proiektuok dira, bateratze-lanean intereseko multzo edo gai hauek bildu direnak:

Elkartzeko eta interakzio sozialerako lekuak:

- Munduko Arrozak.

- BLV.ART , bisita gidatuak Bilbo Zaharrea barrena.
- Masa Kritikoa. Kritikona, bizikleta-martxa aldarrikatzailea.
- Maiatzaren 2ko azoka txikia.

Ekipamenduak:

- Beasaingo prozesua: erabileren, espazio estalien nahasketa sustatzea.
- Parte hartzeko prozesua, Bergarako auditoriuma. Teknikarien eta herritarren arteko topaketa (parte hartzeko espazio bat sortzea / premiak baloratzea proposamenak egin aurretik).
- Hartzaindegiak enpresetan.
- Hartzaindegi atxiki bat duen kiroldegia.
- Aretxabaletako garraio publikoa. Prozesu bat ezarri ondoren parte hartzeko prozesu bat egiteak protesta sortzen du (Ezarpena / protesta / parte hartzeko prozesua).
- Loiolako Erribera, ikastolako jolastokia gehitzea.
- Lanaldia murriztea. Lana eta familia bateragarri egiteko politikak. Presentzialismoa gehiegi baloratzea.


Zer da parte-hartzea?

Hainbat aukeraren artean hautatzea parte hartzea da? Boluetako etxebizitza-proiektua.

Politika publikoak:

Paisaia-katalogoa. Eragileen eta herritarren parte-hartzea.

Etxebizitzari buruzko ituna. Plan gidaria, Etxebizitzaren Legea, hausnartzeko prozesu eta guzti.



Bateratze-lanaren ondoren, esparru teorikoari buruzko saioaren amaieran eztabaida sortu da gai honen inguruan: zer den parte hartzeko prozesuak egituratzea eta zertarako den ona. Hala, esparru teorikotik praktika-egoerara igaro da.

Amaiera ona, hurrengo egunean tailerreko alderdirik praktikoenera heltzeko.

ESPARRU PRAKTIKOA

1. JARDUNBIDE ONAK [30 minutu]

Etsenplu gisa, 3 proiektutako metodologiak ditugu:

- Hiriko Goiko Auzoen Plan Berezia, Bilboko Udala. 2007.

Hiri debekatuaren mapa:

- Short: Getxo, 2009.
- Long: Hernani, 2007 / Tolosa, 2009 / Abadiño, 2010.

2. TALDE-LANA [40 minutu]

Lauzpabost pertsonako taldeetan lan egitea proposatu da.

Ahalegina egin da bakoitzaren lan-esparruan halako proiektu bat (saioaren hasieran azaldutakoen antzekoa) garatzeko zer oztopo eta aukera dauden identifikatzeko. Oztopoak




eta aukerak landu dira; horretarako, oztopo bakoitza postit batean idatzi da, eta aukera bakoitza beste batean.

Bukatutakoan, taldean landutako ideiak bateratu dira. Eta hori dena paneletan jaso da, ideiak multzokatuta, oztopo nagusiak non dauden ikusi nahian eta halako proiektuei heltzeko giltzarriei buruz hausnartu nahian.

Oztopoak

- Krisia. Baliabideak.
- Finantza-bidea.
- Erreferentziako komunitateari aurretiaz proiektuen kontsulta egitea falta da, prozesu horiek baldintza-agirietan egituratzea falta da.
- Parte hartzeko prozesuak “akatsekin” sortzen dira, interes partikularrengatik.
- Indibidualismoa, gaur egungo gizarte-mota.
- Zenbait erakunde traba gisa.
- Ez ezagutzea.
- Eskaintako denbora.
- Inposizioa: mugak prozesuetan.
- Lan egiteko gaur egungo moduak.
- Parte hartzen da proiektuaren ideia jadanik erabaki denean.



- Ez dago parte hartzeko kulturarik. Eskolatik.
- Ez dako komunikaziorik esparru baten eta bestearen artean.
- Udala // Herritarrak
- Teknikariek / politikariek zalantza izaten dute gizartea hiri-kudeaketan barneratzeko orduan.

Aukerak

- Krisia. Baliabideak optimizatzeko beharra. Pentsatzeko denbora.
- Ideia berriak teknikoak ez den ikuspegi batetik.
- Eraginkortasun handiagoa konponbidean.
- Mugimendu bat sortzea administrazioan. Berrikuntza.
- Komunitatean pentsatzea banakoarengan pentsatu ordez, jendeak ez dezala soilik bere buruarengan pentsatu.
- Aukera elementu osagarri gisa.
- Gizarteratzea sustatzea elkarrekin bizi diren edo hiri-errealitate bat partekatzen duten taldeen artean.
- Ezagutzak zabaltzea.
- Prestakuntza.
- Aurrekontuko esleipena, beharrezko baliabideekiko proportzioan. Berdintasuna // herri-lanak.

- Ikuspegiak zabaltzea.
- IKT. Internet, mapak...
- Herritarren jarrera aldatzea.

3. AMAIERA ETA banako AZTERKETA [40 minutu]

Azken gogoetak tailerrean landutakoari buruz, eztabaidaren eta galderen txanda.

Bi saioetan landutakoari buruzko azterketa/galde-sorta.

4 gai garatzeko.

Tailerraren amaierako galde-sorta:

Erantzun hiru galdera hauei, tailerrean landutako gaiak kontuan hartuta. Galdera bakoitzeko folio erdi bete gehienez.

1. Zer iruditu zaizu tailerreko metodologia? Arrazoitu erantzuna.
2. Zein hiru ideia edo kontzeptu nabarmenduko zenituzke berdintasuna eta parte-hartzea oinarritzat hartuz hirigintzan lantzeko?
3. Ikuspegi hori barneratua duen proiekturen batean lanean ari al zara? Baietz erantzun baduzu: azaldu proiektua, helburua eta metodologia. Ezetz erantzun baduzu: Pentsatu eta deskribatu proiektu-idea bat genero-ikuspegia barneratuta lan egiteko hirigintzan, 2011/2012 ikasturtean landu beharreko parte-hartze praktikak sartuta.

ONDORIOAK

Hiria Kolektiboak oso modu positiboan baloratzen du tailerra; izan ere, egindako lan-motak eta tailerlean lan egin zuten pertsonen gogoeta- eta eztabaida-giro interesgarria sortu zuten. Hala, tailerlean parte-hartzaile guztiek adierazi eta partekatu ahal izan zituzten beren iritziak, kezak eta esperientziak.

Era horretako topaketak, lanak eta dinamikak herriak eta hiriak taldean egiteko beste modu batzuk bilatzeko pausoak dira. Tailerreko topaketan eta lanean sumatu genuen jakin-min handia eta aurretiko jarrera ona dagoela ikuspegi horiek hirigintza-praxian txertatzeko.

Tailerra emakumeek eta gizonen osatu zuten, nahiz eta askoz ere emakume gehiago izan, profil eta adin guztietakoak. Lan-taldearen heterogeneotasun horri esker, errazagoa izan zen dinamikan hainbat motatako lan-esperientziak partekatzea.

Zinez uste dugu topaketa horiek oso positiboak direla eta etengabeko birziklatze profesionalaren parte direla. Topaketa horiek gure ingurune hurbilenekoan profesional askok duten egitekoaren berri izateko katalizatzaileak dira, eta hori guztiz da beharrezkoa; izan ere, hirigintza-praktikak ikusarazteko espazioak dira, bestela ezagutzen oso zailak baitira.

Askotan, esperientziak konparatzeko gure eguneroko lanetik irteteak eta haize fresko pixka bat arnasteak oso jardunaldi emankorrak eta aberasgarriak ekartzen ditu.


Halaxe adierazi zen tailerlean ere: “izan ere, eguneroko lanean, premiazkoak askotan ez dio lekurik uzten hirigintza-arloan garrantzitsuena den horri”.

Hiria Kolektiboaren sentipena, tailerra amaitzean bertaratutakoek egindako balorazioaren emaitza ere kontuan hartuta, hauxe da: egindako lanak giro ona sortu zuela gogoeta egiteko eta praktika profesionalarekin loturiko esperientziak eta kezak partekatzeko. Hala, arkitekto dinamizatzaileek nabarmendu nahi dute pozik daudela oztopoak eta aukerak identifikatzeko egin den lanarekin. Lan horrek giltzarriak eskainiko ditu, ziur, hirigintzako generoaren faktorearekin zerikusia duten proiektuak planteatzeko edo tailerrera etorritako pertsonen parte hartzeko.

Bilbo, 2011ko azaroaren 30a



Arra. Arraroa.
Oier Guilla. Poeta



Arra. Arraroa.

1.

Arra. Arraroa.

2.

Potrotaraino nago.

Bai.

Potroak ditudalako nago

potrotaraino.

Horregatik eta

gizona izatea zer den entzuteaz

aspertuta nagoelako.

Gizonezkoak gara gizonkeriaren beste biktimak.

Zakilzofreniatik askatuko gaituen mugimendu,

postmugimendu

edo megapostrockmugimendu ideologikoaren zain omen den

gizakil multzoa.

Gizona.

3.

Idea zaharkituen depilazioa,

emozioen politika,

botereari uko egitearen indarra.

4.

Aitorpen publikoa bat:

poesia idazten dut.

Arraroa izan naiz beti.

Arra. Arraroa.

5.

Gizona naizela diot

eta harro nago.

Gizona naizela diote,

eta arra nago.

Gizona naizela diozu,

eta arraro nago.

6.

A!!

Nola sartu naiz esku hauetan!

A!!

Nola heldu naiz bular honetara!

A!!

Nola iritsi naiz honera barrura!

7.

Gizona naiz.

Gizona naiz

nahiz eta

gizona izan.

XXI. mendean ezin da gizona izan etiketarik gabe.

Hauk dira nireak:

modernoak,

jatorra,

sentsiblea,

indartsua,

ulerkorra,

adimentsua,

elegantea baina ez gehiegi,

detailezalea baina pixka bat despistatua,
heterosexuala.
Adjektiboak dira munduko gauzarik estresagarriena.

8.

Heterosexuala izan nahi dut errudun sentitu gabe.
Feminismoa aldarrikatu.
Desioz begiratzen nauten gizonzkoen albotik pasatu
eta horrekin disfrutatu.
Sexuari buruz hitz egin, ideologia bat ez balitz bezala.
Nahi dudan bezala jantzi inauteriak ez direnean ERE.
Ezpainetan muxua emanez agurtu lagunak:
lehoiak, jirafak, elefanteak
eta pertsonak.
Nortasun propioa aldarrikatzen duen
gizona izan.
Gizona.
Zer arraio da gizon bat?

9.

Begira.
Ileak ditut.
Leku guztietan,
oin azprietan izan ezik.
Hala ere, noizean behin
ile batzuk depilatzen ditut.
Sudurzuloetakoak.
Bularrekoak.
Galtzarbeetakoak.
Luzeenak behintzat.
Eta harro nago.
Eta arra nago.
Nik ere nahi dut desira nazaten.

Aspertuta nago gizonzko heterosexualen trauma ezkutuez.
Isiltasunaz.
Aspertuta nago baita ere
izan behar nukeena oihukatzen didaten
eskuindarrez eta ezkertiar postmodernoez.

10.

Aitorpen publikoa bi:
Ilgandeetan ez dut kinielarik egiten.
Arrarora izan naiz beti.
Arra. Arrarora.

11.

Zer edo zerk definitu badu orain arte gizona izatea zer den,
hori beldurra izan da.
Emozioak adierazteko beldurra.
Ahul agertzeko beldurra.
Barregarri geratzeko beldurra.
Galtzaile izateko beldurra.
Barrutik biluzteko beldurra.
Beldurrari aurre egiteko irakatsi diguten modu bakarra
beldurra eragitea da.
Beldurrari hostia pare bat eman eta kito.
Beldurraren kontrakoa ez da ausardia.
Beldurraren kontrakoa beldurrarekin bizitzen jakitea da,
inor izorratu gabe.

12.

Nire aurrekoek erakutsi didate gizonzkoa izatea zer den:
nire aurreko gizonzkoek
eta batez ere
gizonzkoen rola defendatu duten
nire aurreko emakumeek.

13.

Manifestu ezinezkoa:
 emozionalki, fisikoki, zakil-zikloki heterosexuala naiz. Eta zer?
 Arrazionalki bisexuala naiz. Eta zer?
 Ideologikoki gaya naiz. Eta zer?
 Trans, intro, hiper, mega, homo, super, lesbo, queer...
 funtsean, faxismoaren birziklapenaren kontra egiten duen
 zorientasun mota guztien aldekoa naiz.

14.

Lagunok,
 gogoko ditut
 titi handiei buruzko txistek.
 Entzuten ditudan bakoitzean
 nire ama etortzen zait burura
 ezpainak handiturik,
 hortzak odolez beteak.
 Kar-kar.

15.

Aitorpen publikoa hiru:
 emakumeen kontrako bortizkeriaren biktima izan den
 gizonezkoa naiz.
 Arraroa izan naiz beti.
 Arra. Arraroa.

16.

Emakumeen kontrako bortxakeria
 guda totala da,
 gatazka dosifikatua,
 isilpeko mundu-gerra.

Noiz idatziko dituzte kolpatutako,
 umiliatutako,
 baztertutako emakumeek historia liburuak?

Nolakoak dira kolpatutako,
 umiliatutako,
 baztertutako,
 eraildako emakumeen semeek
 idatzitako nobelak?

Non daude orain kolpatutako,
 umiliatutako,
 baztertutako,
 eraildako emakumeen semeak?

Nolako gizonak dira?
 Zer ikasi dute?

17.

Imajina dezakezue zer den
 emakumearen kontrako bortizkeria jasan duen
 gizonezkoa izatea?
 Zeure burua aitaren ispilu hautsian ikustea?

Amak hazitako gizona naiz.
 Bizarra kentzeko aparrik gabe munduan abiatu den
 nerabea,
 gauetan galtzontziloa zikintzen duen hazia ezkutatu
 beharrean den
 norabiderik gabeko gaztea.

Ama bati ez litzaioke monumentu bat egin behar, ama bati
 gizartean boterea eman behar litzaioke,
 ahal dela boterearen ideia erautsi dezan.

18.

Aitorpen publikoa lau:
ez dakit entxufeak konpontzen.
Arrarora izan naiz beti.
Arra. Arrarora.

19.

Ni naiz nire aita.
Begira iezadazue: ni naiz
nire aita.
Eta ez aitaren iguala naizelako, ez.
Neure buruari erakutsi behar izan diot bizarra mozten,
bizitzaren saminari aurre egiteko tresnak bilatzen.

Ez da erraza haur zarelarik etxera iritsi eta
zure ama negarrez topatzea,
aurpegia ubelduta.
Ez da erraza eskolatik bueltatu eta
telebistako pantailan ikustea, gorriz idatzirik:
akabatuko zaitut.

Pentsatu duzue inoiz nolakoa izango den
norbaiti lepoan labana sartzea?
Nik bai.
Ama defendatzeko.
Baina ez dut egin,
ez nuen neure aita akabatu
ez nuelako gizon hori izan nahi.

20.

Nolakoa da iragana errepikatzen ez duen gizona?

21.

Aitatasuna titi depilatu bat da.
Emakumeek bere gorputzarekin nahi dutena egiteko
erabaki eskubidearen aldekoa naiz.
Baina ni ez naiz sekula erabakitzeke aske izango.
Negoziatzeko edo inbertitzeko aske, asko jota.

Hala eta guztiz ere,
nik ere aita izan nahi nuke,
neure buruari gauzak beste modu batean egin daitezkeela
frogatzeko.
Edo saiatzeko behintzat.

22.

Mundua, modua.
Zein da gizonezkook munduan egoteko dugun modua?

23.

Mundu osoaren aita izan nahiko nuke,
injustiziatik babestu zanpatua den oro,
eguna odolak estalia datorrenean
pasako da esateko gaitasuna eduki!
Ahula sentitzen den hori babesten duen
figura sendoa izan nahiko nuke,
hau da, funtsean: topiko puta bat,
bizitza errazagoa egingo didan topiko puta bat.

24.

Aitorpen publikoa bost:
kirolari txarra naiz.
Arrarora izan naiz beti.
Arra. Arrarora.

25.

Bizi gaituen bizitza honetan
 baztertuen artekoa da nire familia.
 Eta baztertuetan oraindik kategoriarik, gerrillarik,
 kantarik edo bertsorik sortu ez zaienen artekoa.
 Eta ni hortaz, sailkatu gabeko baztertuen artekoa:
 emakumeen bortizkeria jasan duen gizonezkoa...

26.

Aitorpen publikoa sei:
 bizikleta gainean desastre hutsa naiz.
 Arraroa izan naiz beti.
 Arra. Arraroa.

27.

Ea, esaldi arranditsu bat:
 kapitalismoak baztertutako guztien aldekoa naiz.
 Bereziki itsusien aldekoa.
 Haietako bat naizelako.
 Gizona izan nahi duen gizona,
 bufoia, poeta,
 aurrelari eskasa, defentsa okerra, atezain kaskarra,
 kakanarrua, iletsua, burusoila,
 etxetresna elektriko konpontzailerik traketsena.

28.

Honela hitz egiten du nire ahotsak:
 A... o... mmm...
 Ua! Plastilinazko pilak dituen megafono bat naiz!
 A... o... mmm...

29.

Arra! Patua! Ez naiz, ez nago, arra! Patua!
 Maita nazazue, kabroi alaenak, maita nazazue!
 Ez al duzue ikusten gauza garrantzitsuak egin ditzakedala?

Ez.

Ez duzue ikusten.

Eta egia esan, eskerrak.

Ezingo nuke jasan jende guztiak ni maitatzea.

Gutxi batzuekin konformatzen naiz:
 maita nazazue, kabroi alaenak, maita nazazue!
 ez al duzue ikusten beharrezkoa naizela?

Ez.

Ez zaituztet ni maitatzera derrigortuko. Ez naiz estatua
 edo konstituzioa izango gure arteko harreman honetan.
 Itsusien edertasuna konpartitzeko prest nago.

30.

Aitorpen publikoa zazpi:
 ezetz, hostia, ez dakidala
 zein den nire lagun autoaren marka!
 Arraroa izan naiz beti.
 Arra. Arraroa.

31.

Buztan-burua.
 Astapotroa.
 Ahoberoa.
 Zakila naizela diote askotan.

Nire zakilak ez daki disimulatzen.
Nire aurpegiak, ezta ere.
Egia esatea beste biderik ez dut:
gustukoa zaitut,
2343 ile ditut gorputzean,
metro koadro honetako gizonik politena naiz.

32.

Zakilarekin jotzen dut larrua
eta ipurdiarekin,
gerriarekin,
eskuekin,
oinekin,
mingainarekin,
sudurrarekin,
begiekin,
biriekin,
gibelarekin,
globulu gorriekin,
hesteekin,
hezurrekin,
bihotzarekin.

33.

Zuek badakizue zer den gizon bat?
Zuek badakizue nolakoa den gizona izan nahi duen gizona?

34.

Sentikorra eta indartsua.
Jende gehienak bezala, azken finean.
Nik ere badakit zer den borrokatzea,
nik ere sartu dut inoiz ukabila aurpegi batean.

Ni ere banaiz min emateko gai.
Nik ere egin dut negar maitasunezko filma batekin.

Munduko gauza itsusiekin hunkitzen naiz, pertsonen
arteko keinu hautsiekin, samurtasunarekin.
Eskutik heldu baina lotu gabe, leunki,
musika gozoa jarri ezpainetan...
goza ditzagun bihar ahaztuko gaituzten plazerak!

Sentikorra eta indartsua, min emateko gai, jende gehiena
bezala.

35.

Aitorpen publikoa zortzi:
ez dakit igeri egiten.
Arraroa izan naiz beti.
Arra. Arraroa.

36.

Beti miretsi ditut ezizenak dituzten pertsonak. Nik ez dut
inoiz halakorik izan.
Ezizenarekin ezagutu ditudan pertsona gehienak
gizonezkoak dira:

Txibi
Txato
Txubi
Fiti
Junki
Perku
Trosko
Zato
Txiki
Peli

Txubio
Txelu
Azpi
Gogi
Murru
Txokolo
Potxolo
Metralla

Nik ez dut inoiz ezizenik jaso.
Behin saiatu nintzen
neure buruarentzat ezizen bat sortzen
eta ahoz aho zabaltzen: azul.
E azul! Benga azul! Tiraiok azul!
Ez nuen arrakastarik izan.

Nola zabaldu daiteke norberari buruzko zurrumurru bat?
Arraro begiratzen zidaten denek. Azul. Eskerrak ez nuen
arrosa esan, edo horia. Mutilak ez al dituzte ba txikitan
urdinez janzten? Ba horixe nahi nuen nik, ezizen maskulino
bat: Azul!

Agian ez dut lortu neure buruaren karikatura izatea, eta
horregatik ez didate inoiz ezizenik jarri. Nire aurpegiak ez
du ezeren antzik.
Ez dut lortu sekula modu orijinal batean barregarri
geratzea.

Arraroa izan naiz beti.
Edo agian besteak dira arraroak direnak?

37.

Aitorpen publikoa bederatziz:
apustuak egiteak gogaitzen nau.
Arraroa izan naiz beti.
Arra. Arraroa.

38.

Gizona.
Munduan egoteko modu bat.
Edertasuna arnasteko modu bat.

39.

Behin poesia idazten hasi nintzen. Arraroa izan naiz beti.
Arraroa nintzen besteentzat, poesia idazten nuelako.
Eta hara non bat batean, poesia politikoa idatzi nuen.
Halako batean gizon bilakatu nintzen batzuentzat gauza
inportanteak esaten nituelako, nahiz eta inork gutxik
irakurri, nahiz eta euskaraz egin, baina gizon egin nintzen,
poesiari esker. Hori bai,
poesia idazten jardun nintzen lehenago urte luzez, 'arraroa'
etiketa buztanetik zintzilik.

Jasanezinak zaizkit
banderak zintzilikatu nahi dituzten pitilin mastak

40.

Gizona.
Munduan egoteko modu bat.

Puzkerra. Korroka.
Pixa egin edozein lekutan. Apurtu, suntsitu, tirokatu,
torturatu. Neskak barregarri utzi haien atentzioa

bereganatzeko. Sexuari buruzko txistek egin. Kanpaia jo eta besteei esan.

Hau al da gizonezkook munduan egoteko dugun modua?

41.

Gizona.

Edertasuna zurrupatzeko modu bat. Ez da erraza gizon ederra izatea. Erakargarria.

Zure segurtasun eza guztia

norbaiten aurrean gainditzea lortuta ere

gazta bola iletsua azalduko zaizu ustekabeen,

sabel zabalegiaren ertzetik,

arropa erantztean.

Sedukzioak droga baten moduan

kontsumituko zaitu,

biluzteak izua sortzen dizun arren.

Idea modernoan depilazioa! Itsusien edertasuna!

Nire azazkalak politak dira. Esan dezake inork horrelako zerbait inozoa sentitu gabe? Nik bai.

Edertasuna.

Gizona izateko moduak

lotsarik gabe asmatzearen edertasuna.

42.

Aitorpen publikoa hamar:

batzuetan ez dut gogorik larrua jotzeko.

Arraroa izan naiz beti.

Arra. Arraroa.

43.

Behin emakume bat maitatu nuen.

Gero beste emakume bat maitatu nuen,

eta gero emakume hori maitatu nuen berriro.

Azkenean, emakume batek maitatu ninduen ni,

eta hura kasualitatea,

baita nik bera ere.

A ze lana maitatzea.

Emakume hura baina, ez zen nirea.

Haiek lanak nirea izan ez zedin!

Hau da zure neska,

zure bikotea,

zure puta,

zure zakurra,

zure tximino makilatua.

Emakume hark ez zuen jaberik

bere senari baino ez zion egiten men,

eta batzuetan, hori ere ez.

Ez genuen elkar erosi,

ez elkar alokatu ere;

okupatu bai, agian.

Elkarren gogoak eta gorputzak okupatu genituen, batak

besteari plazera eman ez den lurraldean.

44.

Hauexek dira lotsaren lege ez idatziak: tabernetan

dantzatu inor bultzatu gabe, neskekin hitz egin mozkorra

egon gabe, publiko aurrean kantatu,

kontzertuetan gorputz osoa astindu eta ez soilik burua,

txuleta edo saihetsak ez diren jakiak prestatzen jakin,

arropa erosi aholkularirik gabe, oinetako azazkalak moztu,

familiako bazkalosteetan mahaia jaso beste gizonezko

batzuen aurrean. Ez umiliatu inor popularra izateko.

Nola izan gizona adjektiborik gabe?
 Nola izan gizona eta ezkertiarra,
 modernoa,
 jatorra,
 sentsiblea,
 indartsua,
 ulerkorra,
 heterosexuala... lotsa sentitu gabe? Zakilarekin pentsatu
 errudun sentitu gabe.

Titiak ikusi eta
 tripak
 besoak
 izterrak
 belarriak
 sudurrak
 hankak
 ahotsak
 begiradak
 pertsonak.
 Biluztu.

Erotikaren zapore gozoa dastatu begiradarekin inor
 bortxatu gabe.

45.

Edertasuna.
 Isilik geratzen ez direnen edertasuna.
 Konformatzen ez direnen edertasuna.
 Umiliazioa onartzen ez dutenen edertasuna.

Bortizkeria borrokatzen duen bortizkeria poetikoa:
 munduko torturatzailleak, suizidatu zaitezte!

46.

Ez naiz telebistako iragarkietan azalduko
 eta hala ere jasanezina zait gizonezkoen kolonia,
 eta gorroto ditut teniseko galtzerdi zuriak.

47.

Biluztu naiz:
 zarpaila eta sentsuala,
 beldurtia eta ausarta,
 ahula eta indartsua,
 traketsa eta abila,
 fina eta gustu txarrekoa,
 konprometitua eta ezjakina.
 Munduko itsusirik ederrena eta ederrik itsusiena.

Arraroa izan naiz beti,
 arra patua izatea ekidin nahi izanagatik.
 Arraroa eta horregatik, batzuetan,
 askea.

